



# **GRABITAZIOA ETA KOSMOLOGIA**



**JUAN M. AGUIRREGABIRIA**



# GRABITAZIOA ETA KOSMOLOGIA



Juan M. Aguirregabiria

Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Saila

## Grabitazioa eta Kosmologia

Copyright © 2010 Juan M. Agirregabiria

Copyright © 2012 UPV/EHUko Euskara Errektoreordetza

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Saila

P. K. 644, 48080 Bilbo

Telefonoa: +34 946015915

Faxa: +34 946015399

Posta elektronikoa: [juanmari.aguirregabiria@ehu.es](mailto:juanmari.aguirregabiria@ehu.es)

WWW orrialdea: <http://tp.lc.ehu.es/jma.html>

ISBN: 978-84-9860-710-9

Osorik edo zatiz, eskuz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, *Copyright*-en jabeen baimenik gabe, debekaturik dago.

LEHEN ARGITARALDIA: 2012KO URRIAREN 3A

Egileak berak konposatu du testu hau  $\text{\LaTeX} 2\varepsilon$  formatuan. Halaber, irudi gehienak Mathematica eta egilearen Dynamics Solver programen bidez marraztu dira. NASA agentziaren eta PDG taldearen doako irudi batzuk ere erabiltzen dira (ikus **xvii**. orrialdea).

---

### Azalean:

Zientzia-museoetan egon ohi den grabitazio-putzua: Eguzkiak (edo antzeko masa batek) eragindako era-karpen grabitatorioa *kualitatiboki* azaldu nahi da.

### Aurreko orrialdean:

WMAP sateliteak neurtutako mikrouhin-hondo kosmikoaren anisotropia (ikus **7.1.1** atala).

## JULENI



# HITZAURREA

«Grabitazioa eta Kosmologia» Fisikako lizentziaturaren bigarren zikloko eta graduaren hirugarren eta laugarren ikasturteetako hautazko ikasgaia da, Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Gaia, batez ere kosmologia, pil-pilean dago, azken hamarkadetan oinarri esperimentalak (sateliteen bidez egindako behaketak eta abar) zabaltzen eta sendotzen ari diren heinean. Ez da harritze-koa, beraz, gaur egun eta mundu osoan, fisikako oinarrizko titulazio guztietan gai hauei buruzko ikasgairen bat eskaintza.

Gaia oso zabala da eta 6 ECTS kredituko ikastaro batean ikus daitekeena arreta handiz aukeratu behar da. Alde batetik, kosmologia asko ikas daiteke erlatibilitate orokorra erabili gabe (horrela egiten da, adibidez, [13] testu bikainean), baina kosmologiaren azpian dagoen elkarrekintza grabitatorioaren funtsezko teoria klasikoa (eta oraindik ez daukagu grabitazio kuantikoen teoria onarturik) erlatibilitatea da. Azken teoria honekin arazo bat dago ikastaro labur batean: erabili behar den matematika benetan ederra da, baina ikasleek ez dute aldez aurretik ezagutzen. Tresna matematikoa sakonki aztertzen bada, oso denbora laburra gera daiteke grabitazioaren eta kosmologiaren fisika ikusteko.

Edukia eta maila aukeratzean hauxe izan da nire irizpide nagusia, zaletasunak alde batera utzita: fisika ikasle arruntarentzat (eta ez bakarrik geroago gai hauetaz jardun nahi duenarentzat) interesgarria eta pizgarria izatea. Horrexegatik, ikastaroan ikusiko den fisika ulertzeko behar den minimora laburtu da tresna matematikoa eta behar den heinean sartuko da eta ez, liburu gehienetan egiten den bezala, hasierako gai batean. Arrazoi beragatik, ikusten diren egiaztapen esperimentalak ez dira bilduko gai berezi batean eta ahal den bezain laster aztertuko dira. Era berean, gure titulazioan astrofisikari buruzko ikasgai bat eskaintzen denez, han aztertutako gai batzuk (hala nola, bariogenesia eta nukleosintesia) ez dira hemen ikusten. Hala ere, espero dugu testua oso erabilgarria izango dela, lehen sarrera moduan, geroago gaian sakondu nahi duenarentzat ere. Testu labur honetatik kanpo geratu diren gai interesgarri asko, liburuko gaien amaierako «Gehiago ikasteko» ataletan zerrendatzen dira, dagokien bibliografia eskuragarriarekin, gehiago ikasi nahi duen ikasleak jakin dezan nora jo.

## Notazioa eta unitate-sistema

Gure notazioa eta unitate-sistema (ikus 1.5 atalaren hasiera) bat datozi [14] *biblia beltzean* erabiltzen direnekin; baina, hemen esplizituki idazten ditugu *c* faktoreak.

## Kalkulu aljebraikoa

Erlatibilitate orokorean zenbait kalkulu (hala nola, Ricciren tentsorearena) luzeak eta aspergariak izaten dira: kalkulu aljebraikoa egiteko programa bat erabiltzeko gomendatzen diogu irakur-

leari (ikus bibliografiaren 222. orrialdea eta behean aipatzen den ikasgaiaren orrialdea). Izan ere, *Mathematica* sistemaren bidez egindako kalkulu batzuk tartekatu dira testuan, adibide moduan eta azalpena laburtzeko.

## Dokumentu elektronikoaren erabilera

Testu hau ordenagailuaren pantailan ikustean, paperezko idatzaldiak ez dituen hipertestuaren abantailak erabil daitezke. Horrela, formula bat aipatzen den bakoitzean, bere zenbakian klik eginet gero, formula dagoen orrialdea ikusiko da pantailan. Gauza bera egin daiteke irudien, taulen, atalen, erreferentzien, orrien eta orri-oinen zenbakietan, eta hatz erakuslea agertzen den bakoitzean, hala nola WWW helbide baten gainean dagoenean. Azken kasuan, Internetekin konektatuta egonez gero, dagokion orrialdea zabalduko da edo, dokumentu baten helbidearen kasuan, dokumentua ekartzeko edo zabaltzeko aukera edukiko du irakurleak.

## Huts-zuzenketa eta material osagarria

<http://tp.lc.ehu.es/jma/GK.html> orrian aurki dezakete material osagarria goian ai-paturiko ikasgaietan matrikulatutako ikasleek: ikasgaiaren programa, problema-zerrendak, liburu honen **hutsen zuzenketa**, zenbakizko simulazioak eta abar. Handik ere joan daiteke *Moodle* plataforman jarritako ikasgaiaren orrira.

## Eskerrak

Eskerrik asko Géza Tóth lagunari Eötvös izenaren idazkerari eta ahoskerari buruzko informazioagatik.

Leioa, 2010–2011 eta 2011-2012 ikasturteak.

# AURKIBIDE OROKORRA

<b>HITZAURREA</b>	<b>v</b>
Notazioa eta unitate-sistema . . . . .	v
Kalkulu aljebraikoa . . . . .	v
Dokumentu elektronikoaren erabilera . . . . .	vi
Huts-zuzenketak eta material osagarria . . . . .	vi
Eskerrak . . . . .	vi
<b>TAULEN ZERRENDA</b>	<b>xiii</b>
<b>IRUDIEN ZERRENDA</b>	<b>xvi</b>
<b>IRUDIEN KREDITUAK</b>	<b>xvii</b>
<b>I Erlatibilitate orokorrerako sarrera</b>	<b>1</b>
<b>1 Erlatibilitate berezia</b>	<b>5</b>
1.1 Minkowskiren espazio-denbora . . . . .	5
1.1.1 Lorentzen transformazioak . . . . .	5
1.2 Espazio-denborako tarteak . . . . .	7
1.2.1 Espazio motako tarteak . . . . .	8
1.2.2 Denbora motako tarteak . . . . .	9
1.2.3 Argi motako tarteak . . . . .	10
1.2.4 Argi-konoa . . . . .	11
1.2.5 Tarte infinitesimalak . . . . .	12
1.2.6 Denbora propioa . . . . .	13
1.3 Zinematika . . . . .	14
1.4 Energia-momentuaren tentsorea . . . . .	16
1.4.1 Erradiazioaren energia-momentuaren tentsorea . . . . .	18
1.4.2 Fluido perfektuaren energia-momentuaren tentsorea . . . . .	20
1.5 Elektrodinamika . . . . .	22
1.6 Kontserbazio-legeak . . . . .	24
1.7 Lorentz aldaezintasuna . . . . .	25
1.8 Gehiago ikasteko . . . . .	27
1.9 Problemak . . . . .	28

<b>2 BAliokidetasunaren printzipoia</b>	<b>35</b>
2.1 Eötvösen esperimentua . . . . .	35
2.2 Higidura hiperbolikoa . . . . .	36
2.3 Rindlerren metrika . . . . .	37
2.3.1 Denbora propia . . . . .	38
2.3.2 Horizonteak . . . . .	39
2.3.3 Metrika . . . . .	40
2.4 Metrika . . . . .	41
2.5 Konexioa . . . . .	42
2.5.1 Metrika eta konexioa . . . . .	43
2.5.2 Erreferentzia-sistema inertzial lokala . . . . .	44
2.6 Geodesikoak eta denbora propia . . . . .	45
2.7 Limite newtondarra . . . . .	46
2.8 Goriranzko lerrakuntza gravitatorioa . . . . .	47
2.9 Gehiago ikasteko . . . . .	49
2.10 Problemak . . . . .	51
<b>3 Kobariantzia orokorra</b>	<b>55</b>
3.1 Riemannen geometria . . . . .	55
3.2 Magnitude fisikoak eta eremuak . . . . .	56
3.2.1 Eskalarrauk . . . . .	56
3.2.2 Bektoreak . . . . .	56
3.2.3 Tentsoreak . . . . .	57
3.3 Deribatu kobariantea . . . . .	59
3.4 Kobariantzia orokorraren printzipoia . . . . .	60
3.5 Kurbadura-tentsorea . . . . .	61
3.6 Garraio paraleloa . . . . .	63
3.7 Geodesikoen desbideratzea . . . . .	65
3.8 Kurbadura eta koordenatuak . . . . .	66
3.9 Koordenatu-singularitateak . . . . .	67
3.9.1 Geometria eta topologia . . . . .	68
3.10 Notazio kobariantea . . . . .	70
3.11 Gehiago ikasteko . . . . .	70
3.12 Problemak . . . . .	71
<b>4 Einsteinen ekuazioak</b>	<b>77</b>
4.1 Korrespondentiaren printzipoia . . . . .	77
4.2 Ricciren eta Einsteinen tentsoreak . . . . .	78
4.3 Eremu gravitatorioaren ekuazioak . . . . .	80
4.3.1 Eremu estatiko ahularen hurbilketa . . . . .	80
4.3.2 Einsteinen ekuazioak hutsean . . . . .	80
4.3.3 Koordenatu-baldintzak . . . . .	81
4.4 Konstante kosmologikoa . . . . .	82
4.5 Higidura-ekuazioak . . . . .	83
4.6 Aldakuntza-printzipoia . . . . .	84
4.7 Gehiago ikasteko . . . . .	84
4.8 Problemak . . . . .	86

<b>5 Schwarzschilden soluzioa</b>	<b>89</b>
5.1 Birkhoffen teorema . . . . .	89
5.2 Geodesikoak . . . . .	92
5.2.1 Orbitaren ekuazioa . . . . .	93
5.3 Argi motako geodesikoak . . . . .	94
5.3.1 Goriranzko lerrakuntza grabitatorioa . . . . .	95
5.3.2 Argiaren desbideratzea . . . . .	96
5.4 Denbora motako geodesikoak . . . . .	98
5.4.1 Denbora motako geodesiko zirkularrak . . . . .	99
5.4.2 Merkurioaren perihelioaren aurreratzea . . . . .	100
5.5 Schwarzschilden erradioa . . . . .	103
5.5.1 Argi motako geodesiko erradialak . . . . .	103
5.5.2 Denbora motako geodesiko erradialak . . . . .	104
5.5.3 Marea-indarrak . . . . .	105
5.6 Eddington eta Finkelsteinen koordenatuak . . . . .	107
5.6.1 Kolapso grabitatorio esferikoa . . . . .	108
5.7 Kruskal eta Szekeresen koordenatuak . . . . .	109
5.8 Barne-soluzio esferiko estatikoak . . . . .	111
5.9 Schwarzschilden barne-soluzioa . . . . .	115
5.10 Reissner eta Nordströmen soluzioa . . . . .	117
5.10.1 Horizonteak . . . . .	120
5.11 Gehiago ikasteko . . . . .	121
5.12 Problemak . . . . .	124
<b>6 Uhin grabitatorioak</b>	<b>129</b>
6.1 Hurbilketa lineala . . . . .	129
6.1.1 Koordenatu quasi-minkowskiarak . . . . .	130
6.1.2 Geometria linealizatua . . . . .	130
6.1.3 Eremu grabitatorioaren ekuazio linealizatuak . . . . .	131
6.2 Uhin grabitatorio lauak . . . . .	132
6.3 Uhin grabitatorioen igorpena . . . . .	134
6.3.1 Sistema bikoitzen eboluzioa . . . . .	135
6.3.2 Iturri leherkorra . . . . .	136
6.4 Gehiago ikasteko . . . . .	136
6.5 Problemak . . . . .	137
<b>II Kosmologiarako sarrera</b>	<b>141</b>
<b>7 FLRW metrika</b>	<b>145</b>
7.1 Printzipo kosmologikoa . . . . .	145
7.1.1 Mikrouhin-hondo kosmikoa . . . . .	145
7.1.2 Weylen postulatua . . . . .	146
7.2 FLRW metrika . . . . .	148
7.2.1 Kurbadura konstanteko sekzio espazialen geometria . . . . .	149
7.3 Geodesikoak . . . . .	152
7.4 Goriranzko lerrakuntza kosmologikoa . . . . .	153

7.4.1	Distantzia propioa . . . . .	154
7.4.2	Argitasun-distantzia . . . . .	155
7.4.3	Hubbleren legea . . . . .	155
7.4.4	Diametro angeluarren distantzia . . . . .	156
7.5	Friedmannen ekuazioak . . . . .	157
7.5.1	Fluido kosmikoaren higidura-ekuazioak . . . . .	159
7.5.2	Egoera-ekuazioa . . . . .	159
7.6	Gehiago ikasteko . . . . .	160
7.7	Problemak . . . . .	161
<b>8</b>	<b>Eredu kosmologikoak</b>	<b>163</b>
8.1	Friedmannen ereduak . . . . .	163
8.1.1	Sekzio lauak . . . . .	164
8.1.2	Sekzio itxiak . . . . .	165
8.1.3	Sekzio irekiak . . . . .	166
8.2	Horizonteak . . . . .	167
8.2.1	Partikula-horizontea . . . . .	167
8.2.2	Gertaera-horizontea . . . . .	168
8.3	Lemaîtreren ereduak . . . . .	168
8.3.1	Einsteinen unibertso estatikoa . . . . .	169
8.3.2	Azterketa kualitatiboa . . . . .	170
8.3.3	De Sitterren unibertsoa . . . . .	171
8.3.4	Eddington eta Lemaîtreren ereduak . . . . .	171
8.3.5	Unibertsoaren adina . . . . .	173
8.4	Gehiago ikasteko . . . . .	173
8.5	Problemak . . . . .	175
<b>9</b>	<b>Unibertso primitiboa</b>	<b>177</b>
9.1	Erradiazioa . . . . .	177
9.2	Erradiazioak eta materiak menderatutako aroak . . . . .	180
9.3	Eztanda handi beroaren lehenengo teorian arazoak . . . . .	180
9.3.1	Horizontearren arazoa . . . . .	181
9.3.2	Lautasunaren arazoa . . . . .	181
9.3.3	Monopolaren arazoa . . . . .	182
9.4	Inflazioa . . . . .	182
9.5	Kosmologiaren eredu estandarra . . . . .	183
9.6	Oraindik ez dakiguna . . . . .	183
9.7	Gehiago ikasteko . . . . .	185
9.8	Problemak . . . . .	186
<b>ERANSKINAK</b>		<b>187</b>
<b>A</b>	<b>Datu-taulak eta bestelako informazioa</b>	<b>189</b>
A.1	Konstante fisikoak . . . . .	189
A.2	Astronomia-unitateak . . . . .	189
A.3	Parametro kosmologikoak . . . . .	190

---

<b>B Problemen soluzioak</b>	<b>191</b>
1. GAIA . . . . .	191
2. GAIA . . . . .	192
3. GAIA . . . . .	193
4. GAIA . . . . .	195
5. GAIA . . . . .	195
6. GAIA . . . . .	198
7. GAIA . . . . .	199
8. GAIA . . . . .	199
9. GAIA . . . . .	201
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>203</b>
<b>AURKIBIDE ALFABETIKOA</b>	<b>225</b>
<b>HIZTEGIA</b>	<b>235</b>



# **TAULEN ZERRENDA**

3.1	Zenbait ekuazio kobariante. . . . .	61
A.1	Konstante fisikoak. . . . .	189
A.2	Astronomia-unitateak. . . . .	189
A.3	Parametro kosmologikoak. . . . .	190



# IRUDIEN ZERRENDA

1.1	Bi erreferentzia-sistemetako ardatzak.	6
1.2	Espazio motako tartea.	8
1.3	Denbora motako tartea.	9
1.4	Argi motako tartea.	10
1.5	$G_0$ gertaeraren argi-konoa $\approx$ balio bakoitzeko.	11
1.6	Masadun partikula baten unibertso-lerroa.	13
1.7	Masadun partikula baten eta fotoi baten unibertso-lerroak.	14
1.8	Hautsaren partikulen eta $V$ bolumenaren eboluzioa.	17
1.9	Erradiazioaren partikulen eta $V$ bolumenaren eboluzioa.	19
1.10	Fluido perfektuaren eboluzioa eta presioa pausaguneko sistemana.	21
1.11	$V$ bolumena inguratzen duen $S$ gainazala.	25
2.1	Baliokidetasunaren printzipio ahularen egiaztapen esperimentalak	36
2.2	Behatzairen azeleratuaren higidura hiperbolikoa.	38
2.3	Baliokidetasunaren printzipioaren egiaztapen esperimentalak.	41
2.4	Uhinaren igorpena eta detekzioa.	48
2.5	Bihurdura-balantza.	51
3.1	Garraio paraleloa planoan eta gainazal esferikoan.	63
3.2	Garraio paraleloa.	64
3.3	Geodesikoen desbideratzea.	65
3.4	Konoa paper orri batez egiteko modua.	68
3.5	Bi geodesiko planoan eta konoan.	69
5.1	Simetria esferikoaren ideia.	89
5.2	Birkhoffen teorema <i>Mathematica</i> -ren bidez.	91
5.3	Potentzial eraginkorra	94
5.4	Argiaren desbideratzea.	96
5.5	Argiaren desbideratzea <i>Mathematica</i> -ren bidez.	97
5.6	Leiar grabitatorioak.	98
5.7	Perihelioaren aurreratzea <i>Mathematica</i> -ren bidez.	101
5.8	Perihelioaren aurreratzea.	102
5.9	Geodesiko nulu erradialak eta etorkizuneko argi-konoak.	104
5.10	$r(\tau)$ eta $r(t)$ eboluzioak $r_0$ -ren hiru balioetarako.	105
5.11	Marea-indarren ondorio kualitatiboak.	106
5.12	Argi-konoak Eddington eta Finkelsteinen koordenatuetaan.	108
5.13	Kolapso grabitatorioa	109
5.14	Kruskal eta Szekeresen koordenatuak.	110

5.15	Fluido-soluzioen ekuazioak <i>Mathematica</i> -ren bidez. . . . .	113
5.16	(5.118)–(5.119) emaitzak, <i>Mathematica</i> -ren bidez. . . . .	116
5.17	Maxwellen ekuazioak <i>Mathematica</i> -ren bidez. . . . .	118
5.18	Einsteinen ekuazioak <i>Mathematica</i> -ren bidez. . . . .	119
5.19	Reissner eta Nordströmen metrika Eddington eta Finkelsteinen koordenatuetan.	121
5.20	5.1 problemako konoa. . . . .	124
5.21	Flammen paraboloidea. . . . .	126
6.1	Uhin lauen bi polarizazioek proba-partikuletan duten eragina. . . . .	133
6.2	LIGO detektagailuen interferometroen eskema. . . . .	134
7.1	WMAP sateliteak egindako mikrouhin-hondo kosmikoaren neurketa. . . . .	146
7.2	Oinarrizko behatzaleak eta denbora kosmikoa. . . . .	147
7.3	Geometria koordenatu kohigikorretan. . . . .	148
7.4	Sekzio espazial esferikoa. . . . .	150
7.5	Sekzio espazial hiperbolikoa. . . . .	151
7.6	Uhin-luzera espazioarekin batera luzatzen da. . . . .	153
7.7	Argitasun-distantziaren definizioaren geometria. . . . .	155
7.8	Diametro angeluarraren distantziaren definizioaren geometria. . . . .	156
7.9	Friedmann eta Lemaîtreren ekuazioak, <i>Mathematica</i> -ren bidez. . . . .	158
8.1	Einstein eta de Sitterren unibertsoaren eboluzioa $k = 0$ denean. . . . .	165
8.2	Friedmannen unibertsoaren eboluzioa $k = 1$ denean. . . . .	166
8.3	Friedmannen unibertsoen eboluzioa. . . . .	167
8.4	Partikula- eta gertaera-horizonteen eskemak. . . . .	168
8.5	Ia supernoben itxurazko magnituddeen eta lerrakuntzen arteko erlazioa. . . . .	169
8.6	Lemaîtreren ereduen potentzial eraginkorra. . . . .	170
8.7	Eddington eta Lemaîtreren ereduen eboluzio kualitatiboa. . . . .	172
9.1	COBE sateliteak neurtutako mikrouhin-hondo kosmikoaren espektroa. . . . .	177
9.2	Azken sakabanatzearen gainazala. . . . .	178
9.3	Azken sakabanatzea. . . . .	179
9.4	Horizontearen arazoaren eskema. . . . .	181
9.5	Inflazioaren eskema. . . . .	182
9.6	Unibertsoaren historia. . . . .	184
B.1	2.7 problemaren soluzioa. . . . .	193
B.2	5.10 problemako potentzial eraginkorra. . . . .	196
B.3	5.23 problemako irudia. . . . .	197
B.4	5.38 problemaren soluzioa. . . . .	198
B.5	8.9 problemaren soluzioak zenbait kasutan. . . . .	199
B.6	8.24 problemaren soluzioak $k = 1, 0$ kasuetan. . . . .	200

# IRUDIEN KREDITUAK

Hurrengo erakundeen doako irudi batzuk erabiltzen dira testu honetan.

## NASA<sup>1</sup> Using NASA Imagery and Linking to NASA Web Sites<sup>2</sup>

### Still Images, Audio Files and Video

NASA still images, audio files and video generally are not copyrighted. You may use NASA imagery, video and audio material for educational or informational purposes, including photo collections, textbooks, public exhibits and Internet Web pages. This general permission extends to personal Web pages...

### Copyright notice<sup>3</sup>

Material credited to STScI on this site was created, authored, and/or prepared for NASA under Contract NAS5-26555. Unless otherwise specifically stated, no claim to copyright is being asserted by STScI and it may be freely used as in the public domain in accordance with NASA's contract...

## PDG<sup>4</sup> Copyright Information<sup>5</sup>

The contents of the Particle Adventure are copyright 2000 by the Particle Data Group of Lawrence Berkeley National Laboratory.

You are permitted to use images and text from this site provided you give credit to the Particle Data Group.

### Irudia      Esteka

---

i. orria	<a href="http://map.gsfc.nasa.gov/media/poster2002/WMAP_poster2002a.jpg">http://map.gsfc.nasa.gov/media/poster2002/WMAP_poster2002a.jpg</a>
5.6	<a href="http://imgsrc.hubblesite.org/hu/db/images/hs-2000-07-c-full.jpg.jpg">http://imgsrc.hubblesite.org/hu/db/images/hs-2000-07-c-full.jpg.jpg</a>
5.11	<a href="http://grin.hq.nasa.gov/IMAGES/SMALL/GPN-2000-001069.jpg">http://grin.hq.nasa.gov/IMAGES/SMALL/GPN-2000-001069.jpg</a>
7.1	<a href="http://wmap.gsfc.nasa.gov/media/101080/index.html">http://wmap.gsfc.nasa.gov/media/101080/index.html</a>
9.1	<a href="http://lambda.gsfc.nasa.gov/product/cobe/cobe_images/firas_spectrum.jpg">http://lambda.gsfc.nasa.gov/product/cobe/cobe_images/firas_spectrum.jpg</a>
9.3	<a href="http://map.gsfc.nasa.gov/media/990053/990053sb.jpg">http://map.gsfc.nasa.gov/media/990053/990053sb.jpg</a>
9.5	<a href="http://www.particleadventure.org/images/history-universe-08.jpg">http://www.particleadventure.org/images/history-universe-08.jpg</a>

(Orrialde honetako WWW esteka guztiak 2011ko urtarrilean egiaztatu dira.)

<sup>1</sup>National Aeronautics and Space Administration: <http://www.nasa.gov/>.

<sup>2</sup><http://www.nasa.gov/multimedia/guidelines/index.html>.

<sup>3</sup>[http://hubblesite.org/about\\_us/copyright.php](http://hubblesite.org/about_us/copyright.php).

<sup>4</sup>Particle Data Group of Lawrence Berkeley National Laboratory: <http://pdg.lbl.gov/>.

<sup>5</sup><http://www.particleadventure.org/copyright.html>.



**I. ZATIA**

**Erlatibilitate orokorrerako sarrera**



---

Lehenengo zati honetan Einsteinen erlatibilitate orokorraren teoria aztertuko dugu. Badaude grabitazioaren beste teoria klasiko batzuk; baina erlatibilitate orokorra da datu eta esperimentuekin bat datorrena (gainera, askoren ustez, fisikaren teoria ederrena da). Gaur egun, zenbait arrazoirengatik (energia eta materia iluna azaltzeko, partikulen fisika, eta abar), Einsteinen teoriaren aldaketak eta dimentsio gehiagorako hedapenak azterzen ari dira; baina testu honen mailatik gora daude eta, oraindik behintzat, ez dute oinarri esperimental sendorik.

*It can scarcely be denied that the supreme goal of all theory is to make the irreducible basic elements as simple and as few as possible without having to surrender the adequate representation of a single datum of experience.*

**Albert Einstein**



# 1. GAIA

## Erlatibilitate berezia

Erlatibilitate orokorrean beharko ditugun kontzeptu fisikoak eta tresna matematikoak apurka-apurka aztertzeko, erlatibilitate bereziaren emaitza batzuk berrikusiko ditugu gai honetan, notazio kobariantea erabiliz. Mekanikan eta elektromagnetismoan ikusitakoa gogora ekartzea gomendatzen zaio irakurleari. Hala ere, [214] liburutik ekarri dugu 1.2 atala, askotan ez baita ikusi bigarren mailan. Kontzeptu fisiko berri garrantzitsuena energia-momentuaren tentsorea da, bera baita grabitazioaren iturria erlatibilitate orokorrean.

### 1.1 Minkowskiren espacio-denbora

$S$  erreferentzia-sistema inertzial batean neurtutako gertaera baten osagaia  $x^\mu$  notazio laburtuaz adieraziko ditugu. Gai honetako **koordenatu minkowskiarretan**, denbora-osagaia  $x^0 = ct$  (argiaren abiadura hutsean bider denbora) izango da eta espazialak triedro batean neurtutako koordenatu cartesiarrak<sup>1</sup>:  $x^1 = x$ ,  $x^2 = y$  eta  $x^3 = z$ . Indize grekoak ( $\mu, \nu, \dots$ ) 0-tik 3-ra doaz eta latinezkoak ( $i, j, \dots$ ) 1-tik 3-ra. Hiru dimentsioko bektoreak letra lodiz idatziko dira: adibidez, posizio-bektorea  $\mathbf{x} = x \mathbf{i} + y \mathbf{j} + z \mathbf{k}$  da. Komeni denean ondoko notazio baliokideetako bat aukeratuko dugu<sup>2</sup>:

$$x^\mu = (ct, \mathbf{x}) = (ct, x^i) = (ct, x, y, z). \quad (1.1)$$

#### 1.1.1 Lorentzen transformazioak

1.1 irudiko  $S'$  erreferentzia-sistema inertziala  $x$  ardatz komunean barrena higitzen da,  $v$  abiadura konstantez,  $S$  sisteman. Bi behatzailen triedroak paraleloak dira eta jatorriak puntu berean daudenean sinkronizatzen dira erlojuak,  $t = t' = 0$  balioarekin. Bigarren behatzailen honako osagai hauek neurten ditu (1.1) gertaeran:

$$x^{\mu'} = (ct', \mathbf{x}') = (ct', x^{i'}) = (ct', x', y', z'). \quad (1.2)$$

Bi neurketen arteko erlazioa Lorentzen transformazioak emandakoa da [214]:

$$ct' = \gamma(ct - \beta x), \quad ct = \gamma(ct' + \beta x'), \quad (1.3)$$

$$x' = \gamma(x - \beta ct), \quad x = \gamma(x' + \beta ct'), \quad (1.4)$$


$$y' = y, \quad y = y', \quad (1.5)$$

$$z' = z, \quad z = z', \quad (1.6)$$

<sup>1</sup>Hemen eta liburuko hainbat puntutan goi-indizea ez da berretzaile bat, etiketa bat baizik.

<sup>2</sup>Gainera,  $f(x)$  laburpena erabiliko dugu  $f(x^\mu)$ -ren ordez.

non dimentsio gabeko  $\beta \equiv v/c$  abiadura eta Lorentzen  $\gamma \equiv (1 - \beta^2)^{-1/2}$  faktorea erabil ditugun.



### 1.1 IRUDIA Bi erreferentzia-sistemetako ardatzak.

Transformazio zuzena eta alderantzizko era laburragoan idazteko, definiratzeko ditzagun ondoko bi matrizeak<sup>3</sup>:

$$(\Lambda_\nu^{\mu'})_{\mu',\nu=0}^3 = \begin{pmatrix} \gamma & -\gamma\beta & 0 & 0 \\ -\gamma\beta & \gamma & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{pmatrix}, \quad (\Lambda_{\nu'}^\mu)_{\mu,\nu'=0}^3 = \begin{pmatrix} \gamma & \gamma\beta & 0 & 0 \\ \gamma\beta & \gamma & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{pmatrix}. \quad (1.7)$$

Hauen bidez honela idazten dira (1.3)–(1.6) transformazioak:

$$x^{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} x^\nu, \quad x^\mu = \Lambda_{\nu'}^\mu x^{\nu'}. \quad (1.8)$$

Testu osoan erabiliko dugun ondoko notazio-hitzarmenaz baliatu gara azken formulan.

#### Einsteinen batuketa-hitzarmena

- Gai batean indize bat goiko eta beheko posizioetan agertzen bada, bere balio guztiarako batuketa egiten dela ulertu behar da.*
- Deribatu baten izendatzilean dagoen goi-indize (azpiindize) bat azpiindizetzat (goi-indizetzat) ulertu behar da hitzarmen hau aplikatzean.

Horrela,  $\Lambda_\nu^{\mu'} x^\nu$  idatzi dugu  $\sum_{\nu=0}^3 \Lambda_\nu^{\mu'} x^\nu$  laburtzeko.

$v = c\beta$  abiadura erlatiboa ez badago  $x$  ardatzaren norabidean, honela idazten dira **Lorentzen transformazio bereziak** (ikus 1.7 atala),  $\gamma \equiv (1 - \beta^2)^{-1/2}$  erabiliz:

$$x^{0'} = \gamma (x^0 - \beta \cdot \mathbf{x}), \quad \mathbf{x}' = \mathbf{x} + \left( \frac{\gamma - 1}{\beta^2} \beta \cdot \mathbf{x} - \gamma x^0 \right) \beta. \quad (1.9)$$

Emaitza hau frogatzeko, 1.4 atalean eta 3. gaian orokortuko dugun arrazoibideaz baliatuko gara.

- Adierazpen horietan eskalarrak eta bektoreak (baina ez osagaia) agertzen direnez, ez dira ardatzen orientazioen menpekoak.

<sup>3</sup>Hemendik aurrera matrize karratu baten elementuaren goiko (edo lehen) indizea errenkadari dagokio eta beheko (edo bigarrena) zutabeari. Gainera, askotan  $\Lambda_\nu^{\mu'}$  edo  $(\Lambda_\nu^{\mu'})$  idatziko dugu  $(\Lambda_\nu^{\mu'})_{\mu',\nu=0}^3$  laburtzeko.

- Ondorioz, triedroak biratzen badira  $OX$  eta  $O'X'$  ardatzak abiadura erlatiboaren norabidean egoteko moduan, (1.9) adierazpenak ez dira aldatzen eta 1.1 irudiko aukeran gaude.
- Baino, hor (1.9) adierazpenen osagaiak (1.3)–(1.6) dira.
- Ondorioz, adierazpen eskalarra eta bektoriala triedroen beste orientazio guztieta ere betetzen dira.

Hortaz, (1.9) adierazpenak erabiltzeko, bi sistemako triedroek ez dute zertan paraleloak izan eta abiadura erlatiboa edozein norabidetan egon daiteke (baina  $t' = t = 0$  unean bi jatorriek puntu berean egon behar dute: ikus 1.1 problema). Bestalde, (1.9) transformazioak linealak direnez, (1.8) eran idatz daitezke,  $\Lambda_\nu^{\mu'}$  edo  $\Lambda_\nu^\mu$  matrize egokiaren bidez (ikus 1.2 problema). Hemendik aurrera, matrize orokor horiek izan daitezke  $\Lambda_\nu^{\mu'}$  edo  $\Lambda_\nu^\mu$  notazioaz idatzitakoak.

Aurkako transformazioei dagokienez, elkarren aurkakoak dira (1.8) transformazioetako matrizeak<sup>4</sup>:

$$\Lambda_\nu^{\mu'} \Lambda_{\rho'}^\nu = \delta_{\rho'}^{\mu'}, \quad \Lambda_{\nu'}^\mu \Lambda_\rho^{\nu'} = \delta_\rho^\mu, \quad (1.10)$$

non Kroneckerren delta erabili dugun identitatearen elementuak adierazteko: 1 da bi indizeak berdinak badira eta 0 bestela. (1.8) transformazio-legearen ondorioz hauxe dugu:

$$\Lambda_\nu^{\mu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\nu}, \quad \Lambda_{\nu'}^\mu = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\nu'}}. \quad (1.11)$$

## 1.2 Espazio-denborako tarte

Izan bitez  $x_1^\mu$  eta  $x_2^\mu$  gertaerak. Bien arteko denbora-tartea eta posizio erlatiboa biltzen dituen differentzia hauxe da:

$$\Delta x^\mu = (c\Delta t, \Delta \mathbf{x}) \equiv x_2^\mu - x_1^\mu = (c(t_2 - t_1), \mathbf{x}_2 - \mathbf{x}_1). \quad (1.12)$$

Lorentzen (1.8) transformazioak linealak direnez, era berean transformatzen dira kendurak:

$$\Delta x^{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} \Delta x^\nu, \quad \Delta x^\mu = \Lambda_{\nu'}^\mu \Delta x^{\nu'}. \quad (1.13)$$

Bi gertaera horien arteko **espazio-denborako tarte** honela definitzen da:

$$\Delta s^2 \equiv -c^2 \Delta t^2 + \Delta \mathbf{x}^2 = -c^2 \Delta t^2 + \Delta x^2 + \Delta y^2 + \Delta z^2. \quad (1.14)$$

Nahiz eta karratu moduan idatzi, argi dago  $\Delta s^2$  delakoa positiboa, negatiboa zein nulua izan daitzeela. Bi gertaerak aldiberekoak badira ( $\Delta t = 0$ ), espazio-denborako tarte ohiko distantziara laburten da:  $\Delta s = |\Delta \mathbf{x}| \geq 0$ . Bi gertaerak puntu berean jazotzen badira ( $\Delta \mathbf{x} = 0$ ), denbora-tarte berreskuratzen dugu:  $\Delta t = \pm \sqrt{-\Delta s^2}/c$ .

Espazio-denborako tarteen propietate nagusia absolutuak izatea da. (**Eskalarra** dela esango dugu hurrengo ataletan, lau dimensioko notazio kobariantean.)

**1.1 ARIKETA** Erabili Lorentzen (1.9) transformazioak bi gertaerak definitutako espazio-denborako tartea **aldaezin erlatibista** dela —hau da, erreferentzia-sistema inertzial guztieta balio bera duela— frogatzeko:

$$\Delta s^2 = -c^2 \Delta t^2 + \Delta x^2 + \Delta y^2 + \Delta z^2 = -c^2 \Delta t'^2 + \Delta x'^2 + \Delta y'^2 + \Delta z'^2. \quad (1.15)$$


$\Delta s^2$ -ren zeinuaren arabera hirutan sailkatzen dira bi gertaeraren arteko espazio-denborako tarteak, jarraian ikusten den moduan.

<sup>4</sup>Erabilitako koordenatuak adierazten dituzte primek, baina  $\delta_{\nu'}^{\mu'} = \delta_\nu^\mu$  eta  $\eta_{\mu'\nu'} = \eta_{\mu\nu}$ .

### 1.2.1 Espazio motako tarteak

Bi gertaeraren arteko espazio-tartea denbora-tartea baino handiagoa ( $|\Delta x| > c |\Delta t|$ ) denean,  $\Delta s^2 > 0$  dugu. Analisia errazteko (ondorioak aldatu gabe) aukera dezagun  $OX$  eta  $OX'$  ardatzen norabide komuna  $\Delta y = \Delta z = 0$  izateko moduan. Orduan  $|\Delta x| > c |\Delta t|$  eta

$$\Delta s^2 = \Delta x^2 - c^2 \Delta t^2 > 0 \iff \left| \frac{\Delta x}{\Delta t} \right| > c. \quad (1.16)$$



1.2 IRUDIA Espazio motako tarteak<sup>5</sup>.

Orain,

$$v_e \equiv \frac{c^2}{\frac{\Delta x}{\Delta t}} \quad (1.17)$$

definitzten badugu,

$$|v_e| < c \quad (1.18)$$

da. Hasierako  $S$  sistemarekiko  $v$  abiaduraz higitzen den sisteman

$$\Delta t' = \gamma \left( \Delta t - \frac{v}{c^2} \Delta x \right) = \gamma \Delta t \left( 1 - \frac{v}{v_e} \right) \quad (1.19)$$

dugu eta,  $v$  abiadura erlatiboa behar bezala aukeratuz, baina beti  $|v| < c$  baldintza errespetatuz,  $\Delta t'$  tarta positiboa, negatiboa zein nulua izatea lor daiteke. Ondorioz, konsideratzen diren bi gertaeraren arteko erlazioa espazio motakoa bada, beti aurki daiteke erreferentzia-sistema inertzial bat (irudiko  $S'$  sistema, hain zuen) bi gertaerak aldigerekoak izateko moduan. Era berean, lehen gertaera bigarrena baino lehenago edo beranduago jazotzeko moduan aukera dezakegu erreferentzia-sistema.

Bi gertaeraren denbora-ordena, beraz, ez da absolutua, erreferentzia-sistemaren menpekoa bai-zik. Kausalitatea gorde nahi bada, zergatiak ondorioa baino lehenago gertatu behar du erreferentzia-sistema guztietan eta, hortaz, ezin egon daiteke erlazio kausalik bi gertaeraren artean,

<sup>5</sup>Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/mekanika/erlatibilitatea/minkowski.html> orrialdeko simulazioa.


tarteak espazio motakoa bada. Hau bermatzeko, *elkarrekintza kausala ezin hedatikela c baino abiadura handiagorekin* suposatzen da beti. Izan ere, hipotesi honekin ez dago erlazio honetako bi gertaera lot litzakeen elkarrekintza kausalik, zeren (1.16) hipotesiaren ondorioz batetik bestera joateko  $c$  baino abiadura handiagoz hedatu beharko bailuke.

**1.2 ARIKETA** Frogatu horrelako bi gertaeraren arteko ordena espaziala ezin alda daitekeela erreferentzia-sistema aldatz eta, bereziki, ezin gerta daitezkeela puntu berean.

### 1.2.2 Denbora motako tarteak

Denbora-tarteak espaziala baino handiagoa ( $c|\Delta t| > |\Delta x|$ ) denean,  $\Delta s^2 < 0$  dugu. Berriro ere,  $\Delta y = \Delta z = 0$  direla joz,  $|\Delta x| < c|\Delta t|$  dugu eta, ondorioz,

$$\Delta s^2 = \Delta x^2 - c^2 \Delta t^2 < 0 \quad \iff \quad \left| \frac{\Delta x}{\Delta t} \right| < c. \quad (1.20)$$



1.3 IRUDIA Denbora motako tarteak<sup>6</sup>.

Orain,

$$v_e \equiv \frac{\Delta x}{\Delta t} \quad (1.21)$$

definitzen badugu,

$$|v_e| < c \quad (1.22)$$

betetzen da. Hasierako  $S$  sistemarekiko  $v$  i abiaduraz higitzen den sisteman

$$\Delta t' = \gamma \left( \Delta t - \frac{v}{c^2} \Delta x \right) = \gamma \Delta t \left( 1 - \frac{v v_e}{c^2} \right) \quad (1.23)$$

dugu eta,  $v$  abiadura erlatiboak  $|v| < c$  baldintza betetzen badu,

$$\gamma \left( 1 - \frac{v v_e}{c^2} \right) > 0 \quad (1.24)$$

<sup>6</sup>Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/mekanika/erlatibitatea/minkowski.html> orrialdeko simulazioa.

da eta  $\Delta t$ -ren zeinua berbera sistema guztieta. Ez dago, beraz, denbora-ordena aldatzerik eta, bereziki, horrelako bi gertaera ez dira aldiberekooak ezein erreferentzia-sistematan. (Azken hau honela ere ikusten da: sistema batean aldiberekooak balira, han  $\Delta t = 0$  eta  $\Delta s^2 = |\Delta \mathbf{x}|^2 > 0$  lirateke eta tartea espazio motakoa, nahitaez.)

Bestalde, *erreferentzia-sistemen arteko abiadura erlatiboaren modulu c baino txikiagoa denez*, sistema guztieta lehenago jazotzen den gertaeratik bestera  $|\Delta x / \Delta t| < c$  abiaduraz hedatzen den seinale bat bidal daiteke eta, hortaz, lehenengoa bigarrenaren zergatia izatea ez lihoake kausitatearen printzipioaren kontra.


**1.3 ARIKETA** Frogatu horrelako bi gertaeraren arteko ordena espaziala aldatu ahal dela erreferentzia-sistema egokia aukeratuz eta, bereziki, puntu berean gerta daitezkeela.

### 1.2.3 Argi motako tarreak

Espazio- eta denbora-tarreak berdinak ( $|\Delta \mathbf{x}| = c |\Delta t|$ ) direnean,  $\Delta s^2 = 0$  dugu. Gainera,  $\Delta y = \Delta z = 0$  denean,  $|\Delta x| = c |\Delta t|$  eta

$$\Delta s^2 = \Delta x^2 - c^2 \Delta t^2 = 0 \iff \left| \frac{\Delta x}{\Delta t} \right| = c \quad (1.25)$$

dugu. Espazio-denborako tarrea **nula** dela ere esaten da.



1.4 IRUDIA Argi motako tarrea<sup>7</sup>.

Berriro

$$v_e \equiv \frac{\Delta x}{\Delta t} \quad (1.26)$$

definitzen badugu,

$$|v_e| = c \quad (1.27)$$

<sup>7</sup>Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/mekanika/erlatibilitatea/minkowski.html> orrialdeko simulazioa.

betetzen da. Hasierako  $S$  sistemarekiko  $v$  i abiaduraz higitzen den sisteman

$$\Delta t' = \gamma \left( \Delta t - \frac{v}{c^2} \Delta x \right) = \gamma \Delta t \left( 1 - \frac{vv_e}{c^2} \right) \quad (1.28)$$

dugu eta,  $v$  abiadura erlatiboak  $|v| < c$  baldintza betetzen badu,  $\Delta t$ -ren zeinua berbera da sistema guztietan. Ez dago, beraz, denbora-ordena aldatzerik eta, bereziki, bi gertaerak ez dira aldiberekoak izango ezein erreferentzia-sisteman.

Gainera, sistema guztietan lehenago jazotzen den gertaeratik bestera seinale bat bidal daiteke  $|\Delta x/\Delta t| = c$  abiadurarekin (argiaren bidez edo). Ondorioz, erlazio kausala egon liteke kasu honetan bi gertaeren artean kausalitatearen printzipioa hondatu gabe.

**1.4 ARIKETA** Frogatu horrelako bi gertaeraren ordena espaziala ezin alda daitekeela erreferentzia-sistema aldatuz eta ezin gerta daitezkeela puntu beraen.

### 1.2.4 Argi-konoa

$G_0 = (ct_0, x_0, y_0, z_0)$  gertaera batekin batera espazio-denborako tarte nulu bat osatzen duten puntuengoko leku geometrikoa  $G_0$ -ren argi-konoa deitzen da eta erreferentzia-sistema inertzial guztietan  $\Delta s^2 = 0$  ekuazioak emandakoa da:

$$(x - x_0)^2 + (y - y_0)^2 + (z - z_0)^2 = c^2 (t - t_0)^2. \quad (1.29)$$


Bi dimentsioko irudietan,  $\pm 1$  maldako bi lerro elkarzutzen bidez adierazten dugu  $G_0$  gertaeraren argi-konoa,  $(ct, x)$  planoan  $\Delta y = \Delta z = 0$  eginez lorturiko proiekzioa

$$(x - x_0)^2 = (ct - ct_0)^2 \quad (1.30)$$

baita.  $\Delta z = 0$  soilik egiten badugu,

$$(x - x_0)^2 + (y - y_0)^2 = (ct - ct_0)^2 \quad (1.31)$$

ekuazioak 1.5 irudiko konoa definitzen du  $(ct, x, y)$  espazioan.



1.5 IRUDIA  $G_0$  gertaeraren argi-konoa  $z$  balio bakoitzeko.

Kasu orokorrean, (1.29) ekuazioak hiru dimentsioko (hiper)kono bat definitzen du  $(ct, x, y, z)$  espazio-denboran, baina ezin da hau bi dimentsiotan marraztu.

Goiko konoerdia **etorkizuneko argi-kinoa** da eta  $G_0$ -ren etorkizun absolutua definitzen du: bere azalean eta barruan dauden gertaera guztiak  $G_0$  baino beranduago jazotzen dira erreferentzia-sistema inertzial guztieta eta  $G_0$ -ren ondorioak izan daitezke,  $G_0$ -tik bidalitako seinaleren bat jaso baitezakete. Konsidera dezagun  $G_0$  gertaeran igorritako argi-pultsu bat. Norabide guztieta igorritako fotoiak  $t$  aldiunean (1.29) ekuazioak definituriko argi-konoaren gainazal esferikoan egongo dira:  $t$  aldatzean argiaren uhin-frontearen eboluzio osoa emango du ekuazio horrek. Beraz, etorkizuneko argi-kinoa  $G_0$  gertaeran igorritako fotoien unibertsos-lerroen multzoa da.

Behoko konoerdia **iraganeko argi-kinoa** da eta  $G_0$ -ren iragan absolutua definitzen du: bere azalean eta barruan dauden gertaera guztiak  $G_0$  baino lehenago jazo dira erreferentzia-sistema inertzial guztieta eta  $G_0$ -ren zergatia izan daitezke, eurek bidalitako seinaleren bat jaso baitaiteke  $G_0$ -n. Izan ere, iraganeko argi-kono hau,  $G_0$  gertaeran detektatzen diren fotoi guztien unibertsos-lerroen multzoa da. Argi dago, bestalde,  $G_0$  gertaera iraganeko (etorkizuneko) argi-konoko puntu guztien etorkizuneko (iraganeko) argi-konoetan dagoela.

Argi-konotik kanpoko gertaerak  $G_0$  baino lehenago, beranduago edo aldi berean jazotzen dira erreferentzia-sistema desberdinan. Beraz, ez dute inolako erlazio kausalik gertaera harekin. Kontuan hartu behar da Minkowskiren diagrametan  $ct$  erabiltzen dugula ardatz bertikalean eta, ondorioz, eskalak ez direla ohiko esperientzian erabiltzen ditugunak: segundo bat argi-segundo bat (hau da, ia 300 000 km) dagokio! Ez da harritzeko, beraz, gure eguneroko esperientzian etorkizuna eta iragana ez dena oraina izatea, gure erreferentzia-sisteman aldiberekoak ez diren argi-konotik kanpoko gertaera gehienak oso-oso urrun baitaude. Kosmologia egitean, berriz, distantzia eta denbora-tarte handiak aztertu behar dira eta argi-konoek definituriko kausalitate-mugak kontuan hartu beharko ditugu (erlatibilitate orokorraren ondorioekin batera).

## 1.2.5 Tarte infinitesimalak

Bi gertaera oso hurbil badaude espazioan eta denboran, bien arteko espazio-denborako tarte infinitesimala eta absolutua izango da:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dx^2 + dy^2 + dz^2 = -c^2 dt'^2 + dx'^2 + dy'^2 + dz'^2. \quad (1.32)$$

Tarte infinitesimalak finituak bezala transformatzen dira:

$$dx^{\mu'} = \Lambda_{\nu}^{\mu'} dx^{\nu} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^{\nu}} dx^{\nu}, \quad dx^{\mu} = \Lambda_{\nu'}^{\mu} dx^{\nu'} = \frac{\partial x^{\mu}}{\partial x^{\nu'}} dx_{\nu'}. \quad (1.33)$$

### Minkowskiren metrika<sup>8</sup>

$$\eta_{\mu\nu} = \eta_{\mu'\nu'} = \begin{pmatrix} -1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{pmatrix} \quad (1.34)$$

moduan definitzen badugu, *erreferentzia-sistema inertzial guztieta*, honela idazten da espazio-denborako tarte infinitesimala:

$$ds^2 = \eta_{\mu\nu} dx^{\mu} dx^{\nu} = \eta_{\mu'\nu'} dx^{\mu'} dx^{\nu'}. \quad (1.35)$$

<sup>8</sup>Gogoratu 6. orrialdeko oin-oharra.

**1.5 ARIKETA** Frogatu espazio-denborako  $ds^2$  tartearen aldaezintasuna Minkowskiren metrikan aldaezintasunaren baliokidea dela, hurrengo adierazpenetan primak kendu daitezkeelako Minkowskiren metrikaren indizeetatik:

$$\eta_{\mu'\nu'} = \Lambda_\mu^\rho \Lambda_\nu^\sigma \eta_{\rho\sigma} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} \eta_{\rho\sigma}, \quad \eta_{\mu\nu} = \Lambda_\mu^{\rho'} \Lambda_\nu^{\sigma'} \eta_{\rho'\sigma'} = \frac{\partial x^{\rho'}}{\partial x^\mu} \frac{\partial x^{\sigma'}}{\partial x^\nu} \eta_{\rho'\sigma'}. \quad (1.36)$$


Lorentzen (1.9) transformazio bereziak ez dira  $ds^2$  aldatu gabe uzten duten guztiak. Argi dago gauza bera gertatzen dela triedro baten edo denbora baten jatorria aldatzen bada. Izan ere, 1.7 atalean frogatuko dugun bezala, erreferentzia-sistema inertzialen arteko (1.9) transformazioak, translazio temporalak eta espazialak, biraketak eta denboraren eta espazioaren inbertsioak konbinatuz lortzen dira (1.35) espazio-denborako tarteak aldatu gabe uzten duten transformazio lineal guztien multzoa, **Poincaréren taldea** deitzen dena. Hemendik aurrera, talde horretako bat izango da  $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  transformazioa eta  $\Lambda_\nu^{\mu'} = \partial x^{\mu'}/\partial x^\nu$  eta  $\Lambda_\nu^\mu = \partial x^\mu/\partial x^{\nu'}$  matrizeak konstanteak (ikus 1.7 atala).

### 1.2.6 Denbora propioa

Partikula (edo erloju) baten unibertso-lerroa  $x^\mu(\sigma)$  ekuazio parametriko egokiek emandakoa izango da, erreferentzia-sistema inertzial batean ( $\sigma$  parametroa edonolokoa izan daiteke: sistema inertzialaren  $t$  denbora, beheko denbora propioa, ...). Unibertso-lerroko  $x^\mu$  eta  $x^\mu + dx^\mu$  gertaera hurbilen arteko espazio-denborako tarteak

$$ds^2 = \eta_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu = -c^2 dt^2 + d\mathbf{x}^2 = -(c^2 - \mathbf{v}^2) dt^2 < 0 \quad (1.37)$$

da, sistema inertzialean neurtutako partikularen abiadura  $\mathbf{v}$  bada,  $d\mathbf{x} = \mathbf{v} dt$  baita eta abiadura eskalarra  $|\mathbf{v}| < c$ . *Denbora motakoa da masadun partikula baten unibertso-lerroa eta beti dago bere gertaera guztien etorkizuneko eta iraganeko konoen barruan*, 1.6 irudian erakusten den bezala, zeren unibertso-lerroaren maldaren balio absolutua  $|c/v| > 1$  baita.



**1.6 IRUDIA** Masadun partikula baten unibertso-lerroa, bi gertaeraren argi-konoak eta  $P$ -ren aldiuneko pausaguneko erreferentzia-sistema inertziala.

Partikula azeleratua bada, ez dago beti geldi ezein erreferentzia-sistema inertzialetan, baina une bakoitzean partikularen abiadurarekin higitzen den **aldiuneko pausaguneko erreferentzia-sistema inertziala** aukera daiteke,  $(ct, \mathbf{x}^*)$  koordenatuak onartzen dituena. Han une horretan


partikula geldi dagoenez,  $\mathbf{v}^* = 0$  eta  $ds^2 = -c^2 d\tau^2$  dugu eta hortik lortzen da partikularen unibertso-lerroan barrena neurtutako denbora propioa<sup>9</sup>:

$$d\tau = \frac{\sqrt{-ds^2}}{c}. \quad (1.38)$$

Jakina, denbora propio hori ez da  $ds^2$  neurtzeko erabilitako erreferentzia-sistemaren menpekoa: absolutua, **eskalarra** da. Ondorioz, hauxe da sistema inertzial batean partikularen unibertso-lerroan barrena neurtutako  $dt$  denbora-tarte infinitesimalarekin duen erlazioa:

$$ds^2 = -c^2 d\tau^2 = -c^2 \left(1 - \frac{\mathbf{v}^2}{c^2}\right) dt^2 \iff dt = \frac{d\tau}{\sqrt{1 - \mathbf{v}^2/c^2}} \geq d\tau. \quad (1.39)$$

**Denboraren zabalkuntza** ezaguna dugu hau: denbora propioaren tartea beti da higitzen ari den sistemaren neurtutakoa baino laburragoa.  $d\tau$  ekarpen infinitesimal horiek unibertso-lerroan barrena integratuz lortzen dira denbora propioaren tarte finituak.



1.7 IRUDIA Masadun partikula baten eta fotoi baten unibertso-lerroak,  $y = z = 0$  planoan.

Masa gabeko partikulen (fotoien) unibertso-lerroak zuzen nuluak, argi motakoak, dira, haientan barrena  $ds^2 = 0$  baita: ezin defini daiteke horrelako partikulen denbora propioa, ez baitaude geldi ezein erreferentzia-sisteman.

## 1.3 Zinematika

Eman dezagun masadun partikula baten unibertso-lerroa partikularen denbora propioaz parametrizatzen dugula erreferentzia-sistema inertzial batean:  $x^\mu(\tau)$ . Honela definitzen da partikula-

<sup>9</sup>Batzuetan **erlojuen hipotesia** deritzo honi: erloju azeleratu batek eta sistema inertzial batekoek neurtutako denbora-tarteen arteko erlazioa ez da (zuzenean) azelerazioaren menpekoa, baizik eta (denboraren zabalkuntzaren ondorioz) une bakoitzean neurtutako abiadura erlatiboaren funtzio hutsa. Adibidez, azeleragailuetan egiaztatzen da behin eta berriro hipotesi hau, partikula azeleratu erradioaktiboen erdi-bizitza neurtzean.

ren **abiadura**<sup>10</sup>:

$$u^\mu \equiv \frac{dx^\mu}{d\tau} = \left( c \frac{dt}{d\tau}, \frac{d\mathbf{x}}{d\tau} \right) = \gamma(c, \mathbf{v}), \quad \mathbf{v} \equiv \frac{d\mathbf{x}}{dt}, \quad \gamma \equiv \left( 1 - \frac{\mathbf{v}^2}{c^2} \right)^{-1/2}. \quad (1.40)$$

**1.6 ARIKETA** Erabili (1.39) emaitza azken berdintza frogatzeko eta (1.33) transformazioak, abiadura modu berean transformatzen dela ondorioztatzeko:

$$u^{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} u^\nu = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\nu} u^\nu, \quad u^\mu = \Lambda_\nu^\mu u^{\nu'} = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\nu'}} u^{\nu'}. \quad (1.41)$$

Oro har, era honetan transformatzen den  $a^\mu \equiv (a^0, a^1, a^2, a^3)$  multzo bat, **bektore kontrabariantea** dela esango dugu:

$$a^{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} a^\nu = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\nu} a^\nu, \quad a^\mu = \Lambda_\nu^\mu a^{\nu'} = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\nu'}} a^{\nu'}. \quad (1.42)$$

Minkowskiren (1.34) metrika erabiliz, hauxe dugu:

$$\eta_{\mu\nu} u^\mu u^\nu = -c^2. \quad (1.43)$$

Jakina, emaitza hau ez da erreferentzia-sistema inertzialaren menpekooa, eskuinaldea aldaezin erlatibista (eskalar) bat baita.

Azken adierazpenaren ildotik, bi bektoreren arteko **biderkadura eskalarra** honela definitzen da:

$$\eta_{\mu\nu} a^\mu b^\nu = -a^0 b^0 + a^1 b^1 + a^2 b^2 + a^3 b^3 = -a^0 b^0 + \mathbf{a} \cdot \mathbf{b}. \quad (1.44)$$

Gainera,  $a^\mu$  bektore kontrabariante bakoitzari, honela definitutako **bektore kobariante** bat egokitzten zaio:

$$a_\mu \equiv \eta_{\mu\nu} a^\nu = (a_0, a_1, a_2, a_3) = (-a^0, a^1, a^2, a^3) = (-a^0, \mathbf{a}). \quad (1.45)$$

**1.7 ARIKETA** Egiaztatu biderkadura eskalarra ez dela erreferentzia-sistemaren menpekooa (horrexegatik da *eskalarra*) eta hauxe dela bektore kobarianteen transformazioa:

$$a_{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} a_\nu = \frac{\partial x^\nu}{\partial x^{\mu'}} a_\nu, \quad a_\mu = \Lambda_\nu^\mu a_{\nu'} = \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\mu} a_{\nu'}. \quad (1.46)$$

Bektore kobarianteak erabiliz, honela ere kalkula daiteke biderkadura eskalarra:

$$\eta_{\mu\nu} a^\mu b^\nu = a_\mu b^\mu = a^\mu b_\mu = a^{\mu'} b_{\mu'}. \quad (1.47)$$

Ohiko biderkatze eskalarra bezala, hau ere trukakorra da,  $a_\mu b^\mu = b_\mu a^\mu$ , baina —ohiko espazio euklidearrekoa ez bezala— ez da definitua,  $a_\mu a^\mu$  positiboa, negatiboa zein nulua izan baitaiteke.

Partikularen **momentu lineala** ondoko bektore kontrabariantea da:

$$p^\mu \equiv m u^\mu = m \frac{dx^\mu}{d\tau} = \left( \frac{E}{c}, \mathbf{p} \right), \quad (1.48)$$

non, (1.40) abiaduraren egituraren ondorioz, pausaguneko energiaren eta energia zinetikoaren batura  $E = m\gamma c^2$  den eta hiru dimentsioko momentu lineal erlatibista  $\mathbf{p} = m\gamma d\mathbf{x}/dt$ .

<sup>10</sup> Askotan **tetrabekture**, **tetraabiadura**, **tetramomentu** eta antzeko izenak erabiltzen dira lau dimentsioko espazio-denboran definitutako bektoreak izendatzeko. Gure bektoreak, gehienetan, lau dimentsiokoak izango direnez, ez dugu aurritzki hori erabiliko; baina notazioak argi adieraziko du dimentsioen kopurua: adibidez, lau dimentsioko abiadura  $u^\mu$  da eta hiru dimentsiokoa  $\mathbf{v}$ .

**1.8 ARIKETA** Egiaztatu

$$mc^2 = -u_\mu p^\mu, \quad p_\mu p^\mu = -m^2 c^2 \quad (1.49)$$

emaitzak eta azkena ondoko aldaezin erlatibista ezagunaren baliokidea dela:

$$m^2 c^4 = E^2 - c^2 \mathbf{p}^2. \quad (1.50)$$

Fotoi baten kasuan, masa gabekoa denez,  $p_\mu p^\mu = 0$  dugu:  $p^\mu = (E/c, \mathbf{p})$  momentua bektore nulua da. Gainera, mekanika kuantikoari esker, badakigu  $E = c|\mathbf{p}| = h\nu$  dela, fotoaren maiztasuna  $\nu$  bada. Fotoiak ez du denbora propiorik eta ezin da (1.40) erabili haren abiadura definitzeko; horren ordez, hauxe dugu:

$$\mathbf{v} = \frac{d\mathbf{x}}{dt} = c \frac{\mathbf{p}}{|\mathbf{p}|} = \frac{c^2 \mathbf{p}}{E}, \quad |\mathbf{v}| = c. \quad (1.51)$$

(Ohar zaitez  $\mathbf{v} = c^2 \mathbf{p}/E$  erlazioa masa gabeko eta masadun partikulen kasuetan betetzen dela.)

**1.9 ARIKETA** Egiaztatu masa gabeko partikulen kasuan, unibertso-lerroa  $x^\mu(\sigma)$  moduan idazten bada,  $\sigma$  parametro baten funtzioan, hauxe dugula:

$$\eta_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0. \quad (1.52)$$

Partikula baten azelerazioa honela definitutako bektorea da:

$$a^\mu \equiv \frac{du^\mu}{d\tau} = \frac{d^2 x^\mu}{d\tau^2}. \quad (1.53)$$

1.9 probleman frogatuko dugun bezala, abiadura eta azelerazioa ortogonalak dira:


$$u_\mu a^\mu = 0. \quad (1.54)$$

## 1.4 Energia-momentuaren tentsorea<sup>11</sup>

Kontsidera dezagun presio gabeko fluido perfektu bat. Elkarrekintzarik gabeko partikula sorta baten baliokidea da eta, kosmologian, **hautsa** esaten zaio askotan. Gertaera bakoitzean  $u^\mu(x)$  abiadura-eremua definitzen du hortik une horretan pasatzen den partikularen abiadurak. Partikula horren *aldiuneko pausaguneko sisteman neurrtutako* masa-dentsitatea  $\rho(x)$  eremu eskalarra da eta pausaguneko energiaren dentsitatea  $\rho(x)c^2$ .

**1.10 ARIKETA** Zergatik da eskalarra  $\rho(x)$  magnitudea?

<sup>11</sup>Minkowskik sartu zuen energia-momentuaren tentsorea, eremu elektromagnetikoaren kasuan, eta Lauek orokortu zuen kontzeptua eremu guztietaera. Einsteinen eta Kleinen lanei esker burutu zen atal honetako azterketa [112].



**1.8 IRUDIA** Hautsaren partikulen eta  $V$  bolumenaren eboluzioa  $dy = dz = 0$  planoetan.

Honela definitzen da hautsaren energia-momentuaren tentsorea:

$$T^{\mu\nu} \equiv \rho u^\mu u^\nu. \quad (1.55)$$

**Tentsore kontrabariantea** dela esaten dugu, (1.41)-ren ondorioz honela transformatzen baita:

$$T^{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} T^{\rho\sigma}. \quad (1.56)$$

Ageri denez, simetrikoa da tentsore hau:  $T^{\mu\nu} = T^{\nu\mu}$ .

**1.11 ARIKETA** Metrikaren alderantzikoa  $\eta^{\mu\nu}$  eran idazten da:

$$\eta^{\mu\nu} \eta_{\nu\lambda} = \eta_{\lambda\rho} \eta^{\rho\mu} = \delta_\lambda^\mu. \quad (1.57)$$

Egiaztatu  $\eta^{\mu\nu}$  tentsore simetriko kontrabariantea dela eta  $(\eta^{\mu\nu}) = (\eta_{\mu\nu})$ .

Kontsidera dezagun  $dV^*$  bolumen propioko elementu infinitesimal batean dagoen energia (aukeratutako sistema inertzialean neurua):  $dE = (\rho dV^*)\gamma c^2$ . Lorentz eta FitzGeralden uzkur-duraren ondorioz, sistema inertzialean elementuaren bolumena  $dV = dV^*/\gamma$  denez, energiaren dentsitatea  $\mathcal{E} = dE/dV = \rho\gamma^2c^2$  da; baina horixe da  $T^{00} = \rho\gamma^2c^2$  osagaia:

$$T^{00} = \text{energiaren dentsitatea.} \quad (1.58)$$

Momentu linealaren dentsitatea  $d\mathbf{p}/dV = \rho\gamma^2\mathbf{v}$  da eta energiaren korrontea  $\mathbf{J}_E = \rho\gamma^2c^2\mathbf{v}$ : hau da,  $d\mathbf{S}$  gainazal infinitesimaletik denbora-unitatean pasatzen den energia  $\mathbf{J}_E \cdot d\mathbf{S}$  da (ikus 1.12 problema). Hortaz,  $T^{0i} = T^{i0} = \rho\gamma^2cv^i$  denez,

$$\begin{aligned} T^{i0} = T^{0i} &= c \times \text{momentu linealaren dentsitatearen } i \text{ osagaia} \\ &= \frac{\text{energiaren korrontearren } i \text{ osagaia}}{c}. \end{aligned} \quad (1.59)$$

Arrazoi beragatik, momentu linealaren  $i$  osagaiaren korrontearren  $j$  osagaia  $\rho\gamma^2v^iv^j = T^{ij} = T^{ji}$  da. Momentu linealaren denbora-unitateko transferentzia indarra denez, hauxe da  $T^{ij} = T^{ji}$  elementua:  $j$  ardatzarekiko perpendikularra den gainazal infinitesimalaren alde negatiboan dagoen

materiak (eta, oro har, eremuek) alde positiboan dagoenaren gainean egindako azalera-unitateko indarraren  $i$  osagaia. Hortaz, hiru dimentsioko **esfortzu-tentsorea**<sup>12</sup> da  $T^{ij}$ . Izan ere, hiru dimentsioko tentsorea da,  $(t, x^i) \rightarrow (t, x^{i'})$  espazio-transformazioetan hauxe baitugu:

$$T^{i'j'} = \frac{\partial x^{i'}}{\partial x^k} \frac{\partial x^{j'}}{\partial x^l} T^{kl}, \quad (t' = t). \quad (1.60)$$

$$\begin{aligned} T^{ij} &= T^{ji} = \text{momentu linealaren } i \text{ osagaiaren korrontearren } j \text{ osagaia} \\ &= \text{esfortzu-tentsorearen } (i, j) \text{ osagaia.} \end{aligned} \quad (1.61)$$

**1.12 ARIKETA** Frogatu  $T^{\mu\nu}$  tentsore kontrabariantearen eta  $a_\mu$  eta  $b_\nu$  bektore kobarianteen arteko  $T^{\mu\nu}a_\mu b_\nu$  **kontrakzioa** eskalarra dela. Erabili emaitza hori eta aldiuneko pausaguneko sistema, ondoko magnitudea pausaguneko energiaren dentsitatea dela frogatzeko:

$$T^{\mu\nu} \frac{u_\mu}{c} \frac{u_\nu}{c} = T^{*00} = \rho c^2. \quad (1.62)$$

Hautsaren eboluzioa ondoko kontserbazio-legeak<sup>13</sup> emandakoa da:

$$T^{\mu\nu}_{,\nu} = 0, \quad (1.63)$$

non  $f$  eremu eskalar, bektorial edo tensorial baten  $x^\nu$ -rekiko deribatuak adierazteko hurrengo notazioa erabili dugun<sup>14</sup>:

$$f_{,\nu} \equiv \frac{\partial f}{\partial x^\nu}. \quad (1.64)$$

Hautsaren (edo fluido baten) azelerazioa hauxe da:

$$a^\mu = \frac{du^\mu}{d\tau} = \frac{\partial u^\mu}{\partial x^\nu} \frac{dx^\nu}{d\tau} = u^\mu_{,\nu} u^\nu. \quad (1.65)$$

Honekin, hauxe dugu:

$$T^{\mu\nu}_{,\nu} = (\rho u^\mu u^\nu)_{,\nu} = \rho u^\mu_{,\nu} u^\nu + (\rho u^\nu)_{,\nu} u^\mu = \rho a^\mu + (\rho u^\nu)_{,\nu} u^\mu = 0. \quad (1.66)$$

Baina, (1.54) emaitzaren ondorioz, azkenaurreko gaiaren bi batugaiak ortogonalak eta, beraz, independenteak dira. Izan ere, (1.66)  $u_\mu$ -rekin biderkatzen bada, (1.54) erabiliz,


$$(\rho u^\nu)_{,\nu} = 0 \quad (1.67)$$

jarraitutasun-ekuazioa lortzen da (ikus 1.13 problema) eta emaitza hau (1.66) delakoan ordezkatuz azelerazioa nula dela, elkarrekintzarik gabeko partikulen kasu honetan:

$$a^\mu = 0. \quad (1.68)$$

#### 1.4.1 Erradiazioaren energia-momentuaren tentsorea

Eman dezagun fluidoaren partikulak ultraerlatibistak ( $|\mathbf{v}| \approx c$ ) direla eta zorian higitzen direla: edozein norabidetan  $E \approx c|\mathbf{p}|$  energiarekin higitzen diren elkarrekintzarik gabeko partikulen



1.9 IRUDIA Erradiazioaren partikulen eta  $V$  bolumenaren eboluzioa  $dy = dz = 0$  planoetan.

gas bat da. Ikus dezagun nola idazten den dagokion energia-momentuaren tentsorea, aurreko atalekoaren esanahi berdinarekin.

Ikuspuntu *makroskopikotik* deskribatzeko, elementu infinitesimal bakoitzean dauden partikula guztiak batez bestekoak egin beharko ditugu. Horrela, gertaera batean *elementuaren pausaguneko sistemana* (hau da, ikuspuntu makroskopikotik elementu infinitesimala geldi dagoeneko masa-zentroaren sisteman) koordenatuak  $x^{\mu'} = (c\tau, \mathbf{x}^*)$  badira, energiaren dentsitatea

$$\varepsilon \equiv T^{0'0'} = \langle \rho \gamma^2 c^2 \rangle \quad (1.69)$$

izango da eta momentu linealaren dentsitatea nulua:

$$T^{0'i'} = T^{i'0'} = \langle \rho \gamma^2 c v^{i'} \rangle = 0. \quad (1.70)$$

Era berean, zorian higitzen direnez,  $i' \neq j'$  badira,

$$T^{i'j'} = T^{j'i'} = \langle \rho \gamma^2 v^{i'} v^{j'} \rangle = 0 \quad (1.71)$$

dugu, baina  $i' = j'$  direnean,  $|\mathbf{v}| \approx c$  erabiliz, hauxe geratzen zaigu:

$$c^2 \approx \langle \mathbf{v}^2 \rangle = 3 \langle (v^{i'})^2 \rangle, \quad (1.72)$$

$$T^{i'i'} = \langle \rho \gamma^2 (v^{i'})^2 \rangle \approx \frac{1}{3} \langle \rho \gamma^2 c^2 \rangle = \frac{\varepsilon}{3}. \quad (1.73)$$

Ondorioz, sistema horretan

$$T^{\mu'\nu'} = \frac{\varepsilon}{3} \begin{pmatrix} 3 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{pmatrix}. \quad (1.74)$$

<sup>12</sup>[214] liburuan aurkako zeinuarekin definitu genuen esfortzu-tentsorea, gainazalaren alde positiboko materialak egindako indarra erabiliz.

<sup>13</sup>Ikus 1.6 atala.

<sup>14</sup>Liburu batuetan  $\partial_\nu f$  erabiltzen da  $f_{,\nu}$  idazteko.

Gertaera horretan, baina beste erreferentzia-sistema inertzial batean idazteko, (1.56) erako Lorentzen transformazio bat egin behar da:

$$T^{\mu\nu} = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\rho'}} \frac{\partial x^\nu}{\partial x^{\sigma'}} T^{\rho'\sigma'}, \quad (1.75)$$

non magnitude guztiak aipaturiko gertaeran kalkulatzen diren. Baino kalkulu hori baino errazagoa da aztertzea edozein gertaeratan eta edozein erreferentzia-sistematan honela idazten den adierazpen tentsoriala:

$$T^{\mu\nu} = \frac{\varepsilon}{3} \left( \eta^{\mu\nu} + 4 \frac{u^\mu u^\nu}{c^2} \right). \quad (1.76)$$

Azken hau aipaturiko gertaera partikularretan eta pausaguneko sistemean

$$T^{\rho'\sigma'} = \frac{\partial x^{\rho'}}{\partial x^\mu} \frac{\partial x^{\sigma'}}{\partial x^\nu} T^{\mu\nu} \quad (1.77)$$

da eta (1.74) moduan idazten da, han elementuaren abiadura  $u^{\rho'} = (c, 0, 0, 0)$  baita. Baino (1.75) eta (1.77) transformazioak alderantzizkoak direnez, pausaguneko sistemako (1.74) adierazpena eta (1.76) emaitza orokorra baliokeideak dira. Izan ere, hemen erabili dugun estrategia (transformazio orokorragoetara egokitu ondoren, 2. eta 3. gaietan erabiliko duguna), hurrengo printzipioan labur daiteke:

#### Kobariantziaren printzipioa

*Fisikako adierazpen bat erlatibilitate berezian (hau da, erreferentzia-sistema inertzial guztieta) beteko da (gertaera batean),*


1. *kobariantea (hau da, tentsoriala) bada eta*
2. *sistema inertzial partikular batean betetzen bada (gertaera horretan).*

Erradiazioaren energia-momentuaren tentsorea, beraz, (1.76) adierazpen tentsoriala da erreferentzia-sistema inertzial guztieta. Neutrinoekin eta masa gabeko partikulen limitean (fotoiekin) erabil daiteke (1.76) energia-momentuaren tentsorea: horrexegatik deitzen zaio erradiazioaren energia-momentuaren tentsorea. Erradiazioaren eboluzioa ere (1.63) kontserbazio-legearen eran idazten da interpretazio berdinarekin. (Ikus 1.14 problema.)

### 1.4.2 Fluido perfektuaren energia-momentuaren tentsorea

Kosmologian erabiliko dugun fluido perfektuaren energia-momentuaren tentsorea idazteko,  $\rho(x)$  masa-dentsitate propioaz gain, aldiuneko pausaguneko sistemana neurututako  $p(x)$  presio-eremu eskalarra hartu behar da kontuan.  $G$  gertaera baten aldiuneko pausaguneko sistemako koordenatuak  $x^\mu = (c\tau, \mathbf{x}^*)$  badira, energiaren dentsitatea gertaera horretan  $T^{0'0'} = \rho c^2$  da. Fluidoa gertaera horretan geldi dagoenez, ez dago momentu linealaren dentsitaterik,  $T^{0'i'} = T^{i'0'} = 0$ . Perfektua denez, esfortzua gainazalarekiko perpendikularra da eta berdina norabide guztieta (Pascalen legea):  $T^{i'j'} = p \delta^{ij}$ . Beraz, honela idazten da energia-momentuaren tentsorea gertaera eta koordenatu horietan:

$$T^{\rho'\sigma'} = \begin{pmatrix} \rho c^2 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & p & 0 & 0 \\ 0 & 0 & p & 0 \\ 0 & 0 & 0 & p \end{pmatrix}. \quad (1.78)$$



1.10 IRUDIA Fluido perfektuaren eboluzioa eta presioa pausaguneko sisteman.

Kobariantziaren printzipoaz baliatuz,

$$T^{\mu\nu} = \rho u^\mu u^\nu + p \left( \eta^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu \right) \quad (1.79)$$

moduan idazten da fluido perfektuaren energia-momentuaren tentsorea edozein sistema inertzialetan, adierazpen hau (1.78) modura laburtzen baita pausaguneko sisteman.

Bestelako indarrik ezean, fluidoaren higidura-ekuazioa (1.63) kontserbazio-legean (1.79) tentsorea ordezkatuz lortzen da.

Fluidoa ez bada erlatibista, hau da, abiadura eta presioa txikiak badira,  $|\mathbf{v}| \ll c$  eta  $p \ll \rho c^2$  dugu eta, ondorioz,

$$T^{00} = \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^0 u^0 - p \approx \rho c^2, \quad (1.80)$$

$$T^{0i} = T^{i0} = \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^0 u^i \approx \rho c v^i, \quad (1.81)$$

$$T^{ij} = \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^i u^j + p \delta^{ij} \approx \rho v^i v^j + p \delta^{ij}. \quad (1.82)$$

Hautsaren kasuan (hemen limite ez-erlatibistan) aurkitu genituen ekarpenez gain, hidrodinamika ez-erlatibistan presioari dagokion  $p \delta^{ij}$  esfortzu-tentsorea ikusten dugu azken gaian eta honela geratzen dira (1.63) ekuazioaren osagaiak:

$$T^{0\nu}_{,\nu} = T^{00}_{,0} + T^{0i}_{,i} = c \left( \frac{\partial \rho}{\partial t} + \frac{\partial \rho v^i}{\partial x^i} \right) = 0, \quad (1.83)$$

$$\begin{aligned} T^{i\nu}_{,\nu} &= T^{i0}_{,0} + T^{ij}_{,j} = \frac{\partial \rho v^i}{\partial t} + \frac{\partial \rho v^i v^j}{\partial x^j} + \delta^{ij} \frac{\partial p}{\partial x^j} \\ &= \left( \frac{\partial \rho}{\partial t} + \frac{\partial \rho v^j}{\partial x^j} \right) v^i + \rho \left( \frac{\partial v^i}{\partial t} + v^j \frac{\partial v^i}{\partial x^j} \right) + \delta^{ij} \frac{\partial p}{\partial x^j} \\ &= \rho \left( \frac{\partial v^i}{\partial t} + v^j \frac{\partial v^i}{\partial x^j} \right) + \delta^{ij} \frac{\partial p}{\partial x^j} = 0. \end{aligned} \quad (1.84)$$

Azken ekuazioan erabili dugun lehenengo jarraitutasun-ekuazioa da, masaren kontserbazioa adierazten duena [214]:

$$\frac{\partial \rho}{\partial t} + \nabla \cdot (\rho \mathbf{v}) = 0. \quad (1.85)$$

Bestalde (1.84) delakoa fluido perfektuen higidura-ekuazioa, Eulerren ekuazioa, da [214]:

$$\rho \left( \frac{\partial \mathbf{v}}{\partial t} + (\mathbf{v} \cdot \nabla) \mathbf{v} \right) = -\nabla p. \quad (1.86)$$

Aurreko bi kasuak, hautsa eta erradiajioa, fluido perfektuaren kasu partikularrak dira, nahikoa baita (1.79) adierazpenean  $p = 0$  eta  $p = \rho c^2/3 \equiv \varepsilon/3$  egitea, hurrenez hurren (ikus 1.14 problema).

## 1.5 Elektrodinamika

Hutsean dagoen eremu elektromagnetikoa aztertuko dugu atal honetan<sup>15</sup>. Erlatibilitatean egin ohi den bezala, cgs unitate-sistema erabiliko dugu. Izan ere, SI sistemako adierazpenetan  $\epsilon_0 = \frac{1}{4\pi}$  eta  $\mu_0 = 1$  egin ondoren,  $\mathbf{B}$  eremu magnetikoaren ordez  $\mathbf{B}/c$  jarri lortzen dira testu honetan erabiliko ditugun definizioak eta emaitzak.

Tentsore antisimetriko batean bilduko ditugu eremu elektrikoaren eta magnetikoaren osagai cartesiarrak:

$$F^{\mu\nu} = -F^{\nu\mu} \equiv \begin{pmatrix} 0 & E_x & E_y & E_z \\ -E_x & 0 & B_z & -B_y \\ -E_y & -B_z & 0 & B_x \\ -E_z & B_y & -B_x & 0 \end{pmatrix}. \quad (1.87)$$

Tentsore hau (batuetan Maxwell izenarekin ezagutzen dena) kontrabariantea da, (1.56) legearen arabera transformatzera baita.

Horrela,  $u^\mu$  abiaduraz higitzen den  $e$  kargaren higidura-ekuazioa hauxe da:

$$\frac{dp^\mu}{d\tau} = \frac{e}{c} F^{\mu\nu} u_\nu. \quad (1.88)$$

Izan ere,  $\mu = i$  eginez, Lorentzen indarrari dagokion higidura-ekuazio erlatibista berreskuratzera dugu,

$$\frac{d\mathbf{p}}{dt} = e \left( \mathbf{E} + \frac{\mathbf{v}}{c} \times \mathbf{B} \right), \quad (1.89)$$

eta  $\mu = 0$  osagaia potentziaren baliokidea da:

$$\mathbf{v} \cdot \frac{d\mathbf{p}}{dt} = e \mathbf{E} \cdot \mathbf{v}. \quad (1.90)$$

Jakina, azken emaitza ez da independentea, (1.89) ekuazioa  $\mathbf{v}$  abiadurarekin biderkatuz lortzen baita. Izan ere,  $F^{\mu\nu}$  antisimetrikoa denez,  $F^{\mu\nu} u_\mu u_\nu = 0$  dugu eta (1.88) ekuazioak ez ditu hiru osagai independente baino gehiago.

**1.13 ARIKETA** Egiazatu (1.89) eta (1.90) emaitzak.

Minkowskiren metrika erabiltzen bada indize bat jaisteko,

$$F^\mu_\nu \equiv F^{\mu\sigma} \eta_{\sigma\nu} = \begin{pmatrix} 0 & E_x & E_y & E_z \\ E_x & 0 & B_z & -B_y \\ E_y & -B_z & 0 & B_x \\ E_z & B_y & -B_x & 0 \end{pmatrix} \quad (1.91)$$

<sup>15</sup>Atal honetako emaitzen frogapena [14] liburuko 3. eta 5. gaietan aurki daitezke, adibidez.

tentsorea lortzen da. **Mistoa** dela esaten da indize bat kontrabariantea delako eta bestea kobariantea:

$$F^{\mu'}_{\nu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} F^\rho_\sigma. \quad (1.92)$$

**1.14 ARIKETA** Egiaztu azken transformazio-legea.

Bi indizeak beheratzen badira, tentsore **kobariante** antisimetriko bat lortzen da:

$$F_{\mu\nu} = -F_{\nu\mu} \equiv \eta_{\mu\rho} F^\rho_\nu = \eta_{\mu\rho} \eta_{\nu\sigma} F^{\rho\sigma} = \begin{pmatrix} 0 & -E_x & -E_y & -E_z \\ E_x & 0 & B_z & -B_y \\ E_y & -B_z & 0 & B_x \\ E_z & B_y & -B_x & 0 \end{pmatrix}, \quad (1.93)$$

$$F_{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} F_{\rho\sigma}. \quad (1.94)$$

Erreferentzia-sistema inertzial batean, karga-dentsitatea  $\varrho(x)$  bada eta korronte elektrikoaren dentsitatea  $\mathbf{J}(x)$ , ondoko bektorea da korronte-dentsitatea tentsore-notazioan<sup>16</sup>:

$$J^\mu \equiv (\varrho c, \mathbf{J}). \quad (1.95)$$

Hau erabiliz, honela idazten dira Maxwellen ekuazioak:

$$F_{\mu\nu,\lambda} + F_{\nu\lambda,\mu} + F_{\lambda\mu,\nu} = 0, \quad (1.96)$$

$$F^{\mu\nu}_{,\nu} = \frac{4\pi}{c} J^\mu. \quad (1.97)$$

**1.15 ARIKETA** Egiaztu honela berreskuratzen dela Maxwellen ekuazio bektorialak:

$$F_{0i,j} + F_{ij,0} + F_{j0,i} = 0 \iff \nabla \times \mathbf{E} = -\frac{1}{c} \frac{\partial \mathbf{B}}{\partial t}, \quad (\text{Faraday-Henry}), \quad (1.98)$$

$$F_{12,3} + F_{23,1} + F_{31,2} = 0 \iff \nabla \cdot \mathbf{B} = 0, \quad (\text{monopolarik eza}), \quad (1.99)$$

$$F^{0\nu}_{,\nu} = F^{00}_{,0} + F^{0j}_{,j} = \frac{4\pi}{c} J^0 \iff \nabla \cdot \mathbf{E} = 4\pi\varrho, \quad (\text{Gauss}), \quad (1.100)$$

$$F^{i\nu}_{,\nu} = F^{i0}_{,0} + F^{ij}_{,j} = \frac{4\pi}{c} J^i \iff \nabla \times \mathbf{B} = \frac{4\pi}{c} \mathbf{J} + \frac{1}{c} \frac{\partial \mathbf{E}}{\partial t}, \quad (\text{Ampère-Maxwell}). \quad (1.101)$$

Taulan agertzen ez diren ekuazioak (hala nola  $F_{00,i} + F_{0i,0} + F_{i0,0} = 0$ ) identikoki betetzen dira edo goiko baten baliokideak dira.

**1.16 ARIKETA** Zeintzuk dira  $F^{\mu\nu}_{,\nu}$  eta  $F_{\mu\nu,\lambda}$  magnitudeen transformazio-legeak?

Eremu elektromagnetikoaren energia-momentuaren tentsorea hauxe da:

$$T^{\mu\nu} = \frac{1}{4\pi} \left( F^{\mu\sigma} F^\nu_\sigma - \frac{1}{4} \eta^{\mu\nu} F_{\rho\sigma} F^{\rho\sigma} \right). \quad (1.102)$$

<sup>16</sup>Ohar zaitez masa- eta karga-dentsitatea direla  $\rho$  eta  $\varrho$ , hurrenez hurren. Gainera, lehenengoa eskalarra da eta bigarrena bektore baten 0 osagaia: erreferentzia-sistemaren menpekoa, beraz.

**1.17 ARIKETA** Egiaztu hauexek direla tentsorearen osagaiak:

$$T^{00} = \frac{1}{4\pi} (\mathbf{E}^2 + \mathbf{B}^2), \quad (1.103)$$

$$T^{0i} = T^{i0} = \frac{1}{4\pi} (\mathbf{E} \times \mathbf{B})^i, \quad (1.104)$$

$$T^{ij} = -\frac{1}{4\pi} (E^i E^j + B^i B^j) + \frac{1}{8\pi} \delta^{ij} (\mathbf{E}^2 + \mathbf{B}^2). \quad (1.105)$$

Ikusten dugunez, (1.58), (1.59) eta (1.61) adierazpenen esanahi fisiko bera dute osagai hauek: energia elektromagnetikoaren dentsitatea  $T^{00}$  da, momentu linealaren dentsitatea  $T^{i0}/c$ , energiaren korrontea (Poyntingen bektorea)  $cT^{0i}$  eta Maxwellen tentsio-tentsorea  $T^{ij}$ .

**1.18 ARIKETA** Erabili Maxwellen ekuazioak ondoko emaitza hau frogatzeko:

$$T^{\mu\nu}_{,\nu} = -\frac{1}{c} F^{\mu\nu} J_\nu. \quad (1.106)$$

Karga eta korronterik gabe (uhin elektromagnetiko baten kasuan, adibidez),  $T^{\mu\nu}_{,\nu} = 0$  kontserbazio-legea geratzen zaigu.

Minusa alde batera utzita, (1.88) eta (1.106) ekuazioen eskuin gaien egiturak berdinak dira (karga bakarraren  $eu^\mu$  korrontearren ordez,  $J^\mu$  eremua dugu hemen) eta gauza bera gertatzen da interpretazioekin. Ondorioz, fluido perfektu kargatu baten eboluzioan kontuan hartu behar da eremuak duen eragina eta, (1.63) legearen ordez,

$$T_{\text{fluidoa},\nu}^{\mu\nu} = \frac{1}{c} F^{\mu\nu} J_\nu = -T_{\text{em},\nu}^{\mu\nu} \quad (1.107)$$

dugu fluidoaren  $T_{\text{fluidoa}}^{\mu\nu}$  tentsorearen eta eremuaren  $T_{\text{em}}^{\mu\nu}$  ekarpeneren arteko erlazio diferentziala. Horrela, fluido ez-erlatibistaren kasuan, Eulerren (1.86) ekuazioan, presioari dagokion  $-\nabla p$  indar-dentsitateaz gain, indar elektromagnetikoak eragindakoa agertuko da<sup>17</sup>:

$$\rho \left( \frac{\partial \mathbf{v}}{\partial t} + (\mathbf{v} \cdot \nabla) \mathbf{v} \right) = -\nabla p + \varrho \mathbf{E} + \frac{1}{c} \mathbf{J} \times \mathbf{B}. \quad (1.108)$$

Gainera,  $T^{\mu\nu} \equiv T_{\text{fluidoa}}^{\mu\nu} + T_{\text{em}}^{\mu\nu}$  energia-momentuaren tentsore *osoa* erabiliz, honela geratzen da (1.107) eboluzio-ekuazioa:

$$T^{\mu\nu}_{,\nu} = 0. \quad (1.109)$$

Modu honetan idazten dira eboluzio-ekuazioak eremuen teorietan, energiaren eta momentu linealaren dentsitateak eta korronteak biltzen dituen energia-momentuaren tentsore osoa erabiliz.


## 1.6 Kontserbazio-legeak<sup>18</sup>

Ikus dezagun zer dagoen (1.63) edo (1.109) egiturako kontserbazio-legeetan eta zergatik deitzen diren horrela. Hasteko, 0 osagaia

$$T^{0\nu}_{,\nu} = \frac{1}{c} \frac{\partial T^{00}}{\partial t} + \frac{\partial T^{0i}}{\partial x^i} = \frac{1}{c} \left( \frac{\partial \mathcal{E}}{\partial t} + \nabla \cdot \mathbf{J}_E \right) = 0 \quad (1.110)$$

<sup>17</sup>Gogoratu 23. orrialdeko 16 oin-oharra.

<sup>18</sup>Ikus, adibidez, [14] liburuko 5. gaia.



1.11 IRUDIA \$V\$ bolumena inguratzen duen \$S\$ gainazala.

jarraitutasun-ekuazioa da eta \$S\$ gainazal finko itxiak inguratzen duen \$V\$ bolumenean integratu ondoren Gaussen teorema erabiltzen bada,

$$\frac{d}{dt} \int_V \mathcal{E} dV + \oint_S \mathbf{J}_E \cdot d\mathbf{S} = 0 \quad (1.111)$$

lortzen da, kanporanzko \$dS\$ elementua erabiliz: \$V\$ bolumenean dagoen energiaren deribatua, energiaren kanporanzko fluxuaren kontrakoa da. Beraz, 0 osagai hau energiaren kontserbazioa da. Era berean, osagai espazialean momentu linealaren osagaien kontserbazioa dugu:

$$\frac{d}{dt} \int_V \frac{dp^i}{dV} dV + \oint_S T^{ij} dS_j = 0. \quad (1.112)$$

Momentu linealaren deribatua momentuaren fluxuaren kontrakoa (hau da, \$V\$-tik kanpoko bolumenean egindako indarraren kontrakoa) da.

## 1.7 Lorentz aldaezintasuna

Azter dezagun espazio-denborako tartea (eta Minkowskiren metrika) aldatu gabe uzten duten \$x^\mu \rightarrow x^{\mu'}\$ transformazio erregular<sup>19</sup> alderanzgarriak. (1.36) baldintza<sup>20</sup>,

$$\eta_{\rho\sigma} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} \eta_{\mu\nu}, \quad (1.113)$$

\$x^\lambda\$-rekiko deribatuz,

$$0 = U_{\rho\sigma\lambda} \equiv \eta_{\mu\nu} \left[ \frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\rho \partial x^\lambda} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} + \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial^2 x^{\nu'}}{\partial x^\sigma \partial x^\lambda} \right] \quad (1.114)$$

dugu, \$(\rho, \sigma, \lambda)\$ aukera guztiarako. Ondorioz,

$$\begin{aligned} 0 &= U_{\rho\sigma\lambda} + U_{\lambda\sigma\rho} - U_{\rho\lambda\sigma} \\ &= \eta_{\mu\nu} \left[ \frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\rho \partial x^\lambda} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} + \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial^2 x^{\nu'}}{\partial x^\sigma \partial x^\lambda} + \frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\lambda \partial x^\rho} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} + \right. \\ &\quad \left. \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\lambda} \frac{\partial^2 x^{\nu'}}{\partial x^\sigma \partial x^\rho} - \frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\rho \partial x^\sigma} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\lambda} - \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial^2 x^{\nu'}}{\partial x^\lambda \partial x^\sigma} \right]. \end{aligned} \quad (1.115)$$

<sup>19</sup>Hau da, jarraituak eta deribatu partzial jarraituekin. Testu osoan onartuko dugu hau betetzen dela, agian gertaera berezietai izan ezik.

<sup>20</sup>Ohar zaitez honek esan nahi duela Minkowskiren \$\eta\_{\mu\nu}\$ metrika bera era tentsore kobariantea dela.

$\eta_{\mu\nu} = \eta_{\nu\mu}$  denez, laugarren eta bosgarren gaiak aurkakoak dira. Gauza bera gertatzen da bigarrenarekin eta seigarrenarekin, baina lehenengoa eta hirugarrena berdinak dira:

$$2\eta_{\mu\nu} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} \frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\lambda \partial x^\rho} = 0. \quad (1.116)$$

( $\eta_{\mu\nu}$ ) eta ( $\partial x^{\nu'}/\partial x^\sigma$ ) matrizeak alderanzgarriak direnez,

$$\frac{\partial^2 x^{\mu'}}{\partial x^\lambda \partial x^\rho} = 0 \quad (1.117)$$

geratzen zaigu; baina hau zuzenean integratzen da:

$$x^{\mu'} = \Lambda_\nu^{\mu'} x^\nu + b^\mu, \quad (1.118)$$

non  $b^\mu$  bektorea eta  $\Lambda_\nu^{\mu'}$  matriza konstanteak diren eta, (1.113) baldintzaren ondorioz,  $\Lambda_\nu^{\mu'}$  matriza alderanzgarriak (1.36) bete behar duen:

$$\eta_{\mu\nu} = \eta_{\rho\sigma} \Lambda_\mu^{\rho'} \Lambda_\nu^{\sigma'}. \quad (1.119)$$

**1.19 ARIKETA** Frogatu azken propietatea eta ondokoak:

$$\left(\Lambda_0^{0'}\right)^2 \geq 1, \quad (1.120)$$

$$\det\left(\Lambda_\nu^{\mu'}\right) = \pm 1. \quad (1.121)$$

(1.118) transformazioek osatutako **Poincaréren taldearen** azpitaldeen artean ondokoak aipa daitezke:

<b>Translazioak:</b>	$\Lambda_\nu^{\mu'} = \delta_\nu^\mu$
<b>Lorentzen taldea:</b>	$b^\mu = 0$
<b>Lorentzen talde propioa:</b>	$b^\mu = 0, \quad \Lambda_0^{0'} \geq 1, \quad \det\left(\Lambda_\nu^{\mu'}\right) = 1$
<b>Biraketak:</b>	$b^\mu = 0, \quad \Lambda_0^{0'} = 1, \quad \Lambda_0^{i'} = \Lambda_i^{0'} = 0, \quad \Lambda_j^{i'} = R_j^{i'}$
<b>Lorentzen transformazio bereziak:</b>	$b^\mu = 0, \quad \Lambda_\nu^{\mu'} = 1.2$ problemaren emaitza

(Hemen  $\mathbf{R} \equiv (R_j^{i'})_{i',j=1}^3$  biraketa-matrize bat da:  $\mathbf{R} \cdot \mathbf{R}^\top = \mathbf{R}^\top \cdot \mathbf{R} = \mathbf{1}, \det \mathbf{R} = 1.$ )

Transformazio bereziak (ikus 1.2 problema) erreferentzia-sistema inertzialaren aldaketei dagozkie. Triedroen orientazioa aldatzen duten biraketak gehitzen bazaie, Lorentzen talde propioa lortzen da. Espazioaren inbertsioak ( $\Lambda_0^{0'} = 1, \Lambda_0^{i'} = \Lambda_i^{0'} = 0, \Lambda_j^{i'} = -\delta_j^i, \det\left(\Lambda_\nu^{\mu'}\right) = -1$ ) eta denboraren inbertsioak ( $\Lambda_0^{0'} = -1, \Lambda_0^{i'} = \Lambda_i^{0'} = 0, \Lambda_j^{i'} = \delta_j^i, \det\left(\Lambda_\nu^{\mu'}\right) = -1$ ) kontuan hartuta, Lorentzen taldea lortzen da eta translazioak sartzen badira Poincarérena<sup>21</sup>.

Gai honetako tentsore-notazioari esker, erlatibilitatearen printzipioak simetria bat adierazten duela ikusten dugu: *fisikaren legeak Poincaréren taldearekiko aldaezinak dira erlatibilitate berezian*. Erlatibilitate orokorrean simetria askoz handiagoa da, baina hurrengo gaiko baliokidetasunaren printzipioaren ondorioz, beti dugu Lorentzen taldearekiko kobariantzia, *gertaera bakoitzaren inguruaren: Lorentz aldaezintasuna lokala izango da*.

<sup>21</sup>Batzuetan Lorentzen talde ez-homogeneoa deitzen zaio Poincarérenari eta Lorentzen talde homogeneoa hemen-go Lorentzen taldeari.

## 1.8 Gehiago ikasteko

- Bikien paradoxaren eta Thomas prezasioaren teoria eta egiaztapen esperimental *makroskopikoak*: [204].
- Energia-momentuaren tentsorea eta kontserbazio-legeak: [5], 20. eta 21. gaiak; [8], 22. gaia; [14], 8. gaia; [16], 1.9 atala; [25], 43. or.
- Hidrodinamika erlatibista: [14], 139. or.; [25], 47. or.
- Lorentzen eta Poincaréren taldeak: [25], 25. or.


## 1.9 Problemak

**1.1 Lorentzen transformazioak.** Nola orokortzen da (1.9) transformazioa,  $(ct, \mathbf{x}) = (0, 0)$  gertaera  $(ct'_0, \mathbf{x}'_0)$  bada beste sistemaren koordenatuetan?

**1.2 Lorentzen transformazio bereziak.** Aurkitu (1.9) transformazioari dagokion Lorentzen  $\Lambda_\nu^\mu'$  matrizea.

**1.3 Bikien paradoxa.** Irudiko  $G_1$  eta  $G_2$  gertaeren arteko espazio-denborako tartearen denbora motakoa da. Frogatu biak lotzen dituzten denbora motako unibertsal-erro guztien artean denbora propioa maximoa dela abiadura konstanteko higidurari dagokionean barrena. Zein da balio minimoa? Iruzkina egin emaitzari.

*Oharra:* Ia-ia kalkulurik gabe aurkitzen da soluzioa.



**1.4 Aldakuntza-printzipioa.** Aurreko problemaz balia gaitezke, partikula askearen higidura-ekuazioa aldakuntza-printzipio batetik lortzeko:

$$\delta \int_1^2 d\tau = 0.$$

Ekintzaren dimentsioak edukitzeko eta minimoa izateko higiduran barrena,

$$\mathcal{I} = -mc^2 \int_1^2 d\tau$$

eran definitzen bada ekintza, hauxe da aldakuntza-printzipioa:

$$\delta \mathcal{I} = 0.$$

Mekanika klasikoaren

$$\mathcal{I} = \int_1^2 L dt$$

moduan idazteko, zein da  $L$  lagrangearra  $t$  denbora neurtzen deneko erreferentzia-sistema inertzialean? Zer gertatzen da abiadura txikiko limitean?

**1.5 Doppler efektua.** Argi-iturri bat  $v = \beta c$  abiaduraz urrunten ari da detektagailu batetik. Erabili momentu lineala bektore bat dela, goriranzko lerrakuntza hauxe dela ondorioztatzeko:


$$1 + z \equiv \frac{\nu_l}{\nu_D} = \sqrt{\frac{1 + \beta}{1 - \beta}},$$

non iturriaren eta detektagailuaren sistema propietan neurtutako maiztasunak diren  $\nu_l$  eta  $\nu_D$ . Askatu abiadura  $z$ -ren funtzioko. Zer gertatzen da  $v < 0$  denean?

**1.6 Doppler efektua (II).** Uhin elektromagnetiko lau batzen uhin-bektorea  $\mathbf{k}$  da eta uhin-zenbakia  $k = |\mathbf{k}| = \omega/c$ . Erlatibilitatean  $k^\mu = (k, \mathbf{k})$  da uhin-bektorea.

(a) Egiaztatu  $k^\mu$  bektorea nulua dela eta fotoien momentu lineala  $p^\mu = \hbar k^\mu$ .

(b) Iturriaren (detektagailuaren) abiadura  $v_I^\mu$  ( $v_D^\mu$ ) da eta iturriaren (detektagailuaren) sisteman neurtutako uhin-luzera  $\lambda_I$  ( $\lambda_D$ ). Frogatu Doppler efektua honela idazten dela:



$$\frac{\lambda_D}{\lambda_I} = \frac{k_\mu u_I^\mu}{k_\nu u_D^\nu} = \frac{p_\mu u_I^\mu}{p_\nu u_D^\nu}.$$

(c) Detektagailuaren sisteman iturriaren abiadura  $v_I$  bada eta iturriaren eta fotoiaren abiaduren arteko angelua  $\theta$ , egiaztatu hauxe dugula:


$$\frac{\lambda_D}{\lambda_I} = \gamma \left( 1 - \frac{v_I}{c} \cos \theta \right), \quad \gamma \equiv \left( 1 - \frac{v_I^2}{c^2} \right)^{-1/2}.$$

(d) Nola idazten da Doppler efektua  $\theta = 0, \pi/2, \pi$  kasu partikularretan?


**1.7 Doppler efektua (III).** Orain, iturriaren sisteman detektagailuaren abiadura  $v_D$  da eta detektagailuaren eta fotoiaren abiaduren arteko angelua  $\theta$ . Egiaztatu hauxe dela Doppler efektua:

$$\frac{v_D}{v_I} = \gamma \left( 1 - \frac{v_D}{c} \cos \theta \right), \quad \gamma \equiv \left( 1 - \frac{v_D^2}{c^2} \right)^{-1/2}.$$

Zein da hemengo eta aurreko problemako emaitzen arteko erlazioa?



**1.8 Irudiko diskoa**  $\omega$  abiadura angeluar konstantez ari da biratzen  $O$  zentro finkoaren inguruan.  $O$ -tik  $a$  distantzia berdinera daude I argi-iturri isotropoa eta D detektagailua. Iturriaren maiztasun propioa  $\nu$  bada, zein da detektagailuan neurtutakoa?



**1.9 Azelerazioa.** Aurkitu partikula baten azelerazioaren osagaiak erreferentzia-sistema inertzial batean eta frogatu ondoko propietateak:

$$u_\mu a^\mu = 0,$$

$$a_\mu a^\mu = \mathbf{a}^{*2},$$

non aldiuneko pausaguneko sisteman neurtutako azelerazioa den  $\mathbf{a}^* \equiv d^2 \mathbf{x}^* / dt^{*2}$ .

**1.10\* Suziri erlatibista.** Suziri erlatibista baten motorrak igortzen duen gasaren (hiru dimentsioko) abiadura eskalarra beti da  $u$  (suziriaren sisteman). Hasieran, denbora propioa  $\tau = 0$  zenean, Lurraren sistemana geldi zegoen eta suziriaren pausaguneko masa  $m_0$  zen.  $\tau$  unean masa  $m(\tau)$  da eta  $(\tau, \tau + d\tau)$  tartean igorritako gasen pausaguneko masa  $dm_g$ .

- (a) Idatzi, (grabitazioa arbuiatz), momentu linealaren kontserbazioaren ekuazio *kobariantea*.
- (b) Kalkulatu azken horren eta suziriaren  $u_\mu$  abiaduraren arteko kontrakzioa,  $dm$  eta  $dm_g$  aldatuetan arteko erlaziona aurkitzeko.
- (c) Kalkulatu gasen abiaduraren  $u_{g\mu} u_g^\mu$  karratua ondokoa ondorioztatzeko:

$$\sqrt{\dot{u}_\mu \dot{u}^\mu} = -u \frac{\dot{m}}{m},$$

non puntuak denbora propioarekiko deribatua adierazten duen.

- (d) Integratu ekuazio hori, higidura zuzenaren kasuan,  $m$  aurkitzeko, Lurrean neurtutako (hiru dimentsioko) abiadura eskalarra  $v$  denean.
- (e) Zein da  $v$  abiaduraren balio maximoa? Noiz lortzen da? Iruzkina egin emaitzari.
- (f) Zer gertatzen da  $m(v)$  erlazioarekin  $u \rightarrow c$  limitean?
- (g) Eta abiadura guztiak ez-erlatibistak badira?

**1.11\* Keplerren problema erlatibista.** Azter dezagun  $V = -k/r$  energia potentzialean higitzen ari den partikula erlatibistaren higidura laua.

- (a) Erabili energiaren eta momentu angeluarren kontserbazio-legeak orbitaren  $\varphi(r)$  ekuazioa integral baten funtzioan idazteko.
- (b) Egin integralean  $u = 1/r$  aldagai-aldeketa eta egiaztatu honela idazten dela orbitaren ekuazioa, bi kasu desberdinietan:

$$r = \begin{cases} \frac{p}{1 + \epsilon \cosh \mu (\varphi - \varphi_0)}, \\ \frac{p}{1 + \epsilon \cos \mu (\varphi - \varphi_0)}. \end{cases}$$

- (c) Kalkulatu, kasu eta hurbilketa egokietan, planeten perihelioaren preziosoa erlatibilitate berezian.

- (d) Aplikatu emaitzak Merkurioren perihelioaren aurreratzearen kasuan eta erkatu erlatibilitate orokorraren emaitzarekin (ikus 5.4.2 atala).

*Oharra:* Ondoko helbidean aurki daitezke Merkurioren datuak:

<http://nssdc.gsfc.nasa.gov/planetary/factsheet/mercuryfact.html>.

**1.12** Egiaztatu hautsaren kasuan  $dS$  gainazal infinitesimaletik denbora-unitatean pasatzen den energia  $\mathbf{J}_E \cdot d\mathbf{S}$  dela,  $\mathbf{J}_E = \rho \gamma^2 c^2 \mathbf{v}$  bada.

**1.13** Ondorioztatu (1.67)–(1.68) emaitzetatik (1.110) jarraitutasun-ekuazioa, hautsaren kasuan.

**1.14 Erradiazoaren energia-momentuaren tentsorea.** Frogatu erradiazoaren (1.76) energia-momentuaren tentsorea, fluido perfektuaren (1.79) tentsorearen moduan idatz daitekeela, batez besteko energiaren dentsitatea  $\varepsilon = \rho c^2$  moduan idatzi ondoren,  $p = \rho c^2/3$  egoera-ekuazioa erabiltzen badugu.

**1.15**  $S'$  erreferentzia-sistema  $c\beta$  abiadura konstantez higitzen ari da  $S$  sistema inertzialean. Frogatu honela transformatzen direla eremu elektromagnetikoaren osagai paraleloak ( $\mathbf{E}_{||}$ ,  $\mathbf{B}_{||} \parallel \beta$ ) eta perpendikularrak ( $\mathbf{E}_{\perp}$ ,  $\mathbf{B}_{\perp} \perp \beta$ ):

$$\begin{aligned}\mathbf{E}'_{||} &= \mathbf{E}_{||}, & \mathbf{E}'_{\perp} &= \gamma(\mathbf{E}_{\perp} + \beta \times \mathbf{B}_{\perp}), \\ \mathbf{B}'_{||} &= \mathbf{B}_{||}, & \mathbf{B}'_{\perp} &= \gamma(\mathbf{B}_{\perp} - \beta \times \mathbf{E}_{\perp}),\end{aligned}$$

non Lorentzen  $\gamma \equiv (1 - \beta^2)^{-1/2}$  faktorea erabili den. Idatzi emaitzak era honetan:

$$\begin{aligned}\mathbf{E}' &= \gamma \mathbf{E} - \frac{\gamma^2}{1 + \gamma} (\beta \cdot \mathbf{E}) \beta + \gamma \beta \times \mathbf{B}, \\ \mathbf{B}' &= \gamma \mathbf{B} - \frac{\gamma^2}{1 + \gamma} (\beta \cdot \mathbf{B}) \beta - \gamma \beta \times \mathbf{E}.\end{aligned}$$

*Iradokizuna:* Aukeratu ardatzak modu egokian.

**1.16 Potenzial elektromagnetikoa.**  $\Phi$  potenzial elektriko eskalarra eta  $\mathbf{A}$  potenzial bektoriala biltzen dituen  $A^\mu \equiv (\Phi, \mathbf{A})$  bektorearen bidez, honela kalkulatzen da eremua:

$$F_{\mu\nu} = A_{\nu,\mu} - A_{\mu,\nu}.$$

(a) Frogatu hortik ohiko erlazioak berreskuratzen direla:

$$\mathbf{E} = -\nabla\Phi - \frac{1}{c} \frac{\partial \mathbf{A}}{\partial t}, \quad \mathbf{B} = \nabla \times \mathbf{A}.$$

(b) Egiaztatu (1.96) ekuazioa identikoki betetzen dela  $A^\mu$  guziekin eta (1.97) delakoa ondoko ekuazioaren soluzioekin<sup>22</sup>:

$$A^{\nu,\mu}_{\nu} - A^{\mu,\nu}_{\nu} = \frac{4\pi}{c} J^\mu.$$

(c) **Gauge transformazio** batean honela aldatzen da potenziala:

$$A_\mu \longrightarrow \tilde{A}_\mu = A_\mu + \Lambda_{,\mu},$$

non  $\Lambda$  eremu eskalarra edonolakoa izan daitekeen. Egiaztatu horrelako transformazio batek ez duela  $F^{\mu\nu}$  eremu elektromagnetikoa aldatzen. Nola idazten da gauge transformazioa hiru dimensioko formalismoan?

(d) Lorenzen gaugean

$$A^{\nu}_{,\nu} = \frac{1}{c} \frac{\partial \Phi}{\partial t} + \nabla \cdot \mathbf{A} = 0,$$

dugu eta (1.97) delakoa uhin-ekuazio ez-homogeneoa da,

$$\square^2 A^\mu = -\frac{4\pi}{c} J^\mu,$$

honela definitzen den d'Alemberten eragilea erabiliz:

$$\square^2 f \equiv f^{,\nu}_{\nu} = -\frac{1}{c^2} \frac{\partial^2 f}{\partial t^2} + \nabla^2 f = -\frac{1}{c^2} \frac{\partial^2 f}{\partial t^2} + \frac{\partial^2 f}{\partial x^2} + \frac{\partial^2 f}{\partial y^2} + \frac{\partial^2 f}{\partial z^2}.$$

---

<sup>22</sup>  $A^{\nu,\mu}_{\lambda} = \eta^{\mu\rho} A^{\nu}_{,\rho\lambda} = \eta^{\mu\rho} \frac{\partial^2 A^\nu}{\partial x^\rho \partial x^\lambda}.$

- (f) Bakarra al da potentzial elektromagnetikoa Lorenzen gaugean?  
 (g) Egiaztatu hutsean, eta Lorenzen gaugean,  $\square^2 A^\mu = 0$  uhin-ekuazio homogeneoaren soluzioen artean uhin elektromagnetiko lauak daudela:

$$A_\mu = C_\mu e^{ik_\rho x^\rho},$$

non  $C_\mu$  bektorea konstantea den eta  $k^\mu$  uhin-bektorea nulua eta zeharkakoa:

$$k_\mu k^\mu = 0, \quad k_\mu C^\mu = k_\mu A^\mu = 0.$$

Zer esan nahi du  $k^\mu$  bektorea nulua izateak?

**1.17 Levi-Civitaren tentsorea.**  $\varepsilon_{\mu\nu\rho\sigma}$  tentsorea alternatua (hau da, azpiindize bikote bakoitzarekiko antisimetriko) da eta erreferentzia-sistema inertzial batean  $\varepsilon_{0123} = 1$  dugu. Frogatu erreferentzia-sistema inertzial *guztietan* hauxe dugula:

$$\varepsilon_{\mu\nu\rho\sigma} = -\varepsilon^{\mu\nu\rho\sigma} = \begin{cases} 1, & \{0, 1, 2, 3\}\text{-ren permutazio bikoitia da } \{\mu, \nu, \rho, \sigma\}; \\ -1, & \{0, 1, 2, 3\}\text{-ren permutazio bakoitia da } \{\mu, \nu, \rho, \sigma\}; \\ 0, & \text{bestela.} \end{cases}$$

**1.18 Tentsore elektromagnetiko duala.** Honela definitzen da eremu elektromagnetikoaren duala:

$${}^*F_{\mu\nu} \equiv \frac{1}{2} \varepsilon_{\mu\nu\rho\sigma} F^{\rho\sigma}.$$

Frogatu tentsore kobariantea dela, aurkitu  ${}^*F_{\mu\nu}$ ,  ${}^*F^\mu_{\nu}$  eta  ${}^*F^{\mu\nu}$  eta egiaztatu honela idazten direla Maxwellen ekuazioak:

$${}^*F^{\mu\nu}_{,\nu} = 0, \quad F^{\mu\nu}_{,\nu} = \frac{4\pi}{c} J^\mu.$$

**1.19** Frogatu  $\mathbf{B}^2 - \mathbf{E}^2$  eta  $\mathbf{E} \cdot \mathbf{B}$  aldaezin erlatibistak (eskalarrik) direla. Zein da eskalar horien balioa **1.16** problemako uhin elektromagnetiko lauen kasuan?

*Iradokizuna:* Kalkulatu  $F_{\mu\nu} F^{\mu\nu}$  eta  ${}^*F_{\mu\nu} F^{\mu\nu}$ .

**1.20 Energia-momentuaren tentsore elektromagnetikoaren aztarna.** Kalkulatu (1.102) tentsorearen  $T^\mu_{\mu}$  kontrakzioa.

**1.21 Energia-baldintza ahula.**  $T^{\mu\nu}$  energia-momentuaren tentsore batek energia-baldintza ahula betetzen duela esaten da, denbora motako  $v^\mu$  bektore guztiarako hauxe dugunean:

$$T^{\mu\nu} v_\mu v_\nu \geq 0, \quad (v_\mu v^\mu < 0).$$

- (a) Erabili **1.12** ariketa, baldintzaren esanahi fisikoa azaltzeko.  
 (b) Ondorioztatu fluido perfektu baten (**1.79**) energia-momentuaren tentsoreak baldintza hau betetzen duenean, ondokoa ere betetzen dela:

$$\rho \geq 0.$$

- (c) Jarraitutasunaren ondorioz, baldintza hori denbora motako bektore guztiarako betetzen bida, bektore nuluekin ere bete behar da. Erabili hori, fluido perfektuaren kasuan honako hau ere betetzen dela ondorioztatzeko:

$$\rho c^2 + p \geq 0.$$

**1.22 Eremu eskalarra.** Konsidera dezagun espazio-denboran definitutako  $\phi(x)$  eremu eskalarra. Dagozkion lagrangearra eta energia-momentuaren tentsorea hauexek dira:

$$L = -\frac{1}{2}\phi_{,\lambda}\phi^{,\lambda} - V(\phi),$$

$$T_{\mu\nu} = \phi_{,\mu}\phi_{,\nu} - \eta_{\mu\nu} \left[ \frac{1}{2}\phi_{,\lambda}\phi^{,\lambda} + V(\phi) \right].$$

(a) Idatzi eboluzio-ekuazioa, Euler eta Lagrangeren ekuazioaz baliatuz:

$$\frac{\partial}{\partial x^\lambda} \frac{\partial L}{\partial \phi_{,\lambda}} - \frac{\partial L}{\partial \phi} = 0.$$

- (b) Egiaztatu Klein eta Gordonen ekuazioa berreskuratzen dela  $V(\phi) = \frac{1}{2}\frac{m^2c^2}{\hbar^2}\phi^2$  denean.
- (c) Frogatu, eboluzio-ekuazioaren ondorioz,  $T^{\mu\nu}_{,\nu} = 0$  kontserbazio-legea betetzen dela.
- (d) Eman dezagun  $x_0^\mu$  gertaera bakoitzeko  $\phi_{,i}(x_0) = 0$  baldintzak betetzen direnko erreferentzia-sistema inertzial bat existitzen dela. Egiaztatu, azkena fluido perfektu baten aldiuneko pausaguneko sistematuz interpretatzen bada, goiko energia-momentuaren tentsorea fluido perfektuarena dela, aurkitu behar dituzun dentsitate eta presio propioekin.



## 2. GAIA

### Baliokidetasunaren printzipioa

Geometria diferentzialaren tresnen beharra justifikatzeko, baliokidetasunaren printzipioa eta erlatibilitate berezia erabiliko dira gai honetan. Biak daude erlatibilitate orokorraren oinarrian eta nahikoak dira esperimentuetan egiaztatu diren ondorio fisiko berriak aurkitzeko.

#### 2.1 Eötvösen esperimentua

Newtonen fisikan hiru leku desberdinan agertzen da masa: indar osoaren eta azelerazioaren arteko proportzionaltasun-konstantetzat Newtonen bigarren legean eta bi aldiz grabitazio unibertsalaren legean. Izan ere, Lurraren eremu grabitatorioan erortzen ari den partikula baten higidura-ekuazioa honela idatz daiteke:

$$m_i \ddot{\mathbf{x}} = -G \frac{M_\oplus m_g}{|\mathbf{x}|^3} \mathbf{x}. \quad (2.1)$$

Lurraren  $M_\oplus$  masa, **masa grabitatorio aktiboa** dela esan dezakegu, erakarpenaren jatorrian baitago. Bestalde, partikularen bi masa idatzi ditugu: bigarren legetik datorren  $m_i$  **masa inertziala** eta grabitazio unibertsalaren legean agertzen den  $m_g$  **masa grabitatorio pasiboa**, erakarpena pairatzen duena. Hemen ez gara masa grabitatorio aktiboaz arduratuko (geroago ikusiko dugu nola sortzen duten grabitazioa masak eta energiak) eta, laburtzeko, masa grabitatorio pasiboa-ri masa grabitatorioa esango diogu. Azken hau eta inertziala proportzionalak direla (eta, beraz, berdinak unitateak ondo aukeratzen badira) suposatu zuten Newtonen eta ondorengo fisikariekin (eta badago, nolabait, Galileoren esperimentuetan): pisua ez da partikularen izaeraren menpekoa, masa (inertzial) osoaren proportzionala baizik.

Hipotesi hau egiaztatzeko Eötvösek bihurdura-balantza bat erabili zuen 1885etik aurrera. Laborategia guztiz inertziala ez denez, partikula geldi batek pairatutako indar zentrifugoa hartu behar da kontuan indar osoan:


$$\mathbf{F} = -G \frac{M_\oplus m_g}{|\mathbf{x}|^3} \mathbf{x} - m_i \boldsymbol{\omega} \times (\boldsymbol{\omega} \times \mathbf{x}), \quad (2.2)$$

non  $\boldsymbol{\omega}$  abiadura angeluarra Lurrarenaren den eta partikularen  $\mathbf{x}$  posizio-bektorea Lurraren zentrotik neurtua. Izaera desberdineko 1 eta 2 partikulen  $m_i/m_g$  zatidurak ez badira guztiz berdinak, pairatzen dituzten  $\mathbf{F}_1$  eta  $\mathbf{F}_2$  indar osoak ez dira guztiz paraleloak izango, haien arteko  $\alpha$  angelu txikia ondoko adierazpenak emandakoa izango baita:

$$\alpha \approx \sin \alpha = \frac{|\mathbf{F}_1 \times \mathbf{F}_2|}{F_1 F_2} \approx \frac{(\boldsymbol{\omega} \times \mathbf{x})(\boldsymbol{\omega} \cdot \mathbf{x}) |\mathbf{x}|}{GM_\oplus} \left| \frac{m_{2i}}{m_{2g}} - \frac{m_{1i}}{m_{1g}} \right| \approx \frac{\sin \lambda \cos \lambda}{300} \left| \frac{m_{2i}}{m_{2g}} - \frac{m_{1i}}{m_{1g}} \right|, \quad (2.3)$$

non  $\lambda$  angelua laborategiaren latitudea den (ikus 2.1 eta 2.2 problemak). Eötvösek aurkitu zuen, oso zehaztasun handiz,  $m_i/m_g$  zatidura berdina dela zenbait materialetan eta handik hona material gehiagorekin, bestelako esperimentuetan eta doitasun handiagoekin egiaztatu da emaitza bera. Adibidez, 2.1 irudian laburtzen dira emaitza batzuk [200], erorketa askean ari diren izaera desberdinako bi gorputzen azelerazioen arteko diferentzia proportzionala neurten duen **Eötvös zatidura** erabiliz:

$$\eta \equiv 2 \left| \frac{a_1 - a_2}{a_1 + a_2} \right| = 2 \left| \frac{\frac{m_{1g}}{m_{1i}} - \frac{m_{2g}}{m_{2i}}}{\frac{m_{1g}}{m_{1i}} + \frac{m_{2g}}{m_{2i}}} \right|. \quad (2.4)$$



2.1 IRUDIA Baliokidetasunaren printzipio ahularen egiaztapen esperimentalak [200].

#### Baliokidetasunaren printzipio ahula

*Masa inertzialaren eta gravitatorioaren arteko erlazioa ez da gorputzaren izaeraren edo barne-egituraren menpekoa.*

Postulatu honen ondorioz, bestelako indarrik pairatzen ez duen gorputz baten ibilbidea eremu gravitatorio batean ez da gorputzaren izaeraren menpekoa. Horrexegatik **erorketa askearen unibertsitatea** deitzen zaio batzuetan printzipio honi.

## 2.2 Higidura hiperbolikoa

Kontsidera dezagun igogailu idealizatu batean geldi dagoen behatzale bat, Lurraren eremu gravitatorioan. Soka apurtzean, oztoporik gabe erortzen bada Lurraren eremu gravitatorioan, behatzaleak ez du pairatuko zoruk eragindako erreakzionik eta eskuan dituen giltzak askatzen baditu, ez dira beherantz abiatuko (areago, beheranzko noranzko ematen digun orekaren zentzumena galduko du behatzaleak). Gravitaterik gabeko laborategi batean bezala gertatuko dira gauzak (hurbilketa on batean bakarrik, 2.5.2 atalean ikusiko dugunez).

Alderantziz, gorputz guztietatik oso urrun badago, igogailuan ez da benetako erakarpen grabitatoriorik pairatuko; baina  $g$  i azelerazio propio konstantez higitzen bada,  $-g$  i eremu grabitatorio artifiziala pairatuko du (geroago frogatuko dugunez, erlatibilitatean ez da guztiz homogeneoa izango).

Azter dezagun behatzale azeleratu horren higidura. Azelerazio propioa pausaguneko sistema inertzialean neurrtutakoa denez, honela idazten dira higidura-ekuazioak eta bete behar diren loturak (gogoratu 1.9 problema) erreferentzia-sistema inertzialean:

$$a^0 = \frac{du^0}{d\tau}, \quad a^1 = \frac{du^1}{d\tau}, \quad (2.5)$$

$$a_\mu a^\mu = - (a^0)^2 + (a^1)^2 = g^2, \quad (2.6)$$

$$u_\mu u^\mu = - (u^0)^2 + (u^1)^2 = -c^2, \quad (2.7)$$

$$u_\mu a^\mu = -u^0 a^0 + u^1 a^1 = 0. \quad (2.8)$$

Hemendik lortzen diren ekuazio diferentzialak (ikus 2.3 problema),

$$\frac{du^0}{d\tau} = \frac{g}{c} u^1, \quad \frac{du^1}{d\tau} = \frac{g}{c} u^0, \quad (2.9)$$

erraz ebatzen dira. Sistema inertzialean behatzalea geldi zegoen unean aukeratzen badira sistema inertzialean neurrtutako denboraren eta behatzalearen denbora propioaren jatorriak —hau da,  $t = \tau = 0$  egiten da  $u^\mu = (c, 0, 0, 0)$  denean—, honela idazten da soluzioa (ikus 2.3 problema):

$$u^0 = c \cosh \frac{g\tau}{c}, \quad u^1 = c \sinh \frac{g\tau}{c}, \quad (2.10)$$

$$ct = \frac{c^2}{g} \sinh \frac{g\tau}{c}, \quad x = \frac{c^2}{g} \cosh \frac{g\tau}{c} + x_0. \quad (2.11)$$

Azken ekuazioetatik  $\tau$  ezabatuz, Minkowskiren diagraman unibertso-lerroa hiperbola-adar baten modura marraztu behar dela ikusten dugu:

$$(x - x_0)^2 - (ct)^2 = \frac{c^4}{g^2}. \quad (2.12)$$


Jatorriaren translazio baten bidez beti lor daiteke  $x_0 = 0$  izatea, hemendik aurrera egingo dugun bezala. Horixe egin da 2.2 irudian behatzalearen unibertso-lerroa (kurba lodia) marrazteko.

**2.1 ARIKETA** Egiaztatu hauexek direla behatzale azeleratuaren abiadura eta Lorentzen faktorea:

$$v = c \tanh \frac{g\tau}{c}, \quad \gamma = \cosh \frac{g\tau}{c}. \quad (2.13)$$

## 2.3 Rindlerren metrika

Eman dezagun, orain, behatzale azeleratuak bere inguruko gertaerak deskribatzeko koordenatu-sistema bat eratzen duela. Bere denbora propioa izango da denbora,  $t' = \tau$ , eta koordenatu espazialak, une bakoitzean, pausaguneko sistemakoak, sistema inertzialeko ardatzekiko paraleloa den triedro cartesiar batean neurtuak. (2.13) emaitzen ondorioz, koordenatu-sistema honen



## 2.2 IRUDIA Behatzaile azeleratuaren hididura hiperbolikoa.

eta behatzaile inertzialaren arteko erlazioa Lorentzen (1.118) transformazio egokia izango da:

$$ct = c\tau \cosh \frac{g\tau}{c} + x' \sinh \frac{g\tau}{c} + b^0(\tau), \quad (2.14)$$

$$x = x' \cosh \frac{g\tau}{c} + c\tau \sinh \frac{g\tau}{c} + b^1(\tau), \quad (2.15)$$

non, (2.13) erabili ondoren, esplizituki adierazi dugun transformazioa  $\tau$  unearen menpekoa dela. Triedroaren jatorria behatzailea dagoen puntuaren aukeratzen bada,  $x' = 0$  izango da,  $(t, x)$  koordenatuak (2.11) adierazpenek emandakoak direnean. Baldintza hauetatik erraz lortzen da  $b^\mu(\tau)$  eta, azken hau (2.14)–(2.15) ekuazioetan ordezkatzuz, hauxe dugu (esan bezala,  $x_0 = 0$  aukeratzen da: ikus 2.3 problema)):

$$ct = \left( x' + \frac{c^2}{g} \right) \sinh \frac{g\tau}{c}, \quad (2.16)$$

$$x = \left( x' + \frac{c^2}{g} \right) \cosh \frac{g\tau}{c}. \quad (2.17)$$

Transformazio hauekin honela geratzen zaigu Minkowskiren metrika<sup>1</sup> (ikus 2.3 problema):

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dx^2 + dy^2 + dz^2 = - \left( 1 + \frac{gx'}{c^2} \right)^2 c^2 d\tau^2 + dx'^2 + dy'^2 + dz'^2. \quad (2.18)$$

### 2.3.1 Denbora propioa

2.2 irudiko jatorritik irteten diren  $ct = \tanh \frac{g\tau}{c} x$  zuzenerdietan daude behatzaile azeleratuaren ikuspuntutik aldiribekoak diren gertaerak ( $\tau = \text{konstantea}$ ) eta  $x^2 - (ct)^2 = (x' + c^2/g)^2$

<sup>1</sup> Ohiturari jarraituz, espazio-denborako tarteari ere deitzen diogu «metrika».

lerro hiperbolikoetan  $x'$  posizio konstantekoak. Azken hauek geldi daude behatzailearen koordenatu-sisteman, baina horrek ez du esan nahi haien denbora propioak berdinak direnik. Izan ere, honela kalkulatzen dira azkenak:

$$d\tau(x') = \frac{\sqrt{-ds^2}}{c} \Big|_{dx'=dy'=dz'=0} = \left(1 + \frac{gx'}{c^2}\right) d\tau, \quad d\tau = d\tau(0). \quad (2.19)$$

Ikusten dugunez, denbora propioak  $x'$  *altueraren* menpekoak dira: bakarrik neurten dute modu berean denbora propioa *altuera* berdinean dauden behatzaileek. Beherago dauden erlojuak astiroago dabiltzala ematen du aditzera emaitza honek. 2.8 atalean zehaztuko dugu susmo hori, goriranzko lerrakuntza grabitatorioa aztertzean.

Gainera, (2.19) emaitzaren ondorioz,  $(x', y', z')$  puntu finkoetan neurututako eremu grabitatorio artifiziala  $g/(1 + gx'/c^2)$  izango da: fisika newtondarrean ez bezala, ez da homogeneoa, garaierarekin txikituz baitoa (ikus 2.5 problema).

### 2.3.2 Horizonteak

Ez dugu zehaztu nola eraikitzen duen behatzaile azeleratuak (2.16)–(2.17) ekuazioek definitutako koordenatu-sistema: agian, argia erabil ahal da erlojuak sinkronizatzeko, sistema inertzialan egin daitekeen bezala. Edozein kasutan,  *$(ct, x', y', z')$  koordenatu-sistemak ez du estaltzen Minkowskiren espazio-denbora osoa*. Izan ere, 2.2 irudian lau eskualde marraztu dira:  $A = \{x > |ct|\}$ ,  $B = \{ct > |x|\}$ ,  $C = \{x < -|ct|\}$  eta  $D = \{ct < -|x|\}$  eta bakarrik marraztu dugu koordenatu-sare berria  $A$  eskualdean.

$C$ -ra hedatzen badugu,  $x' + c^2/g$  balio negatiboetara, gauza bitxiak gertatzen dira: jatorriz haraindi  $\tau$  konstanteko zuzenen ordena temporala alderantziku egiten da:  $t_1 > t_2$  dugu da gozkien balioak  $\tau_1 < \tau_2$  direnean. Bestalde,  $x'$  konstanteko lerroek ez dute inoiz zeharkatzen  $ct = \pm x$  argi-konoa eta ez dira luzatzen  $B$  eta  $D$  eskualdeetara. Gainera, ezin da seinalerik bidali  $A$ -tik  $C$ -ra edo  $C$ -tik  $A$ -ra, erlazio kausalik gabeko eskualdeak baitira (ikus, adibidez,  $G$ -gertae-ratik bidalitako argi-izpiaren unibertso-lerroa). Behatzaile azeleratuak ez du inoiz  $C$  eskualdeko gertaeren berrikin eta ez du inola eragiten haien gainean: horizonteak agertzen dira. Iraganeko horizontea  $ct = -x$  da, behatzaileak ez baitu inolako eraginik azpian dagoen  $ct < -x$  eskualdean. Etorkizuneko horizontea  $ct = x$  da, gainean dauden  $ct > x$  gertaerek ez baitute inolako eraginik behatzailearen eta honek ez du inoiz haien berrikin: **gertaera-horizontea** dela esaten da. Behatzailearen hidurak sortzen ditu horizonte hauek, baina erlatibilitate orokorrean bestelako fenomenoek (hala nola kolapso grabitatorioak edo unibertsoaren hedapenak) sor ditzakete horizonteak.

Rindlerren  $(ct, x', y', z')$  koordenaturek<sup>2</sup> bakarrik deskribatzen dute Minkowskiren espazio-denborako  $A$  eskualdea eta Minkowski osoa estaltzeko bestelako koordenatuak erabili behar dira. Antzeko gauza bat gertatzen da batzuetan erlatibilitate orokorrean: Einsteinen ekuazioen soluzio bat adierazteko erabilitako koordenatuak, transformazio baten bidez, espazio-denbora za-balago batera hedatzen daitezke zenbait kasutan (horixe egingo dugu 5.6 eta 5.7 ataletan).

Nahiz eta behatzaile inertzialentzat espazioa guztiz hutsik egon, Unruh efektuaren arabera, teoriak aurrezten du bainu termiko kuantiko batean dagoela neurutuko duela behatzaile azeleratuak. Bainuaren temperatura honela idazten da, Boltzmannen  $k$  konstanteaz baliatuz [40]:

$$T = \frac{\hbar g}{2\pi ck}. \quad (2.20)$$

---

<sup>2</sup>Batzuetan  $\tilde{x} \equiv x' + c^2/g$  aukeratzen da  $x'$ -ren ordez, adierazpen batzuk laburtzeko. Aukera horrekin  $x' = 0$  behatzailea  $\tilde{x} = -c^2/g$  *altueran* dago.

### 2.3.3 Metrika

Honela idazten da (2.18) adierazpeneko espazio-denborako tarteak sistema inertzialean eta eremu grabitatorio artifiziala pairatzen duen behatzaleak erabilitako koordenatuetan:

$$ds^2 = \eta_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu = g_{\mu\nu}(x') dx^{\mu'} dx^{\nu'}, \quad g_{\mu\nu}(x') = \begin{pmatrix} -(1 + gx'/c^2)^2 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 1 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 1 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 1 \end{pmatrix}. \quad (2.21)$$

Grabitazio artifizialak erlojuetan eta erregeletan duen eragina deskribatzeko behar dugun  $g_{\mu\nu}$  metrika, Minkowskirena ez bezala, posizioaren menpeko da. Ohar zaitez *bi koordenatu-sistemen arteko (2.16)–(2.17) transformazioa ez dela Lorentzen transformazio bat* (lineala ere ez da).

Grabitazio artifiziala deskribatzeko  $\Phi = gx'$  potentzial grabitatorioaren funtzioa den  $g_{\mu\nu}$  metrika erabili dugu hemen; era berean, *eremu grabitatorioa deskribatzeko, potentzial grabitarioen bilduma den metrika bat erabiliko dugu*<sup>3</sup> eta, oro har, denboraren eta espazioaren funtzioa izango da: Riemannen geometriaren laguntza beharko dugu.

Minkowskiren koordenatuetan inertzialak diren behatzaleak, erortzen ari dira Rindlerren koordenatuetan, grabitazio artifizialaren ondorioz (ikus 2.8 problema). Pentsa genezake, eremu grabitatorio orokorren kasuan ere,  $x^{\mu'} \rightarrow x^\mu$  transformazio ez-lineal egoki baten bidez lortutako koordenatuetan inertzialak izango liratekeela erorketa askean higitzen ari diren behatzaleak. Oro har, ez dago eremu grabitatorioa guztiz desagerrazten duen transformaziorik: ezin da Minkowskiren metrika berreskuratu puntu guzietan, azpian dagoen geometria, Minkowskirena ez bezala, kurbatua baita. Alabaina, *lokalki*, edozein gertaeratik hurbil, grabitazioa desagertu egiten da erortzen ari den sisteman. Hauxe dugu erlatibilitatea orokorraren lehen printzipioa<sup>4</sup> (batzuetan **baliokidetasunaren printzipio sendoa** deitzen dena):

#### Baliokidetasunaren printzipioa

1. *Baliokidetasunaren printzipio ahula betetzen da.*
2. *Edozein eksperimentu ez-grabitazionalaren emaitza, erorketa askean ari den erreferentzia-sistema lokalaren abiaduraren independentea da (Lorentz aldaezintasun lokala).*
3. *Eksperimentu ez-grabitazionalen emaitzak ez dira unibertsoko puntuaren eta unearen menpekoak (posizioarekiko aldaezintasun lokala).*


Lorentzen aldaezintasun lokalaren ondorioz, *erorketa askean*<sup>5</sup> ari diren *erreferentzia-sistema inertzial lokaletan fisika lokal ez-grabitatorioa erlatibilitate bereziarena da*: azken teoria honetan oinarritzen da erlatibilitate orokorra, eremu grabitatorioetara hedatzeko. Erreferentzia-sistema horretan oztoporik gabe erortzen ari diren gorputzen ibilbideak zuzenak izango dira *lokalki*. Behin eta berriro erabili dugun azken aditzondoa zehaztu beharko da geroago; aski izan bedi, oraingoz, gorputz horien ibilbideak espazio-denborako geodesikoak izango direla estatea. Posizioarekiko

<sup>3</sup>1912an hasi zen Einstein horrela egiten (Marcel Grossmannen laguntzarekin), 1915ean erlatibilitate orokorrean amaituko ziren lanetan.

<sup>4</sup>1907an hasi zen Einstein printzipio honetaz baliatzen, grabitazioaren teoria berria eraikitzeo.

<sup>5</sup>Unibertsoko materia urrunarekiko ez dela biratzen ere suposatu behar da, Machen printzipioaren ondorioz.

aldaezintasun lokalaren ondorioz, hidrogenoaren espektroaren lerroen egitura berbera da gaur laborategian eta orain dela hamar mila miloi urte quasar urrun batean sortutako argian (azken kasuan, teleskopioan espektroa aztertzean, geroago aztertuko dugun goriranzko lerrakuntza gravitatorioa hartu behar da kontuan).



2.3 IRUDIA Baliokidetasunaren printzipioaren egiaztapen esperimentalak [200].

2.3 irudian laburtzen dira (ezkerrean) Lorentz aldaezintasun lokalaren eta (eskuinean) posizioarekiko aldaezintasun lokalaren egiaztapen esperimentalak [200]. Lehenengoen kasuan elektrodinamikaren aldaezintasuna egiaztatzen da, itzelezko doitasunarekin, eta  $\delta \equiv c^2/c_n^2 - 1$  parametroak neurten du, zenbait baldintza desberdinetan, neur tutako argiaren  $c_n$  abiadura eta sistema inertzialetako  $c$ -ren arteko differentzia. Bigarren motako esperimentuetan goriranzko lerrakuntza gravitatorioa neurten da (ikus 2.8 atala), zenbait era desberdinetan, eta  $\alpha \equiv z_n/z - 1$  parametroak neurten du erlatibilitate orokorrak emandako  $z = \Delta\lambda/\lambda$  lerrakuntzaren eta neur tutako  $z_n$ -ren arteko differentzia. Irudi horretan «GLN» jarri da bi erlojuen arteko goriranzko lerrakuntza nula egiazatzeko egindako esperimentuetan.

Baliokidetasunaren printzipio soilaz baliatuz ondorio fisikoak lortzen dira. Adibidez, sistema inertzial lokalean erlatibilitate berezia betetzen denez, argiaren ibilbidea zuzena izango da han; baina sistema lokala erortzen ari denez, beste sistema batzuetan (Eguzkiaren azalean, adibidez) ibilbide hori kurbatua izango da. Ondorio kualitatibo hau kuantitatibo bihurtzeko fisika gehiago behar dugu (ikus 5.3.2 atala); baina 2.8 ataleko goriranzko lerrakuntza gravitatorioa kalkulatzeko nahikoa izango da matematika apur bat eta baliokidetasunaren printzipioa.

## 2.4 Metrika

Aukera ditzagun gertaera bat eta bertan erorketa askean ari den sistema inertzial lokal bat. Azken honetan koordenatuak, **koordenatu inertzial lokalak**,  $X^\mu$  dira eta bestelako koordenatuak  $X^\mu \rightarrow x^\mu$  transformazio orokoren bidez lortzen dira. Transformazio horiek edonolakoak izan daitezke, bakarrik eskatzen da erregularrak eta alderanzgarriak izateko (denak baitira koordenatu-sistemak):

$$\det \left( \frac{\partial x^\mu}{\partial X^\nu} \right)_{\mu,\nu=0}^3 \neq 0, \quad \frac{\partial x^\lambda}{\partial X^\mu} \frac{\partial X^\mu}{\partial x^\nu} = \delta_\nu^\lambda. \quad (2.22)$$

$x^\mu$  koordenatuak, nolanahikoak izan daitezke: laborategiko denbora eta koordenatu cartesiarrak edo denbora eta koordenatu polarak edo sistema azeleratu batean neurten direnak...

Sistema lokalean Minkowskiren metrika dena  $x^\mu$  koordenatuetan idazten bada, honela geratzen da espazio-denborako tartea, *aipaturiko gertaera*:

$$ds^2 = \eta_{\rho\sigma} dX^\rho dX^\sigma = \eta_{\rho\sigma} \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\nu} dx^\mu dx^\nu. \quad (2.23)$$

Beraz, **tentsore metrikoa**

$$g_{\mu\nu} = g_{\nu\mu} \equiv \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\nu} \eta_{\rho\sigma} \quad (2.24)$$

eran definitzen bada, hauxe dugu espazio-denborako elementua<sup>6</sup>:

$$ds^2 = g_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu. \quad (2.25)$$

Gertaeraren menpekoa den tentsore-eremu simetriko, kobariantea eta alderanzgarria da (2.24) metrika eta dagokion alderantzizko metrika kontrabariantea honako hau:

$$g^{\mu\nu} = \eta^{\rho\sigma} \frac{\partial x^\mu}{\partial X^\rho} \frac{\partial x^\nu}{\partial X^\sigma}, \quad g^{\mu\nu} g_{\nu\lambda} = \delta_\lambda^\mu. \quad (2.26)$$

**2.2 ARIKETA** Egiaztatu (2.26) formulako  $g^{\mu\nu}$  tentsorea metrikaren alderantzizkoa dela. Frogatu honela transformatzen dela tentsore metrikoa  $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  transformazio erregular alderanzgarri *orokorrean* ( $g \equiv \det(g_{\mu\nu})_{\mu,\nu=0}^3 \neq 0$ ):

$$g_{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} g_{\rho\sigma}, \quad (2.27)$$

$$g^{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^\mu'}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} g^{\rho\sigma}. \quad (2.28)$$

*Iradokizuna:* Gogoratu

$$\frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\sigma} = \delta_\sigma^\rho, \quad \frac{\partial x^{\rho'}}{\partial x^\mu} \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\sigma'}} = \delta_\sigma^\rho. \quad (2.29)$$

Azpimarratu behar da *hemendik aurrera koordenatuen transformazio orokorreko kobariantzia kontsideratzen dugula* eta ez bakarrik Poincaréren transformazio linealekiko kobariantzia.

Partikula baten **denbora propioa** unibertsoko-lerroan barrena definitzeko, baliokidetasunaren printzipioaz balia gaitezke. Sistema inertzial lokalean  $-c^2 d\tau^2 = ds^2$  denez, hauxe dugu, unibertsoko-lerroan barrena, (2.25) emaitzaren ondorioz:

$$d\tau = \frac{1}{c} \sqrt{-\eta_{\mu\nu} dX^\mu dX^\nu} = \frac{1}{c} \sqrt{-g_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu}. \quad (2.30)$$

## 2.5 Konexioa

Eman dezagun masadun partikula<sup>7</sup> bat oztoporik gabe erortzen ari dela eremu grabitatorio batean. Erreferentzia-sistema inertzial lokalean abiadura konstantez higitzen da<sup>8</sup>:

$$\frac{d^2 X^\rho}{d\tau^2} = 0. \quad (2.31)$$

<sup>6</sup>Gogoratu 38 orrialdeko 1 oin-oharra.

<sup>7</sup>«Partikula» izena erabiltzen dugunean, **proba-partikula** dela esan nahi dugu, hau da, berak sortutako eremu grabitatorioa arbuiatzenten dugula: beste gorputzek (eta eremuek) sortutako eremu grabitatorioan higitzen da.

<sup>8</sup>2.5.2 atalean zehaztuko dugu baieztagen hau.

Bestelako koordenatuetan honela geratzen da higidura-ekuazioa (ikus 2.5.2 atala):

$$0 = \frac{d}{d\tau} \left( \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{dx^\mu}{d\tau} \right) = \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{d^2 x^\mu}{d\tau^2} + \frac{\partial^2 X^\rho}{\partial x^\mu \partial x^\nu} \frac{dx^\mu}{d\tau} \frac{dx^\nu}{d\tau}. \quad (2.32)$$

Emaitsa hau alderantzizko  $\partial x^\lambda / \partial X^\rho$  matrizearekin biderkatuz, erorketa askean partikularen higidura-ekuazioa **geodesikoen ekuazioa** dela ikusten dugu:

$$\frac{d^2 x^\lambda}{d\tau^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\tau} \frac{dx^\nu}{d\tau} = 0, \quad \left( g_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{d\tau} \frac{dx^\nu}{d\tau} = -c^2 \right). \quad (2.33)$$

Hemen (2.30) emaitza eta ondoko notazioa erabili ditugu:

$$\Gamma_{\mu\nu}^\lambda = \Gamma_{\nu\mu}^\lambda \equiv \frac{\partial x^\lambda}{\partial X^\rho} \frac{\partial^2 X^\rho}{\partial x^\mu \partial x^\nu}. \quad (2.34)$$

Masa gabeko partikulen kasuan ere, erorketa askean ari den erreferentzia-sistema lokalean abiadura konstantea da, baina orain ezin erabil daiteke denbora propioa, unibertso-lerro nuluetan  $ds^2 = 0$  baita. Horren ordez  $\sigma \equiv X^0$  eta goiko metodoa erabil daitezke geodesiko nuluen ekuazioa lortzeko:

$$\frac{d^2 x^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0, \quad \left( g_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0 \right). \quad (2.35)$$

### 2.5.1 Metrika eta konexioa<sup>9</sup>

Konexioa (eta geodesikoen ekuazioa) kalkulatzeko ez da beharrezkoa koordenatu inertzial lokalkak ezagutzea; nahikoa da metrika koordenatu-sistemaren batean edukitzea (Einsteinen ekuazioak koordenatu horietan ebaztean lortu dugulako, adibidez). (2.34) definizioa  $\partial X^\sigma / \partial x^\lambda$ -rekin biderkatuz,  $X^\mu$  koordenatuek bete behar dituzten ekuazio diferenzialak lortzen dira:

$$\frac{\partial^2 X^\sigma}{\partial x^\mu \partial x^\nu} = \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\lambda}. \quad (2.36)$$

Hortaz, honela idazten dira (2.24) metrikaren deribatuak:

$$\begin{aligned} g_{\mu\nu,\lambda} &= \eta_{\rho\sigma} \frac{\partial^2 X^\rho}{\partial x^\mu \partial x^\lambda} \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\nu} + \eta_{\rho\sigma} \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{\partial^2 X^\sigma}{\partial x^\nu \partial x^\lambda} \\ &= \eta_{\rho\sigma} \Gamma_{\mu\lambda}^\alpha \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\alpha} \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\nu} + \eta_{\rho\sigma} \Gamma_{\nu\lambda}^\alpha \frac{\partial X^\rho}{\partial x^\mu} \frac{\partial X^\sigma}{\partial x^\alpha} \\ &= g_{\nu\alpha} \Gamma_{\mu\lambda}^\alpha + g_{\mu\alpha} \Gamma_{\nu\lambda}^\alpha. \end{aligned} \quad (2.37)$$

Orain,  $g_{\mu\nu}$  eta  $\Gamma_{\mu\nu}^\lambda$  magnitudeak azpiindizeekiko simetrikoak direnez,

$$\Gamma_{\rho\mu\nu} \equiv \frac{1}{2} (g_{\rho\mu,\nu} + g_{\rho\nu,\mu} - g_{\mu\nu,\rho}) \quad (2.38)$$

$$= \frac{1}{2} (g_{\mu\alpha} \Gamma_{\rho\nu}^\alpha + g_{\rho\alpha} \Gamma_{\mu\nu}^\alpha + g_{\nu\alpha} \Gamma_{\rho\mu}^\alpha + g_{\rho\alpha} \Gamma_{\nu\mu}^\alpha - g_{\nu\alpha} \Gamma_{\mu\rho}^\alpha - g_{\mu\alpha} \Gamma_{\nu\rho}^\alpha) \quad (2.39)$$

$$= g_{\rho\alpha} \Gamma_{\mu\nu}^\alpha.$$

<sup>9</sup>Atal honetako frogapena ez da osoa, baina emaitza zuzena da: ikus [25] liburuko 74. or.

$\Gamma_{\rho\mu\nu}$  koefizienteak **lehen motako Christoffelen ikurrak** deitzen dira eta  $g^{\lambda\rho}\Gamma_{\rho\mu\nu} = \Gamma_{\mu\nu}^\lambda$  kontraktzioak, **bigarren motako Christoffelen ikurrak** edo **konexio-koefizienteak** edo **konexioa**<sup>10</sup>:

$$\Gamma_{\mu\nu}^\lambda = \frac{1}{2}g^{\lambda\rho}(g_{\rho\mu,\nu} + g_{\rho\nu,\mu} - g_{\mu\nu,\rho}). \quad (2.40)$$

## 2.5.2 Erreferentzia-sistema inertzial lokala

Koordenatu inertzial lokaletik koordenatu orokortuetara joan gara aurreko ataletan, baina alderantziz ere egin daiteke,  $x^\mu$  koordenatu orokorretatik hasita,  $X^\mu$  koordenatu inertzial lokalak lortzeko. Izan ere,  $G = x_0^\mu$  gertaeraren inguruan eraiki nahi baditugu azkenak,  $A^\sigma = X^\sigma(x_0)$  eta  $B_\mu^\sigma = \partial X^\sigma / \partial x^\mu(x_0)$  konstanteak aukeratu ondoren, (2.36) erlaziotik

$$\frac{\partial^2 X^\sigma}{\partial x^\mu \partial x^\nu}(x_0) = \Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x_0) B_\lambda^\sigma \quad (2.41)$$

lortzen da eta aipaturiko erlazioaren deribatuetaik soluzioaren Taylorren garapeneko beste koeffiziente guztiak:

$$X^\sigma = A^\sigma + B_\mu^\sigma(x^\mu - x_0^\mu) + \frac{1}{2}B_\lambda^\sigma \Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x_0)(x^\mu - x_0^\mu)(x^\nu - x_0^\nu) + \dots \quad (2.42)$$

Ez da haritzekoa hemen  $A^\sigma$  eta  $B_\mu^\sigma$  integracio-konstanteak agertzea:  $X^\sigma$  koordenatuak inertzial lokalak badira, Poincaréren transformazio baten bidez lortutako  $b^\sigma + \Lambda_\mu^\sigma X^\mu$  guztiak ere koordenatu inertzial lokalak izango dira. Izan ere,  $A^\sigma$  edonolakoa izan daiteke, baina (2.24) ekuaziotik lortzen den

$$g_{\mu\nu}(x_0) = \eta_{\rho\sigma} B_\mu^\rho B_\nu^\sigma \quad (2.43)$$

baldintzako ezkerreko gaiak finkoak direnez, geratzen den askatasuna  $B_\mu^\sigma \rightarrow \Lambda_\rho^\sigma B_\mu^\rho$  Lorentzen transformazioena da (gogoratu (1.119) propietatea).

Aitorru behar da, matematika minimo batera laburtzeko, ez dugula guztiz zehaztu zer den baliokidetasunaren printzipioak bermatzen duen erreferentzia-sistema inertzial lokala, **Lorentzen sistema lokala** ere deitzen dena. Erlatibilitate bereziaren sistema inertzial globalen antzekoena da nahi dena. Horrela,  $x_0^\mu$  gertaeraren inguruko sistema inertzial lokala, ondoko propietateak betetzen dituen edozein koordenatu-sistema izango da:

$$g_{\mu\nu}(x_0) = \eta_{\mu\nu}, \quad g_{\mu\nu,\lambda}(x_0) = 0, \quad \Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x_0) = 0. \quad (2.44)$$

Ageri denez, azken bi propietateak baliokideak dira eta, 3.8 probleman frogatuko dugun bezala, (2.42) ekuazioek definitutako koordenatuek (2.44) baldintzak betetzen dituzte. Oro har, espazio-denbora kurbatua izango denez, ezin da eskatu metrikaren bigarren deribatuak ere nuluak izateko gertaera horretan (ikus, adibidez, [16] liburuko 139. or.). Horrek esan nahi du (2.31) higidura-ekuazioa bakarrik betetzen dela zehaztasun osoz  $x_0^\mu$  puntuau. Izan ere, baliokidetasunaren printzipioaren ondoriozta onartuko ditugun (2.44) baldintzak, implizituki erabili dira aurreko kalkuluetan, (ikus [25] liburuko 74. or.). Edozein kasutan, lortutako emaitzak —hala nola (2.33), (2.25), (2.35) eta (2.40)— erlatibilitate orokorraren oinarrian daude (ikus, adibidez, [1] liburuko 2. gaia).

<sup>10</sup>Testuinguruaren arabera **konexio afina**, **konexio lineala**, edo **Riemannen konexioa** deitzen zaio konexio honi eta, batzuetan  $\left\{ \begin{matrix} \lambda \\ \mu \nu \end{matrix} \right\} = \Gamma_{\mu\nu}^\lambda$  notazioa erabiltzen da.  $[\mu\nu, \lambda] = \Gamma_{\lambda\mu\nu}$  ere aurki daiteke batzuetan.

Nahikoa da konexioa koordenatu inertzial lokalak eratzeko eta hauetan ez dago eremu gravitatoriorik. Hortaz, badirudi grabitazioaren eraginari buruzko informazio osoa metrikan eta konexioan dagoela. Hala dela ikusiko dugu hurrengo orrieta. Izan ere, partikularen azelerazioa geodesikoen (2.33) ekuazioak emandakoa denez, eremu grabitatorioaren nolabaiteko ordezkoa da konexioa eta, azken hau metrikaren deribatuen konbinazio bat denez, metrikaren koefizien-teek potentzial grabitatorioa orokortzen dute.

## 2.6 Geodesikoak eta denbora propioa

Ikus dezagun zergatik erabili dugun «geodesiko» izena erorketa askean ari den partikula baten higidura-ekuazioan. Horretarako 1.4 problemako aldakuntza-printzipioa orokortuko dugu. Unibertsoko lerro bakoitzeko puntuak deskribatzeko  $\sigma$  parametro bat aukeratzen badugu, hauxe da  $G_1 = x_1^\mu$  eta  $G_2 = x_2^\mu$  gertaeren arteko denbora propioa:

$$T \equiv \int_1^2 d\tau = \frac{1}{c} \int_1^2 \sqrt{-g_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu} = \frac{1}{c} \int_{\sigma_1}^{\sigma_2} \sqrt{-g_{\mu\nu} v^\mu v^\nu} d\sigma, \quad \left( v^\mu \equiv \frac{dx^\mu}{d\sigma} \right). \quad (2.45)$$

Orain  $x^\mu(\sigma_1)$  eta  $x^\mu(\sigma_2)$  mutur finkoak lotzen dituzten  $x^\mu(\sigma)$  kurba matematiko guztiak kontsideratzen badira,  $T$  funtzionala egonkorra<sup>11</sup> izango da,

$$\delta T = 0 \quad (2.46)$$

baldintzaren baliokideak diren Euler eta Lagrangeren ekuazioak betetzen badira [214]:

$$0 = \frac{d}{d\sigma} \frac{\partial L}{\partial v^\mu} - \frac{\partial L}{\partial x^\mu}, \quad L \equiv \frac{1}{c} \sqrt{-g_{\mu\nu} v^\mu v^\nu}, \quad (2.47)$$

$$0 = -\frac{1}{c^2} \left[ \frac{d}{d\sigma} \left( \frac{1}{L} g_{\mu\nu} v^\nu \right) - \frac{1}{2L} g_{\alpha\beta,\mu} v^\alpha v^\beta \right], \quad (2.48)$$

$$0 = \frac{1}{L} \frac{d}{d\sigma} \left( \frac{1}{L} g_{\mu\nu} \frac{dx^\nu}{d\sigma} \right) - \frac{1}{2L^2} g_{\alpha\beta,\mu} \frac{dx^\alpha}{d\sigma} \frac{dx^\beta}{d\sigma}. \quad (2.49)$$

Baina, higiduran  $d\tau = L d\sigma$  denez,

$$\frac{df}{d\tau} = \frac{1}{L} \frac{df}{d\sigma}, \quad (2.50)$$

$$0 = \frac{d}{d\tau} (g_{\mu\nu} u^\nu) - \frac{1}{2} g_{\alpha\beta,\mu} u^\alpha u^\beta, \quad u^\nu \equiv \frac{dx^\nu}{d\tau}, \quad (2.51)$$

$$0 = g_{\mu\nu} \dot{u}^\nu + g_{\mu\nu,\alpha} u^\nu u^\alpha - \frac{1}{2} g_{\alpha\beta,\mu} u^\alpha u^\beta, \quad \dot{u}^\nu \equiv \frac{du^\nu}{d\tau}. \quad (2.52)$$

(2.40) konexioa simetrikoa denez, azken ekuazioaren eta  $g^{\lambda\mu}$  metrikaren arteko kontraktzioa geodesikoen (2.33) ekuazioa da:

$$\dot{u}^\lambda + \frac{1}{2} g^{\lambda\mu} (2g_{\mu\beta,\alpha} - g_{\alpha\beta,\mu}) u^\alpha u^\beta = \dot{u}^\lambda + \Gamma_{\alpha\beta}^\lambda u^\alpha u^\beta = 0. \quad (2.53)$$

---

<sup>11</sup>Espazio-denboraren kasuan, maximoa —gutxienez, bi gertaerak hurbil badaude— edo inflexio-puntu. Gogoratu 1.3 eta 1.4 problemak eta ikus [14] liburuko 13.4 atala.

Lehenago aipatu ez badugu ere, argi dago goiko kalkulua ezin egin daitekeela masa gabeko partikulen higiduran,  $d\tau = 0$  baita kasu horretan. Masadun partikulen kasuan bakarrik esan dezakegu proba-partikulen higidura, bidaiaren denbora propioa egonkorra egiteko moduan, hau da, (2.46) aldakuntza-printzipoaren arabera, gertatzen dela. Badago, hala ere, mota guzietako partikulen higidura-ekuazioak lortzeko erabil daitekeen aldakuntza-printzipo bat: ikus 2.13 problema. Bestalde, badago geodesikoen bigarren definizio bat, masa gabeko partikulen higidura-ekuazioetan ere betetzen dena: 3.9 probleman, aldakuntza-printziorik erabili gabe, ikusiko dugun definizio horren esanahi geometrikoa oinarritzko da.

## 2.7 Limite newtondarra

Eman dezagun partikula ez-erlatibista bat higitzen dela masa-banaketa bornatu batek sortutako eremu grabitatorio *estatiko ahul* batean. Teoria newtondarrean azken honen  $\Phi$  potentziala infinituan zero izateko moduan aukera daiteke. Abiadura txikia denez, honela idazten da (2.33) ekuazioa,  $x^0 = ct$  jartzen badugu:

$$\left| \frac{dx^i}{d\tau} \right| \ll \frac{dx^0}{d\tau} \implies \frac{d^2x^\lambda}{d\tau^2} + \Gamma_{00}^\lambda \frac{dx^0}{d\tau} \frac{dx^0}{d\tau} = \frac{d^2x^\lambda}{d\tau^2} + c^2 \Gamma_{00}^\lambda \left( \frac{dt}{d\tau} \right)^2 = 0. \quad (2.54)$$

Eremua estatikoa denez, denborarekiko deribatuak nuluak dira:

$$\Gamma_{00}^\mu = -\frac{1}{2}g^{\mu\nu}g_{00,\nu} = -\frac{1}{2}g^{\mu i}g_{00,i}. \quad (2.55)$$

Eremua ahula bada, dagokion metrika eta Minkowskirena ez dira oso desberdinak izango,

$$g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu} + h_{\mu\nu}, \quad |h_{\mu\nu}| \ll 1, \quad (2.56)$$

eta  $h$ -rekiko koordinatuek diren gaiak arbuiatuz, hauxe dugu:

$$\Gamma_{00}^\mu = -\frac{1}{2}\eta^{\mu i}h_{00,i} \implies \begin{cases} \Gamma_{00}^0 = 0, \\ \Gamma_{00}^i = -\frac{1}{2}\delta^{ij}h_{00,j}. \end{cases} \quad (2.57)$$

Honela geratzen dira, bada, (2.54) ekuazioak:

$$\frac{d^2t}{d\tau^2} = 0 \iff \frac{dt}{d\tau} = \text{konstantea}, \quad (2.58)$$

$$\frac{d^2\mathbf{x}}{d\tau^2} = \frac{c^2}{2} \left( \frac{dt}{d\tau} \right)^2 \nabla h_{00} \implies \frac{d^2\mathbf{x}}{dt^2} = \frac{c^2}{2} \nabla h_{00}. \quad (2.59)$$

Mekanika newtondarrean, hauxe da higidura-ekuazioa:

$$\frac{d^2\mathbf{x}}{dt^2} = -\nabla\Phi. \quad (2.60)$$

Ondorioz,  $h_{00} = -2\Phi/c^2 + K$  dugu.  $K$  integrazio-konstantea nulua dela ikusteko, erabil dezagun distantzia infinitura  $\Phi \rightarrow 0$  dugula eta, eremua desagertzean erlatibilitate berezia berreskuratzeko,  $g_{00} = -1 + h_{00} \rightarrow \eta_{00} = -1$ , hau da,  $h_{00} \rightarrow 0$ . Beraz, eremu grabitatorio estatiko ahuletan, potentzial grabitatorio newtondarren eta erlatibistaren arteko erlazioa hauxe da:

$$g_{00} \approx -\left( 1 + 2\frac{\Phi}{c^2} \right). \quad (2.61)$$

Eguzkiaren azalean  $\Phi/c^2 \approx -2.12 \times 10^{-6}$  da eta Lurraren azalean  $\Phi/c^2 \approx -6.95 \times 10^{-10}$ : grabitazioak oso gutxi aldatzen du geometria, kasu horietan. Eremu grabitatorio bortitzak behar dira aldaketak handiak izateko; horrexegatik dira hain erabilgarriak mekanika newtondarra eta erlatititate berezia, bakoitzaz bere esparruan.

Adibidez, satelite baten hididura deskribatzeko (Lurraren esferikotasunik ezaren eta atmosferaren eraginak ahaztuta) mekanika newtondarren (2.60) ekuazioa erabil daiteke, hurbilketa onean, baina interpretazioa ez da berdina bi teorietan.

- Newtonen teorian, (eremu grabitatorioak eragindako) indar grabitatorioaren ondorioz, teoria horretako ibilbide aske zuzen batean higitu beharrean, orbita eliptiko batean mugituko da satelite azeleratua.
- Einsteinen teorian, satelitearen hididura askea da: (2.31) baldintzaren arabera, hiru dimensioko azelerazioa nulua da, une bakoitzean, sistema inertzial lokalean (eta, ondorioz, (2.33) ekuazioan agertu ondoren, (3.23) delakoan definituko dugun azelerazio erlatibista zero da, koordenatu-sistema guztieta). Baina teoria honetako ibilbide askeak, hau da, geodesikoak, ez dira, oro har, zuzenak, grabitazioak sortutako geometriaren kurbaduraren ondorioz.

## 2.8 Gorrianzko lerrakuntza grabitatorioa

Azter dezagun eremu grabitatorio batean higitzen ari den erloju atomiko batek neurtzen duen  $d\tau$  denbora-tarte propioa. Baliokidetasunaren printzipioaren arabera, sistema inertzial lokalean erlatititate berezia betetzen denez, hauxe dugu, gertaera bakoitzean, (2.30) tarte propioaren balioa:

$$d\tau = \frac{1}{c} \sqrt{-\eta_{\rho\sigma} dX^\rho dX^\sigma} = \frac{1}{c} \sqrt{-g_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu} = \frac{1}{c} \sqrt{-g_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{dt} \frac{dx^\nu}{dt}} dt. \quad (2.62)$$

Hauxe izango lizateke tiken arteko tarte (edo trantsizio atomiko edo nuklear batek sortutako erradiazioaren periodoa) erlojua (edo iturria) geldi balego, grabitaziorik gabe.

Koordenatu-sistema orokorrean tartea

$$dt = \frac{dt}{d\tau} d\tau = c \left( -g_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{dt} \frac{dx^\nu}{dt} \right)^{-1/2} d\tau \quad (2.63)$$

da eta *koordenatu-sistema horretan erlojua geldi badago*,


$$dt = \frac{d\tau}{\sqrt{-g_{00}}}. \quad (2.64)$$

Erlazio hau egiaztatzeko, nolabait behar dira puntu batean egindako neurketak beste puntu bateraino. Eman dezagun trantsizio batek sortutako uhin elektromagnetiko monokromatikoa bat igortzen duela iturriak  $x_1^\mu$  gertaera eta  $x_D^\mu$  gertaera neurtzen duela detektagailuak. Iturrian uhinaren maiztasun propioa, hau da, iturria geldi dagoeneko sistema inertzial lokalean neurtua,  $\nu_1$  bada, nolakoa izango da detektagailuan neurtua?

Gauzak errazteko (3.11 probleman aztertzen da kasu orokorra), eman dezagun metrika **estatikoa** dela, hau da, espazio-denboraren tartearen ondoko eran idazteko  $(t, \mathbf{x})$  koordenatu-sistemaren bat existitzen dela:

$$ds^2 = g_{00}(\mathbf{x}) dt^2 + g_{ij}(\mathbf{x}) dx^i dx^j. \quad (2.65)$$

$g_{0i} = \partial g_{\mu\nu} / \partial t = 0$  dugu, beraz. Konsidera dezagun koordenatu horietan bi puntutan *geldi* dauden uhin elektromagnetikoen iturri bat eta detektagailu bat. (Ageri denez, iturria eta detektagailua ez dira, oro har, inertzialak.)



#### 2.4 IRUDIA Uhinaren igorpena eta detekzioa.

$t_I$  unean fotoi bat abiatzen bada iturritik,  $x^\mu(\sigma)$  ibilbidean barrena, eta  $t_D$  unean jasotzen bada detektagailuan, fotoaren unibertsalero nuluan sistema inertzial lokalean —eta, ondorioz, koordenatu guztietan—  $ds^2 = 0$  dugunez, hauxe da (2.65) metrikatik lortutako hegaldi-denbora:

$$t_D - t_I = \int_{\sigma_I}^{\sigma_D} \frac{dt}{d\sigma} d\sigma = \int_{\sigma_I}^{\sigma_D} \sqrt{\frac{g_{ij}(\mathbf{x}(\sigma)) \dot{x}^i \dot{x}^j}{-g_{00}(\mathbf{x}(\sigma))}} d\sigma, \quad \left( \dot{x}^i \equiv \frac{dx^i}{d\sigma} \right). \quad (2.66)$$

Baina differentzia hau ez da  $t$  denboraren menpekoia, iturriaren eta detektagailuaren posizioen funtzioa hutsa baizik.

Ondorioz, (2.64) emaitzaren arabera,

$$\Delta t_I = \frac{1}{\nu_I \sqrt{-g_{00}(x_I)}} \quad (2.67)$$

tarte bakoitzean uhinaren maximo bat abiatzen bada iturritik, detekzioen arteko  $\Delta t_D$  tarte berdina da koordenatu hauetan:

$$\Delta t_D = \Delta t_I. \quad (2.68)$$

Espero zitekeen emaitza hau, bestela zer gertatuko litzateke sobran edo faltan dauden maximoekin? (Ikus 2.4 irudia.) Bestalde, detektagailuan

$$\Delta t_D = \frac{1}{\nu_D \sqrt{-g_{00}(x_D)}} \quad (2.69)$$

dugunez, hauxe lortzen dugu (2.68) berdintzatik:

$$\frac{\nu_I}{\nu_D} = \sqrt{\frac{g_{00}(x_D)}{g_{00}(x_I)}}. \quad (2.70)$$

Gorriranzko lerrakuntza uhin-luzeraren aldaketa proportzionala da:

$$z \equiv \frac{\lambda_D - \lambda_I}{\lambda_I} = \frac{\nu_I - \nu_D}{\nu_D}. \quad (2.71)$$

Ondorioz, aztertzen ari garen kasuan,

$$1 + z = \frac{\nu_I}{\nu_D} = \sqrt{\frac{g_{00}(x_D)}{g_{00}(x_I)}} \quad (2.72)$$

dugu eta, *eremua ahula bada*, (2.61) hurbilketaren ondorioz:

$$z \approx \frac{\Phi(x_D) - \Phi(x_I)}{c^2}. \quad (2.73)$$

Izar baten azalean eremu grabitatorioa handiagoa da (eta potentziala negatiboagoa) Lurrean baino<sup>12</sup>; hortaz, han sortutako erradiazioaren espektroak gorriranzko lerratuta daude Lurrean neurtzen direnean<sup>13</sup>. Nolabait esateko, gorantz joatean fotoiak energia galtzen du (ikuspuntu aurre-erlatibistik energiaren potentzial grabitatorioa handitzean) eremu grabitatorioari aurre egiteko.

Izarren espektroetan Doppler efektua eta bestelako fenomenoak kontuan hartu behar direnez (ikus [25] liburuko 81. or.), errazagoa da lerrakuntza Lurrean egindako esperimentuetan neurtzea. R. V. Pound, G. A. Rebka eta J. L. Snider fisikariek egiaztatu zuten fenomeno hau % 1 doitasunarekin, 1959–1964 tartean,  $\gamma$  izpien iturri bat eta detektagailu bat erabiliz [14, 25, 163, 200]. 1976an satelite batean bidalitako maser-erloju baten bidez egindako egiaztapenaren doitasuna % 0.01 baino hobea izan zen [191].

Iturritik pultsuak igortzen badira hango erlojuaren maiztasun propioarekin (denbora-seinale bat bidaltzeko edo), detektagailuan neurtutako pultsuen maiztasuna aurreko azterketak eman-dakoa izango da: detektagailuaren ondoan dagoen erloju berdinaren maiztasunaren desberdina, beraz (nahiz eta bi maiztasunak berdinak izan dagozkien sistema inertzial lokaletan). Gaur egun, fenomeno hau egunero egiaztatzen da GPS<sup>14</sup> izeneko lokalizazio-sisteman: erlatibilitate bereziaren denboraren zabalkuntza (Doppler efektuaren bitartez) eta erlatibilitate orokorraren gorriranzko lerrakuntza grabitatorioa hartu behar dira kontuan, sateliteetako bidalitako denboraren neurketen eta Lurrean dauden erloju atomikoek egindako arteko erlazioa ulertzeko (ikus 2.21 eta 5.15 problemak eta [41] artikulua). Erlatibilitatearen aplikazio praktikoa da hau! Gainera, gaurko erloju optikoen doitasunari esker, 2010ean laborategian egiaztatu dira erlatibilitate bereziaren denboraren zabalkuntza 10 m/s baino txikiagoak diren abiadura erlatiboekin eta gorriranzko lerrakuntza grabitatorioa 1 m baino txikiagoak diren altuera-diferentziekin [64].

## 2.9 Gehiago ikasteko

- Eötvösen esperimentua: [4], 205. or.
- Ilargiaren distantzia eta baliokidetasunaren printzipioa: [142]; [202].
- Behatzaile azeleratuak eta Rindlerren metrika: [14], 6. gaia.

<sup>12</sup>Gogoratu: Eguzkiaren azalean  $\Phi/c^2 \approx -2.12 \times 10^{-6}$  eta Lurraren azalean  $\Phi/c^2 \approx -6.95 \times 10^{-10}$ .

<sup>13</sup>Einstein efektua deitzen zaio batzuetan.

<sup>14</sup>Global Positioning System.


- Baliokidetasunaren printzipioa eta eremu grabitatorio uniformea: [77]; [152].
- Izarrarteko bidaia: [129]; [150].
- Higidura hiperbolikoa eta erradiazio elektromagnetikoa: [39]
- Unruh efektua: [40].
- Denbora eta espazio *fisikoak* erlatibilitate orokorrean: [70].
- Goriranzko lerrakuntza grabitatorioa eremu grabitatorio estatikoetan: [156].
- Pound, Rebka eta Sniderren esperimentuak: [163].
- GPS sistema: [41].
- Erlatibilitate bereziak eta orokorrak erloju makroskopikoetan duten eragina:
  - Bikien paradoxa eta Hafele eta Keating-en esperimentua (1972): [105].
  - Erloju optikoak eta erlatibilitatea (2010): [64].
- Geodesikozen zenbakizko simulazioa: [148]; [149].

## 2.10 Problemak

**2.1 Eötvösen experimentua.** Egiaztatu

$$\frac{GM_{\oplus}}{\omega^2 R_{\oplus}^3} \approx 300$$

dela eta erabili emaitza hori (2.3) adierazpena frogatzeko.



2.5 IRUDIA 2.2 problemako bihurdura-balantza.

**2.2 Eötvösen experimentua.** 2.5 irudiko bihurdura-balantza orekan dago paraleloaren norabidean. Muturretako masak material desberdinakoak dira. Kalkulatu (2.2) indarrak eragindako  $\mathbf{N}$  indar-momentua. Orekan dagoenez,  $N_x = 0$  da eta  $N_z$  osagaia, hariak eragindako indar-momentuaren kontrakoak. Frogatu azkenaren zeinua aldatu egiten dela —masa inertzialen eta gravitatorioen arteko erlazioak berdinak ez badira— sistemari  $180^\circ$ -ko biraketa aplikatzen bazaio, 1 eta 2 masen posizioak elkarrekin trukatzeko.

**2.3** Egiaztatu (2.9), (2.10), (2.11), (2.16), (2.17) eta (2.18) emaitzak. Zer gertatzen da behatzai-learen abiadurarekin  $\tau \rightarrow \pm\infty$  limiteetan?

**2.4 Bikien paradoxa.** Galaxia hurbilena, 25 000 argi-urterako dagoen *Canis Major* galaxia nanoa da. Haraino joatean bidaiaiak espazio-ontzian erosu egoteko, bidaiaaren lehen erdiaren azelerazio konstantea eta bigarren erdiaren dezelerazioa konstantea  $g$  dira. Iritsi bezain laster Lurrera itzultzen badira (aipatutako azelerazioa eta dezelerazioa berriro erabiliz), zenbateko denbora behar izan dute bidaiaiek? Eta zenbateko denbora pasatu da Lurrean? Fotoi-motor bat erabiltzen bada, zein da suziriaren masa distantziaren erdia egin duenean?

**2.5** Frogatu Rindlerren koordenatu-sisteman geldi dagoen partikula baten azelerazio propioa  $g/(1+gx'/c^2)$  dela. Iruzkina egin emaitzari.

**2.6** Egiaztatu Rindlerren koordenatuetan  $(c\tau_0, x'_0, y'_0, z'_0)$  gertaeren argi-konoak honela idazten direla  $dy' = dz' = 0$  planoetan:

$$\tau = \tau_0 \pm \frac{c}{g} \ln \frac{x' + c^2/g}{x'_0 + c^2/g}.$$

Kalkulatu koordenatu hauetan  $x'$  norabidean hedatzen den argiaren abiadura.

**2.7** Marraztu 2.2 irudiko  $A$  eremua Rindlerren koordenatuetan, hau da,  $(x', c\tau)$  diagrama batean. Non agertzen dira diagrama horretan  $(ct, x) = (0, 0)$  gertaera eta  $ct = \pm x$  horizonteak? Marraztu argi-konoak eta Minkowskiren koordenatuetan geldi dagoen behatzale baten unibertsoko-lerroa.

**2.8** Nola higitzen da Minkowskiren koordenatuetan, Rindlerrenetan geldi dagoen partikula bat? Kalkulatu  $dx/dt$  abiadura. Nola higitzen da Minkowskiren espazioan geldi dagoena Rindlerren koordenatuetan? Kalkulatu  $dx'/d\tau$  abiadura eta egiaztatu azken partikulak *denbora propio finituan zeharkatzen dituela horizonteak, baina inoiz ez behatzale azeleratuaren τ denboran*. Zer gertatzen da bi abiadura horiekin  $t \rightarrow \infty$  eta  $\tau \rightarrow \infty$  limiteetan?

**2.9** Zer gertatzen da 2.8 problemako emaitzetan hurbilketa ez-erlatibistan, hau da,  $g\Delta\tau \ll c^2$  denean?

**2.10** 2.2 irudiko sistema inertzialean  $x > 0$  posizioan geldi dagoen  $\nu$  maiztasuneko iturri bat pizten da  $t = 0$  unean. Noiz ikusiko du argi hori behatzale azeleratuak? Zein izango da neurtzen duen maiztasuna? Zer gertatzen da  $x \rightarrow 0$  limitean?

**2.11** Erorketa askean ari den partikula baten denbora propioa  $\tau$  da eta abiadura  $u^\mu = dx^\mu/d\tau$ . Kalkulatu  $\frac{d}{d\tau}(g_{\mu\nu}u^\mu u^\nu)$  deribatua geodesikoen ekuazioa erabiliz. Zer gertatzen da fotoi baten kasuan? Iruzkina egin emaitzei.

**2.12 Gainazal esferikoa (I).** Geometrian ere lor daiteke  $P$  puntu batean  $g_{ij,k}|_P = 0$  izatea, koordenatu-sistema egokian. Adibide moduan, konsidera dezagun  $a$  erradioko gainazal esferikoa. Hiru dimentsioko metrika euklidearra

$$d\mathbf{x}^2 = dr^2 + r^2(d\theta^2 + \sin^2\theta d\varphi^2)$$

eran idazten da koordenatu polarretan eta gainazal esferikoan honela:

$$d\sigma^2 \equiv d\mathbf{x}^2 \Big|_{r=a} = a^2(d\theta^2 + \sin^2\theta d\varphi^2).$$

Koordenatu esferikoen poloa aukeratzeko askatasunaz baliatuz, jar dezagun  $P$  puntu ipar poloan eta egin dezagun ondoko aldagai-aldaketa<sup>15</sup>:

$$(x, y) = a\theta(\cos\varphi, \sin\varphi).$$

Garatu  $d\sigma^2$  metrika  $(x, y) = (0, 0)$  poloaren inguruan eta egiaztatu  $g_{ij}|_P = \delta_{ij}$  eta  $g_{ij,k}|_P = 0$  baldintzak betetzen direla.

**2.13 Geodesikoak eta aldakuntza-printzipioa.** Eman dezagun partikula askearen unibertsoko-lerroa edonolako  $\sigma$  parametroaren funtzioan idazten dela eta  $v^\mu \equiv dx^\mu/d\sigma$  definitzen dugula. Mekanika analitikoaren antzera, energia zinetikoaren ordez  $\frac{1}{2}v_\mu v^\mu = \frac{1}{2}g_{\mu\nu}v^\mu v^\nu$  erabiliko dugu eta, partikula askea denez, ez dago energia potentzialik. Definizioz, lagrangearra<sup>16</sup>

$$L = \frac{1}{2}g_{\mu\nu}v^\mu v^\nu$$

<sup>15</sup>  $P$  poloaren inguruko **Riemannen koordenatu normalak** dira  $(x, y)$ : ikus, adibidez, [14] testuko 11.6 atala.

<sup>16</sup>  $1/2$  faktorea mekanika analitikoaren antza gordetzeko erabili bada ere, ez da ezer galtzen jartzen ez bada, hemendik aurerra egingo dugun bezala.

da eta higidura-ekuazioak,

$$\delta \int_1^2 L d\sigma = 0$$

aldakuntza-printzipiotik lortzen diren Euler eta Lagrangeren ekuazioak:

$$\frac{d}{d\sigma} \frac{\partial L}{\partial v^\mu} - \frac{\partial L}{\partial x^\mu} = 0.$$

Egiaztatu geodesikoen (2.33) eta (2.35) ekuazioak berreskuratzen direla horrela,

$$\frac{d^2 x^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0,$$

nahiz eta geodesiko nulu baten kasuan  $L = 0$  izan *higidura-ekuazioen soluzioetan barrena*. Oso erabilgarria da hau, konexioa eta geodesikoak kalkulatzeko (ikus, adibidez, 2.15 eta 2.19 problemak eta 5.2 atala). Aurkitu higidura-konstante bat.

**2.14 Kontserbazio-legeak.** Erabili 2.13 problema hauxe frogatzeko: *metrika ez bada  $x^\lambda$  koordenaturen menpekoa,  $g_{\lambda\nu} dx^\nu / d\sigma$  magnitdea konstantea da geodesikoetan barrena*. Emaitzera erabilgarria da hau simetriak daudenean (ikus, adibidez, 93. or.).

**2.15 Gainazal esferikoa (II).** Erabili 2.13 problema, gainazal esferikoaren konexioa eta geodesikoak aurkitzeko, koordenatu polar esferikoetan.

*Iradokizuna:* Gogoratu koordenatu esferikoen poloa aukeratzeko askatasunaz.

**2.16 Schwarzschilden metrika.** Ikusiko dugun bezala,  $M$  masako izar esferiko estatiko batek kanpoan sortutako eremu grabitatorioa deskribatzeko metrika hau erabiltzen da:

$$ds^2 = -c^2 \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) dt^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2),$$

non **Schwarzschilden erradioa** hauxe den:

$$r_s \equiv \frac{2GM}{c^2}.$$

Kalkulatu konexioa.

**2.17\*** Idatzi geodesiko nuluen ekuazioak Rindlerren koordenatuetan eta egiaztatu  $(x', y', z')$  koordenatuetan fotoien ibilbideak zuzenak edo zirkunferentzierdiak direla. Non daude azken hauen zentroak? Non hasten eta amaitzen dira?  $(x', y', z') = (0, 0, 0)$  puntuaren dagoen behatzaileak argi-izpi bat igortzen du  $y'$  norabide *horizontalean*. Nola desbideratu da  $\Delta y' = d$  distantziara? Eta  $g = 981 \text{ cm/s}^2$  eta  $d = 1 \text{ km}$  badira?

**2.18** Erabili koordenatu cartesiarrak partikula askearen higidura-ekuazioak idazteko, mekanika analitikoan eta (2.13 problema erabiliz) erlatibilitate berezian. Zer gertatzen da bestelako koordenatu orokortuak aukeratzen badira, denbora aldatu gabe? Iruzkinak egin emaitzei.

**2.19** Azter dezagun

$$ds^2 = -[c^2 - \omega^2(x^2 + y^2)] dt^2 - 2\omega(y dx - x dy) dt + dx^2 + dy^2 + dz^2$$

metrika, non  $\omega$  konstantea positiboa den. Idatzi geodesikoen ekuazioa. Ezabatu geodesikoen parametroa  $d^2 \mathbf{x} / dt^2$  azelerazioa lortzeko. Ebatzi ekuazioak. Zer adierazten du metrika honek?

**2.20 Langevinen metrika.** Idatzi 2.19 problemako metrika koordenatu polar zilindrikoetan. Zein da erabili behar den koordenatuen transformazioa Minkowskiren metrika (koordenatu zilindrikoetan) berreskuratzeko?

**2.21** GPS sistemaren sateliteen orbitaren garaiera  $\approx 20\,200$  km da. Balioztatu zein izango litzatekeen, denboraren zabalkuntzaren eta lerrakuntza gravitatorioaren ondorioz, sateliteetako erlojuek igorritako denboraren eta Lurrean daudenek neurtutakoaren arteko diferentzia egun batean, efektu horiek arbuiatuz<sup>17</sup> sateliteetako eta Lurreko erlojuen maiatasun propioak berdinak balira. Egin hurbilketa egokiak. (Ikus 5.15 problema.)

---

<sup>17</sup>Sateliteak bidali baino lehenago, batzuek ez zuten uste efektu erlatibista hauek benetakoak zirela! Horrexegaitik, lehen erloju atomikoa orbitan jarri zenean, 1977an, kommutadore bat zuen efektu hauen zuzenketak martxan jartzeko, beharrezkoa zela ikusi ondoren. Ikus [41] artikuluaren 16. or.

## 3. GAIA

### Kobariantzia orokorra

Erlatibilitate berezian betetzen diren legeetan grabitazioak —hau da, espazio-denboraren kurbadurak— sortzen dituen aldaketak aztertuko dira gai honetan. Horretarako, Riemannen geometria eta kalkulu tentsoriala beharko ditugu.

#### 3.1 Riemannen geometria

Gehien interesatzen zaigun lau dimentsioko espazio-denbora aztertuko dugu bereziki, baina 2., 3. eta 4. gaietako definizio eta emaitza matematiko guztiak (oin-oharretan aipatzen diren salbuespenekin) Riemannen espazio orokoretara hedatzen dira (eta adibide eta problema batzuetan erabiliko ditugu). Ez dugu hemen egingo **Riemannen barietate** izenarekin ere ezagutzen diren  $N$  dimentsioko Riemannen espazioen definizio matematiko zehatza. Nahikoa izan bedi propietate batzuk laburtzea:

- Indizeak 1-tik  $N$ -ra joango dira<sup>1</sup>. Ondorioz,  $\delta_{\mu}^{\mu} = N$  da.
- Puntu bakoitzaren inguruan beti aukera daiteke  $(x^1, x^2, \dots, x^N)$  koordenatu-sistema bat.
- $g_{\mu\nu}$  metrika simetriko bat definituta dago eta hortik lortzen da (2.40) konexio simetrikoa.
- 2.5.2 atalean eta 2.12 probleman esandakoaren orokorpen moduan, beti alda daitezke koordenatuak edozein puntutan (baina, oro har, bakarrik puntu horretan) konexioa zero izateko eta metrika egitura honako hau:

$$ds^2 = \pm d(x^1)^2 \pm d(x^2)^2 \pm \cdots \pm d(x^N)^2. \quad (3.1)$$

Puntu guztien inguruan zeinu positiboen eta negatiboen kopuruak, **metrikaren signatura**, berdinak direla onartuko dugu. Ondorioz, metrikaren  $g$  determinantearen zeinua konstantea da. Zeinu guztiak ez badira positiboak metrika sasirriemandarra dela esaten da. Horrelakoak dira espazio-denbora deskribatzeko erabiltzen diren metrikak. Azken kasu horretan (eta  $N - 1$  zeinu positibo (negatibo) eta zeinu negatibo (positibo) bakarra dagoen bakoitzean), metrika lorentziarra dela esaten da.

Hiru dimentsioko espazio euklidearreko kurba eta gainazal diferentzialak dira Riemannen espazioen adibide errazenak: gainazalean edo kurban barrena neurtutako ohiko distantzia euklidearrak sortzen du metrika kasu horietan.

---

<sup>1</sup>Indizeak 0-tik ( $N - 1$ )-ra badoaz, erlatibilitatean bezala, aldaketa nabari batzuk egin behar dira atal honetako adierazpen batzuetan.

## 3.2 Magnitude fisikoak eta eremuak

Aurreko gaian ere egin genuen bezala, erlatibilitate orokorrean  $x^\mu$  koordenatu orokorrak eta koordenatuen  $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  transformazio alderanzgarri orokorrak<sup>2</sup> konsideratuko ditugu. Atal honetan aztertuko dugu nola transformatzen diren magnitude fisikoak aipaturiko transformazioetako bat egiten denean.

### 3.2.1 Eskalararrak

Hauexek dira transformazio errazenekoak: balio bera dute koordenatu-sistema guzietan, aldaezinak dira. Partikula baten karga eta (pausaguneko) masa dira adibide ezagunenak, baina *eremu* eskalararrak ere erabiliko ditugu (hala nola fluido baten pausaguneko energiaren  $\rho(x)c^2$  dentsitatea eta  $p(x)$  presioa). Lehenago aurkitu dugun espazio-denborako tarte infinitesimala (eta, masadun partikula baten unibertsoko-lerroaren kasuan, hortik lortzen den denbora propioa) ere esklarra da, gertaera eta koordenatu guzietan hauxe baitugu:

$$ds^2 = \eta_{\mu\nu} dX^\mu dX^\nu = g_{\mu\nu} dx^\mu dx^\nu = g_{\mu'\nu'} dx^{\mu'} dx^{\nu'}. \quad (3.2)$$

### 3.2.2 Bektoreak

Kontsidera dezagun partikula baten abiadura (partikularen unibertsoko-lerroan definituta da-goen eremu) edo fluido baten elementu infinitesimalen abiadura (espazio-denboran definitutako eremu). Honela idazten da abiadura sistema inertzial lokalean, bi koordenatu-sistema orokor erabiliz:

$$\frac{dX^\lambda}{d\tau} = \frac{\partial X^\lambda}{\partial x^\nu} \frac{dx^\nu}{d\tau} = \frac{\partial X^\lambda}{\partial x^{\nu'}} \frac{dx^{\nu'}}{d\tau}. \quad (3.3)$$

Alderantzizko  $\partial x^{\mu'}/\partial X^\lambda$  matrize jacobiarra erabiliz, hauxe dugu:

$$\frac{dx^{\mu'}}{d\tau} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial X^\lambda} \frac{dX^\lambda}{d\tau} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial X^\lambda} \frac{\partial X^\lambda}{\partial x^{\nu'}} \frac{dx^{\nu'}}{d\tau} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^{\nu'}} \frac{dx^{\nu'}}{d\tau}. \quad (3.4)$$

Koordenatu orokorretan abiadura

$$u^\mu \equiv \frac{dx^\mu}{d\tau} \quad (3.5)$$

moduan definitzen denez, honela transformatzen da:

$$u^{\mu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\nu} u^\nu. \quad (3.6)$$

Jakina,  $x^\mu$  eta  $x^{\mu'}$  koordenatu-sistemak modu simetrikoan agertu behar dira transformazio-legeetan eta, zuzenean ere ikusten denez,

$$u^\mu = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\nu'}} u^{\nu'}. \quad (3.7)$$

(3.6) eran transformatzen den edozein magnitude, **bektore kontrabariantea** dela esango dugu. (1.42) definizioaren orokorpena da hau: koordenatuen transformazio orokorrak kontsideratzen ditugunez,  $(\partial x^{\mu'}/\partial x^\nu)$  matrize jacobiarra ez da oro har konstantea izango.

<sup>2</sup>Aurreko gaian egin genuen bezala, transformazioak, alderanzgarriak izateaz gain, *erregularrak* direla onartuko dugu: jarraituak izango dira eta behar beste deribatu partzial jarraitu izango dute espazio-denborako eremu batean.

Bektore kontrabariante bakoitzari dagokion

$$u_\mu \equiv g_{\mu\nu} u^\nu \quad (3.8)$$

bektorea, alderantzizko matrize jacobiararekin transformatzen da:

$$u_{\mu'} = \frac{\partial x^\nu}{\partial x^{\mu'}} u_\nu. \quad (3.9)$$

Horrela transformatzen den magnitude bat **bektore kobariantea** izango da eta metrikaren alderantzizkoaz egokitzen zaio bektore kontrabariantea:

$$u^\mu = g^{\mu\nu} u_\nu. \quad (3.10)$$

**3.1 ARIKETA** Egiaztatu (3.9) transformazio-legea eta bektore kobariante baten eta kontrabariante baten **kontraktzioa** eskalarra dela:

$$u_{\mu'} v^{\mu'} = u_\mu v^\mu (= g_{\mu\nu} u^\mu v^\nu). \quad (3.11)$$

Adibidez,  $\Phi$  eremu eskalar baten **gradientea** bektore kobariantea da:

$$\frac{\partial \Phi}{\partial x^{\mu'}} = \frac{\partial x^\nu}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial \Phi}{\partial x^\nu}. \quad (3.12)$$

### 3.2.3 Tentsoreak

Aurreko transformazio-legeak erabiliz, zuzenean ikusten da hautsaren  $T^{\mu\nu} = \rho u^\mu u^\nu$  energia-momentuaren tentsorearen transformazio-legea, energiaren  $\rho(x)c^2$  dentsitatea eskalarra denez,

$$T^{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} T^{\rho\sigma} \quad (3.13)$$

dela: **tentsore kontrabariantea** da  $T^{\mu\nu}$ . Metrikaren  $g^{\mu\nu}$  alderantzizkoa ere kontrabariantea da (gogoratu (2.26) definizioa eta 42. orrialdeko 2.2 ariketa).

Gainera, metrika erabil daiteke indizeak jaisteko eta igotzeko eta tentsore **mistoak** eta **kobarianteak** lortzeko:

$$T^\mu_\nu = g_{\nu\sigma} T^{\mu\sigma}, \quad T_\mu^\nu = g_{\mu\sigma} T^{\sigma\nu}, \quad T_{\mu\nu} = g_{\mu\rho} T^\rho_\nu = g_{\mu\rho} g_{\nu\sigma} T^{\rho\sigma}, \quad (3.14)$$

$$T^\mu_\nu = g^{\mu\sigma} T_{\sigma\nu}, \quad T_\mu^\nu = g^{\nu\sigma} T_{\mu\sigma}, \quad T^{\mu\nu} = g^{\mu\rho} T_\rho^\nu = g^{\mu\rho} g^{\nu\sigma} T_{\rho\sigma}. \quad (3.15)$$

**3.2 ARIKETA** Egiaztatu honela transformatzen direla  $T^\mu_\nu$ ,  $T_\mu^\nu$  eta  $T_{\mu\nu}$  tentsoreak:

$$T^{\mu'}_{\nu'} = \frac{\partial x^\mu}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} T_\sigma^\nu, \quad T_{\mu'}^{\nu'} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^{\nu'}}{\partial x^\sigma} T_\rho^\sigma, \quad T_{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} T_{\rho\sigma}. \quad (3.16)$$

(2.27) transformazio-legearen ondorioz, metrika bera ere tentsore kobariantea da.

Era berean lortzen da mota guztiako tentsoreen transformazioa  $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  aldagai-aldaaketan:

- indize kontrabariante *aske* bakoitza ( $\partial x^{\mu'}/\partial x^\nu$ ) matrize jacobiararekin transformatzen da
- eta indize kobariante aske bakoitza ( $\partial x^\mu/\partial x^{\nu'}$ ) alderantzizkoarekin.

Adibidez, eskalarak, indize gabekoak (hein nuluko tentsoreak) direnez, ez dira aldatzen; bekto-reak, 1 heineko tentsoreak direnez, jacobiar batekin transformatzen dira; eta geroago aurkituko dugun 4 heineko kurbadura-tentsorea, honela:

$$R^{\mu'}_{\nu'\rho'\sigma'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\alpha} \frac{\partial x^\beta}{\partial x^{\nu'}} \frac{\partial x^\gamma}{\partial x^{\rho'}} \frac{\partial x^\delta}{\partial x^{\sigma'}} R^\alpha_{\beta\gamma\delta}. \quad (3.17)$$

Gai berean posizio kontrabariantea eta kobariantea agertzen den batura-indize batek **kontrakzio** bat adierazten du eta **mutua** da, ez da transformatzen. Adibidez, hauxe dugu Ricciren tentsorearen transformazioa (ikus 4.2 atala):

$$R^{\mu'}_{\nu'\mu'\sigma'} = \frac{\partial x^\beta}{\partial x^{\nu'}} \frac{\partial x^\delta}{\partial x^{\sigma'}} R^\alpha_{\beta\alpha\delta}. \quad (3.18)$$

Hauexek dira tentsoreen propietate erabilgarri batzuk:

- Tentsore bat eskalar batekin biderkatuz, mota bereko tentsore bat lortzen da.
- Mota bereko bi tentsoreren batura mota horretako tentsorea da.
- Tentsoreen biderkadura tentsoriala tentsorea da eta bere heina biderkagaien heinen batura. Horrela,  $u^\mu$  eta  $v^\mu$  bektoreak badira,  $u^\mu v^\nu$  delakoa 2 heineko tentsore kontrabariantea da eta  $T^{\mu\nu}$  tentsorea bada,  $T^{\mu\nu} u_\lambda$  biderkadura 3 heineko tentsore mistoa.
- Tentsoreen kontrakzioak tentsoreak dira, hala nola (3.18) adibidean. Kontrakzio bakoitzean heinak bi unitate galtzen ditu. Horrela, aurreko adibideko tentsoreetatik lortutako  $T^{\mu\nu} u_\nu$  kontrakzioa, bektorea da.
- **Zatiduraren teorema:** magnitude multzo baten eta mota bateko tentsore guztien arteko kontrakzioak tentsoreak badira, multzoa bera ere tentsorea da.

Lehenengo lau propietateen frogapena zuzena da eta magnitude multzo bat tentsorea den jakiteko irizpide erabilgarria den bosgarrenarena kasu partikular batean bakarrik egingo dugu, beste guztietan ideia berberarekin erraz egiten baita. Eman dezagun  $T^{\mu\nu}_\lambda$  magnitudeak ditugula eta,  $v_\nu$  bektore kobariante guztientzat,  $T^{\mu\nu}_\lambda v_\nu$  kontrakzioa tentsorea dela:

$$T^{\mu'\nu'}_{\lambda'} v_{\nu'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\lambda'}} T^{\rho\nu}_{\sigma} v_\nu. \quad (3.19)$$

Orain,  $v_\nu$ -ren transformazioa kontuan hartuta,

$$0 = T^{\mu'\nu'}_{\lambda'} v_{\nu'} - \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\lambda'}} T^{\rho\nu}_{\sigma} \frac{\partial x^{\alpha'}}{\partial x^\nu} v_{\alpha'} = \left( T^{\mu'\alpha'}_{\lambda'} - \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\lambda'}} \frac{\partial x^{\alpha'}}{\partial x^\nu} T^{\rho\nu}_{\sigma} \right) v_{\alpha'}. \quad (3.20)$$

Baina  $v_{\alpha'}$  edonolakoa denez, tentsorea da  $T^{\mu\nu}_\lambda$ :

$$T^{\mu'\alpha'}_{\lambda'} = \frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} \frac{\partial x^{\alpha'}}{\partial x^\nu} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\lambda'}} T^{\rho\nu}_{\sigma}. \quad (3.21)$$

Aipatu behar da magnitude batean indizeak agertzeak ez duela bermatzen tentsorea dela. Adibidez, kalkulu erraz baina luze batek frogatzen duenez, honela transformatzen da konexioa<sup>3</sup>:

$$\Gamma^{\lambda'}_{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^{\lambda'}}{\partial x^\alpha} \frac{\partial x^\beta}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\gamma}{\partial x^{\nu'}} \Gamma^\alpha_{\beta\gamma} - \frac{\partial^2 x^{\lambda'}}{\partial x^\alpha \partial x^\beta} \frac{\partial x^\alpha}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\beta}{\partial x^{\nu'}}. \quad (3.22)$$

<sup>3</sup>Ikus, adibidez, [25] liburuko 100. or.

Azken gaia agertzen denez, konexioa ez da tentsore bat. Horrexegatik, hemendik 3.8 probleman frogatuko dugunez, beti aurki daiteke  $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  koordenatu-aldaketa bat *gertaera batean* konexioa zero izateko moduan, 2.5.2 atalean ikusi genuen bezala<sup>4</sup>. Tentsore bat, aldiz, gertaera batean zero bada koordenatu batzuetan nulua izango da gertaera horretan koordenatu-sistema guztietai.

### 3.3 Deribatu kobariantea

Geodesikoen (2.33) ekuazioa 2.5 atalean aztertzean frogatu genuen koordenatu inertzial lokalaetako  $d^2 X^\mu / d\tau^2$  azelerazioaren ordez hauxe idatzi behar dugula koordenatu orokorretan:

$$a^\mu \equiv \frac{d^2 x^\lambda}{d\tau^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\tau} \frac{dx^\nu}{d\tau}. \quad (3.23)$$

Koordenatu guztietai definizioaren egitura berdina denez,  $a^\mu$  bektore bat dela susma dezakegu. Izan ere, emaitza askoz orokorragoa da. Konsidera dezagun  $x^\mu(\sigma)$  kurba bat,  $\sigma$  parametro esklarraren funtzioan idazten dena. Gutxienez kurban definituta dauden eremuen kurbaren barreneko deribatu kobarianteak honela definitzen dira<sup>5</sup>:

$$\frac{D\Phi}{d\sigma} \equiv \frac{d\Phi}{d\sigma}, \quad (3.24)$$

$$\frac{Du^\lambda}{d\sigma} \equiv \frac{du^\lambda}{d\sigma} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda u^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma}, \quad (3.25)$$

$$\frac{Du_\lambda}{d\sigma} \equiv \frac{du_\lambda}{d\sigma} - \Gamma_{\lambda\nu}^\mu u_\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma}, \quad (3.26)$$

$$\frac{DT_\rho^\lambda}{d\sigma} \equiv \frac{dT_\rho^\lambda}{d\sigma} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda T_\rho^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma} - \Gamma_{\rho\nu}^\mu T_\mu^\lambda \frac{dx^\nu}{d\sigma}, \quad (3.27)$$

$$\frac{DT_{\rho\dots}^\lambda}{d\sigma} \equiv \frac{dT_{\rho\dots}^\lambda}{d\sigma} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda T_{\rho\dots}^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma} + \dots - \Gamma_{\rho\nu}^\mu T_{\rho\dots}^\lambda \frac{dx^\nu}{d\sigma} - \dots \quad (3.28)$$

Kalkulu zuzenak frogatzen du jatorrizko magnitudearen mota bereko tentsoreak direla horrela lortutako deribatuak.

Espazio-denboran (eta ez bakarrik kurba batean) definituta badago  $T_{\dots}(x)$  tentsore-eremua,  $dT_{\dots}/d\sigma = T_{\dots,\mu} dx^\mu/d\sigma$  emaitzaren antzera,  $DT_{\dots}/d\sigma = T_{\dots;\mu} dx^\mu/d\sigma$  erako adierazpenen bat espero dezakegu,  $T_{\dots,\mu}$  deribatu arruntaren nolabaiteko  $T_{\dots;\mu}$  orokorpen egokiarekin.

Izan ere, eremuen deribatu kobarianteak<sup>6</sup>

$$\Phi_{;\mu} \equiv \Phi_{,\mu}, \quad (3.29)$$

$$u^\mu_{;\nu} \equiv u^\mu_{,\nu} + \Gamma_{\rho\nu}^\mu u^\rho, \quad (3.30)$$

$$u_{\mu;\nu} \equiv u_{\mu,\nu} - \Gamma_{\mu\nu}^\rho u_\rho, \quad (3.31)$$

$$T_{\mu;\nu}^\lambda \equiv T_{\mu,\nu}^\lambda + \Gamma_{\rho\nu}^\lambda T_\mu^\rho - \Gamma_{\mu\nu}^\rho T_\rho^\lambda, \quad (3.32)$$

$$T_{\mu\dots;\nu}^\lambda \equiv T_{\mu\dots,\nu}^\lambda + \Gamma_{\rho\nu}^\lambda T_{\mu\dots}^\rho + \dots - \Gamma_{\mu\nu}^\rho T_{\mu\dots}^\lambda - \dots \quad (3.33)$$

<sup>4</sup>Ikus, gainera, [25] liburuko 101. or.

<sup>5</sup>  $\frac{DT_{\dots}}{D\sigma} = \frac{\nabla T_{\dots}}{d\sigma} = \frac{DT_{\dots}}{d\sigma}$  notazioak ere erabiltzen dira.

<sup>6</sup>  $\nabla_\mu T_{\dots} = D_\mu T_{\dots} = T_{\dots;\mu}$  notazioak ere erabiltzen dira.

eran definitzen badira, zuzenean egiazta daiteke deribatu kobarianteak tentsoreak direla (indize kobariante berri batekin) eta hauxe dugula, espazio-denboran definitutako  $T^{\dots}(x)$  tentsore-eremu guztiarako,  $x^\mu(\sigma)$  kurban barrena:

$$\frac{DT^{\dots}}{d\sigma} = T^{\dots; \mu} \frac{dx^\mu}{d\sigma}. \quad (3.34)$$

Adibidez, erlatibilitate berezian bezala,  $u^\mu = dx^\mu/d\tau$  abiaduratik hasita, azelerazioa  $a^\mu = du^\mu/d\tau$  eran definitzen bada, deribatu arrunt hori ez da bektore bat. Haren ordez, (3.23) definizioa,

$$a^\lambda \equiv \frac{Du^\lambda}{d\tau} = \frac{du^\lambda}{d\tau} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda u^\mu u^\nu, \quad (3.35)$$

erabili behar da bektore bat lortzeko. Definizio horrekin geodesiko temporalak azelerazio gabeko partikulen unibertso-lerroak direla ikusten dugu eta hauxe da (1.65) emaitzaren orokorpena, fluido baten kasuan:

$$a^\lambda = \frac{Du^\lambda}{d\tau} = u^\lambda_{;\nu} u^\nu. \quad (3.36)$$

Ondoko propietateak erraz frogatzen dira:

$$(aT^{\dots} + bS^{\dots})_{;\mu} = aT^{\dots; \mu} + bS^{\dots; \mu}, \quad (a \text{ eta } b \text{ konstanteak}), \quad (3.37)$$

$$(T^{\dots} S^{\dots})_{;\mu} = T^{\dots; \mu} S^{\dots} + T^{\dots} S^{\dots; \mu}, \quad (\text{Leibnizen araua}). \quad (3.38)$$

Gainera, *kontrakzioaren deribatua deribatuaren kontrakzioa da*. Adibidez,

$$T^{\mu\nu}_{\phantom{\mu\nu};\lambda} = T^{\mu\nu}_{\phantom{\mu\nu},\lambda} + \Gamma_{\rho\lambda}^\mu T^{\rho\nu}_{\phantom{\rho\nu};\nu}. \quad (3.39)$$

*Metrika kobarianteki konstantea da*,

$$g_{\mu\nu;\rho} = 0, \quad (3.40)$$

$$g^{\mu\nu}_{\phantom{\mu\nu};\rho} = 0, \quad (3.41)$$

(3.40) propietatea (2.37) emaitzaren baliokidea delako. Hortik lortzen dira (3.41) eta *deribatu kobariantek eta indizeen igotzea eta jaistea edozein ordenatan egin daitezkeela*:

$$T^{\dots}_{\phantom{\dots};\mu;\lambda} = (g_{\mu\nu} T^{\dots\nu})_{;\lambda} = g_{\mu\nu} T^{\dots\nu}_{\phantom{\dots\nu};\lambda}. \quad (3.42)$$

## 3.4 Kobariantzia orokorraren printzipioa

Behin eta berriro egin dugu bera aurreko orriean: erlatibilitate berezian betetzen diren definizioak eta legeak sistema inertzial lokalean erabili eta hortik transformatu koordenatu-sistema orokorretara. Koordenatu-sistema bakoitzeko, transformazio hori bakarra eta alderanzgarria denez, aurkako noranzkoan ere egin daiteke bidaia, ondoko printzipioaz baliatuz (eta 1.4.2 atalean erabili genuen estrategia orokortuz). Askoz erosoaagoa izango da dena horrela.

### Kobariantzia orokorraren printzipioa

*Fisikako adierazpen bat erlatibilitate orokorrean beteko da*,

1. *kobariantea (hau da, tensoriala) bada eta*
2. *grabitaziorik gabe (hau da, erlatibilitate berezian) betetzen bada.*

Asko eztabaideatu da printzipio honen eduki fisikoaz eta baliokidetasunaren printzipioarekin duen erlazioaz<sup>7</sup>. Hemen, Weinbergen bideari jarraituz [25], azken printzipio horretatik lortu dugu. Edozein kasutan, funtsezkoa eta oso erabilgarria da.

Printzipio honen arabera, lege edo ekuazio baten orokorpena lortzeko, bi baldintza hauek betetzen dituen adierazpena aurkitu behar da: tentsoreen bidez idatzita dago ( $x^\mu \rightarrow x^{\mu'}$  aldaketa orokoretan bere egitura alda ez dezan) eta  $g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu}$  eta  $\Gamma_{\mu\nu}^\lambda = 0$  egitean erlatibilitate berezian betetzen dena berreskuratzen da. Nahiago bada, hauxe izan daiteke erreza praktikoa: *erlatibilitate berezian betetzen den adierazpen tentsorialetan, ordezkatu deribatu arruntak kobarianteekin eta Minkowskiren  $\eta_{\mu\nu}$  tentsorea  $g_{\mu\nu}$  metrikarekin*. 3.1 taulan biltzen dira adibide batzuk.

Fluido perfektuaren  
energia-momentuaren tentsorea:

$$T^{\mu\nu} = \rho u^\mu u^\nu + p \left( g^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu \right). \quad (3.43)$$

Karga baten higidura-ekuazioa:

$$\frac{Dp^\mu}{d\tau} = \frac{e}{c} F^{\mu\nu} u_\nu. \quad (3.44)$$

Maxwellen ekuazioak:  
(Baina ikus 3.7 problema.)

$$\begin{cases} F_{\mu\nu;\lambda} + F_{\nu\lambda;\mu} + F_{\lambda\mu;\nu} = 0, \\ F^{\mu\nu}_{;\nu} = \frac{4\pi}{c} J^\mu. \end{cases} \quad (3.45)$$

Potenzial eta eremu elektromagnetikoak:  
(Baina ikus 3.4 problema.)

$$F_{\mu\nu} = A_{\nu;\mu} - A_{\mu;\nu}. \quad (3.46)$$

Eremu elektromagnetikoaren  
energia-momentuaren tentsorea:

$$T^{\mu\nu} = \frac{1}{4\pi} \left( F^{\mu\sigma} F_\sigma^\nu - \frac{1}{4} g^{\mu\nu} F_{\rho\sigma} F^{\rho\sigma} \right). \quad (3.47)$$

Kontserbazio-legea:

$$T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0. \quad (3.48)$$

### 3.1 TAULA Zenbait ekuazio kobariante.

## 3.5 Kurbadura-tentsorea

Deribatu arrunten ordekoak dira deribatu kobarianteak eta antzeko propietateak dituzte, salbuespen garrantzitsu batekin: *oro har, ordena desberdinetan egindako deribatu kobariante gu-rutzatuak ez dira berdinak*. Ikus dezagun zergatik, bektore kobariante baten bigarren deribatu kobariantea kalkulatuz:

$$v_{\mu;\nu} = v_{\mu,\nu} - \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v_\lambda, \quad (3.49)$$

$$\begin{aligned} v_{\mu;\nu\rho} &= (v_{\mu;\nu})_{,\rho} - \Gamma_{\mu\rho}^\sigma v_{\sigma;\nu} - \Gamma_{\nu\rho}^\sigma v_{\mu;\sigma} \\ &= v_{\mu,\nu\rho} - \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda v_\lambda - \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v_{\lambda,\rho} - \Gamma_{\mu\rho}^\sigma v_{\sigma,\nu} + \Gamma_{\mu\rho}^\sigma \Gamma_{\sigma\nu}^\lambda v_\lambda - \Gamma_{\nu\rho}^\sigma v_{\mu;\sigma}. \end{aligned} \quad (3.50)$$

$\nu$  eta  $\rho$  indizeak elkarrekin trukatuz antzeko adierazpen bat lortzen da eta bien arteko kendura hauxe da, konexioa eta deribatu gurutzatu arruntak simetrikoak direla kontuan hartuta:

$$v_{\mu;\nu\rho} - v_{\mu;\rho\nu} = (\Gamma_{\mu\rho,\nu}^\lambda - \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda + \Gamma_{\sigma\nu}^\lambda \Gamma_{\mu\rho}^\sigma - \Gamma_{\sigma\rho}^\lambda \Gamma_{\mu\nu}^\sigma) v_\lambda. \quad (3.51)$$

<sup>7</sup>Ikus, adibidez, [62].

Ondorioz, **kurbadura-tentsorea**<sup>8</sup>

$$R^\lambda_{\mu\nu\rho} \equiv \Gamma^\lambda_{\mu\rho,\nu} - \Gamma^\lambda_{\mu\nu,\rho} + \Gamma^\lambda_{\sigma\nu}\Gamma^\sigma_{\mu\rho} - \Gamma^\lambda_{\sigma\rho}\Gamma^\sigma_{\mu\nu} \quad (3.52)$$

moduan definitzen badugu, hauxe dugu:

$$v_{\mu;\nu\rho} - v_{\mu;\rho\nu} = R^\lambda_{\mu\nu\rho}v_\lambda. \quad (3.53)$$

Ezkerreko gaia eta  $v_\lambda$  bektorea tentsoreak direnez, gauza bera gertatzen da kurbadura-tentsorearekin (gogoratu 58. orrialdeko zatiduraren teorema): (3.17) transformazio-legea betetzen da.

Hurrengo propietateak erraz lortzen dira (3.52) definiziotik:

$$R^\lambda_{\mu\nu\rho} = -R^\lambda_{\mu\rho\nu}, \quad (3.54)$$

$$R^\lambda_{\mu\nu\rho} + R^\lambda_{\rho\mu\nu} + R^\lambda_{\nu\rho\mu} = 0. \quad (3.55)$$

Gainera, (2.37) emaitza erabiltzen duen kalkulu luzetxo batek emandako<sup>9</sup>

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} \equiv g_{\mu\lambda}R^\lambda_{\nu\rho\sigma} \quad (3.56)$$

$$= \Gamma_{\mu\nu\sigma,\rho} - \Gamma_{\mu\nu\rho,\sigma} + \Gamma_{\lambda\mu\sigma}\Gamma^\lambda_{\nu\rho} - \Gamma_{\lambda\mu\rho}\Gamma^\lambda_{\nu\sigma} \quad (3.57)$$

$$= \frac{1}{2}(g_{\mu\sigma,\nu\rho} - g_{\nu\sigma,\mu\rho} + g_{\nu\rho,\mu\sigma} - g_{\mu\rho,\nu\sigma}) + \Gamma_{\lambda\mu\sigma}\Gamma^\lambda_{\nu\rho} - \Gamma_{\lambda\mu\rho}\Gamma^\lambda_{\nu\sigma} \quad (3.58)$$

kurbadura-tentsore kobariantean erraz ikusten dira simetriak, sistema inertzial lokalean bakarrik geratzen baitira metrikaren bigarren deribatuak (3.58) adierazpenean:

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = -R_{\mu\nu\sigma\rho}, \quad (3.59)$$

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = -R_{\nu\mu\rho\sigma}, \quad (3.60)$$

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = R_{\rho\sigma\mu\nu} = R_{\nu\mu\sigma\rho}, \quad (3.61)$$

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} + R_{\mu\sigma\nu\rho} + R_{\mu\rho\sigma\nu} = 0. \quad (3.62)$$

Ondorioz, *kurbadura-tentsorearen 256 osagaien artean gehienez 20 dira* aljebraikoki *independenteak*<sup>10</sup>.

Bestalde,  $x_0^\mu$  puntu baten inguruko sistema inertzial lokalean metrikaren deribatuak eta konekzioak nuluak direnez eta  $g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu}$ , hauxe dugu *puntu horretan*:

$$R_{\mu\nu\rho\sigma;\lambda} = R_{\mu\nu\rho\sigma,\lambda} = \Gamma_{\mu\nu\sigma,\rho\lambda} - \Gamma_{\mu\nu\rho,\sigma\lambda}. \quad (3.63)$$

Hortaz, puntu horretan

$$R_{\mu\nu\rho\sigma;\lambda} + R_{\mu\nu\lambda\rho;\sigma} + R_{\mu\nu\sigma\lambda;\rho} = 0. \quad (3.64)$$

Baina adierazpen tentsorial hori koordenatu eta puntu guztieta beteko da: **Bianchiren identitateak** dira lotura diferentzial hauek<sup>11</sup>.

<sup>8</sup>Riemann eta Christoffelen tentsorea eta Riemannen tentsorea ere deitzen zaio.



<sup>9</sup>Ikus [5] liburuko 21. or. edo [25] testuko 141. or., (3.57)–(3.58) adierazpenen frogapena.

<sup>10</sup>Espazioaren dimentsioa  $N$  bada, osagai independenteak  $N^2(N^2 - 1)/12$  dira (eta dimentsio bakarrean identiko nulua da kurbadura-tentsorea). Ikus [25] liburuko 142. or.

<sup>11</sup>Badirudi, Bianchik 1902an aurkitu baino lehenago, Vossek 1880an eta Riccik 1889an ezagutzen zituztela propietate hauek [189].

## 3.6 Garraio paraleloa

Eman dezagun bektore bat eramatene dugula kurba batean barrena, bere modulua eta norabidea aldatu gabe: indar-momenturik pairatzen ez duen giroskopio baten momentu angeluar kontserbaturua izan daiteke. Mekanika galilearraren espazio euklidearrean, kurbaren ekuazio parametrikoak  $\mathbf{x}(\sigma)$  bada eta bektorea  $\mathbf{v}$ , garraio paraleloaren baldintza  $d\mathbf{v}/d\sigma = 0$  da eta, kurba itxia bada, bira osoa egitean hasierako bektorea berreskuratzen da. Baino hori ez da beti egia espazio kurbatuetan.




3.1 IRUDIA Garraio paraleloa planoan eta gainazal esferikoan.

3.1 irudian ikusten dira bi adibide. Plano euklidearrean,  $A \rightarrow B \rightarrow C \rightarrow D \rightarrow A$  bira egin ondoren, bektorea hasierakoaren berdina da. Gainazal esferikoaren kasuan, bektoreak plano tangenteetan daudenez, bi puntu desberdinakoak ez dira paraleloak izango gainazala murgilduta dagoen hiru dimentsioko espazioan, baina zer gertatzen da, espazio hori ahaztuta, gainazalaren geometria erabiltzen bada? Nola definitzen da bi puntu desberdinako bektoreen arteko paralelotasuna? Behean emango dugu garraio paraleloaren definizioa, baina nahiko intuitiboa da (eta 3.19 probleman egiaztatuko dugu) irudiko eskuinaldeko garraioa ahal den paraleloena dela: bektorea beti dago meridiano batekiko tangentean, hego poloari begira. Baino  $P \rightarrow Q \rightarrow R \rightarrow P$  bide itxia egin ondoren bektorea beste norabide batean dago.

Esan bezala, definitu behar da zer den garraio paraleloa espazio kurbatuetan. Guri interesatzen zaigun espazio-denboraren kasuan, baliokidetasunaren printzipioa erabiliko dugu, geometrian ere erabiltzen den definizioa lortzeko. Espazio-denboran  $C$  kurba badugu,  $\sigma$  eskalarraren funtzioan  $x^\mu(\sigma)$  ekuazioak emandakoa, eta  $v^\lambda(\sigma)$  bektore-eremua, garraioa paraleloa izango da koordenatu inertzial lokaletan betetzen bada  $Dv^\lambda/d\sigma = 0$  (adibidez, aipaturiko giroskopioaren momentu angeluarra izan daiteke  $v^\lambda$  bektorea). Baino, kobariantzia orokorraren printzipioaren arabera, koordenatu orokorretan baldintza hori deribatu kobariantearen bidez idatzi behar da:

$$\frac{Dv^\lambda}{d\sigma} = \frac{dv^\lambda}{d\sigma} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0. \quad (3.65)$$



### 3.2 IRUDIA Garraio paraleloa.

$\mathcal{C}$  kurba itxia bada, bira osoa egitean, bektorearen aldaketa hauxe izango da:

$$\Delta v^\lambda = \oint_C dv^\lambda = \oint_C \frac{dv^\lambda}{d\sigma} d\sigma = - \oint_C \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma} d\sigma = - \oint_C \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v^\mu dx^\nu. \quad (3.66)$$

Stokesen teoremaren frogapenean erabilitako teknikaz balia gaitezke orain. Kurba itxia gainazal baten ertza dela kontuan hartuta, gainazala elementu infinitesimaletan banatzen da eta elementu bakoitzaren ertzean barrena kalkulatzen da integrala. Elementu guztiengatik ekarpenak batuz, barruko aldeetakoek ezabatzen dira eta bakarrik geratzen da hasierako kurban kalkulatutako integrala.

Eman dezagun, beraz,  $\mathcal{C}$  kurba infinitesimala dela. Kurbako  $x_0^\lambda = x^\lambda(\sigma_0)$  puntutik garraiatzen da  $v^\lambda$  bektorea:

$$v^\lambda(\sigma) = v^\lambda(\sigma_0) + \int_{\sigma_0}^{\sigma} \frac{dv^\lambda}{d\sigma} d\sigma = v^\lambda(\sigma_0) - \int_{\sigma_0}^{\sigma} \Gamma_{\mu\nu}^\lambda v^\mu \frac{dx^\nu}{d\sigma} d\sigma. \quad (3.67)$$

Kurba infinitesimala denez, (3.65) erabiliz,

$$\begin{aligned} v^\lambda(\sigma) &= v^\lambda(\sigma_0) + \frac{dv^\lambda}{d\sigma}(\sigma_0) [x^\rho(\sigma) - x_0^\rho] + \dots \\ &= v^\lambda(\sigma_0) - \Gamma_{\nu\rho}^\lambda(x_0) v^\nu(\sigma_0) [x^\rho(\sigma) - x_0^\rho] + \dots, \end{aligned} \quad (3.68)$$

$$\Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x(\sigma)) = \Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x_0) + \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda(x_0) [x^\rho(\sigma) - x_0^\rho] + \dots \quad (3.69)$$

Taylorren garapenak lortzen dira eta gai koadratikoak arbuiatuaz,

$$\begin{aligned} v^\lambda(\sigma) &= v^\lambda(\sigma_0) - \Gamma_{\mu\nu}^\lambda(x_0) v^\mu(\sigma_0) \int_{\sigma_0}^{\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} d\sigma \\ &\quad - [\Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda - \Gamma_{\alpha\nu}^\lambda \Gamma_{\mu\rho}^\alpha]_{x=x_0} v^\mu(\sigma_0) \int_{\sigma_0}^{\sigma} (x^\rho - x_0^\rho) \frac{dx^\nu}{d\sigma} d\sigma \end{aligned} \quad (3.70)$$

dugu. Baino, kurba itxia denez,

$$\oint_C dx^\nu = \oint_C \frac{dx^\nu}{d\sigma} d\sigma = 0 \quad (3.71)$$

eta hauxe da bira osoan bektoreak pairatutako aldaketa:

$$\Delta v^\mu = - [\Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda - \Gamma_{\alpha\nu}^\lambda \Gamma_{\mu\rho}^\alpha]_{x=x_0} v^\mu(\sigma_0) \int_C x^\rho dx^\nu. \quad (3.72)$$

Azken integrala antisimetrikoa da:

$$\oint_C d(x^\rho x^\nu) = \oint_C x^\rho dx^\nu + \oint_C x^\nu dx^\rho = 0. \quad (3.73)$$

Ondorioz, (3.72) adierazpeneko integralaren koefizientearen parte antisimetrikoa bakarrik gertzen zaigu:

$$\Delta v^\mu = -\frac{1}{2} [\Gamma_{\mu\rho,\nu}^\lambda - \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda + \Gamma_{\alpha\nu}^\lambda \Gamma_{\mu\rho}^\alpha - \Gamma_{\alpha\rho}^\lambda \Gamma_{\mu\nu}^\alpha]_{x=x_0} v^\mu(\sigma_0) \oint_C x^\nu dx^\rho. \quad (3.74)$$


Azkenean, (3.52) kurbadura-tentsorea erabiliz, hauxe dugu:

$$\Delta v^\mu = -\frac{1}{2} R_{\mu\nu\rho}^\lambda(x_0) v^\mu(\sigma_0) \oint_C x^\nu dx^\rho. \quad (3.75)$$

Beraz, bide infinitesimal itxi guztiak garraio paraleloaren bidez egitean bektorea ez aldatzeko bete behar den baldintza, kurbadura-tentsorea nulua izatea da. Eta mugatzat kurba itxi bat duen gainazaleko puntu guztietan betetzen bada azken baldintza, aipaturiko kurba egitean bektorea ez da aldatuko. Hauxe da kurbadura-tentsorearen esanahi geometrikoetako bat, baina garrantzi fisiko handiagokoa izango da hurrengoa.

## 3.7 Geodesikoen desbideratzea

Kontsidera ditzagun 3.3 irudiko bi esperimentuak. Ezkerrean bi partikula hurbil (irudian ez da errespetatu eskala) erortzen ari dira Lurraren eremu gravitatorioan eta erdian gravitaterik gabeko igogailu azeleratu batean daude bi partikula aske. Baliokidetasunaren printzipioaren arabera, bi egoera baliokideak dira *gertaera batean* (gogoratu (2.44) baldintzak), baina ez guztiz berdinak beste gertaeretan: erdiko esperimentuan partikulen ibilbideak paraleloak izango dira eta ezkerrekoan ia-ia paraleloak, baina denak doaz Lurraren zentrorantz: geodesikoak ez dira guztiz paraleloak ezkerreko kasuan.



3.3 IRUDIA Geodesikoen desbideratzea.

Ideia hauek kuantitatibo bihurtzeko, kontsidera ditzagun irudiko  $\mathcal{C}$  eta  $\bar{\mathcal{C}}$  geodesiko hurbilak,  $x^\mu(\sigma)$  eta  $\bar{x}^\mu(\sigma) = x^\mu(\sigma) + \zeta^\mu(\sigma)$  ekuazioek emandakoak. Bien arteko diferentzia neurten duen  $\zeta^\mu(\sigma)$  bektore-eremua infinitesimala da.  $\sigma$  parametroaren balio partikular batean,  $\mathcal{C}$  geodesikoko  $P$  gertaeran dago partikula bat eta  $\bar{\mathcal{C}}$  kurbako  $Q$  gertaeran bestea. Aukera dezagun  $P$  gertaeren inguruko sistema inertzial lokala. Han (2.44) betetzen denez, hauexek dira bi geodesikoen

ekuazioak  $P$  eta  $Q$  puntuetan:

$$\left( \frac{d^2 x^\lambda}{d\sigma^2} \right)_P = 0, \quad (3.76)$$

$$\left( \frac{d^2 \bar{x}^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{d\bar{x}^\mu}{d\sigma} \frac{d\bar{x}^\nu}{d\sigma} \right)_Q = 0. \quad (3.77)$$

Berriro erabiltzen bada (2.44),

$$\Gamma_{\mu\nu}^\lambda|_Q \approx \Gamma_{\mu\nu}^\lambda|_P + \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda \zeta^\rho|_P = \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda \zeta^\rho|_P \quad (3.78)$$

dugunez, honela idazten da (3.76) eta (3.77) ekuazioen arteko kendura, hurbilketa berean,  $P$  puntuatuan:

$$\left( \frac{d^2 \zeta^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu,\rho}^\lambda \zeta^\rho \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} \right)_P = 0. \quad (3.79)$$

Puntu berean, honela kalkulatzen da  $\zeta^\mu$  bektorearen bigarren deribatu kobariantea, (2.44)-ren ondorioz:

$$\left. \frac{D^2 \zeta^\lambda}{d\sigma^2} \right|_P = \frac{d}{d\sigma} \left( \frac{d\zeta^\lambda}{d\sigma} + \Gamma_{\nu\mu}^\lambda \zeta^\nu \frac{dx^\mu}{d\sigma} \right)_P = \left( \frac{d^2 \zeta^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\nu\mu,\rho}^\lambda \zeta^\nu \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\rho}{d\sigma} \right)_P. \quad (3.80)$$

Emaitza hau eta (3.79) batera erabiliz,

$$\left( \frac{D^2 \zeta^\lambda}{d\sigma^2} + (\Gamma_{\mu\rho,\nu}^\lambda - \Gamma_{\nu\mu,\rho}^\lambda) \zeta^\nu \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\rho}{d\sigma} \right)_P = 0 \quad (3.81)$$

lortzen da; baina koordenatu hauetan eta  $P$  puntuatuan honela ere idazten da, (2.44) eta (3.57) emaitzen ondorioz:

$$\frac{D^2 \zeta^\lambda}{d\sigma^2} + R_{\mu\nu\rho}^\lambda \zeta^\nu \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\rho}{d\sigma} = 0. \quad (3.82)$$

Adierazpen hau tentsoriala denez, edonolako koordenatuetan (eta edozein puntuatuan) balio du: geodesikoen desbideratzearren ekuazioa da. Geodesikoen arteko azelerazio erlatibo hau marea-indarren (hau da, eremu gravitatorioaren ez-homogeneotasunaren) ondorioa da teoria newtondarrean eta geometria kurbatuaren ondorioa erlatibilitatean.

Kontsidera ditzagun erorketa askean, denbora motako geodesikoetan barrena, higitzen ari diren bi partikula hurbil. Lehenengo partikularen unibertso-lerroko  $P$  gertaera partikula geldi dagoeneko erreferentzia-sistema inertzial lokalean,  $x^0 = c\tau$  aukerarekin,  $dx^\mu/d\tau = (c, 0, 0, 0)$  da eta deribatu kobariantea arruntarenaren berdina:

$$\frac{d^2 \zeta^\mu}{d\tau^2} = c^2 R_{00\nu}^\mu \zeta^\nu = c^2 R_{00j}^\mu \zeta^j. \quad (3.83)$$

## 3.8 Kurbadura eta koordenatuak

Badakigu Minkowskiren metrika

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dx^2 + dy^2 + dz^2 \quad (3.84)$$

eran idazten dela koordenatu minkowskiarretan. Koordenatu hauetan, metrika konstantea denez, konexioa eta kurbadura-tentsorea nuluak dira.

Azter dezagun honako metrika hau:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (3.85)$$

Ez da (3.84) egiturakoa (adibidez, metrikaren koefizienteak ez dira denak konstanteak), baina erraz ikusten da koordenatu esferikoen eta cartesiarren arteko

$$x = r \sin \theta \cos \varphi, \quad y = r \sin \theta \sin \varphi, \quad z = r \cos \theta \quad (3.86)$$

transformazioa aplikatuz, (3.84) berreskuratzen dela. Hala ere, koordenatu hauetan conexioa nulua ez bada ere (ikus 3.15 problema), kurbadura-tentsorea zero da koordenatu guzietan: conexioa ez bezala, tentsorea da eta nulua koordenatu minkowskiarretan. Hortaz, espazio-denbora Minkowskirena (edo honen zati bat) bada (espazio-denbora **laua** dela ere esaten da), kurbadura-tentsorea zero da gertaera guzietan. Alderantzizkoa ere egia da<sup>12</sup>: *kurbadura-tentsorea puntu guzietan nulua izatea da espazio bat laua izateko bete behar den baldintza beharrezkoa eta nahikoa.*

## 3.9 Koordenatu-singularitateak

Dimentsio bakarrean kurbadura-tentsorea identikoki nulua denez (zergatik?), bi dimentsioko adibideak dira errazenak.

Kontsidera dezagun  $a$  erradioko  $S$  gainazal esferiko bat ohiko espazio euklidearrean. Haste-ko, koordenatu cartesiarrak erabiliko ditugu: gainazaleko puntu bakoitzak  $z = 0$  planoan duen proiekzioa  $(x, y)$  bada, horiexek izango dira puntu horren koordenatuak (eta ekuatorearekiko simetrikoarenak: koordenatu horiez bakarrik estaliko dugu goiko hemisferioa, arazoak saihesteko). Gainazalean  $x^2 + y^2 + z^2 = a^2$  dugunez,  $z$  eta  $dz$  honela idatziko dira:

$$z = [a^2 - (x^2 + y^2)]^{1/2}, \quad (3.87)$$

$$dz = -\frac{x dx + y dy}{[a^2 - (x^2 + y^2)]^{1/2}}. \quad (3.88)$$

Ohiko distantzia euklidearrak gainazalean duen balioa izango da metrika:

$$ds^2 = (dx^2 + dy^2 + dz^2)_S = dx^2 + dy^2 + \frac{(x dx + y dy)^2}{a^2 - (x^2 + y^2)}. \quad (3.89)$$

Orain,  $(x, y)$  planoko  $(\rho, \varphi)$  koordenatu polarrak erabiltzen badira,  $(x, y) = (\rho \cos \varphi, \rho \sin \varphi)$  transformazioa aplikatuz, honela geratzen da metrika (ikus 3.28 problema):

$$ds^2 = \frac{a^2 d\rho^2}{a^2 - \rho^2} + \rho^2 d\varphi^2. \quad (3.90)$$

Goiko bi koordenatu-sistemak ez dira bakarrak, simetria esferikoaren ondorioz ezer ez baita aldatzen ardatz cartesiarrerai (edo gainazalari) biraketa bat aplikatzen bazaio. Baina, aukera bietan metrika singularra (infinitua) da  $x^2 + y^2 = \rho^2 = a^2$  ekuatorean. Bestalde, badakigu gainazalaren geometria guztiz erregularra dela ekuatore horretan. Egindako koordenatuen aukera da arazoaren jatorria: **koordenatu-singularitatea** da, koordenatuak aldatuz desager daitekeena.

<sup>12</sup>Ikus, adibidez, [1] testuko 5.6 atala edo [5] liburuko 22. or.

Izan ere, simetria esferikoa kontuan hartuta, koordenatu polar esferikoak egokiagoak dira problema hau aztertzeko. Hiru dimentsioko  $ds^2 = dr^2 + r^2(d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2)$  distantzian  $r = a$  eta  $dr = 0$  eginez, honela idatzi genuen gainazal esferikoaren metrika 2.12 probleman:

$$ds^2 = a^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (3.91)$$

Adierazpen honek ez du inolako singularitaterik  $\theta = \pi/2$  ekuatorean (baina ez da alderanzgarria  $\theta = 0, \pi$  poloetan).


3.17 probleman frogatuko dugunez, kurbadura-tentsorearen osagai bakarra hauxe da (beste guztiak hemendik lortzen dira tentsorearen simetriak erabiliz edo identikoki nuluak dira):

$$R_{\theta\varphi\theta\varphi} = a^2 \sin^2 \theta. \quad (3.92)$$

Ez da nula gainazal esferikoa laua ez delako.

### 3.9.1 Geometria eta topologia

Orain arte egin dugun geometria osoa bezala, espazioa laua izateko kurbadura-tentsore nuluaren baldintza *lokala* da. Gai honetan ez dugu zehaztu gure koordenatu-sistemek estaltzen duten espazio-denboraren eskualdea, aurreko ataleko adibidean izan ezik. Hango koordenatu-sistemek ez zuten estaltzen (era erregularrean) espazio osoa, baina koordenatuen aukerak sortutako singularitatea desagertu egiten zen koordenatuak aldatzean. Era berean, 2.3 atalean ikusi genuen bezala, Rindlerren metrika idazteko erabili genituen koordenatuak ez dira hedatzen espazio-denbora osora: Rindlerren unibertsua Minkowskiren espazioaren zati baten baliokidea da. Hauxe da askotan (ikus, adibidez, 5.6 eta 5.7 atalak) gertatzen dena Einsteinen ekuazioen soluzioekin: koordenatu batzuk erabiltzean, bestelako irizpideak (hala nola noraino luza daitezkeen geodesikoak) behar dira, koordenaturek deskribatutako espazio-denborako eskualdea zein den jakiteko, aipaturiko ekuazioak lokalak baitira.



3.4 IRUDIA Konoa paper orri batez egiteko modua.

Gainera, soluzioen topologiak era askotakoak izan daitezke. Ikus dezagun adibide bat:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dr^2 + a^2 r^2 d\varphi^2 + dz^2, \quad (0 < a < 1). \quad (3.93)$$

Ageri denez,  $\phi = a\varphi$  aldaketa egiten bada, Minkowskiren metrika berreskuratzen da, koordenatu zilindrikoetan:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dr^2 + r^2 d\phi^2 + dz^2. \quad (3.94)$$

Baina (3.93) metrikan  $0 \leq \varphi < 2\pi$  badugu, (3.94) delakoan  $0 \leq \phi < 2\pi a < 2\pi$  izango da: metrika honek ez du estaliko Minkowskiren unibertso osoa, **angelu-defektu** bat dago. Azken hau hobeto ulertzeko, azter ditzagun  $t$  eta  $z$  koordenatuen balio konstanteei dagozkien bi dimentsioko sekzioak:

$$d\sigma^2 \equiv ds^2|_{dt=dz=0} = dr^2 + a^2 r^2 d\varphi^2, \quad (0 \leq \varphi < 2\pi), \quad (3.95)$$


$$d\sigma^2 \equiv ds^2|_{dt=dz=0} = dr^2 + r^2 d\phi^2, \quad (0 \leq \phi < 2\pi a). \quad (3.96)$$

Lehenengoan  $a = \sin \theta$  egiten badugu,  $\theta$  kolatitude konstanteko kono baten metrika lortzen da, koordenatu esferikoetan:

$$d\sigma^2 = dr^2 + r^2 \sin^2 \theta d\varphi^2, \quad (0 \leq \varphi < 2\pi). \quad (3.97)$$

Bigarrenean  $x = r \cos \phi$  eta  $y = r \sin \phi$  eginez, planoaren metrika berreskuratzen da koordenatu cartesianretan,  $d\sigma^2 = dx^2 + dy^2$ , baina  $2\pi a \leq \phi < 2\pi$  angelu polarrei dagokien ziria kenduta.

3.4 irudian ikus daiteke nola egin kono bat paper orri lau batez: ebaki  $2\pi a \leq \phi < 2\pi$  ziria zirkulu batean eta itsatsi erradio askeak, 3.4 eta 3.5 irudietako eskuinaldean ikusten den konoa lortzeko. Konoaren zabalera angeluarren erdia  $\theta = \arcsin a$  da. 3.4 irudiko  $QP$  lerroa zirkunferentzia baten arkua da planoan eta konoan, baina zentro eta erradio desberdinak:  $O' \neq O$  eta  $\widehat{QP} = r\phi = (r \sin \theta)\varphi = ra\varphi$ .



3.5 IRUDIA Bi geodesiko planoan eta konoan.

Konoa laua denez —hau da, (3.95)–(3.97) metrikaren kurbadura-tentsorea zero denez—, paper orri batez egin daiteke, esfera ez bezala. Era berean, paperaren erradio askeak itsatsi baino lehenago zuzenak marrazten badira, konoan ere geodesikoak izango dira. Baina planoan gertatzen ez diren gauzak ikus daitezke konoan: 3.5 irudiko  $Q$  puntuik norabide desberdinetan abiatzen diren bi geodesikoek elkar ebakitzen dute  $P$  puntuaren. (3.93) metrikako espazio-denboran gauza bera gerta daiteke  $z = 0$  geodesikoekin:  $t$  eta  $z$  koordenatuen balioen bikote bakotzeko,  $\phi = 0$  eta  $\phi = 2\pi a$  puntuak berdindu ondoren geratzen den plano osatugabe bat dugu. Ezin da hori irudikatu eta, fisikan askotan gertatzen bezala, matematikara jo behar dugu azterketa egiteko eta fenomenoak ulertzeko. **Soka kosmiko** zuzen infinitu baten metrika da (3.93). Partikulen fisikaren teoria batzuen arabera, soka kosmikoak (eta bestelako defektuak) unibertso primitiboan sortu omen ziren [33] eta, hala bada, agian detekta litezke behaketa astronomikoetan,  $Q$  objektutik datozen bi izpien norabideak desberdinak direnez, bi irudi ikusiko bailirateke  $P$  teleskopioan: leiar grabitatorio zilindrikoa izango litzateke horrelako soka kosmiko bat.

## 3.10 Notazio kobariantea

Testu honetan erabiltzen dugun notazioa oso garbia eta erabilgarria da. Kalkulu-akats batzuk erraz ikusten dira lau arau aplikatzen badira:

- Adierazpen bateko gai guztiako eta batugai guztiako indize askeek, berdinak izan behar dute eta posizio (kontrabariante edo kobariante) berean agertu behar dute. Esate baterako,  $u_\mu = T_{\mu\nu}v^\nu$  zuzena bada ere,  $u_\lambda = T_{\mu\nu}v^\nu$  eta  $u^\mu = T^{\mu}_{\nu}v^\nu$  adierazpenak okerrak dira.
- Indize aske baliokideen letra eta posizioa aldi berean alda daitezke. Adibidez,  $u_\mu = T_{\mu\nu}v^\nu$ ,  $u_\lambda = T_{\lambda\nu}v^\nu$  eta  $u^\mu = T^{\mu}_{\nu}v^\nu$  baliokideak dira.
- Batugai bakoitzean indize mutuen bikote bakoitza behin bakarrik ager daiteke.  $u_\mu u^\nu u^\mu_{;\nu}$ ; kontrako bikoitzaren ordez ezin da jarri  $u_\nu u^\nu u^\mu_{;\nu}$ .
- Bikote mutu bakoitzeko indizeen letra edozein modutan alda daitezke, aurreko araua betetzen bada. Gainera, bi indizeen posizioak elkarrekin truka daitezke. Adibidez,  $u_\mu u^\nu u^\mu_{;\nu} = u^\rho u^\sigma u_{\rho;\sigma}$ .

Zoritzarrez, era guztiarako notazioak erabiltzen dira erlatibilitate orokorrari buruzko testuetan eta artikuluetan. Ordezko notazio batzuk oin-oharretan aipatu dira. Gainera, liburu batzuetan indize latindarrak erabiltzen dira grekoen ordez eta beste batzuetan indizeak 1-tik 4-ra doaz (gehienetan azkena da denborari dagokiona). Asko erabiltzen den beste notazio batean  $x'^\mu$  idazten da gure  $x^\mu$ -ren ordez. Metrikaren eta beste tentsoreen zeinuak hainbat modutara aukeratzen dira: ez dira gutxi Minkowskiren metrika  $ds^2 = c^2 dt^2 - dx^2 - dy^2 - dz^2$  moduan idazten dute-nak. Eta, batzuetan, ez da beti bereizten indize kontrabarianteen eta kobarianteen artean. Askotan  $c = 1$  hartzen da eta  $G = 1$  edo  $G = 1/8\pi$ . Arreta handiz aztertu behar da liburu edo artikulu baten notazioa, handik adierazpen bat hartu baino lehenago.

## 3.11 Gehiago ikasteko

- Indarrak erlatibilitate orokorrean: [170].
- Soka kosmikoak: [33]; [113].
- Geometria diferenziala eta tentsore-kalkulua: [4], B zatia; [10], 2., 3. eta 4. gaiak; [14], III. zatia.
- Tentsore-dentsitateak eta integrazioa: [4], 91. or.; [8], 7.6 atala; [10], 38. or.; [16], 4.4 atala eta 169. or.; [25], 98. or.
- Oinarri ortonormalak: [3], J eranskina; [4], 10.4 atala; [8], 7.8 atala.
- Behatzairen azeleratuak, oinarri ortonormalak eta Fermi eta Walkerren garraioa: [10], 125. eta 152. or.; [14], 169. or.; [16], 4.9 atala.
- Riemannen koordenatu normalak: [8], 179. or.; [14], 11.6 atala.
- Isometriak eta Killingen bektoreak: [4], 102. or.; [15], 6. gaia.; [16], 4.8 eta 10.8 atalak.
- Forma diferenzialak: [14], 4. gaia; [25], 113. or.
- Geodesikozen zenbakizko simulazioa: [148]; [149].

## 3.12 Problemak

**3.1** Frogatu ondoko propietateak:

$$\begin{aligned} g^\mu{}_\nu &= g_\nu{}^\mu = \delta_\nu^\mu, \\ g^\mu{}_\mu &= g_\mu{}^\mu = \delta_\mu^\mu = 4. \end{aligned}$$

Zer aldatzen da  $N$  dimentsiotan?

**3.2** Zergatik erabiltzen da deribatu arrunta  $u^\mu = dx^\mu/d\tau$  abiaduran eta deribatu kobariantea  $a^\mu = Du^\mu/d\tau$  azelerazioan?

**3.3** Frogatu (3.41) propietatea, aurrekoak erabiliz.

**3.4 Errrotazionala.** Frogatu errrotazionalean deribatu arruntak erabil daitezkeela kobarianteen ordez. Adibidez, eremu eta potentzial elektromagnetikoen arteko erlazioan hauxe dugu:

$$F_{\mu\nu} = A_{\nu;\mu} - A_{\mu;\nu} = A_{\nu,\mu} - A_{\mu,\nu}.$$

**3.5\*** Frogatu  $\mathbf{M}(x)$  matrize alderanzgarri guztientzat hauxe betetzen dela:

$$\begin{aligned} d \ln |\det \mathbf{M}| &= \text{tr} (\mathbf{M}^{-1} \cdot d\mathbf{M}), \\ \frac{\partial}{\partial x^\mu} \ln |\det \mathbf{M}| &= \text{tr} \left( \mathbf{M}^{-1} \cdot \frac{\partial \mathbf{M}}{\partial x^\mu} \right). \end{aligned}$$

Erabili emaitza hori,  $g \equiv \det(g_{\mu\nu})_{\mu,\nu=0}^3$  eta konexioaren definizioa hauxe frogatzeko:

$$\Gamma^\mu_{\mu\nu} = \Gamma^\mu_{\nu\mu} = \frac{1}{2} g^{\mu\rho} g_{\mu\rho,\nu} = \frac{1}{\sqrt{|g|}} \frac{\partial \sqrt{|g|}}{\partial x^\nu}.$$

**3.6 Dibergentzia.** Frogatu honela idazten direla bektore baten eta 2 heineko tentsore baten dibergentziak, deribatu arrunten bidez:

$$\begin{aligned} u^\mu{}_{;\mu} &= \frac{1}{\sqrt{|g|}} \left( \sqrt{|g|} u^\mu \right)_{,\mu}, \\ T^{\mu\nu}{}_{;\nu} &= \frac{1}{\sqrt{|g|}} \left( \sqrt{|g|} T^{\mu\nu} \right)_{,\nu} + \Gamma^\mu_{\nu\lambda} T^{\nu\lambda}. \end{aligned}$$

Lehenengoaren ondorioz,  $u^\mu{}_{;\mu} = 0$  baldintza  $\left( \sqrt{|g|} u^\mu \right)_{,\mu} = 0$  jarraitutasun-ekuazioaren baliokidea da.

**3.7** Frogatu  $F_{\mu\nu} = -F_{\nu\mu}$  tentsore antisimetriko guziekin hauxe betetzen dela:

$$F_{\mu\nu;\lambda} + F_{\nu\lambda;\mu} + F_{\lambda\mu;\nu} = F_{\mu\nu,\lambda} + F_{\nu\lambda,\mu} + F_{\lambda\mu,\nu}.$$

**3.8** Frogatu (2.42) koordenatuak sistema inertzial lokal batekoak direla, (2.44) baldintzak betetzen direlako, konexioaren (3.22) transformazio-legearen ondorioz.

**3.9 Geodesikoak eta garraio paraleloa.** Ohiko espazio euklidearrean zuzenak dira geodesikoak eta, bi punturen arteko bide laburrena izateaz gain, beste propietate bat dute: bektore tangentearen norabidea konstantea dela, hain zuzen. Areago, zuzenaren ekuazioa  $\mathbf{x}(\sigma)$  bada, bektore tangentea  $\mathbf{v} \equiv d\mathbf{x}/d\sigma$  eta arku-luzera  $s = \int |\mathbf{v}| d\sigma$ , bakarrik izango dugu  $d\mathbf{v}/d\sigma = 0$  baldin eta  $a$  eta  $b$  konstante egokiak aukera badaitezke  $\sigma = as + b$  izateko moduan. Parametroaren beste aukera guztiekin  $d\mathbf{v}/d\sigma$  deribatua  $\mathbf{v}$  bektorearekiko paraleloa izango da soilik:  $d\mathbf{v}/d\sigma = f(\sigma)\mathbf{v}$ . Zergatik?

Baldintza hau espazio-denborara orokor daiteke era guztiako geodesikoak (espazio, denbora edo argi motakoak) definitzeko: edonolako parametro eskalar baten funtzioan adierazitako  $x^\mu(\sigma)$  unibertso-lerroa, geodesikoa izango da ondoko baldintza betetzen bada:

$$\frac{Dv^\lambda}{d\sigma} = f(\sigma)v^\lambda, \quad v^\lambda \equiv \frac{dx^\lambda}{d\sigma}.$$

Frogatu honela idazten dela definizio hori:

$$\frac{d^2x^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = f(\sigma) \frac{dx^\lambda}{d\sigma}. \quad (3.98)$$

Eskuineko gaia nulua denean, hau da  $f(\sigma) = 0$  dugunean,  $\sigma$  parametroa **afina** dela esaten da eta geodesikoaren ekuazioa lehenago aurkitu dugun eran idazten da (baina orain bakarrik eskatzen dugu parametroa afina izateko eta, beraz, argi motako geodesikoekin ere erabil daiteke ekuazio hau):

$$\frac{d^2x^\lambda}{d\sigma^2} + \Gamma_{\mu\nu}^\lambda \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} = 0.$$

Parametro afina ez da bakarra. Zein da horrelako biren arteko erlazioa? Zeintzuk dira parametro afinak denbora motako geodesikoetan?

**3.10** Eman dezagun partikula baten momentu lineala  $p^\mu$  dela. Frogatu  $u_B^\mu$  abiaduraz higitzen den behatzaila batek (geldi dagoeneko sistema inertzial lokalean) neurtzen duen partikularen energia

$$E = -p_\mu u_B^\mu$$

dela eta (hiru dimentsioko) momentu linealaren modulua honako hau:

$$|\mathbf{p}| = \frac{1}{c} \sqrt{(p_\mu u_B^\mu)^2 + c^2 p_\mu p^\mu}.$$

Zer gertatzen da  $p^\mu$  bektorea fotoi baten momentu lineala denean?

**3.11 Gorriranzko lerrakuntza grabitatorioa.** Fotoi baten igorpena  $x_1^\mu$  gertaera da eta detektzioa  $x_D^\mu$ . Erabili 1.6 eta 3.10 problemak eta kobariantzia orokorraren printzipioa, iturrian eta detektagailuan neurtutako maiztasunen arteko erlazioa nola aurki daitekeen eztabaidatzeko. Nola geratzen da emaitza orokorra, iturria eta detektagailua geldi badaude aukeratutako koordenaturetan? Eta metrika **egonkorra** bada —hau da,  $g_{\mu\nu,0} = 0$  bada<sup>13</sup>— eta koordenatu horietan iturria eta detektagailua geldi badaude?

<sup>13</sup>Horrez gain,  $t \rightarrow -t$  inbertsioarekiko aldaezina bada —hau da,  $g_{0i} = 0$  denean— metrika **estatikoa** dela esaten dugu: gogoratu (2.65).

**3.12 Geodesiko ez-nuluak.** Geodesikoa ez bada nulua, (3.98) ekuazioa aldakuntza-printzipio honetatik lortzen da:

$$\delta \int_1^2 \sqrt{|ds^2|} = \delta \int_1^2 \left| g_{\mu\nu} \frac{dx^\mu}{d\sigma} \frac{dx^\nu}{d\sigma} \right|^{1/2} d\sigma = 0.$$

Erabili Euler eta Lagrangeren ekuazioak hemendik (3.98) berreskuratzeko. Alderatu 2.6 ataleko emaitzekin, masadun partikula baten geodesikoaren  $\sigma$  parametroa afina noiz den aurkitzeko.

**3.13 Geodesikoak.** Frogatu honela ere idazten dela geodesikoen ekuazioa, parametro afin baten funtzioan:

$$\frac{dv_\lambda}{d\sigma} = \frac{1}{2} g_{\mu\nu,\lambda} v^\mu v^\nu, \quad \left( v^\mu \equiv \frac{dx^\mu}{d\sigma} \right).$$

Nola lortzen da 2.14 problemako kontserbazio-printzipioa hau erabiliz?

**3.14\* Killingen bektoreak.** Metrikaren simetria bat adierazten du honako hau betetzen duen bektoreak<sup>14</sup>:

$$\xi_{\mu;\nu} + \xi_{\nu;\mu} = 0, \quad (\text{Killingen ekuazioa}).$$

- (a) Froga ezazu  $\sigma$  parametro afinaren funtzioan emandako  $x^\mu(\sigma)$  geodesikoan barrena  $\xi_\mu dx^\mu/d\sigma$  eskalarra higidura-konstantea dela.
- (b) Eman dezagun metrika ez dela  $x^\lambda$  koordenatuaren menpekoa. Frogatu  $\xi^\mu \equiv \delta_\lambda^\mu$  eremua Killingen bektorea dela eta erabili aurreko emaitza 2.14 problemako kontserbazio-legea berreskuratzeko.
- (c) Aurkitu 2.16 problemako Schwarzschilden metrikaren Killingen bektore bi.
- (d) Aurkitu Minkowskiren metrikaren Killingen ekuazioaren 10 soluzio linealki independente.

**3.15** Kalkulatu hurrengo metrikaren kurbadura-tentsorea:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2).$$

**3.16 Rindlerren metrika.** Kalkulatu hurrengo metrikaren kurbadura-tentsorea:

$$ds^2 = -c^2 \left(1 + \frac{gx}{c^2}\right)^2 d\tau^2 + dx^2 + dy^2 + dz^2.$$

**3.17** Egiaztu gainazal esferikoaren (3.91) metrikaren kurbadura-tentsorea (3.92) dela.

**3.18 Schwarzschilden metrika.** Kalkulatu 2.16 problemako metrikaren kurbadura-tentsorea.

**3.19 Garraio paraleloa gainazal esferikoan.** Egiazta ezazu 3.1 irudiko garraioa paraleloa dela (3.65) ekuazioaren arabera.

**3.20**  $u^\mu$  eta  $v^\mu$  bektoreak paraleloki garraiatzen dira  $x^\mu(\sigma)$  kurban barrena. Frogatu  $u_\mu v^\mu$  ez dela aldatzen garraio horretan. Ondorioztatu (2.11 probleman ere egin zen bezala) geodesiko baten denbora, espazio edo argi mota ez dela aldatzen puntu batetik bestera.

<sup>14</sup>Ikus, adibidez, [15] liburuko 6. gaia.

**3.21 Marea-indar newtondarak (I).** Frogatu grabitazio newtondarrean  $\Phi$  potentzial grabitatorioan erorketa askean ari diren bi partikulen arteko distantzia infinitesimalaren eboluzioa honela idazten dela koordenatu cartesiarretan (3.7 ataleko notazioan):

$$\frac{d^2\zeta^i}{dt^2} = -\delta^{ij} \frac{\partial^2 \Phi}{\partial x^j \partial x^k} \zeta^k.$$

**3.22 Marea-indar newtondarak (II).** Idatzi 3.21 problemako emaitza, gorputz esferiko batek kanpoan sortutako  $\Phi = -GM/r$  potentzial newtondarren kasuan. Egiaztu norabide erradialean (hau da,  $\zeta$  eta  $x$  bektoreak paraleloak direnean) eta zeharkako norabideetan hauxe dugula:

$$\frac{d^2\zeta_{||}}{dt^2} = \frac{2GM}{r^3} \zeta_{||}, \quad \frac{d^2\zeta_{\perp}}{dt^2} = -\frac{GM}{r^3} \zeta_{\perp}.$$

Iruzkina egin emaitzari.

**3.23** Frogatu bi dimentsiotan honela idazten dela kurbadura-tentsorea:

$$R_{ijkl} = (g_{ik}g_{jl} - g_{il}g_{jk}) \frac{R_{1212}}{g}.$$

**3.24** Hurrengo metrikak dituzten gainazalen artean, zeintzuk dira lauak eta zeintzuk kurbatuak?

$$\begin{aligned} ds^2 &= f(x) dx^2 + g(y) dy^2, \\ ds^2 &= y^2 dx^2 + x^2 dy^2, \\ ds^2 &= x^2 (dx^2 + dy^2), \\ ds^2 &= f(x) (dx^2 + dy^2). \end{aligned}$$

**3.25** Hurrengo metrikak dituzten espazio-denboren artean, zein da laua eta zein kurbatua?

$$\begin{aligned} ds^2 &= -c^2 dt^2 + y dx^2 + dy^2 + dz^2, \\ ds^2 &= -c^2 dt^2 + 2c dt dx + dy^2 + dz^2. \end{aligned}$$

Espazio-denbora lauaren kasuan, aurkitu koordenatu minkowskiarretarako transformazioren bat.

**3.26** Frogatu hurrengo metrika laua dela,  $a$  konstante guztiarako, eta aurkitu koordenatu minkowskiarretarako transformazioa:

$$ds^2 = -(c^2 - a^2 t^2) dt^2 - 2at dt dx + dx^2 + dy^2 + dz^2.$$

**3.27** Zer dago gaizki

$$\begin{aligned} T^{\mu\nu}_{;\nu} &= (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\nu u^\lambda_{;\nu}, \\ T^{\mu\nu}_{;\nu} &= (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\sigma u_{\mu;\sigma}, \\ (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\nu u^\mu_{;\nu} &= (\rho u^\lambda)_{;\lambda} u^\mu + \rho u^\mu u^\mu_{;\mu}, \\ R &\equiv R^{\mu\mu}_{\mu\mu}, \\ R^{\mu\nu}_{\mu\nu} &= R^{\rho\sigma}_{\sigma\rho} \end{aligned}$$

adierazpenen notazioan? Nola konpontzen da?

**3.28** Egiaztatu (3.90) emaitza.

**3.29 Hiru dimentsioko gainazal esferikoa.** Lau dimentsioko espazio euklidearrean murgilduta dagoen  $S$  (hiper)gainazal esferiko baten ekuazioa  $x^2 + y^2 + z^2 + w^2 = a^2$  da. Frogatu koordenatu egokietan honela idazten dela metrika osoak gainazalean induzitutakoa:

$$d\sigma^2 \equiv ds^2|_S = \frac{a^2}{a^2 - r^2} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2).$$

Kurbatua al da gainazal hau? Zergatik?

**3.30** Hauxe irakurri dugu testuliburu on batean:

*By calculating the components of the curvature tensor  $R^d_{abc}$  in each case, show that the line element*

$$ds^2 = \frac{a^2}{a^2 - r^2} dr^2 + r^2 d\theta^2 + r^2 \sin^2 \theta d\phi^2$$

*represents a curved three-dimensional manifold. Show that the manifold is flat in the limit  $a \rightarrow 0$ . Zer dago gaizki?*

**3.31** Aurkitu gainazal zilindriko baten kurbadura-tentsorea.

**3.32 Fluido perfektua.** Erabili  $T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$  kontserbazio-legea, eremu grabitatorio batean higitzen ari den fluido perfektuaren higidura-ekuazioak honako hauek direla frogatzeko:

$$\begin{aligned} (\rho u^\mu)_{;\mu} + \frac{p}{c^2} u^\mu_{;\mu} &= 0, \\ \left(\rho + \frac{p}{c^2}\right) u^\mu_{;\nu} u^\nu + \left(g^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu\right) p_{;\nu} &= 0. \end{aligned}$$

Geodesikoetan barrena higituko dira fluidoaren partikulak?

**3.33 Bolumen-elementua.** Erabili metrikaren (2.27) transformazioa,  $N$  dimentsioko Riemannen espazio batean bolumen-elementu aldaezina hauxe dela frogatzeko:

$$\sqrt{|g|} dx^1 dx^2 \cdots dx^N = \sqrt{|g'|} dx^{1'} dx^{2'} \cdots dx^{N'},$$

non metrikaren determinanteak  $g = \det(g_{\mu\nu})$  eta  $g' = \det(g_{\mu'\nu'})$  diren.

**3.34** Erabili 3.33 problema, gainazal esferikoaren azalera eta hiru dimentsioko gainazal esferikoaren bolumena kalkulatzeko.

**3.35 Suziri erlatibista.** Zein da 1.10 problemako ekuazioaren ordezkoa erlatibilitate orokorrean?

**3.36 Koordenatu lerromakurrak.** Ohiko kalkulu bektorialean ere aplikatzen da gai honetako geometria. Frogatu azken horren bidez koordenatu zilindrikoetan eta esferikoetan honela idazten dela eremu eskalar baten laplaciarra<sup>15</sup> hiru dimentsiotan:

$$\begin{aligned} \nabla^2 \Phi &= \frac{1}{\rho} \frac{\partial}{\partial \rho} \left( \rho \frac{\partial \Phi}{\partial \rho} \right) + \frac{1}{\rho^2} \frac{\partial^2 \Phi}{\partial \varphi^2} + \frac{\partial^2 \Phi}{\partial z^2} \\ &= \frac{1}{r^2} \frac{\partial}{\partial r} \left( r^2 \frac{\partial \Phi}{\partial r} \right) + \frac{1}{r^2 \sin \theta} \frac{\partial}{\partial \theta} \left( \sin \theta \frac{\partial \Phi}{\partial \theta} \right) + \frac{1}{r^2 \sin^2 \theta} \frac{\partial^2 \Phi}{\partial \varphi^2}. \end{aligned}$$

<sup>15</sup>Eremu bektorial baten dibergentziaren kasuan, adibidez, eremuaren osagai ortonormalak idatzi ohi direnez, hemen ikusi ez dugun oinarri ortonormalen kontzeptua erabili behar da (ikus, adibidez, [4] liburuko 139. orrialdea edo [10] testuko 125. eta 152. orrialdeak).

**3.37 Maxwellen ekuazioak koordenatu esferikoetan.** Erlatibilitate berezian ere erabilgarria da gai honetako formalismoa. Eman dezagun eremu elektriko erradial bat dugula:  $\mathbf{E} = E \mathbf{x}/|\mathbf{x}|$ .

(a) Idatzi  $F_{\mu\nu}$  tentsore elektromagnetikoa eta  $T_{\mu\nu}$  energia-momentuaren tentsorea koordenatu esferikoetan, hau da  $(ct, r = |\mathbf{x}|, \theta, \varphi)$  koordenatu-sisteman.

(b) Eman simetria esferikoa dugula:  $E = E(r)$ . Idatzi eta ebatzi Maxwellen ekuazioak aipaturiko koordenatuetan. Aurkitu (3.46) adierazpeneko potentzial elektromagnetikoa.

**3.38\* Diagrama konformeak.** Espazio-denboran definitako  $g_{\mu\nu}$  eta  $\tilde{g}_{\mu\nu}$  metrikak **konformeak** direla esaten da,

$$\tilde{g}_{\mu\nu}(x) = \Omega^2(x) g_{\mu\nu}(x)$$

betetzen bada,  $\Omega^2(x) > 0$  eremu eskalar egoki bat erabili.

(a) Egiaztatu bi metrika konformeren kausa-egiturak (hau da, argi-konoen egiturak) berdinak direla.

(b) Idatzi Minkowskiren metrika  $(r, \theta, \varphi)$  koordenatu esferikoak eta  $ct$  erabiliz.

(c) Infinituak distantzia finitura ekartzeko, egin<sup>16</sup>

$$\begin{aligned} c\tilde{t} &= \arctan(ct + r) + \arctan(ct - r), \\ \tilde{r} &= \arctan(ct + r) - \arctan(ct - r) \end{aligned}$$


transformazioa. Zeintzuk dira  $c\tilde{t}$  eta  $\tilde{r}$  koordenatuen definizio-eremuak?

(d) Egiaztatu koordenatu berrietaan Minkowskiren metrika eta ondokoak konformeak direla:

$$ds^2 = -c^2 d\tilde{t}^2 + d\tilde{r}^2 + \sin^2 \tilde{r} (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2).$$

(e) Egiaztatu  $d\theta = d\varphi = 0$  gainazaletan irudiko **diagrama konformeak**<sup>17</sup> dugula. Han ikusten dira koordenatuen definizio-eremu eta  $t$  konstanteko eta  $r$  konstanteko gainazalen eta argi-konoen proiekzioak. Azkenak  $\pm 1$  maldako segmentuak dira.

(f) Gainera ondoko leku geometrikoak agertzen dira diagramako mugetan:



Ikurra	Izena	Ekuazioa
$i^+$	etorkizuneko infinitu temporala	$c\tilde{t} = \pi, \quad \tilde{r} = 0$
$i^-$	iraganeko infinitu temporala	$c\tilde{t} = -\pi, \quad \tilde{r} = 0$
$i^0$	infinitu espaziala	$c\tilde{t} = 0, \quad \tilde{r} = \pi$
$\mathcal{J}^+$	etorkizuneko infinitu nulua	$c\tilde{t} + \tilde{r} = \pi$
$\mathcal{J}^-$	iraganeko infinitu nulua	$c\tilde{t} - \tilde{r} = -\pi$

Azaldu zergatik deitzen diren horrela, Minkowskiren espazio-denboran duten esanahia aztertzuz.

<sup>16</sup>Garrantzi gabeko eskala implizitu bat dago hemen, funtzio transzendenteen argumentuak dimentsio gabekoak izateko.

<sup>17</sup>Penroseren diagramak, Carter eta Penroseren diagramak edo Penrose eta Carterren diagramak, ere deitzen dira.

## 4. GAIA

### Einsteinen ekuazioak

Partikulen higiduran eta bestelako fenomenoetan kurbadurak duen eragina aztertu dugu aurreko bi gaietan. Grabitazioaren eragina espazio-denboraren geometria kurbatuaren ondorioa dela ikusi dugu. Gai honetan, espazio-denborako kurbaduraren (hau da, grabitazioaren) jatorri fisikoa aztertuko dugu. Eremu grabitatorioaren ekuazio erlatibistek erakusten dute nola sortzen duten kurbadura, energia eta momentuaren dentsitateek eta korronteek.

#### 4.1 Korrespondentziaren printzipioa

Oso ezaguna da Einsteinen lanak izan zituela eremu grabitatorioaren ekuazioak aurkitzeko. Bide bera jorratu barik, ondoko printzipioaz<sup>1</sup> baliatuko gara.

##### Korrespondentziaren printzipioa

- *Eremu grabitatorioa estatikoa eta ahula bada eta abiadurak ez-erlatibistak, Newtonen grabitazio unibertsalaren legea berreskuratu behar da. (Grabitazio newtondarren orokorpena da erlatibilitate orokorra.)*
- *Eremu grabitatoriorik ezean, abiadura guzietan, erlatibilitate berezia berreskuratu behar da. (Erlatibilitate bereziaren orokorpena da erlatibilitate orokorra.)*

Hortaz, hauexek izango dira gure abiapuntuak:

- Grabitazioa estatikoa eta ahula bada eta abiadurak txikiak, hurbilketa ona izango da Newtonen teorian  $\Phi$  potentzial grabitatorioak betetzen duen ekuazioa:

$$\nabla^2 \Phi = 4\pi G\rho, \quad (4.1)$$

non  $\rho$  masaren dentsitatea den.

- Gainera, kasu horretan 2.7 ataleko limite newtondarra dugu:

$$g_{00} \approx - \left( 1 + 2 \frac{\Phi}{c^2} \right). \quad (4.2)$$

<sup>1</sup>Machen printzipioa aipatzen da askotan testuinguru honetan, baina ez da erraz zehazten nola erabil daitekeen eremu grabitatorioaren ekuazioak bilatzean. Esan dezagun bakarrik Einsteinen, beregan izan zuen eragina aitzortu bazuen ere, bere bizitzaren amaieran, behintzat, zaharkitutzat jotzen zuela printzipio hura.

- Erlatibilitatean energiaren alderdi bat da masa. Hortaz, masaren dentsitateaz gain, energiare-na hartu beharko da kontuan. Bainan energia eta momentu lineala ez dira independenteak, el-karrekin transformatzen baitira Lorentzen transformazioetan. Beraz, masaren eta momentu linealaren dentsitateak eta korronteak konsideratu behar dira. Horretarako 1. gaiko energia-momentuaren tentsorea erabili behar da.

Adibidez, 1.4 atalean ikusi genuen hautsaren energia-momentuaren tentsorea  $T_{\mu\nu} = \rho u_\mu u_\nu$  dela<sup>2</sup> eta, ondorioz,

$$T_{00} = \rho u_0 u_0 \approx \rho c^2 \quad (4.3)$$

dugu hurbilketa ez-erlatibistan eta, (4.2) hurbilketaren ondorioz, honela geratzen zaigu (4.1) legea:

$$\nabla^2 g_{00} \approx -\frac{8\pi G}{c^4} T_{00}. \quad (4.4)$$

Kobariantzia orokorraren printzipioaren arabera, eremuaren ekuazioak tensorialak izango dira eta (4.4) berreskuratu behar da limitean. Ondorioz,

$$K_{\mu\nu} = \frac{8\pi G}{c^4} T_{\mu\nu} \quad (4.5)$$

egiturako ekuazioren bat espero dugu,  $K_{\mu\nu}$  tentsore kobariante egokiarekin. Zein izan daiteke tentsore hori? Hasteko, (4.4) ekuazioa kontuan hartuta,  $K_{\mu\nu}$  tentsorean gehienez metrikaren bigarren deribatuak agertzea espero dugu. Horixe gertatzen da (3.58) kurbadura-tentsorean, baina lau indizeetako bi kendu behar dira, kontraktzio baten bidez.

## 4.2 Ricciren eta Einsteinen tentsoreak

Kurbadura-tentsorearen (3.60) antisimetriaren ondorioz,  $R^\lambda_{\lambda\mu\nu} = 0$  da, baina, **Ricciren tentsorea**,

$$R_{\mu\nu} \equiv R^\lambda_{\mu\lambda\nu} \quad (4.6)$$

eran definitzen dena, ez da, oro har, nulua. Hori bai, (3.55) —edota (3.59) eta (3.60) — propietateen ondorioz, simetrikoa da,

$$R_{\mu\nu} = R_{\nu\mu}, \quad (4.7)$$

hauxe baitugu:

$$R^\lambda_{\mu\lambda\nu} = -R^\lambda_{\lambda\nu\mu} - R^\lambda_{\nu\mu\lambda} = R^\lambda_{\nu\lambda\mu}. \quad (4.8)$$

(3.52) adierazpenetik honako hau lortzen da:

$$R_{\mu\nu} = \Gamma^\rho_{\mu\nu,\rho} - \Gamma^\rho_{\mu\rho,\nu} + \Gamma^\rho_{\mu\nu}\Gamma^\sigma_{\rho\sigma} - \Gamma^\rho_{\mu\sigma}\Gamma^\sigma_{\nu\rho}. \quad (4.9)$$

**Kurbadura-eskalarra**<sup>3</sup> ondoko eskalarra da:

$$R \equiv g^{\mu\nu} R_{\mu\nu} = R^\mu_{\mu} = R_\mu^\mu. \quad (4.10)$$

Bestalde, Bianchiren (3.64) identitateetan lehen indizea igotzen bada,

$$R^\mu_{\nu\rho\sigma;\lambda} + R^\mu_{\nu\lambda\rho;\sigma} + R^\mu_{\nu\sigma\lambda;\rho} = 0, \quad (4.11)$$

<sup>2</sup>Hautsaren kasu partikularra da proba-partikula bakarrarena:  $\rho$  dentsitatea zero da haren unibertsio-lerrotik kanpo.

<sup>3</sup>Edo **Ricciren eskalarra**.

hauxe dugu kontrakzioa:

$$R_{\nu\sigma;\lambda} + R^\mu_{\nu\lambda\mu;\sigma} + R^\mu_{\nu\sigma\lambda;\mu} = R_{\nu\sigma;\lambda} - R_{\nu\lambda;\sigma} + R^\mu_{\nu\sigma\lambda;\mu} = 0. \quad (4.12)$$

$\nu$  indizea igo ondoren, kontrakzio hau dugu:

$$R^\nu_{\sigma;\nu} - R_{;\sigma} + R^{\mu\nu}_{\sigma\nu;\mu} = 0. \quad (4.13)$$

Baina Riemannen eta Ricciren tentsoreen simetrien ondorioz,

$$R^{\mu\nu}_{\sigma\nu;\mu} = R^{\nu\mu}_{\nu\sigma;\mu} = R^\mu_{\sigma;\mu} \quad (4.14)$$

dugu eta honela geratzen da (4.13):

$$2R^\nu_{\sigma;\nu} - R_{;\sigma} = 2 \left( R^\nu_\sigma - \frac{1}{2} R \delta^\nu_\sigma \right)_{;\nu} = 0. \quad (4.15)$$

Parentesi artean dagoen **Einsteinen tentsorea**,

$$G^{\mu\nu} \equiv R^{\mu\nu} - \frac{1}{2} R g^{\mu\nu}, \quad (4.16)$$

definitzen badugu, simetrikoa eta kontserbatua dela ikusten dugu:

$$G^{\mu\nu} = G^{\nu\mu}, \quad (4.17)$$

$$G^{\mu\nu}_{;\nu} = 0. \quad (4.18)$$

Gogoratu, 1. gaiko energia-momentuaren tentsore osoak propietate berdinak dituela.

Izan ere,  $\alpha, \beta$  eta  $\Lambda$  konstanteetako

$$K_{\mu\nu} = \alpha R_{\mu\nu} + \beta R g_{\mu\nu} + \Lambda g_{\mu\nu} \quad (4.19)$$

konbinazio lineala da, energia-momentuaren tentsorea bezala, simetrikoa den 2 heineko tentsore kobariante orokorrena, metrikaren deribatu altuenak bigarrenak badira eta bakarrik modu lineal-lean agertzen badira<sup>4</sup>.

Oraingo, hirugarren gaia kenduko dugu —baina ikus 4.4 atala eta 8. eta 9. gaiak—, erlatibilitate bereziaren Minkowskiren espazio-denbora hutsean ez baita desagertzen,  $T_{\mu\nu}$ ,  $R_{\mu\nu}$  eta  $R$  bezala. Gainera,  $T_{\mu\nu}$  tentsorean energia eta momentu (ez-grabitatorio) guztien ekarpenak daudenez, bere diberenzia zero da,  $T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$ , eta, beraz, gauza bera gertatu behar da  $K^{\mu\nu}$  tentsorearekin:

$$K^{\mu\nu}_{;\nu} = \alpha R^{\mu\nu}_{;\nu} + \beta R_{;\nu} g^{\mu\nu} = \left( \frac{1}{2} \alpha + \beta \right) R_{;\nu} g^{\mu\nu} = 0, \quad (4.20)$$

non (3.41) eta (4.15) deribatuak erabili ditugun. Oro har,  $R_{;\nu}$  ez da zero izango eta, ondorioz,  $\beta = -\alpha/2$  da eta honela idazten da (4.5) ekuazioa:

$$K_{\mu\nu} = \alpha \left( R_{\mu\nu} - \frac{1}{2} R g_{\mu\nu} \right) = \frac{8\pi G}{c^4} T_{\mu\nu}. \quad (4.21)$$

Hurrengo atalean frogatuko dugunez, (4.4) limite newtondarra berreskuratzeko  $\alpha = 1$  aukeratu behar da hor.

---

<sup>4</sup>Ikus, adibidez, [25] liburuko 7.1 atala.

## 4.3 Eremu gravitatorioaren ekuazioak

Hortaz, (nahi bada, teoriaren oinarrizko postulatu moduan) eremu gravitatorioaren (hau da, geometriaren) ekuazioak honako hauek direla onartuko dugu:

$$R_{\mu\nu} - \frac{1}{2}Rg_{\mu\nu} = \kappa T_{\mu\nu}, \quad \left( \kappa \equiv \frac{8\pi G}{c^4} \right). \quad (4.22)$$

Einsteinen tentsorearen (4.16) definizioa gogoratz, honela ere idazten dira **Einsteinen ekuazioak**:

$$G_{\mu\nu} = \kappa T_{\mu\nu}. \quad (4.23)$$

Bestalde, 4.7 probleman frogatuko dugunez, era baliokide honetan ere idatz daitezke ekuazio hauek<sup>5</sup>:

$$R_{\mu\nu} = \kappa \left( T_{\mu\nu} - \frac{1}{2}Tg_{\mu\nu} \right), \quad (T \equiv T^\mu_\mu = T_\mu^\mu). \quad (4.24)$$

### 4.3.1 Eremu estatiko ahularen hurbilketa

Eremua ahula bada,  $g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu} + h_{\mu\nu}$  eta  $|h_{\mu\nu}| \ll 1$  dugu, 2.7 atalean bezala. Gainera eremua estatikoa bada, denborarekiko deribatuak nuluak izango dira. Hipotesi hauekin eta (4.2) eta (4.9) erabiliz, hauxe dugu:

$$\Gamma_{00}^i \approx -\frac{1}{2}\delta^{ij}h_{00,j} = \frac{1}{c^2}\delta^{ij}\Phi_{,j}, \quad (4.25)$$

$$R_{00} \approx \Gamma_{00,i}^i \approx \frac{1}{c^2}\delta^{ij}\Phi_{,ji} = \frac{1}{c^2}\nabla^2\Phi. \quad (4.26)$$

Orain, hautsaren kasuan, (4.3) eta  $T = \rho u^\mu u_\mu = -\rho c^2$  erabiliz, honela geratzen da (4.24) ekuazioaren 00 osagaia:

$$R_{00} = \kappa \left( T_{00} - \frac{1}{2}Tg_{00} \right), \quad (4.27)$$

$$\frac{1}{c^2}\nabla^2\Phi \approx \frac{8\pi G}{c^4} \left( \rho c^2 + \frac{1}{2}\rho c^2 g_{00} \right) \approx \frac{8\pi G}{c^2}\rho \left( 1 + \frac{1}{2}\eta_{00} \right) = \frac{4\pi G\rho}{c^2}. \quad (4.28)$$

Azken adierazpenean (4.1) legea berreskuratzen denez, egokia zen  $\alpha = 1$  aukeratzea.

### 4.3.2 Einsteinen ekuazioak hutsean

Einsteinen ekuazioetan agertzen den energia-momentuaren tentsorean masa, energia eta momentu guztien ekarpenak daude (gravitazioari berari dagozkionak izan ezik). Espazio-denborako eskualde batean  $T_{\mu\nu} = 0$  badugu, **hutsa** dela esango dugu eta han Einsteinen (4.24) ekuazioak hurrengoetara laburtzen dira, (4.24) adierazpenaren ondorioz:

$$R_{\mu\nu} = 0. \quad (4.29)$$

---

<sup>5</sup>Era honetan aurkeztu zituen Einsteinen 1915eko azaroaren 25ean. Eztabaida garratza eta luzea izan da bost egun lehenago Hilbertek aurkeztu zuen txostenean zegoenari buruz: ekuazio baliokideak ote? Ikus [72, 73, 135, 182, 189, 203].

Ekuazio horiek betetzen dira Minkowskiren espazio-denboran (metrika lau guztieta), baina ego-kiak dira beste kasu askotan. Adibidez, hurrengo gaian aztertuko dugu nolakoa den geometria (hau da, gravitazioa) izar batetik kanpo. Izarraren barruan, noski,  $T_{\mu\nu}$  ez da zero izango, baina kanpoan hurbilketa egokia izan daiteke beste masa eta eremu ez-gravitatorio guztien ekarpenak arbuiatzea. Antzeko gauza bat gertatzen da gravitazio newtondarrean: masa-banaketatik kanpo Poissonen ekuazioa Laplacen ekuaziora laburtzen da, baina horrek ez du esan nahi kanpoan eremurik ez dagoela. Era berean, karga eta korronterik gabe ere Maxwellen ekuazioek soluzio garrantzitsuak onartzen dituzte: haien artean uhin elektromagnetikoak daude. Halaber, (4.29) ekuazioen soluzioen artean uhin gravitatorioak daude, bestea beste, 6. gaian ikusiko dugun bezala.

### 4.3.3 Koordenatu-baldintzak

Simetrien ondorioz Einsteinen eta energia-momentuaren tentsoreen osagai independenteak 10 direnez, Einsteinen ekuazioak ere 10 dira<sup>6</sup> eta hortik kalkulatu behar diren ezezagunak metrikaren 10 osagai independenteak. Dena ongi dagoela ematen du, gehienetan bigarren ordenako deribatu partzialetako ekuazio *ez-lineal* hauek ebaaztea oso zaila izan arren. Alabaina, ikuspuntu aljebraikotik independenteak badira ere, lau lotura diferentzial betetzen dituzte:  $G^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$ . Hortaz, sei ekuazio bakarrik dira funtzionalki independenteak eta metrikan lau askatasun-gradu geratzen dira<sup>7</sup>. Izan ere, ez da harritzeko, kobariantzia orokorraren ondorioz, lau koordenatuak edozein modutara aukera daitezkeelako. Lau askatasun-gradu horiek Einsteinen ekuazioaren soluzioen interpretazioa zaitzen dute, koordenatuen esanahi fisikoa zehazteko irizpide garbirik ez badago. Askotan gertatu da soluzio berritzat argitaratu dena, soluzio ezagunen baten baliokidea izatea, koordenatuak (eta, oro har, hauen definizio-eremua) desberdinak izan arren.

Elektromagnetismoan dagoen aldaezintasunaren antzera (gogoratu 1.16 problema), hemen ere gauge aldaezintasun bat dugu (askoz handiagoa, gainera) eta praktikan, soluzioak kalkulatzekoan, gauge bat aukeratu behar da. Koordenatuek lau baldintza betetzeko eskatu behar da, beraz. Modu askotara egin daiteke hori, baina hemen bakarrik aipatuko dugu koordenatu-baldintza erabiliena.

### Koordenatu harmonikoak<sup>8</sup>

Horrela deitzen dira **de Donderren baldintzak** betetzen dituztenak. Aipaturiko baldintzak bi modu baliokidetara idatz daitezke, 3.6 problemaren ondorioz:

$$\Gamma^\lambda \equiv g^{\mu\nu}\Gamma_{\mu\nu}^\lambda = 0, \quad (4.30)$$

$$\frac{\partial}{\partial x^\nu} \left( \sqrt{|g|} g^{\mu\nu} \right) = 0, \quad (4.31)$$

non metrikaren determinantea den  $g \equiv \det(g_{\mu\nu})_{\mu,\nu=0}^3$ . Koordenatu harmonikoak beti existitzen dira eta funtzio harmonikoak dira, ondoko ekuazioen soluzioak (ikus 4.10 problema):

$$\square^2 x^\lambda = 0, \quad (4.32)$$

non lau dimensioko d'Alemberten eragile kobariantea erabili dugun:

$$\square^2 f = g^{\mu\nu} f_{;\mu\nu} = g^{\mu\nu} f_{,\mu\nu} - \Gamma^\mu f_{,\mu}. \quad (4.33)$$

<sup>6</sup>N dimentsiotan  $N(N+1)/2$  dira.

<sup>7</sup>Einsteinen ekuazioen Cauchyren problema aztertuz ere ondorio berdinera heltzen da: ikus [25] liburuko 162. or.

<sup>8</sup>Ikus [25] liburuko 162. or.

Erabilgarriak dira koordenatu hauek eremu grabitatorio ahularen ekuazioak sinplifikatzeko (ikus 6.1.3 atala). Gainera, argi dago harmonikoak direla Minkowskiren espazio-denborako koordenatu minkowskiarrak.

## 4.4 Konstante kosmologikoa

(4.19) ekuaziotik azken gaia ezabatu genuen, grabitaziorik gabeko espazio-denbora lauan ez delako desagertzen, korrespondentziaren printzipoak eskatzen duen bezala. Hala ere, batez ere testuinguru kosmologikoetan (eta ez dago grabitaziorik gabeko kosmologiarik), horrelako ekarpen txiki bat egon daiteke, Einsteinen ekuazioak ondoko moduan:

$$G_{\mu\nu} + \Lambda g_{\mu\nu} = \kappa T_{\mu\nu}. \quad (4.34)$$

$\Lambda$  konstante kosmologikoak, konstantea izan behar du (4.34) ekuazioaren bi gaien dibergentziak zero izateko.

4.3.1 ataleko ildotik, eremu estatiko ahularen kasuan hauxe dugu:

$$\nabla^2 \Phi \approx 4\pi G\rho - \Lambda c^2. \quad (4.35)$$

$M$  masa esferiko batetik kanpo, hemendik lortzen den eremu grabitatorioa

$$\mathbf{g} = -\nabla\Phi \approx -\frac{GM}{|\mathbf{x}|^3} \mathbf{x} + \frac{1}{3}\Lambda c^2 \mathbf{x} \quad (4.36)$$

da (ikus 4.12 problema). Hemendik aurrera onartuko dugun bezala,  $\Lambda$  positiboa bada, konstante kosmologikoak aldarapen bat sortzen du eta, gainera, distantziarekin handitzen da aldarapen hori. Horixe izan zen Einsteinen arrazoia gai hori sartzeko: garai hartan unibertsua Esne Bide estatikoa zela uste zen eta, soluzio estatiko bat (hau da, hedatzen eta uzkurtzen ez dena) lortzeko, gai aldaratziale hori behar zuen, 1917an, erakarpen grabitatorioari aurre egiteko (ikus 8.3.1 atala). Horrela egin zuen bere «bizitzaren hanka-sartzerek handiena», 1929an Hubblek<sup>9</sup> aurkitutako unibertsaren hedapena teoriaren bidez aurrezateko aukera ederra galdu baitzuen. Alabaina, gaur egun kosmologo gehienek uste dute horrelako gai txiki positibo bat dagoela (oso txikia izan behar du, teoria newtondarren arrakastak ulertu ahal izateko). Aldarapen hori izan liteke astronomoek neurtzen duten unibertsaren hedapen azeleratuaren azalpena. Gainera, horrelako gai bat erabil daiteke inflazioa aztertzean (ikus 9. gaia).

Baina,  $\Lambda g_{\mu\nu}$  gaia geometriko hutsa da ala jatorri fisikoren bat izan dezake? (4.34) ekuazioa

$$G_{\mu\nu} = \kappa (T_{\mu\nu} + T_{\mu\nu}^{(\Lambda)}) \quad (4.37)$$

eran idatz daiteke ohiko energia-momentu tentsoreari honako hau gehitzen bazaio:

$$T_{\mu\nu}^{(\Lambda)} \equiv -\frac{\Lambda c^4}{8\pi G} g_{\mu\nu}. \quad (4.38)$$

Fluido perfektuaren (3.43) energia-momentuaren tentsorearen egitura du honek, egoera-ekuazioa  $p = -\rho_\Lambda c^2$  bada, ondoko energia-dentsitatearekin:

$$\rho_\Lambda c^2 = \frac{\Lambda c^4}{8\pi G}. \quad (4.39)$$

---

<sup>9</sup>Baina ikus 146. orrialdeko 9 oin-oharra.

Baina nola izan daiteke negatiboa presioa? (4.38) tentsorea metrikaren menpeko hutsa denez, bestelako energia eta momentu gabe ere agertuko da: hutsaren propietatea da. Huts kuantikoaren fluktuazion ondorioa izan liteke<sup>10</sup>, hauen energiaren dentsitatea (4.39) balitz; baina orain arte egindako kalkuluetan lortzen diren emaitzak, behaketa kosmologikoek emandako goiko limitea baina 120 magnitude-ordenaz handiagoak dira (teoria estandarrean: beste kalkulu batzuetan errorea txikiagoa da baina oraindik itzelezko handia) [46, 59, 196]: fisikaren historiaren iragarpenik txarrena! Hau idazten dugunean, konstante kosmologikoaren esanahiaren azterketa (eta espekulazio) askoren gaia da.

## 4.5 Higidura-ekuazioak

Erabili dugun bideari jarraitu gabe, gure abiapuntua (postulatutzat edo printzipiotzat hartuta) Einsteinen ekuazioak badira,  $G^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$  emaitza matematikotik,  $T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$  kontserbazio-legea ondoriotzat lortzen dugu; baina hemendik lortzen da materiaren (edota eremuen) higidura-ekuazioa. Adibidez, hautsaren kasuan<sup>11</sup>,  $T_{\mu\nu} = \rho u^\mu u^\nu$  denez,

$$T^{\mu\nu}_{;\nu} = (\rho u^\mu u^\nu)_{;\nu} = (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\nu u^\mu_{;\nu} = 0 \quad (4.40)$$

dugu eta  $u_\mu$ -rekin biderkatuz kontraktio hau lortzen da:

$$-c^2 (\rho u^\nu)_{;\nu} + \rho u_\mu u^\nu u^\mu_{;\nu} = 0. \quad (4.41)$$

Hemen erabili dugun  $u_\mu u^\mu = -c^2$  berdintza deribatuz,

$$u_\mu u^\mu_{;\nu} = 0 \quad (4.42)$$

geratzen zaigunez, honako bi emaitzak lortzen dira (4.41) eta (4.40) ekuazioetatik:

$$(\rho u^\nu)_{;\nu} = 0, \quad (4.43)$$

$$u^\mu_{;\nu} u^\nu = 0. \quad (4.44)$$

Lehenengo emaitza jarraitutasun-ekuazioa da (gogoratu 1.4 atalean eta 3.6 probleman esandakoa) eta bigarrena geodesikoen ekuazioa, (3.36) erlazioaren ondorioz:

$$u^\mu_{;\nu} u^\nu = \frac{Du^\mu}{d\tau} = \frac{du^\mu}{d\tau} + \Gamma^\mu_{\nu\rho} u^\nu u^\rho = 0. \quad (4.45)$$

(Gogoratu 3.32 problema eta ikus 7.5.1 atala.)

Era berean, bestelako indarrik pairatzen ez duen proba-partikula baten higidura-ekuazioa (geodesikoen ekuazioa, alegia) eremuaren ekuazio ez-linealetatik lortzen da<sup>12</sup>. Elektrodinamikan, aldiz, eremuaren ekuazio linealak diren Maxwellen ekuazioetatik ez da Lorentzen indarra deribatzen.

<sup>10</sup>1933an iradoki zuen Lemaîtrek konstante kosmologikoa hutsaren energia izan daitekeela [155].

<sup>11</sup>Gogoratu 78. orrialdeko 2 oin-oharra.

<sup>12</sup>Ikus, adibidez, [10] testuko 8.8 atala, [14] liburuko 20.6 atala eta [16] testuko 231. or.

## 4.6 Aldakuntza-printzipioa

Fisikaren beste arloetan bezala, erlatibilitate orokorrean ere oinarrizko ekuazioak aldakuntza-printzipio egoki batetik lor daitezke. Ideia ez da mekanika analitikoaren erabiltzen den Hamiltonen printzipioaren desberdina, baina orain aldagai independenteak lau dira ( $x^\mu$ ) eta menpekoak  $g_{\mu\nu}$  funtziek (gainera, azken hauen lehen eta bigarren deribatuak agertzen dira lagrangearean). Aipa dezagun bakarrik posibilitate bat: **Einstein eta Hilberten ekintza**<sup>13</sup>. Lagrangearra metrika-ren determinantearen eta kurbadura-eskalarraren konbinazioa da:

$$\mathcal{L}_{\text{EH}} = \frac{1}{2\kappa c} \sqrt{|g|} R. \quad (4.46)$$

Espazio-denborako  $\mathcal{R}$  eskualde mugatu finko batean kalkulatzen da ekintza,

$$\mathcal{I}_{\text{EH}} = \int_{\mathcal{R}} \mathcal{L}_{\text{EH}} d^4x, \quad (4.47)$$

eta mugan metrikak eta deribatuak aldatu gabe lortzen diren aldakuntzekiko egonkorra izateko eskatzen da:

$$\delta \mathcal{I}_{\text{EH}} = 0. \quad (4.48)$$

Euler eta Lagrangeren ekuazioak (lagrangearean metrikaren bigarren deribatuak ere agertzen direnez)

$$\frac{\partial \mathcal{L}_{\text{EH}}}{\partial g_{\mu\nu}} - \frac{\partial}{\partial x^\rho} \frac{\partial \mathcal{L}_{\text{EH}}}{\partial g_{\mu\nu,\rho}} + \frac{\partial^2}{\partial x^\rho \partial x^\sigma} \frac{\partial \mathcal{L}_{\text{EH}}}{\partial g_{\mu\nu,\rho\sigma}} = 0 \quad (4.49)$$

moduan idazten dira eta hortik lortzen dira hutsaren  $G_{\mu\nu} = 0$  ekuazioak (ikus [10] liburuko 539. or. edo [15] testuko 118. or.). Espazio-denbora ez bada hutsa, materiarenean eta eremuen energia eta momentu lineala kontuan hartzen, dagokien  $\mathcal{I}_{\text{ME}}$  ekintza ere sartu behar da (4.23) ekuazio osoak lortzeko:  $\delta(\mathcal{I}_{\text{EH}} + \mathcal{I}_{\text{ME}}) = 0$ .

## 4.7 Gehiago ikasteko

- Einsteinen ekuazioen esanahia matematika gutxiz: [45].
- Erlatibilitate orokorra, berezia ikusi baino lehenago: [172].
- Erlatibilitate orokorraren egiaztapen esperimentalak eta beste teoriak: [14], IX. zatia; [74]; [200].
- Konstante kosmologikoaren historia: [81]; [110].
- Konstante kosmologikoaren buru-hausgarria: [43]; [59].
- Aldakuntza-printzipioak: [1], 11.4 atala; [3], 4.3 atala; [4], 11. gaia; [5], 26–30. gaiak; [10], 19. gaia; [12], 93. atala; [14], 21. gaia; [25], 357. or.
- Noiz ez da minimoa ekintza?: [102].
- Cauchyren problema: [4], 174. or.; [25], 163. or.

<sup>13</sup>Eztabaida luzea gertatu da, zientziaren historialarien artean, ekintza honen aurkikuntzaren lehentasunaz. Testu batzuetan bakarrik aipatzen da Hilberten izena.

- Grabitazioaren energia eta sasitentsoreak: [1], 11.2 atala; [5], 31. eta 32. gaiak; [12], 96. atala; [14], 18. eta 19. gaiak; [16], 6.5 atala; [25], 165. or.
- Machen printzipioa: [4], 121. or.; [15], 325. or.; [25], 86. or.
  - Newtonen eta Kopernikoren kritika: [109].
  - Biraketa-higidura eta arraste inertziala: [104].
  - Erlatibilitate orokorraren historian: [153].
  - Ondorio fisikoak: [154].
- Mihiztadura minimoaren printzipioa: [4], 131. or.
- Erlatibilitate orokorra 2 eta 3 dimentsiotan: [68].
- Brans eta Dickeren teoria: [10], 174. or.; [15], 338. or.; [25], 157. or.

## 4.8 Problemak

**4.1** Zergatik da onartezina erlatibitatean (4.1) legea? Eta  $\square^2 \Phi = 4\pi G\rho$ ?

**4.2** Egiaztatu bi dimentsiotan honela idazten direla Ricciren tentsorea eta kurbadura-eskalarra:

$$R_{ij} = \frac{R_{1212}}{g} g_{ij}, \quad R = \frac{2R_{1212}}{g}, \quad (4.50)$$

non metrikaren  $g \equiv \det(g_{ij})_{i,j=1}^2$  determinantea erabili dugun. Gainera, honela definitzen da **Gaussen kurbadura**:

$$K \equiv \frac{R}{2}. \quad (4.51)$$

Egiaztatu 3.9 ataleko gainazal esferikoaren kasuan  $g = a^4 \sin^2 \theta$  denez,  $K = 1/a^2$  dugula.

**4.3** Egia al da kurbadura-tentsorea nulua denean Riccirena ere zero dela? Eta alderantzizkoa?

**4.4 Schwarzschilden metrika (I).** Kalkulatu 2.16 eta 3.18 problemetako metrikaren Ricciren tentsorea eta kurbadura-eskalarra.

**4.5 Schwarzschilden metrika (II).** Idatzi 2.16 eta 3.18 problemetako metrika ondoko koordenatuetaan:

$$(x^0, x, y, z) \equiv (ct, r \sin \theta \cos \varphi, r \sin \theta \sin \varphi, r \cos \theta).$$

Harmonikoak al dira koordenatu berriak?

**4.6** Kalkulatu kosmologian aurkituko dugun ondoko metrikaren Riemannen, Ricciren eta Einsteinen tentsoreak:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + a^2(t) (dx^2 + dy^2 + dz^2).$$

**4.7 Einsteinen ekuazioak.** Frogatu ondoko era baliokidean idazten direla (4.22) ekuazioak:

$$R_{\mu\nu} = \kappa \left( T_{\mu\nu} - \frac{1}{2} T g_{\mu\nu} \right),$$

non  $T \equiv T^\mu_\mu = T_\mu^\mu$  den. Zein da dagokion emaitza konstante kosmologikoarekin?

**4.8 Tauben metrika.** Honela idazten da, kasu partikular batean<sup>14</sup>:

$$ds^2 = -\frac{l^2 + c^2 t^2}{l^2 - c^2 t^2} c^2 dt^2 + 4l^2 \frac{l^2 - c^2 t^2}{l^2 + c^2 t^2} (d\psi + \cos \theta d\varphi)^2 + (l^2 + c^2 t^2) (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2),$$

non  $(ct, \psi, \theta, \varphi) \in (-l, l) \times [0, \pi) \times [0, \pi) \times [0, 2\pi)$  den. Laua al da? Eta hutsaren Einsteinen ekuazioen soluzioa?

**4.9** Egiaztatu ondoko egiturako metrika guztiak lauak direla, hutsaren Einsteinen ekuazioen soluzioak badira:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + d\rho^2 + f^2(\rho) d\varphi^2 + dz^2.$$

Aurkitu Minkowskiren metrikaren ohiko adierazpena berreskuratzeko erabili behar den aldagai-aldaketa eta egiaztatu metrika horien artean 3.9.1 ataleko soka kosmikoak daudela.

---

<sup>14</sup>Ikus, adibidez, [9] liburuko 5.8 atala.

**4.10** Egiaztatu (4.30) eta (4.32) baldintzak baliokideak direla.

**4.11** Tentsorialak al dira (4.30)–(4.31) baldintzak?

**4.12** Frogatu (4.36) emaitza.

**4.13 Kurbadura konstanteko espazioak**<sup>15</sup>. Espazio lauen eta gainazal esferikoen orokorpen moduan,  $N$  dimentsioko espazio bat kurbadura konstantekoa dela esaten da geometrian ondoko baldintza betetzen denean,  $K$  konstante egokiarekin:

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = K (g_{\mu\rho}g_{\nu\sigma} - g_{\mu\sigma}g_{\nu\rho}).$$

$K = 0$  dugu espazio lauetan eta  $K \neq 0$  gainazal esferikoen eta hiperbolikoen orokorpenetan.

- (a) Kalkulatu horrelako espazioen Ricciren tentsorea eta kurbadura-eskalarra.
  - (b) Hemendik aurrera eman dezagun kurbadura konstanteko espazioa,  $N = 4$  dimentsioko espazio-denbora dela. Zein da Einsteinen tentsorea?
  - (c) Egiaztatu Einsteinen (4.23) ekuazioen soluzioa dela, energia-momentuaren tentsorea fluido perfektu batena bada. Aurkitu azken honen egoera-ekuazioa. Fluido arrunta izan daiteke?
  - (d) Frogatu hutsaren Einsteinen (4.34) ekuazioen soluzioa dela, kalkulatu behar den konstante kosmologiko egokiarekin.
- (Ikus, gainera, 7.2.1 atala eta 7.2 problema.)

---


<sup>15</sup>Hauexek dira simetria handieneko espazioak: puntu guztienguru inguruan isotropoak eta homogeneoak dira eta  $N(N + 1)/2$  Killingen bektore linealki independente dituzte.



## 5. GAIA

### Schwarzschilden soluzioa

Gai honetan aztertuko dugun Einsteinen ekuazioen soluzioa<sup>1</sup> errazenetakoa eta erabilgarrienetakoa da. Gorputz esferiko batek *kanpoan* sortzen duen eremua (hau da, geometria) deskribatzen du eta teoriaren lehenengo egiaztapen esperimentalak aztertzeko erabiliko dugu. Erlatibilitate orokorraren ezaugarri berri batzuk aurkituko ditugu azterketa honetan. Amaitzeko, gorputzaren barruko geometria eta karga esferiko estatiko baten kanpo-metrika aztertuko dira.



5.1 IRUDIA Simetria esferikoaren ideia.

#### 5.1 Birkhoffen teorema<sup>2</sup>

Eman dezagun hutsaren ekuazioen soluzio batek simetria esferikoa duela. Horrekin esan nahi dugu puntu baliokideetako bi dimentsioko gainazal itxien bidez bete daitekeela espazio-denbora

<sup>1</sup>Lehenengo soluzio zehatza izan zen hau. Badirudi Schwarzschilden hau aurkitu arte Einsteinen uste zuela bakanrik lor zitezkeela soluzio hurbilduak. Harrezkero soluzio zehatz asko eta asko aurkitu dira [23].

<sup>2</sup>Dirudinez, Jørg Toft Jebsen fisikariak 1921ean lortu zuen Birkhoffek 1923an berriro frogatuko zuen teorema hau [117].

(ikus 5.1 irudia). Gainazalak izendatzeko  $t$  eta  $r$  koordenatuak aukeratzen badira, gainazal bakoitzeko puntuak izendatzeko ohiko  $\theta$  eta  $\varphi$  angelu polarak aukeratzea izango da naturalena. Aukera hauekin hauxe izango dugu simetria esferikoaren adierazpena:

$$ds^2|_{dt=dr=0} = f(t, r) (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.1)$$

Kobariantzia orokorraz baliatuz,  $t$  eta  $r$  koordenatuak nahi den moduan alda daitezke, aurreko adierazpenaren egitura aldatu gabe. Askatasun honetaz baliatuz,  $f(t, r) = r^2$  aukera egingo dugu, *simetria esferikoa bermatzen duen bakarra ez bada ere*:

$$ds^2|_{dt=dr=0} = r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.2)$$

Schwarzschilden koordenatu erradial hau erabiliz,  $dt = dr = 0$  gainazalen azalera  $4\pi r^2$  da (gororatu 3.34 problema): koordenatu erradialaren esanahi geometrikoa horixe da, baina *horrek ez du esan nahi zentro batetik neurrtutako distantzia konstantea dela*, ohiko geometria euklidearrean bezala (ikus 5.1 problema).

Orain, simetria esferikoa eta (5.2) egitura kontuan hartuz, metrika osoa

$$ds^2 = -\tilde{A}(t, r) dt^2 + \tilde{B}(t, r) dr^2 + \tilde{C}(t, r) dt dr + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2) \quad (5.3)$$

moduan idazten da<sup>3</sup>. Simetria esferikoaren ondorioz,  $\tilde{A}$ ,  $\tilde{B}$  eta  $\tilde{C}$  funtzioak bakarrik dira  $t$  eta  $r$  koordenatuuen funtzioak eta (5.3) elementuan  $dt d\theta$ ,  $dt d\varphi$ ,  $dr d\theta$ ,  $dr d\varphi$  eta  $d\theta d\varphi$  gaien koeffizienteak nuluak dira; bestela, angelu polar bat handitzea eta txikitzea ez lirateke baliokideak. Gainera, oraindik nahi den moduan alda daiteke denbora koordenatua  $t = g(t', r)$  funtzio batzen bidez. Aldaketa hori egiten badugu (5.3) metrikan,  $dt' dr$  gaiaren koeffizientea hauxe da (ikus 5.2 problema):

$$\frac{\partial g}{\partial t'}(t', r) \left[ -2\tilde{A}(g(t', r), r) \frac{\partial g}{\partial r}(t', r) + \tilde{C}(g(t', r), r) \right]. \quad (5.4)$$

Baina makoen artekoa zerorekin berdinduz lortzen den baldintzaren edozein soluzio aukeratz, honela geratzen da metrika,  $A$  eta  $B$  funtziogatik (ikus 5.2 problema),  $t'$ -ren ordez  $t$  idazten badugu:

$$ds^2 = -A(t, r) dt^2 + B(t, r) dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.5)$$

Oraindik koordenatuak ez daude guztiz finkatuta,  $t = h(t')$  aldaketek ez baitute metrikaren egitura aldatzen.

Aurrera egiteko, simetria esferikoa baino gehiago behar dugu: Einsteinen (4.29) ekuazioak, hain zuzen. 5.2 irudiko kalkuluan ikusten dugun bezala,

$$R_{tr} = \frac{1}{rB} \frac{\partial B}{\partial t} = 0 \quad (5.6)$$

dugu eta, beraz,  $B = B(r)$ . Orain,  $R_{tt} = R_{rr} = R_{\theta\theta} = 0$  ekuazioetatik lortzen den

$$rB' + (B - 1)B = 0 \quad (5.7)$$

ekuazioaren soluzio orokorra (aldagaiak bananduz erraz aurkitzen dena) ondoko moduan idazten dugu,  $r_s$  integrazio-konstantearren funtzioan:

$$B = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1}. \quad (5.8)$$

---

<sup>3</sup>Ikus, adibidez, [16] testuko 7.2 atalean egitura honen beste frogapen bat.

```

In[1]:= Needs["Ricci`Ricci`"];
ds2 = -A[t, r] Dt[t]^2 + B[t, r] Dt[r]^2 + r^2 (Dt[\theta]^2 + Sin[\theta]^2 Dt[\phi]^2);
SetMetric[ds2, {t, r, \theta, \phi}]

In[4]:= Ricci[0, 1]
Out[4]= 
$$\frac{B^{(1,0)}[t, r]}{r B[t, r]}$$


In[5]:= B[t_, r_] := B[r]
Solve[{Ricci[0, 0] == 0, Ricci[1, 1] == 0, Ricci[2, 2] == 0},
      B'[r], {A^(0,1)[t, r], A^(0,2)[t, r]}] // Simplify

Out[6]= 
$$\left\{ \left\{ B'[r] \rightarrow -\frac{(-1 + B[r]) B[r]}{r} \right\} \right\}$$


In[7]:= DSolve[B'[r] == - $\frac{(-1 + B[r]) B[r]}{r}$ , B[r], r] // Simplify
Out[7]= 
$$\left\{ \left\{ B[r] \rightarrow \frac{r}{e^{C[1]} + r} \right\} \right\}$$


In[8]:= B[r_] :=  $\left(1 - \frac{rs}{r}\right)^{-1}$ ;
Ricci[2, 2] // Simplify
Out[8]= 
$$\frac{rs A[t, r] + r (-r + rs) A^{(0,1)}[t, r]}{2 r A[t, r]}$$


In[10]:= DSolve[% == 0, A[t, r], {t, r}] // Simplify
Out[10]= 
$$\left\{ \left\{ A[t, r] \rightarrow \frac{(r - rs) C[1][t]}{r} \right\} \right\}$$


In[11]:= A[t_, r_] :=  $\left(1 - \frac{rs}{r}\right) f[t]$ 
PrintRicci[Simplify]

```

$$R_{ij} = 0$$

## 5.2 IRUDIA Birkhoffen teorema *Mathematica*-ren bidez.

Honekin geratzen zaigun

$$R_{\theta\theta} = \frac{r_s}{2r} - \frac{r - r_s}{2A} \frac{\partial A}{\partial r} = 0 \quad (5.9)$$

ekuazioa zuzenean integratzen da, aldagaiak banandu ondoren, hautazko  $f(t)$  integrazio-funtzioa erabiliz:

$$A = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) f(t). \quad (5.10)$$

Hortaz, Einsteinen ekuazio guztiak betetzen ditu honako metrika honek:

$$ds^2 = -\left(1 - \frac{r_s}{r}\right) f(t) dt^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.11)$$

Denbora koordenatuau geratzen den askatasuna erabiliz,  $c^2 dt'^2 = f(t) dt^2$  ekuaziotik lortzen den  $t'$  erabiltzen bada, prima kenduta, hauxe dugu simetria esferikoa duen kanpo-soluzioa, aukeratu

ditugun Schwarzschilden koordenatuetan<sup>4</sup>:

$$ds^2 = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 dt^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.12)$$

Hipotesi bakan batzuk erabiliz lortu dugun soluzio honek honako bi propietate hauek ditu:

- **Asintotikoki laua** da. Distantzia infinitura,  $r \rightarrow \infty$  limitean, Minkowskiren (3.85) metrika berreskuratzen da (koordenatu polar esferikoetan): eremu grabitatorioa zerora doa infinituan, espero bezala, eta Schwarzschilden koordenatuak infinituan geldi dagoen behatzailearenak dira.
- **Estatikoa** da: (2.65) baldintza betetzen da, metrikaren koefizienteak ez baitira  $t$  denboraren menpekoak eta  $g_{0i} = 0$ . Simetria esferikoa duen izar baten azala hedatzen edo uzkurtzen bada ere, kanpoan metrika ez da aldatzen infinituan ( $r \rightarrow \infty$  limitean) geldi dagoen behatzailearen  $t$  denborarekin eta, ondorioz, ez du erradiazio grabitatoriorik igortzen. (Gauza bera gertatzen da karga-banaketa esferikoekin: ez dute sortzen erradiazio elektromagnetikorik, nahiz eta aldakorrak izan.)

$M$  masako gorputz esferiko baten kanpo-eremua deskribatzen badu (5.12) metrikak, distantzia handira,  $r \gg r_s$  denean, eremua ahula izango da eta (2.61) hurbilketaren ondorioz<sup>5</sup>:

$$g_{00} = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) \approx - \left(1 + 2\frac{\Phi}{c^2}\right) = - \left(1 - \frac{2GM}{c^2 r}\right). \quad (5.13)$$

Ondorioz, hauxe da gorputzaren **Schwarzschilden erradioa** izeneko integracio-konstantea kasu honetan:

$$r_s = \frac{2GM}{c^2}. \quad (5.14)$$

Masa-banaketa esferikoek kanpoan sortutako eremu grabitatorioa masa osoaren menpeko hutsa dela frogatu zuen Newtonek (eta Gaussen teoremaren ondorio zuzena da haren teorian) eta hauxe dugu emaitza horren orokorpen erlatibista.  $M$  parametroaren interpretazioa erraza da infinituko behatzailearen ikuspuntutik: Newtonen grabitazio unibertsalaren legean agertzen den masa grabitatorio aktiboa da; baina ikus 5.8 ataleko masa-ekuazioaren azterketa.

Goian aipatutako interpretazio geometrikoa gorabehera, (5.12) metrikan  $dr^2$ -ren koefizientea 1 ez denez, *r koordenatua ez da zentro batetik neurutako erradioa* (ikus 5.1 problema).

## 5.2 Geodesikoak

Partikula askeen orbitak aztertzeko, 2.13 problemako metodoaz baliatuko gara. Puntu bat erabiltzen badugu denbora propioarekiko (edo, masa gabeko partikulen kasuan, parametro afin

<sup>4</sup>Einsteinen bere teoria osatu zuen urte berean (1915) aurkitu zuen Schwarzschilden eremu grabitatorioaren ekuazioen lehen soluzio zehatz hau, Lehen Mundu Gerrako trintxeretan zegoela. Einsteinen aurkeztu zuen Schwarzschilden lana Prusiako Zientzien Akademian, 1916ko urtarrilaren 13an. Johannes Drostek berriro aurkitu zuen soluzio hau eta bere lana Lorentzek aurkeztu zuen, Holandako Zientzien Errege Akademian, maiatzaren 27an. Drosteren deribazioa zuzenagoa zen eta metrikaren azterketa sakonagoa. Hortaz, bi ikertzaileen izenekin ezagutu beharko litzateke soluzio hau, beste soluzio famatuekin egin ohi den bezala (hala nola geroago aztertuko dugun FLRW metrikarekin: ikus 149. orrialdeko oin-oharra).

<sup>5</sup>Beti bezala,  $x^0 = ct$  hartzten dugu hemen.

batekiko) deribatua adierazteko, honela idazten da lagrangearra, garrantzirik gabeko  $1/2$  faktorea alde batera utzita:

$$L = g_{\mu\nu}\dot{x}^\mu\dot{x}^\nu = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 \dot{t}^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} \dot{r}^2 + r^2 \left(\dot{\theta}^2 + \sin^2 \theta \dot{\varphi}^2\right). \quad (5.15)$$

Adierazpen honetan  $t$  eta  $\varphi$  ziklikoak dira eta dagozkien momentu kanonikoak higidura-konstanteak (gogoratu 2.14 problema). Gainera, ez da aldagai independentearen menpekoa eta, ondorioz, dagokion hamiltondarra (testuinguru honetan lagrangearen berdina dena), balio konstante ezaunekoa da. Hortaz, hauexek dira hiru higidura-konstanteak:

$$-\alpha c^2 = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 \dot{t}^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} \dot{r}^2 + r^2 \left(\dot{\theta}^2 + \sin^2 \theta \dot{\varphi}^2\right), \quad (5.16)$$

$$k = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) \dot{t}, \quad (5.17)$$

$$h = r^2 \sin^2 \theta \dot{\varphi}, \quad (5.18)$$

non  $\alpha = 1$  dugun masadun partikulen denbora motako geodesikoen kasuan ( $g_{\mu\nu}\dot{x}^\mu\dot{x}^\nu = -c^2$  baita) eta  $\alpha = 0$  masa gabeko geodesiko nuluetan ( $g_{\mu\nu}\dot{x}^\mu\dot{x}^\nu = 0$ ). Menpeko aldagaiak lau direnez, bakarrik behar dugu laugarren higidura-ekuazio bat. Errazena  $\theta$ -ri dagokiona da:

$$\left(r^2\dot{\theta}\right)' - r^2 \sin \theta \cos \theta \dot{\varphi}^2 = 0. \quad (5.19)$$

Potenzial zentral batean higitzen den partikularen higidura aztertzen bada mekanika ez-erlatibistan,  $\theta$  eta  $\varphi$  angeluei dagozkien higidura-ekuazioak (5.18) eta (5.19) dira (jakina, kasu horretan puntuaren denbora arruntarekiko deribatua izango da). Beraz, kasu bietan ondorio geometriko berdina da: *orbita laua da eta, simetria esferikoa kontuan hartuta, beti aukera daitezke angeluak higidura-planoa  $\theta = \pi/2$  izateko moduan.* (Ikus, gainera, 5.4 problema.) Hemendik aurrera beti egingo dugun aukera horrekin, (5.19) identikoki betetzen da eta geratzen zaizkigun ekuazioak honako hauek dira:

$$-\alpha c^2 = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 \dot{t}^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} \dot{r}^2 + r^2 \dot{\varphi}^2, \quad (5.20)$$

$$k = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) \dot{t}, \quad (5.21)$$

$$h = r^2 \dot{\varphi}. \quad (5.22)$$

Orain, (5.21) eta (5.22) erabiliko ditugu, (5.20)-tik  $\dot{t}$  eta  $\dot{\varphi}$  ezabatzeko eta  $r$  koordenatuaren eboluzio-ekuazioa lortzeko:

$$\dot{r}^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) \left(\frac{h^2}{r^2} + \alpha c^2\right) = c^2 k^2. \quad (5.23)$$

## 5.2.1 Orbitaren ekuazioa

Ibilbidearen ekuazioa lortzeko, denbora propioarekiko edo parametro afinarekiko deribatua ezabatuko dugu, (5.23) eta  $r$  koordenatuaren  $u \equiv 1/r$  alderantzizkoa erabiliz:

$$r = \frac{1}{u}, \quad (5.24)$$

$$\dot{r} = -\frac{\dot{u}}{u^2} = -\frac{u'}{u^2} \dot{\varphi} = -hu', \quad \left(u' \equiv \frac{du}{d\varphi}\right), \quad (5.25)$$

$$u'^2 + u^2 = r_s u^3 + \frac{c^2 k^2}{h^2} - \alpha c^2 \frac{1 - r_s u}{h^2}. \quad (5.26)$$

Ekuazio hau  $\varphi$ -rekiko deribatzen badugu,  $k$  integracio-konstantea ezabatzeko, hauxe dugu:

$$u'' + u = \alpha \frac{c^2 r_S}{2h^2} + \frac{3}{2} r_S u^2. \quad (5.27)$$

Ekuazio honen soluzio orokorra funtzioko eliptikoen bidez idatz daiteke (ikus, adibidez, [16] testuko 322. or.; kalkulu aljebraikoa egiteko programaren bat ere erabil daiteke), baina horrela lortzen den adierazpena ez da oso erabilgarria. Horren ordez, soluzio partikularak aztertuko ditugu hurrengo ataletan edo, bestela, metodo kualitatiboez eta hurbilduez baliatuko gara.

### 5.3 Argi motako geodesikoak

Masa gabeko partikulen kasuan,  $\alpha = 0$  egin behar da (5.27) ekuazioan eta,  $r_S$  erradioaren (5.14) balioa erabiliz, honela geratzen zaigu geodesiko nuluen ekuazioa:


$$u'' + u = \frac{3GM}{c^2} u^2. \quad (5.28)$$

Bestalde, (5.23) ekuazioa honela idazten da,  $\alpha = 0$  egin ondoren:

$$\frac{1}{h^2} \dot{r}^2 + \frac{1}{r^2} \left(1 - \frac{r_S}{r}\right) = \frac{1}{b^2}, \quad \left(b \equiv \frac{h}{ck}\right). \quad (5.29)$$

Dimentsio bakarreko energia mekanikoaren kontserbazio-lege baten egitura du honek, potentzial eraginkorra ondokoaren proportzionala bada:

$$V_e = \frac{1}{r^2} \left(1 - \frac{r_S}{r}\right). \quad (5.30)$$



5.3 IRUDIA (5.30) potentzial eraginkorra.

Potentzial honen grafikoa (5.3) irudian agertzen da (geroago azalduko dugu zergatik marraztu dugun bakarrik  $r > r_S$  tartea). Mutur bakarra du,  $(r_0, V_0) = (3r_S/2, 4/27r_S^2)$  puntuan, eta, maximoa denez, *orbita nulu zirkular bakarra ( $r = 3r_S/2 = 3GM/c^2$ ) ezegonkorra da*<sup>6</sup>.

Bestalde, distantzia handira, grabitazioa arbuiagarria denean, argiaren ibilbidea zuzena izatea espero dugu (ikus 5.5 problema):

$$r \sin(\varphi - \varphi_0) \sim \mp \bar{b}, \quad (r \rightarrow \infty \text{ limiteetan}), \quad (5.31)$$

<sup>6</sup>Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/GK/schw/argia.html> orrialdeko simulazioa.

non  $\bar{b}$  konstantea jotze-parametroa den eta  $\varphi_0 = \lim_{r \rightarrow \infty} \varphi$ . Beraz,

$$\left. \begin{array}{l} \varphi - \varphi_0 \sim \sin(\varphi - \varphi_0) \sim \mp \frac{\bar{b}}{r} \\ r^2 \frac{d\varphi}{dr} \sim \pm \bar{b} \end{array} \right\} \quad (r \rightarrow \infty \text{ limiteetan}). \quad (5.32)$$

Bestalde, (5.29) ekuazioaren ondorioz,

$$r^2 \frac{d\varphi}{dr} = r^2 \frac{\dot{\varphi}}{\dot{r}} = \frac{h}{\dot{r}} = \left[ \frac{1}{b^2} - \frac{1}{r^2} \left( 1 - \frac{r_s}{r} \right) \right]^{-1/2} \xrightarrow[r \rightarrow \infty]{} \pm b, \quad (5.33)$$

lortzen dugunez, (5.29) adierazpenean definitu dugun  $b$  higidura-konstantea, (5.31) limiteetako  $\bar{b}$  jotze-parametroa dela egiaztatzen dugu. Berdina da iraganeko eta etorkizuneko higidura asintotikoetan, biak existitzen direnean.

Keplerren problema ez-erlatibistaren kasuan energia potentzial eraginkorra erabiliz egin ohi den bezala [214], informazio kualitatibo interesgarria lor daiteke 5.3 iruditik, (5.29) emaitzaren ondorioz,  $V_e \leq 1/b^2$  dela erabiliz.

- Hasieran fotoia distantzia handitik hurbiltzen bada,  $\dot{r} < 0$ , eta jotze-parametroa  $b > b_0 \equiv 3\sqrt{3}r_s/2 = 3\sqrt{3}GM/c^2$  bada, distantzia minimoko abside batera iritsi ondoren, etengabe urrunduko da:  $G_1$  bezalako orbita irekia izango da.
- Hasieran fotoia distantzia handitik hurbiltzen bada,  $\dot{r} < 0$ , eta jotze-parametroa  $b < b_0$  bada,  $r_s$  balioraino helduko da, espiral moduko orbita batean,  $G_2$  kasuan bezala.
- $r_s < r < r_0$  puntu batetik abiatzen bada, infinitura joateko (hau da ihes egiteko,  $G_3$  orbitan bezala),  $b < b_0$  behar da eta etorkizuneko orbita asintotikoaren jotze-parametroa izango da  $b$  hori. Bestela, ( $G_4$  kasuan, adibidez) fotoiak azkenean  $r = r_s$  gainazala zeharkatuko du eta ez dago jotze-parametrorik.

5.3.2 atalean aztertuko dugu lehen kasua, erlatibilitate orokorraren egiaztapen experimental klasiko batean gertatzen baita.

### 5.3.1 Gorriranzko lerrakuntza grabitatorioa

Argi dago Schwarzschilden metrika estatikoa dela eta orain arte erabilitako koordenatuetaan (2.65) egitura duela. Beraz, honela idazten da (2.70) emaitza:

$$\frac{\nu_D}{\nu_I} = \sqrt{\frac{g_{00}(x_I)}{g_{00}(x_D)}} = \sqrt{\frac{1 - r_s/r_I}{1 - r_s/r_D}}. \quad (5.34)$$

Hortaz,  $r_D > r_I$  bada,  $\nu_D < \nu_I$  dugu.

Detektagailua (astronomoa) infinituan badago,  $r_D = \infty$ ,

$$\frac{\nu_\infty}{\nu_I} = \sqrt{1 - r_s/r_I} \quad (5.35)$$

dugu eta fotoiaren gorriranzko lerrakuntza hauxe da:

$$z \equiv \frac{\lambda_\infty - \lambda_I}{\lambda_I} = \frac{\nu_I}{\nu_\infty} - 1 = \left( 1 - \frac{r_s}{r_I} \right)^{-1/2} - 1 = \left( 1 - \frac{2GM}{r_I c^2} \right)^{-1/2} - 1. \quad (5.36)$$

Izar baten erradioa  $r_I \gg r_S$  denez (ikus 103. or.), handik igorritako argiaren lerrakuntza (izarra-ren eta Lurraren abiadura txikiak eta Lurraren eremu gravitatorioa arbuiatuz) hauxe izango da, (2.73) emaitzatik ere lortzen den bezala:

$$z \approx \frac{GM}{c^2 r_I}. \quad (5.37)$$

2.8 atalean aipatu genituen baliokidetasunaren printzipioaren ondorio zuzena den fenomeno honen egiaztapen esperimentalak.


### 5.3.2 Argiaren desbideratzea

Kontsidera dezagun Eguzkira (edo bestelako gorputz esferiko estatiko batera) distantzia infinitutik (izar urrun batetik),  $b$  jotze-parametroarekin hurbiltzen ari den argi-izpi bat. Notazioa laburtzeko,  $u = 1/r$  aldagaiaren ordez, dimentsio gabeko  $v \equiv bu = b/r$  erabiliz, (5.28) higidura-ekuazioa,

$$v'' + v = \epsilon v^2 \quad (5.38)$$

moduan idazten da, ondoko dimentsio gabeko parametroaren funtzioan:

$$\epsilon \equiv \frac{3GM}{bc^2}. \quad (5.39)$$



5.4 IRUDIA Argiaren desbideratzea<sup>7</sup>.

(5.38) ekuazioaren egitura, dimentsio bakarreko problema kontserbatzaile ez-erlatibista bate-na denez, lehen integral bat lortzen da  $v'$ -rekin biderkatu ondoren eta, gero, aldagaiak bananduz, koadraturetara laburtzen da. Funtzio eliptiko baten funtzioan geratzen den adierazpena ez da oso erabilgarria eta komenigarriagoa da beste estrategia bat. Izan ere, desbideratzea oso txikia izango denez, Lurretik neurtzeko, jotze-parametroa ezin izan daiteke Eguzkiaren  $R_\odot$  erradioa baino askoz handiagoa:  $b \gtrsim R_\odot$ , hau da,  $\epsilon \lesssim 6.37 \times 10^{-6}$ . Balio hau oso txikia da eta perturbazio-teoria erabil daiteke (5.38) ekuazio ez-linealaren soluzio hurbildua kalkulatzeko. Erakarpen gravitatorioa arbuiatzen bada (hau da,  $\epsilon = 0$  egiten bada), soluzioa zuzen bat izango da,  $v = \cos \varphi$  (hau da,  $b = r \cos \varphi$ ) ekuaziokoa,  $-\pi/2 < \varphi < \pi/2$  tartean, 5.4 irudiko koordenatuetan. Soluzio osoa ez da izango oso desberdina eta, horrexegatik,

$$v = \cos \varphi + \epsilon w + \mathcal{O}(\epsilon^2) \quad (5.40)$$

moduan idatziko da eta ondoko baldintza asintotikoa beteko du:

$$\lim_{\varphi \rightarrow -\pi/2} \frac{v}{\cos \varphi} = 1. \quad (5.41)$$

```

In[1]:= v[\phi_] := Cos[\phi] + ε w[\phi] + O[ε]^2;
          v''[\phi] + v[\phi] - ε v[\phi]^2 // Simplify

Out[2]= (-Cos[\phi]^2 + w[\phi] + w''[\phi]) ∈ +O[ε]^2

In[3]:= DSolve[Normal[%] == 0, w[\phi], φ] // Simplify

Out[3]= {w[\phi] → 1/2 + C[1] Cos[φ] - 1/6 Cos[2 φ] + C[2] Sin[φ]}

In[4]:= w[\phi_] := 1/2 + C[1] Cos[φ] - 1/6 Cos[2 φ] + C[2] Sin[φ]

In[5]:= Series[w[\phi], {φ, -π/2, 2}]

Out[5]= 2/3 - C[2] / φ + π/2 + C[1] + (-2/9 + C[2]/3) (φ + π/2) + O[φ + π/2]^3

In[6]:= w[\phi_] := w[\phi] /. {C[1] → 0, C[2] → 2/3} // TrigFactor // Evaluate
          w[\phi]

Out[7]= 4/3 Sin[π/4 + φ/2]^4

In[8]:= v[\phi] /. {φ → π/2 + Φ, Φ → ε η} // FullSimplify

Out[8]= (4/3 - η) ∈ +O[ε]^2

```

## 5.5 IRUDIA Argiaren desbideratzea *Mathematica*-ren bidez.

Orain (5.40) ordezkatzen bada (5.38) ekuazioan eta (5.41) baldintzan,  $w$  gaiak bete behar dituen baldintzak lortzen dira, 5.5 irudian ikusten den bezala:

$$w'' + w = \cos^2 \varphi, \quad (5.42)$$

$$\lim_{\varphi \rightarrow -\pi/2} \frac{w}{\cos \varphi} = 0. \quad (5.43)$$

(5.42) ekuazioa osziladore harmoniko bortxatu batena denez, erraza da soluzioa aurkitzea:

$$w = \frac{4}{3} \sin^4 \left( \frac{\varphi}{2} + \frac{\pi}{4} \right). \quad (5.44)$$

Hortaz, hauxe dugu argiaren ibilbidearen ekuazioa:

$$v = \cos \varphi + \epsilon \frac{4}{3} \sin^4 \left( \frac{\varphi}{2} + \frac{\pi}{4} \right) + \mathcal{O}(\epsilon^2). \quad (5.45)$$

5.4 irudian ikusten denez, desbideratze-angelua  $\Phi$  bada, etorkizuneko asintotan (Lurreko teleskopioan)  $\varphi \rightarrow \pi/2 + \Phi$  dugu  $v \rightarrow 0$  (hau da,  $r \rightarrow \infty$ ) limitean. Orain,  $\Phi = \epsilon \eta + \mathcal{O}(\epsilon^2)$

---

<sup>7</sup>Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/GK/schw/argia.html> orrialdeko simulazioa.


ordezkatzen bada (5.45) ekuazioaren eskuineko gaian,

$$v|_{\varphi=\frac{\pi}{2}+\Phi} = \epsilon \left( \frac{4}{3} - \eta \right) + \mathcal{O}(\epsilon^2) = 0 \quad (5.46)$$

lortzen da. Hortaz,  $\eta = 4/3$  dugu eta

$$\Phi = \frac{4}{3}\epsilon + \mathcal{O}(\epsilon^2) \approx \frac{4GM}{bc^2}. \quad (5.47)$$

Eguzkiaren kasuan  $\Phi \approx 1.75''R_\odot/b$  da. Eddingtonek zuzendutako behaketek egiaztatu zuten desbideratze hau, 1919ko ekipse oso batean,  $b \approx R_\odot$  balioekin, eta erlatibilitate orokorraren teoriaren aurresan baten lehen egiaztapen esperimentalala izan zen (eta Einsteinek mundu osoan izan zuen ospearen hasiera). Eddingtonek eta geroago beste batzuek egindako behaketa optikoak ez ziren oso zehatzak<sup>8</sup>, baina Hipparcos satelitearen bidez lortutako emaitzek, 1997an argitaratu ziren datuen arabera, % 0.1 doitasunaz egiazatzen dute erlatibilitate orokorraren iragarpena eta, VLBI<sup>9</sup> teknikaz, quasarretatik datozen irratii-hinen desbideratzearen egiaztapenaren doitasuna % 0.02 baliora iritsi da [200]. Grabitazioaren teoria alternatibo batzuk baztertzeko erabili dira egiaztapen esperimental horiek.



5.6 IRUDIA Leiar grabitatorioak.

Argiaren desbideratze honek sortzen du fenomeno astronomiko ikusgarrienetako bat: leiar grabitatorioak. Adibidez, galaxia multzo baten eremuak sortutako desbideratzearen ondorioz, zenbait norabide desberdinatik hel daitezke teleskopiora objektu astronomiko batetik datozen izpiak: irudi anizkoitzak (eta, batzuetan, arkuak) sortuko dira horrela. 5.6 irudian ikusten da adibide polit bat, **Einsteinen gurutzea** deitzen dena: QSO 2237+0305 quasarretik datorren argia **Huchra-ren leiarak** (ZW 2237+030 galaxiak) desbideratzean irudi laukoitza sortzen da. (Ikus [47] artikulua.)

## 5.4 Denbora motako geodesikoak

Partikularen  $m$  masa ez bada zero,  $\alpha = 1$  egin behar dugu (5.27) ekuazioan,

$$u'' + u = \frac{c^2 r_S}{2h^2} + \frac{3}{2} r_S u^2, \quad (5.48)$$

<sup>8</sup>Historialari batzuen ustez, Eddingtonek apaindu egin zituen ekipsean lortutako emaitzak [82]; baina ikus kontrako iritzia [38, 124] lanetan.

<sup>9</sup>Very Large Baseline Interferometry.

eta  $r_s$  erradioaren (5.14) balioa erabiliz, honela geratzen zaigu denbora motako geodesikoen ekuazioa:

$$u'' + u = \frac{GM}{h^2} + \frac{3GM}{c^2} u^2. \quad (5.49)$$

Teoria newtondarrean dagokion emaitza **Bineten formula** da (ikus 5.8 problema edo, adibidez, [214] liburua):

$$u'' + u = \frac{GMm^2}{L^2}. \quad (5.50)$$

Ondorioz, distantzia handira,  $u \rightarrow 0$  limitean, emaitza newtondarra berreskuratzen dugu eta, interpretazioa egiteko mekanika newtondarra erabiltzen bada,  $h = L/m$  higidura-konstantea, masa unitateko momentu angeluarra da. (Ez da harritzeko:  $\varphi$  angeluari dagokion momentu kanonikoa da  $h$  eta (5.15) lagrangeareean ez da  $m$  agertzen.)

#### 5.4.1 Denbora motako geodesiko zirkularrak

Geodesiko zirkularrak aztertzeko,  $u' = u'' = 0$  eta  $\alpha = 1$  egiten bada (5.26) eta (5.27) emaitzetan hauxe dugu:

$$h^2 = \frac{c^2 r_s r}{2(1 - 3r_s/2r)}, \quad k^2 = \frac{(1 - r_s/r)^2}{1 - 3r_s/2r}. \quad (5.51)$$

Beraz, *ez dago denbora motako geodesiko zirkularrik,  $r \leq 3r_s/2 = 3GM/c^2$  tartean.* Horrelako ibilbide batean higitzeko, partikulak indar ez-grabitatorioren bat (motor batek eragindakoa edo) pairatu behar du, ibilbidea ez baita geodesikoa. Teoria newtondarrean ez da hori gertatzen: erradio guztietako orbita zirkularrak onartzen ditu. Emaitza hau beste ikuspuntu batetik aztertzeko, idatz dezagun higidura erradialaren ekuazioa

$$\frac{d^2r}{dt^2} = -\frac{GM}{r^2} + \frac{h^2}{r^3} - \frac{3h^2GM}{c^2r^4} \quad (5.52)$$

moduan (ikus 5.9 problema). Teoria newtondarrean lortzen den egitura bereko adierazpena da hau ( $t$ -ren ordez denbora propioa jarrita [214]), baina orain eskuineko gaiko bigarren gai zentrifugoaz gain, gai zentripeto berri bat dugu, hirugarrena, eta azken hau zentrifugoa baino handiagoa (eta  $d^2r/dt^2 < 0$ ) izango da  $r < 3GM/c^2$  denean.

Bestaldetik, (5.21), (5.22) eta (5.51) emaitzetatik lortzen den

$$r \left( \frac{d\varphi}{dt} \right)^2 = r \frac{\dot{\varphi}^2}{t^2} = \frac{c^2 r_s}{2r^2} = \frac{GM}{r^2} \quad (5.53)$$

erlazioa mekanika newtondarrena da. Ezin da esan  $r$  koordenatuaren esanahia geometria euklidearren erradio batena dela, baina hemen ikusten dugu bira oso batean geodesikoan barrena egindako distantzia  $2\pi r$  dela.

Orbita zirkularren egonkortasuna aztertzeko,

$$u'' = -\frac{dV_e}{du} \quad (5.54)$$

eran idatziko dugu (5.48) ekuazioa,

$$V_e(u) \equiv \frac{1}{2}u^2 - \frac{c^2 r_s}{2h^2} u - \frac{1}{2}r_s u^3 \quad (5.55)$$

potentzial eraginkorraren funtzioan. Ikuspuntu matematikotik, dimentsio bakarreko  $V_e$  energia potentzialean higitzen ari den  $m = 1$  masako partikula ez-erlatibista baten hidura-ekuazioa da. Dimentsio bakarreko problema baliokide honetan  $u$  konstantea da oreka-puntuetan eta hauek egonkorra izango dira energia potentzialaren minimoetan gertatzen badira. Hortaz, bi dimensioko geodesiko zirkularrak egonkorra izango dira baldintza hau betetzen bada *orbitan*:

$$\frac{d^2V_e}{du^2} = 1 - 3r_s u > 0 \iff r > 3r_s = \frac{6GM}{c^2}. \quad (5.56)$$

Teoria newtondarrean gertatzen ez den beste propietate bat da hau: *orbita zirkularrak ezegonkorra izango dira  $3GM/c^2 < r < 6GM/c^2$  taranean*. Ondorio garrantzitsuak ditu honek astrofisikan: izar baten inguruan biratzen ari den materiak energia galtzen badu (turbulentzia magnetohidrodinamikoaren ondorioz edo)  $r = 3r_s$  erradioa zeharkatzean, izarreraino joango da ibilbide espiral batean. Akrezioko prozesu honetan erradiazio bortitzia sortzen da askotan.

Orbiten azterketa kualitatibo orokorra 5.10 probleman egingo da.

#### 5.4.2 Merkurioren perihelioaren aurreratzea

Merkurioren orbita (eta beste planeta guztienak) astiro-astro prezesatzen (biratzen) ari den elipse bat da. Le Verrierrek 1859an eta beste batzuek beranduago (Simon Newcombek 1882an, adibidez) kalkulatu zuten beste planeten eragina teoria newtondarrean. Kalkulu horien arabera, mende batean Merkurioren perihelioaren aurrerapena  $531.5''$  da [66]. Baino, behaketa astronomikoaren arabera, mende batean neurututako aurrerapenean  $43''$  gehiago aurkitzen dira. Hau azaltzeko, teoria newtondarren aldaketa batzuk<sup>10</sup> eta bestelako saioak<sup>11</sup> egin ziren [100], baina lehen azalpen naturala, teoria oso baten ondorioa, Einsteinena izan zen.

Adierazpenak laburtzeko,  $u = 1/r$  aldagaiaren ordez, dimentsio gabeko  $v \equiv p/r$  magnitudea erabiliko dugu, orbita newtondarren  $p = h^2/GM$  semi-latus rectum-a baliatuz (ikus, adibidez, [214]). Definizio hauekin, orbitaren ekuazioa hauxe da:

$$v'' + v = 1 + \epsilon v^2, \quad (5.57)$$

non dimentsioko  $\epsilon$  parametroa erabili dugun:

$$\epsilon \equiv \frac{3GM}{pc^2}. \quad (5.58)$$

Oso txikia dela joko dugu (Merkurioren kasuan  $\epsilon \approx 8 \times 10^{-8}$  da eta are txikiagoa beste planeten kasuan). Horrexegatik, 5.3.2 atalean ere egin genuen bezala, soluzio zehatzaren ordez, orbita hurbildua kalkulatuko dugu.

$\epsilon = 0$  denean Bineten (5.50) formula berreskuratzen da eta orbita bornatuei dagokien soluzioa elipsearen  $v = 1 + e \cos(\varphi - \delta)$  ekuazioa da,  $e$  eszentrikotasuna eta perihelioaren norabidea ematen duen  $\delta$  angelua erabiliz (ikus, adibidez, [214]). 5.3.2 ataleko ildotik,

$$v = 1 + e \cos(\varphi - \delta) + \epsilon w + \mathcal{O}(\epsilon^2) \quad (5.59)$$

<sup>10</sup> 1910eko Encyclopaedia Britannica-n  $r^{-2}$  ordez  $r^{-2.0000001612}$  jartzen zen Newtonen grabitazio unibertsalaren legean.

<sup>11</sup> Adibidez, Le Verrierrek, berak (eta Adamsek) egindako Neptunoren existentziaren aurrestan teorikoaren arrakasta ikusita, Eguzkitik Merkurioren baino hurbilago biratzen den beste planeta bat, Vulkanoren, zegoela proposatu zuen. Ez da inoiz horrelakorik aurkitu.

egiturako soluzioa saiatzen bada (5.57) ekuazioan, honako hau geratzen da (ikus 5.7 irudia):

$$w'' + w = 1 + 2e \cos(\varphi - \delta) + \frac{e^2}{2} [1 + \cos 2(\varphi - \delta)]. \quad (5.60)$$

Zoritzarrez, osziladore harmoniko bortxatu honen eskuinaldeko bigarren gaia erresonantea da, osziladore harmonikoaren  $\omega_0 = 1$  maiztasunekoa. Horrexegatik,

$$w = C_1 \cos \varphi + C_2 \sin \varphi + 1 + \frac{e^2}{2} + \frac{e}{2} \cos(\varphi - \delta) - \frac{e^2}{6} \cos 2(\varphi - \delta) + e\varphi \sin(\varphi - \delta) \quad (5.61)$$

soluzioan **mendetako** gai bat dago:  $e\varphi \sin(\varphi - \delta)$ . Hasieran txikia bada ere ( $\epsilon$ -ekin biderkatuta baitago) mugarik gabe handituko da,  $\varphi$ -rekin batera, eta kalkuluaren funtsezko ideia (orbita erlatibista ez dela newtondarraren oso desberdina) zaputzuko du.

```
In[1]:= v[\phi_] := 1 + e Cos[\phi - δ] + ε w[\phi] + O[ε]^2;
v'''[\phi] + v[\phi] - (1 + ε v[\phi]^2) // Normal // TrigReduce // Expand
DSolve[% == 0, w[\phi], φ] // TrigReduce // Expand

Out[2]= -ε -  $\frac{e^2 \epsilon}{2}$  -  $\frac{1}{2} e^2 \epsilon \cos[2 \delta - 2 \phi]$  -  $2 e \epsilon \cos[\delta - \phi]$  + ε w[\phi] + ε w''[\phi]

Out[3]= {w[\phi] → 1 +  $\frac{e^2}{2}$  -  $\frac{1}{6} e^2 \cos[2 \delta - 2 \phi]$  +
 $\frac{1}{2} e \cos[\delta - \phi]$  + C[1] Cos[\phi] - e φ Sin[\δ - φ] + C[2] Sin[\phi]}

In[4]:= ω = 1 + ε χ + O[ε]^2;
v[\phi_] := 1 + e Cos[ω (φ - δ)] + ε w[\phi] + O[ε]^2;
v'''[\phi] + v[\phi] - (1 + ε v[\phi]^2) // Normal // TrigReduce // Expand

Out[6]= -ε -  $\frac{e^2 \epsilon}{2}$  -  $\frac{1}{2} e^2 \epsilon \cos[2 \delta - 2 \phi]$  -  $2 e \epsilon \cos[\delta - \phi]$  -  $2 e \epsilon \chi \cos[\delta - \phi]$  + ε w[\phi] + ε w''[\phi]

In[7]:= % /. χ → -1 // TrigReduce // Expand
DSolve[% == 0, w[\phi], φ] // Simplify

Out[7]= -ε -  $\frac{e^2 \epsilon}{2}$  -  $\frac{1}{2} e^2 \epsilon \cos[2 \delta - 2 \phi]$  + ε w[\phi] + ε w''[\phi]

Out[8]= {w[\phi] → 1 +  $\frac{e^2}{2}$  -  $\frac{1}{6} e^2 \cos[2 (\delta - \phi)]$  + C[1] Cos[\phi] + C[2] Sin[\phi]}

In[9]:= ω = 1 - ε;
v[\phi_] := 1 + e Cos[ω (φ - δ)] + ε  $\left(1 + \frac{e^2}{2} - \frac{1}{6} e^2 \cos[2 \omega (\phi - \delta)]\right)$  + O[ε]^2
v'''[\phi] + v[\phi] - (1 + ε v[\phi]^2) // Simplify

Out[11]= O[ε]^2
```

## 5.7 IRUDIA Perihelioaren aurreratzea *Mathematica*-ren bidez.

Arazo honen irtenbidea, Poincaré eta Lindstedten metodoa da, kasu partikular honetan erraz ulertzen dena. Beste planeten eragina arbuiatuta ere, Merkurioren orbita ez da elipse itxi bat, ondoz ondoko bi perihelioren arteko distantzia angeluarra ez delako  $2\pi$ , apur bat handiagoa baizik:

$r$  (eta  $v$ ) koordenatuaren periodoa ez da  $\varphi$  angeluaren  $T_\varphi = 2\pi$  balioaren berdina<sup>12</sup>, baina bai oso antzekoa:

$$\omega_r = \frac{2\pi}{T_r} = 1 + \epsilon\chi + \mathcal{O}(\epsilon^2). \quad (5.62)$$

Ideia honekin,

$$v = 1 + e \cos \omega_r(\varphi - \delta) + \epsilon w + \mathcal{O}(\epsilon^2) \quad (5.63)$$

saiatzen da (5.57) ekuazioan, hauxe lortzeko:

$$w'' + w = 1 + 2e(1 + \chi) \cos(\varphi - \delta) + \frac{e^2}{2} [1 + \cos 2(\varphi - \delta)]. \quad (5.64)$$

Eskuinaldeko bigarren gaia erresonantea da, baina orain nahikoa da  $\chi = -1$ , hau da,

$$\omega_r = 1 - \epsilon + \mathcal{O}(\epsilon^2), \quad (5.65)$$

aukeratzea mendetako terminoak ezabatzeko:

$$w'' + w = 1 + \frac{e^2}{2} [1 + \cos 2(\varphi - \delta)]. \quad (5.66)$$


Ekuazio homogeneoaren soluzio orokorra, zero ordenakoarekin batera idatz daiteke,  $e$  eta  $\delta$  integracio-konstanteak birdefinituz, eta soluzio partikularra

$$w = 1 + \frac{e^2}{2} - \frac{e^2}{6} \cos 2(\varphi - \delta) \quad (5.67)$$

da. Orbitaren ekuazioa, hortaz, honela idazten da:

$$v = 1 + e \cos \omega_r(\varphi - \delta) + \epsilon \left[ 1 + \frac{e^2}{2} - \frac{e^2}{6} \cos 2\omega_r(\varphi - \delta) \right] + \mathcal{O}(\epsilon^2). \quad (5.68)$$

Ohar zaitez azken gaian ere  $\omega_r$  sartu dela, hurbilketa aldatu gabe,  $r(\varphi)$  funtziaren periodikotasuna azpimarratzeko.



## 5.8 IRUDIA Perihelioaren aurreratzea<sup>13</sup>.

<sup>12</sup>  $\varphi$  angeluarekiko periodoak eta maiztasunak konsideratzen ditugu atal honetan, ez denborari dagozkionak.

<sup>13</sup> Hobeto ikusteko asko handitu da eszentrikotasuna eta askoz gehiago prezessioa. Puntu lodiz adierazten dira ondoz ondoko bi perihelio. Orbita newtondar eliptikoa lerro etenaz marraztu da. Ikus <http://tp.lc.ehu.es/jma/GK/schw/prezesioa.html> orrialdeko simulazioa.

$v(\varphi)$  soluzioaren periodoa  $T_r = 2\pi/\omega_r = 2\pi(1 + \epsilon) + \mathcal{O}(\epsilon^2)$  da eta horixe izango da ondoz ondoko bi maximoren arteko distantzia angeluarra. Hortaz, perihelioaren aurrerapena (birabatean) 1.11 probleman kalkulatutakoa baino sei aldiz handiagoa da, hurbilketa honetan:

$$\Delta\varphi = T_r - 2\pi = 2\pi\epsilon + \mathcal{O}(\epsilon^2) \approx \frac{6\pi GM}{pc^2}. \quad (5.69)$$

Merkuriok mende batean egiten dituen 415 orbitatan kalkulatutako aurrerapena  $43.03''$  da. Emaitza hau oso bateragarria da behaketa astronomikoetan neurtutako  $43.11 \pm 0.45''$  balioarekin eta Einsteinen teoriaren lehen arrakasta izan zen (1915ean).

## 5.5 Schwarzschilden erradioa

Schwarzschilden (5.12) metrika singularra (infinitua) da  $r = 0$  eta  $r = r_s$  balioetan. Lehenengoa ez da harritzekoa, masa osoa hor balego, marea-indar infinituak gertatuko bailirateke puntu horretan eta ez dugu espero han gure eredu matematikoa baliozkoa izatea; baina bigarrena oso bestelakoa da:  $r < r_s$  balioetan  $dt$  tarteak espazio motakoa da eta  $dr$  denbora motakoa!

Ikuspuntu astronomotik ez dago arazorik, izar baten erradioa  $R$  bada,  $r_s \ll R$  baita: Eguzkiaren kasuan, adibidez,  $r_s \approx 3$  km  $\ll R_\odot \approx 7 \times 10^5$  km. Baina, Schwarzschilden metrika hutsean betetzen denez, bakarrik erabiliko da  $r > R \gg r_s$  puntueta: 5.8 atalean ikusiko dugun bezala,  $r < R$  puntueta Einsteinen ekuazio osoen soluzioen bat erabili beharko da, hor energia-momentuaren tentsorea ez baita zero. Hala ere, (5.12) metrikaren esanahia argitzea ez da alferrikakoa izango.

Michellek 1783an eta Laplacek 1796an aurkitu zuten  $r_s$  balioa, teoria newtondarrean,  $R$  erradioko izar baten azaleko  $\sqrt{2GM/R}$  ihes-abiadura,  $R = r_s$  denean argiaren abiaduraren berdina dela konturatu zirenean. Izan ere, (5.34) emaitzaren ondorioz, distantzia horretatik igorritako fotoen maiztasuna zero da distantzia handiago guzietan: hau da, ez da heltzen  $r > r_s$  puntueta eta Laplaceren *objects obscurs* egon litezke. Bitxia ez da?

### 5.5.1 Argi motako geodesiko erradialak

Fotoien higidura erradiala aztertzeko, egin dezagun  $d\theta = d\varphi = 0$  (5.12) metrikan, geodesiko nulu erradialen ekuazioa ondokoa dela ondorioztatzeko:


$$ds^2 = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 dt^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} dr^2 = 0. \quad (5.70)$$

Hemendik lortzen den higidura-ekuazioa zuzenean integratzen da,  $t_0$  hautazko konstantearren funtzioan:

$$\frac{dr}{1 - r_s/r} = \pm c dt, \quad (5.71)$$

$$r + r_s \ln \left| \frac{r}{r_s} - 1 \right| = \pm c(t - t_0). \quad (5.72)$$

5.9 irudian marraztu dira horrelako geodesiko nulu batzuk eta osatzen dituzten etorkizuneko argi-konoak. Irudian —eta (5.72) ekuazioan  $r = r_s$  eginez lortzen den emaitza infinituan— argi ikusten da oso desberdinak direla  $r < r_s$  eta  $r > r_s$  eskualdeak.



### 5.9 IRUDIA Geodesiko nulu erradialak eta argi-konoak, $d\theta = d\varphi = 0$ planoetan.

- $r > r_s$  eskualdean, fotoiak kanporantz badoaz, ez dira inoiz egon  $r = r_s$  puntueta eta, barrurantz badoaz, ez dira inoiz iristen haraino. Distantzia handira, eremua ahula denean, erlatititate bereziko  $\pm 1$  maldako argi-konoak berreskuratzen dira, eremu grabitatorioa desagertu ahala. Denbora motako geodesikoen maldaren balio absolutua 1 baino handiagoa da.
- $r < r_s$  eskualdean, fotoiak  $r = 0$  singularitateraino joaten dira. Argi-konoen orientazioak  $dt$  eta  $dr$  tarteen mota berriak adierazten ditu (hobeto ulertuko dugu eskualde honetan geratzen dena 5.6 eta 5.7 ataletako koordenatueta).

Badirudi bi eskualde horiek guztiz independenteak direla, ez dagoela batetik bestera argirik (edo, arinago ez doan, bestelako informaziorik) bidaltzerik. Baino  $r = r_s$  puntueta dagoen singularitateak zalantzan jartzen ditu koordenatu hauetan lortu ditugun emaitzak. Adibidez, hemen «inoiz» esateko erabili dugun  $t$  denbora, infinituan geldi dagoen behatzalearen da eta, ikusiko dugun bezala, kanpoan dagoen partikula batek denbora *propio* finituan zeharka dezake  $r = r_s$  gainazala eta gauza bera egin dezake barrurantz doan (denbora propiorik gabeko) fotoi batek, infinituko behatzaleak zeharkatze hori inoiz ikusten ez badu ere. Bien arteko  $r = r_s$  mugak **ger-taera-horizonte** bat da, kanpotik ez baitakigu ezer barruan gertatzen denari buruz: **zulo beltz**<sup>14</sup> bat dugu.


#### 5.5.2 Denbora motako geodesiko erradialak

Eman dezagun masadun partikula bat norabide erradialean erortzen ari dela. Higidura erradialaren ekuazioa, (5.52) kasu orokorrean  $h = r^2\dot{\varphi} = 0$  eginez lortzen da:

$$\frac{d^2r}{d\tau^2} = -\frac{GM}{r^2}. \quad (5.73)$$

<sup>14</sup>John Archibald Wheeler hasi zen erabiltzen izen hau, eman zuen hitzaldi baten entzule baten iradokizunari jarraituz.

Baina teoria newtondarrean lortzen dena da hau,  $t$ -ren ordez denbora propioa jarrita. Beraz, teoria honetan denbora arruntarekin gertatzen den bezala, norabide erradialean erortzen ari den partikulak denbora-tarte propio finitu batean zeharkatzen du  $r = r_s$  erradioa eta tarte propio finituan heltzen da  $r = 0$  singularitateraino (ikus 5.11 problema). Baino zer gertatzen da  $t$  denboran, hau da, infinituan geldi dagoen behatzairearen denbora propioan?



5.10 IRUDIA  $r(\tau)$  eta  $r(t)$  eboluzioak  $r_0$ -ren hiru balioetarako.

Partikula  $r = r_0$  distantziatik askatzen bada,  $dr/d\tau|_{r=r_0} = 0$ , (5.73) ekuazioa  $dr/d\tau$ -rekin biderkatu ondoren integratuz, ohiko energia mekanikoaren kontserbazioaren ordezkoa lortzen da:

$$\frac{1}{2} \left( \frac{dr}{d\tau} \right)^2 - \frac{GM}{r} = -\frac{GM}{r_0}. \quad (5.74)$$

Emaitza hau ordezkatzen bada (5.20) ekuazioan,  $d\varphi/d\tau = 0$  eta  $\alpha = 1$  egin ondoren,

$$\left( \frac{dt}{d\tau} \right)^2 = \left( 1 - \frac{r_s}{r} \right)^{-1} + r_s \left( \frac{1}{r} - \frac{1}{r_0} \right) \left( 1 - \frac{r_s}{r} \right)^{-2} \quad (5.75)$$

geratzen zaigu eta, ondorioz,  $dt/d\tau \rightarrow \infty$  dugu  $r \rightarrow r_s$  limitean (gauza bera ikusten da zuzeanean (5.21) ekuazioan).  $r = r_s$  erradiora denbora-tarte propio finituan heldu arren, (infinituan geldi dagoen behatzairearen)  $t$  denbora-koordenatuaren ikuspuntutik ez da inoiz iristen! Izan ere, (5.74)–(5.75) ekuazioak integratuz, 5.10 irudiko  $r(t)$  eta  $r(\tau)$  eboluzioak lortzen dira. (Ikus, gainera, 5.11 eta 5.12 problemak eta [28] liburuko 12. gaia.)

### 5.5.3 Marea-indarrak<sup>15</sup>

Azter dezagun norabide erradialean erortzen ari den behatzaire batek pairatutako marea-indarra. Behatzalea geldi dagoeneko erreferentzia-sistema inertzial lokalean (3.83) adierazpenak ematen du geodesikoen desbideratzea, baina 3.18 probleman Schwarzschilden  $x^\mu = (ct, r, \theta, \varphi)$  koordenatuak erabili genituen kurbadura-tentsorea kalkulatzeko. Sistema inertzial lokalean aukeratutako koordenatuak  $x^{\mu'} = X^\mu = (cT, R, \theta, \varphi)$  badira, *gertaera batean eta bakarrik gertaera*

<sup>15</sup>Atal honetako kalkuluak errazagoak dira oinarri ortonormal batean (ikus, adibidez, [4] liburuko 139. orrialdea edo [10] testuko 125. eta 152. orrialdeak).

*horretan* hauxe dugu:

$$\begin{aligned} ds^2 &= -\left(1 - \frac{r_s}{r}\right)c^2 dt^2 + \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2) \\ &= -c^2 dT^2 + dR^2 + R^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2), \end{aligned} \quad (5.76)$$

$$r = R, \quad (5.77)$$

$$\frac{\partial x^{0'}}{\partial x^0} = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{1/2}, \quad (5.78)$$


$$\frac{\partial x^{1'}}{\partial x^1} = \left(1 - \frac{r_s}{r}\right)^{-1/2}, \quad (5.79)$$

$$\frac{\partial x^{2'}}{\partial x^2} = \frac{\partial x^{3'}}{\partial x^3} = 1 \quad (5.80)$$

eta beste deribatu guztiak nuluak dira (gertaera horretan). Ondorioz, 3.18 problemaren emaitzak erabiliz, hauexek dira gertaera horretan behar ditugun kurbadura-tentsorearen osagai ez-nuluak:

$$R^{1'}_{0'0'1'} = \frac{\partial x^{1'}}{\partial x^1} \left(\frac{\partial x^0}{\partial x^{0'}}\right)^2 \frac{\partial x^1}{\partial x^{1'}} R^1_{001} = \left(\frac{\partial x^0}{\partial x^{0'}}\right)^2 R^1_{001} = \frac{r_s}{r^3}, \quad (5.81)$$

$$R^{2'}_{0'0'2'} = \frac{\partial x^{2'}}{\partial x^2} \left(\frac{\partial x^0}{\partial x^{0'}}\right)^2 \frac{\partial x^2}{\partial x^{2'}} R^2_{002} = \left(\frac{\partial x^0}{\partial x^{0'}}\right)^2 R^2_{002} = -\frac{r_s}{2r^3} = R^{3'}_{0'0'3'}. \quad (5.82)$$



### 5.11 IRUDIA Marea-indarren ondorio kualitatiboak.

Atal honetako notazioan, (3.83) adierazpenaren osagai espazialak,

$$\frac{d^2 \zeta^{i'}}{d\tau^2} = c^2 R^{i'}_{0'0'j'} \zeta^{j'}, \quad (5.83)$$

honela geratzen zaizkigu:

$$\frac{d^2 \zeta^{1'}}{d\tau^2} = \frac{c^2 r_s}{r^3} \zeta^{1'}, \quad (5.84)$$

$$\frac{d^2 \zeta^{i'}}{d\tau^2} = -\frac{c^2 r_s}{2r^3} \zeta^{i'}, \quad (i' = 2, 3). \quad (5.85)$$

Beraz, grabitazio newtondarrean bezala (gogoratu 3.22 problema, hemen  $\tau \rightarrow t$  aldaketa egin ondoren), tentsioa pairatzen du norabide erradialean eta konpresioa norabide perpendikularretan. Marea-indarra bakarrik da infinitua  $r = 0$  singularitatean:  $r = r_s$  distantzia (denbora propio finituan) zeharkatzean handia edo txikia da, baina finitura.

## 5.6 Eddington eta Finkelsteinen koordenatuak

Metrika baten singularitateak bi motatakoak izan daitezke. Adibidez,

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + \frac{dx^2}{x^2} + y^2 dy^2 + dz^2 \quad (5.86)$$

metrika singularra da  $x = 0$  puntueta (eta endekatua, ez-alderanzgarria,  $y = 0$  denean); baina,  $(t, x, y, z) \rightarrow (\tilde{t} \equiv t, \tilde{x} \equiv \ln x, \tilde{y} \equiv y^2/2, \tilde{z} \equiv z)$  transformazioa aplikatzuz, Minkowski-ren metrika berreskuratzen da:  $ds^2 = -c^2 d\tilde{t}^2 + d\tilde{x}^2 + d\tilde{y}^2 + d\tilde{z}^2$ . Koordenatuengauera izan da singularitatearen jatorria eta koordenatuengauen transformazio egoki baten bidez desagertzen da: **koordenatu-singularitatea** da eta horrelakoak ziren 3.9 ataleko gainazal esferikoaren adibidean ikusitakoak.

Bestalde, badaude **funtsezko singularitateak**, ezein koordenatu-aldaketak deuseztatzen ez dituenak. Horrelakoren bat dagoela egiazatzeko modurik egokiena, singularra bihurtzen den eskalar bat aurkitzea da, eskalarak ez baitira koordenatuengauen menpekoak. Erlatibilitate orokorrean batzuetan erabiltzen da ondoko moduan definitutako **Kretschmannen eskalarra**:

$$K \equiv R_{\mu\nu\rho\sigma} R^{\mu\nu\rho\sigma}. \quad (5.87)$$

Schwarzschilden metrikaren kasuan  $K = 12r_s^2/r^6$  lortzen denez (ikus 5.17 problema), argi dago funtsezko singularitatea dela  $r = 0$ , espero bezala; baina eskalar horrek ez du inolako problemari  $r = r_s$  puntueta. Ondorioz, pentsa genezake  $r = r_s$  ez dela benetako singularitatea (eta badirudi Lemaître izan zela hau lehenengo, 1933an, frogatu zuena: ikus [28] liburuko 248. or.), orain arte erabili ditugun koordenatuengauen interpretazio fisikoa (distantzia handira, eremua ahula den gertaeretan) zuzena izan arren. Izan ere, transformazio egokien bitartez koordenatu aproposagoak aurki daitezke, koordenatu-singularitate hori ezabatzeko.

Adibidez, idatz dezagun honela barruranzko geodesiko nulu erradialen (5.72) ekuazioa:


$$ct + r_s \ln \left| \frac{r}{r_s} - 1 \right| = -r + K, \quad (K \equiv ct_0). \quad (5.88)$$

Ezkerreko gaia  $t'$  koordenatu berri bat definitzeko erabiltzen badugu,

$$ct' \equiv ct + r_s \ln \left| \frac{r}{r_s} - 1 \right|, \quad (5.89)$$

barrurantz, norabide erradialean, doazen fotoien unibertso-lerroak  $-1$  maldako  $ct' = K - r$  zuzenak izango dira. Koordenatu honetaz baliatuz, honela geratzen da Schwarzschilden metrika (ikus 5.22 problema):

$$ds^2 = - \left(1 - \frac{r_s}{r}\right) c^2 dt'^2 + 2 \frac{r_s}{r} c dt' dr + \left(1 + \frac{r_s}{r}\right) dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.90)$$



**5.12 IRUDIA** Argi-konoak eta partikulen unibertso-lerroak, Eddington eta Finkelsteinen koordenatuetaan,  $d\theta = d\varphi = 0$  planoetan.

Ageri denez, metrika (eta konoen egitura) erregularra da  $r > 0$  gertaera guzietan, koordenatu-sistema honetan: **luzapen analitiko** bat egin dugu, soluzio erregularra  $r$  koordenatuaren ( $r_S, \infty$ ) tartetik ( $0, \infty$ ) delakora —hau da, 5.9 eta 5.12 irudietako I eremutik  $I \cup II$  osora— luzatu baita.

Argi konoen egitura aztertzeko, kontsidera ditzagun (5.72) ekuazioko geodesiko nulu erradialen bigarren multzoa:

$$r + r_S \ln \left| \frac{r}{r_S} - 1 \right| = ct - K, \quad (K \equiv ct_0), \quad (5.91)$$


$$ct' = r + 2r_S \ln \left| \frac{r}{r_S} - 1 \right| + K. \quad (5.92)$$

Unibertso-lerro hauen malda  $(r + r_S)/(r - r_S)$  da: positiboa (1 baino handiagoa)  $r > r_S$  bada, infinitua  $r = r_S$  gertaeretan eta negatiboa  $r < r_S$  denean, 5.12 irudian erakusten den bezala. Schwarzschilden  $t$  koordenatuan ez bezala,  $t'$  denbora finituan zeharka dezake  $r = r_S$  gertaera-horizontea **barrurantz** doan fotoi batek edo argi-konoen barrutik doan masadun partikula batek (eta  $t'$  denbora finituan helduko dira  $r = 0$  singularitateraino). Bestalde, irudiko konoen egiturak erakusten du ezin zeharka daitekeela barrutik kanporantz: gertaera-horizonteak **zulo beltz** bat mugatzentzu du.

### 5.6.1 Kolapso gravitatorio esferikoa

Esan denez, objektu astronomiko arruntetan, Schwarzschilden erradioa objektuarena baino askoz txikiagoa da eta kanpo-metrika 5.12 irudiko I eremuko zati batean bakarrik aplikatuko da. Orduan, zertarako ikusi dugu nola luzatu metrika II eremura? Hara.

Izarren eboluzioaren teoriaren arabera, izarrak erregaa (batez ere, hidrogenoa) amaitzen dueñean, uzkurtzen hasten da, bere eremu gravitatorioaren ondorioz. Eguzkiaren masaren parekoia bida izarrarena, nano zuri bat sor daiteke horrela, Pauliren printzipioaren ondorioa den elektroi-endekapenaren presioak bermatzen badu oreka berria, 1926an Fowlerrek erakutsi zuen moduan.



5.13 IRUDIA Kolapso grabitatorio esferikoaren eskema, dimentsio bat eta bi gutxiagorekin.

Baina 1930 Chandrasekharrek frogatu zuen izarraren masa  $1.4M_{\odot}$  baino handiagoa denean, aipaturiko presioa ez dela nahikoa eta izarra areago uzkurtuko dela, neutroien endekapenak sortutako oreka lortu arte, hau da, neutroi-izar bat sortu arte. Azken honen dentsitatea oso handia denez, efektu erlatibistak garrantzi handikoak dira eta fisika ez da guztiz ezaguna, baina, hala ere,uste da  $1.5-3 M_{\odot}$  balioko Oppenheimer eta Volkoffen limitea baino handiagoa bada objektuaren masa, uzkurtu egingo dela eta, bere azalak denbora propio finituan gertaera-horizontea zeharkatzean, zulo beltza sortuko dela. Gainera, kasu horretan  $r = 0$  punturainoko kolapso osoa gertatuko litzateke, ulertzen ez dugun grabitazio kuantikoak saihesten ez badu, behintzat.

5.13 irudian azaltzen da kualitatiboki hautsaren esfera baten kolapsoa (adibidez, [16] liburuko 7.6 atalean aurki daiteke azterketa kuantitatiboa). Distantzia handira ( $r = \infty$ ) dagoen behatzai-leak bakarrik jasoko ditu gertaera-horizontea sortu baino lehenago azaletik igorritako informazioa. Lurretik (infinitutik) ikusita, kolapsoak  $t$  denbora infinitua behar du, baina objektutik datozten fotoien lerrakuntza oso handia da, sortu zirenean azala horizontetik hurbil bazegoen: gero eta gutxiago eta energia txikiagoarekin helduko dira eta (oso arin: ikus, adibidez, [8] liburuko 266. or.) objektua ikusezina izango da praktikan, inguruko materiaren eta erradiazioaren gainean duen eraginaren bidez ez bida. Adibidez, inguruko izarren higidura eta akrezioko sortutako erradiazioa erabiltzen dituzte astronomoek galaxiaren zentroan zulo beltz erraldoi bat dagoela esateko (ikus, adibidez, [99, 176]).

Jakina, hasieran izarra ez da guztiz esferikoa izango, baina esferikotasunik eza txikia bida, soluzioa gero eta esferikoagoa izango da eta goiko azalpena ez da kualitatiboki aldatzen. (Ikus 122. orrialdeko bibliografia.)

## 5.7 Kruskal eta Szekeresen koordenatuak

Hurrengo transformazioaren bidez, Schwarzschilden metrikaren luzapen analitiko maximoa lortuko dugu (geodesiko guztiak luza baitaitezke parametro afinaren balio infinituetaraino edo funtsezko singularitate(eta)raino):

$$ct = r_S \ln \left| \frac{u+v}{u-v} \right|, \quad (5.93)$$


$$\left(\frac{r}{r_s} - 1\right) e^{r/r_s} = u^2 - v^2. \quad (5.94)$$

$(u, v, \theta, \varphi)$  koordenatuetan horrela geratzen da Schwarzschilden metrika:

$$ds^2 = \frac{4r_s^3}{r} e^{-r/r_s} (du^2 - dv^2) + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2), \quad (5.95)$$

non  $r(u, v)$  erabili behar den. (Iku 5.24 problema.)

Metrika honek ez du inolako problemarik  $r = r_s$  horizontean (hau da,  $u^2 = v^2$  denean) eta singularitate bakarra  $r = 0$  da,  $u^2 - v^2 = -1$  denean. Honek frogatzen du, berriro,  $r = r_s$  gertaeretan bakarrik dagoela koordenatu-singularitate bat.



5.14 IRUDIA Kruskal eta Szekeresen koordenatuak,  $d\theta = d\varphi = 0$  plano batean.

Koordenatu hauetan idatzitako soluzioa aztertzeko, har dezagun berriro  $d\theta = d\varphi = 0$  plano bat. Han,  $ds^2 = 0$  baldintzak betetzen dituzten geodesiko nuluak,  $du^2 = dv^2$  baldintzak eman-dakoak,  $dv/du = \pm 1$  maldako zuzenak dira, erlatibitate bereziko Minkowskiren diagrametan bezala. Beraz,  $(u, v)$  diagrama batean argi-konoen egitura Minkowskiren espazioarena izango da eta, ondorioz, ezagunagoa partikulen ibilbideak aztertzea (gogoratu 1.7 irudia). Egitura hori kontuan hartuta, erabil dezagun 5.14 diagrama Schwarzschilden soluzioaren propietate batzuk ondorioztatzeko.

- (5.94) ekuazioan ikusten dugunez,  $r$  konstanteko leku geometrikoak hiperbola-adarrak dira.  $r > r_s$  balioei dagokien I eskualdean. Hiperbola hauen maldak beti dira 1 baino handiagoak edo  $-1$  baino txikiagoak, Schwarzschilden koordenatuetan geldi dauden partikulen

unibertso-lerroak baitira. II eskualdean maldak  $(-1, 1)$  tartean daude, baina hor  $r < r_s$  da eta  $t$  eta  $r$  koordenatuen motak alderantzizkoak dira.

- $r = 0$  singularitatea  $u^2 - v^2 = -1$  hiperbolaren bi adarretan dago eta ez dago espacio-denborarik goiko adarraren gainean edo beheko adarraren azpian, bi adarrak baitira koordenatu-sistemaren mugak.
- (5.93) ekuaziotik lortzen da  $t$  konstanteko leku geometrikoak zentrotik pasatzen diren zuzenak direla. Zuzen hauen maldak beti daude  $(-1, 1)$  tartean (ikus 5.25 problema).
- $(t, r) = (-\infty, r_s)$  gertaerak  $v = -u$  erdikarian daude eta  $(t, r) = (\infty, r_s)$  direlakoak  $v = u$  zuzenean.
- Partikula baten unibertso-lerroak  $v = u$  horizontea zeharkatzen badu ( $t$  denbora infinituan, baina denbora propio finituan)  $r = 0$  singularitateraino joango da, nahitaez (5.6 atalean ere ikusi dugun bezala).
- $r < r_s$  gertaerak II eskualdean daude eta haietatik igorritako partikulek edo fotoiek ez dute horizontea zeharkatzen ( $r = 0$  singularitatera doaz): ezer ez da irteten zulo beltzetik I eskualdera.

5.12 irudian ere agertzen dira I eta II eskualdeak (Eddington eta Finkelsteinen koordenatueta). Izan ere, I eta II eskualdeetan Schwarzschilden  $(t, r)$  koordenatuen balio guztiak daude, baina Einsteinen ekuazioen soluzioa den (5.95) metrika  $(u, v)$  balio gehiagotara luzatu da, (5.93)–(5.94) transformazioen bidez. Izan ere,  $(t, r)$  bikote bakoitzeko aipatutako transformazio-ekuazioek bi soluzio dituzte, zeren  $(u, v)$  soluzioa bada  $(-u, -v)$  ere soluzioa baita. Nolabait esateko, Schwarzschilden soluzioaren bi kopia daude (5.95) metrikan. Zein izan daiteke III eta IV eskualdeetako bigarren kopiaren esanahia?

Hasteko, ezin da joan (edo partikulak edo fotoiak bidali) bigarren kopia horretara I (edo II) eskualdetik. Bestalde, goiko singularitatean amaitzen dira, zulo beltzaren horizontea zeharkatu ondoren, II eskualdean sartzen diren partikulak eta fotoiak. Alabaina, IV eskualdeko singularitatetik igorritako partikulek eta fotoiek horizontea zeharka dezakete, I eskualdera joateko. **Zulo zuria** dela esaten da.

Kolapsoak sortutako zulo beltz astronomikoetan bakarrik daude I eta II eskualdeak, baina erlatibilitate orokorraren arabera, gerta liteke unibertsoren batean, betidanik existitzea 5.14 irudiko soluzioa osoa. Gainera, bi unibertsoak **Einstein eta Rosenen zubiaren** bidez loturik daudela uler daiteke (ikus, adibidez, [10] testuko 11.10 atala).

## 5.8 Barne-soluzio esferiko estatikoak

Aurreko ataletan ikusi dugu nola deskribatzen den gorputz esferiko batek kanpoan sortzen duen geometria (hau da, eremu gravitatorioa). Hemen aztertuko dugu nola planteatu geometriaren deskribapena gorputzaren barruan, simetria esferikoaz gain soluzioa estatikoa dela joz. Kasurik errazenean, Schwarzschilden barne-soluzioa esplizituki idatziko dugu eta bere propietateak aztertuko.

Neutroi-izar batean, adibidez, dentsitatea eta presioa oso handiak direnez, barne-egituraren deskribapen errealistek erlatibilitateaz baliatu beharko dute. Hemen, azterketa errazteko, hipotesi hauek egingo ditugu:

1. Energia eta momentuaren banaketak eta, ondorioz, metrikak simetria esferikoa dute eta estatikoak dira. Hipotesi honekin, metrikaren egitura, koordenatu egokietan, (5.5) adierazpenean denborarekiko menpekotasuna ezabatuz lortzen da:

$$ds^2 = -A(r) dt^2 + B(r) dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.96)$$

2. Objektuaren barne-egituraren energia-momentuaren tentsorea fluido perfektu batenaren balioidea da:

$$T^{\mu\nu} = \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^\mu u^\nu + p g^{\mu\nu}. \quad (5.97)$$

3. Adierazpen honetan, lehenengo hipotesiaren ondorioz,  $\rho(r)$  dentsitatea eta  $p(r)$  presioa  $r$  koordenatuaren menpeko hutsak dira.

### Einsteinen ekuazioak

Einsteinen ekuazioak (4.24) eran idazteko, (5.97) tentsorearen aztarna

$$T = T_\mu^\mu = 3p - \rho c^2 \quad (5.98)$$

dela erabili behar dugu:

$$R_{\mu\nu} = \kappa \left( T_{\mu\nu} - \frac{1}{2} T g_{\mu\nu} \right) = \kappa \left[ \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u_\mu u_\nu + \frac{1}{2} (\rho c^2 - p) g_{\mu\nu} \right]. \quad (5.99)$$

### Fluidoaren abiadura

Hasteko, 5.15 irudian ikusten den bezala,  $R_{0i} = 0$  dugu. Hortaz, (5.96) eta (5.99) egituren ondorioz,  $u_0 u_i = 0$  dugu eta,  $u_\mu u^\mu = -c^2$  dela gogoratuz, honako hau (ikus 5.29 problema):

$$u_\mu = -c\sqrt{A}(1, 0, 0, 0), \quad u^\mu = \frac{c}{\sqrt{A}}(1, 0, 0, 0). \quad (5.100)$$

Hemen ikusten dugu egindako hipotesiekin fluidoa geldi dagoela, koordenatu-sistema honetan. Emaitza hau eta, (5.96) egituraren ondorioz,  $\mu \neq \nu$  denean  $R_{\mu\nu} = 0$  dela erabiliz,  $\mu \neq \nu$  balio guztiatarako (5.99) ekuazioak betetzen direla ondorioztatzen da.

### $B$ koefizientea

Geratzen diren (5.99) ekuazioen artean  $A$ ,  $A'$  eta  $A''$  ezabatzen badira, hauxe lortzen da (ikus, berriro, 5.15 irudia):

$$rB' = B - B^2 (1 - \kappa c^2 r^2 \rho). \quad (5.101)$$

Ekuazio hau erraz integratzeko da:

$$\frac{1}{B} - \frac{rB'}{B^2} = \frac{d}{dr} \left( \frac{r}{B} \right) = 1 - \kappa c^2 r^2 \rho, \quad (5.102)$$

$$\frac{r}{B} = r - \kappa c^2 \int_0^r \rho(\bar{r}) \bar{r}^2 d\bar{r}. \quad (5.103)$$

```

In[1]:= Needs["Ricci`Ricci`"];

In[2]:= SetMetric[-A[r] Dt[t]^2 + B[r] Dt[r]^2 + r^2 (Dt[\theta]^2 + Sin[\theta]^2 Dt[\phi]^2), {t, r, \theta, \phi}]
Table[Ricci[i, j], {i, 0, 2}, {j, i+1, 3}]

Out[3]= {{0, 0, 0}, {0, 0}, {0, 0, 0} }

In[4]:= g = MetricTensor;
u[i_] := If[i == 0, -c Sqrt[A[r]], 0]
ek[i_] := Ricci[i, i] - \kappa \left( \rho[r] + \frac{p[r]}{c^2} \right) u[i]^2 + \frac{1}{2} (\rho[r] c^2 - p[r]) g[i, i]
Eliminate[Table[ek[i] == 0, {i, 0, 3}], {A[r], A'[r], A''[r]}] // FullSimplify

Out[7]= r \neq 0 \&& B[r] \neq 0 \&& B[r] + B[r]^2 (-1 + c^2 r^2 \kappa \rho[r]) = r B'[r]

In[8]:= m'[r_] := 4 \pi \rho[r] r^2
B[r_] := \left( 1 - \frac{\kappa c^2}{4 \pi r} m[r] \right)^{-1}
A[r_] := \kappa \text{Exp} \left[ - \int \frac{2 p'[r]}{\rho[r] c^2 + p[r]} dr \right]
Solve[ek[2] == 0, p'[r]] // FullSimplify

Out[11]= \left\{ \left\{ p'[r] \rightarrow - \frac{\kappa (c^2 m[r] + 4 \pi r^3 p[r]) (p[r] + c^2 \rho[r])}{2 r (4 \pi r - c^2 \kappa m[r])} \right\} \right\}

In[12]:= (p'[r] /. %[[1]]) /. \kappa \rightarrow \frac{8 \pi G}{c^4} // FullSimplify

Out[12]= - \frac{G (c^2 m[r] + 4 \pi r^3 p[r]) (p[r] + c^2 \rho[r])}{c^2 r (c^2 r - 2 G m[r])}

In[13]:= p'[r_] := - \frac{G m[r] \rho[r]}{r^2} \left( 1 + \frac{p[r]}{\rho[r] c^2} \right) \left( 1 + \frac{4 \pi r^3 p[r]}{m[r] c^2} \right) \left( 1 - \frac{2 G m[r]}{c^2 r} \right)^{-1}
Table[ek[i] /. \kappa \rightarrow \frac{8 \pi G}{c^4} // FullSimplify, {i, 0, 3}]

Out[14]= {0, 0, 0, 0}

```

5.15 IRUDIA Fluido-soluzioen ekuaazioak *Mathematica*-ren bidez.

(Azken adierazpenean implizituki onartu da  $B(0) \neq 0$  dela.) Hortaz,

$$m(r) \equiv 4\pi \int_0^r \rho(\bar{r}) \bar{r}^2 d\bar{r} \quad (5.104)$$

definizioaz baliatuz, honela idazten da  $dr^2$ -ren koefizientea:

$$B(r) = \left(1 - \frac{\kappa m(r)c^2}{4\pi r}\right)^{-1} = \left(1 - \frac{2Gm(r)}{c^2 r}\right)^{-1}. \quad (5.105)$$

## Masa-ekuazioa

Bere egiturak hori iradokitzen badu ere, ez da pentsatu behar (5.104) definizioko  $m(r)$  funtzioa  $r$  erradioko<sup>16</sup> esferaren barruan dagoen masa (edo, hobeto esan, energia/ $c^2$ ) dela. Izan ere, bolumen infinitesimala  $dV = \sqrt{B(r)} r^2 \sin \theta dr d\theta d\varphi$  da (gogoratu 3.33 problema) eta aipaturiko masa

$$\tilde{m}(r) = 4\pi \int_0^r \rho(\bar{r}) \sqrt{B(\bar{r})} \bar{r}^2 d\bar{r}. \quad (5.106)$$

Bien arteko differentziak objektua sortzean askatutako  $U \equiv \tilde{m}(R)c^2 - m(R)c^2$  lotura-energia grabitatorioa adierazten du, gorputzaren azala  $r = R$  bada (ikus, adibidez, [14] liburuko 603. or.).

## Energia-momentuaren kontserbazioa

Idatz dezagun, orain, (5.97) energia-momentuaren tentsorearen kontserbazioa, 3.6 problema-ko diberentziaren adierazpena,  $g^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$ , (5.100) emaitza eta  $p$  eskalarra dela erabiliz:

$$T^{\mu\nu}_{;\nu} = \frac{1}{\sqrt{-g}} \left[ \sqrt{-g} \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^\mu u^\nu \right]_{,\nu} + \Gamma^\mu_{\nu\lambda} \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^\nu u^\lambda + p_{;\nu} g^{\mu\nu} \quad (5.107)$$

$$= \frac{1}{\sqrt{AB} r^2 \sin \theta} \left[ \left( \sqrt{\frac{B}{A}} r^2 \sin \theta \right) (\rho c^2 + p) \right]_{,0} \delta_0^\mu + \frac{1}{A} \Gamma_{00}^\mu (\rho c^2 + p) + p_{,\nu} g^{\mu\nu} \quad (5.108)$$

$$= \frac{1}{A} \Gamma_{00}^\mu (\rho c^2 + p) + \frac{1}{B} p' \delta_1^\mu = 0, \quad \left( p' \equiv \frac{dp}{dr} \right). \quad (5.109)$$

Bestalde, (2.40) konexioaren osagai hauek ditugu:

$$\Gamma_{00}^\mu = \frac{1}{2} g^{\mu\rho} (g_{\rho 0,0} + g_{\rho 0,0} - g_{00,\rho}) = \frac{A'}{2B} \delta_1^\mu. \quad (5.110)$$

Hortaz, (5.109) kontserbazioa

$$\frac{A'}{A} = -\frac{2p'}{\rho c^2 + p} \quad (5.111)$$

eran idazten da eta,  $K$  integracio-konstantearen bidez, hauxe dugu:

$$A = K \exp \left[ - \int \frac{2p' dr}{\rho c^2 + p} \right]. \quad (5.112)$$

## Tolman, Oppenheimer eta Volkoffen ekuazioa

Azken emaitza geratzen diren Einsteinen ekuazioetan ordezkatzen bada, 5.15 irudian frogatzen da denak betetzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa hauxe dela:

$$\frac{dp}{dr} = -\frac{Gm\rho}{r^2} \left( 1 + \frac{p}{\rho c^2} \right) \left( 1 + \frac{4\pi r^3 p}{mc^2} \right) \left( 1 - \frac{2Gm}{c^2 r} \right)^{-1}. \quad (5.113)$$

Emaitza honetako lehen biderkagaia,  $p \ll \rho c^2$  limite newtondarrean lortzen den oreka hidrostatikoaren baldintza da (ikus 5.35 problema) eta beste hirurak 1 baino handiagoak. Beraz, presio-gradiente handiagoa behar da erlatititatean oreka hidrostatikoa bermatzeko.

<sup>16</sup>Gogoratu 90. orrialdean esandakoa.

Barne-soluzio esferiko estatiko bat lortzeko, Tolman, Oppenheimer eta Volkoffen ekuazioa ebatzi behar da, (5.104) definizioa —edo, baliokidea dena,  $m'(r) = 4\pi r^2 \rho(r)$  ekuazio diferenziala,  $m(0) = 0$  hastapen-baldintzarekin batera—,  $p(\rho)$  egoera-ekuazio egokia eta  $p(R) = 0$  mugalde-baldintza erabiliz. Objektuaren azalean,  $r = R$  denean, presioa desagertzen dela adierazten du azken baldintzak. Gainera, metrika jarraitua denez, barne-soluzioak eta Schwarzschilden kanpo-soluzioak berdinak izan behar dute  $r = R$  azalean (eta horrela aurkitu behar da kanpo-soluzioko  $M$  masaren eta hemengo  $\rho$  dentsitatearen eta  $R$  *erradioaren* arteko erlazioa, adibide batean hurrengo atalean egingo dugun bezala).

## 5.9 Schwarzschilden barne-soluzioa (1916)

Eredu astrofisikoak egiteko fluidoa **politropikoa** dela, hau da,  $p \propto \rho^{1+1/n}$  betetzen dela, onartzen da gehienetan,  $n$  **indize politropikoa** era egokietan aukeratzean, hainbat objektu astronomikoren eredu aproposak (hala nola, neutroi-izarren, nano zurien, segida nagusiko izarren eta planeta gaseoso erraldoien ereduak) lortzen baitira. Oro har, ez da soluzio zehatzik ezagutuko eta zenbakizko metodo sofistikatuez baliatu beharko da eredu erabilgarriak lortzeko.

Hemen, soluzio zehatz errazena aurkezteria mugatuko gara: fluidoa konprimiezina dela —hau da,  $\rho$  dentsitatea konstantea dela— joko dugu<sup>17</sup>. Hipotesi honetan, (5.104) funtzioa eta  $B$  koefizientea

$$m(r) = \frac{4}{3}\pi r^3 \rho, \quad (5.114)$$

$$B = \left(1 - \frac{8\pi G r^2 \rho}{3c^2}\right)^{-1} \quad (5.115)$$

dira eta Tolman, Oppenheimer eta Volkoffen ekuazioa honela idazten da:

$$\int_{p_0}^p \frac{d\bar{p}}{(\rho c^2 + \bar{p})(\rho c^2 + 3\bar{p})} = -\frac{4\pi G}{3c^4} \int_0^r \frac{d\bar{r}}{1 - 8\pi G \bar{r}^2 \rho / 3c^2}. \quad (5.116)$$

Bi integralak errazak dira eta  $p(0) = p_0$  definizioa erabiliz, hauxe lortzen da (ikus 5.16 irudia):

$$p_0 = \rho c^2 \frac{1 - \sqrt{1 - 8\pi G R^2 \rho / 3c^2}}{-1 + 3\sqrt{1 - 8\pi G R^2 \rho / 3c^2}}, \quad (5.117)$$

$$p(r) = \rho c^2 \frac{\sqrt{1 - 8\pi G r^2 \rho / 3c^2} - \sqrt{1 - 8\pi G R^2 \rho / 3c^2}}{-\sqrt{1 - 8\pi G r^2 \rho / 3c^2} + 3\sqrt{1 - 8\pi G R^2 \rho / 3c^2}}. \quad (5.118)$$

(5.114) eta (5.118) emaitzak (5.105) eta (5.112) adierazpenetan ordezkatuz, honako balio hau lortzen da 5.16 irudian:

$$A = \frac{K}{3}c^2 \left( 3\sqrt{1 - \frac{8\pi G R^2 \rho}{3c^2}} - \sqrt{1 - \frac{8\pi G r^2 \rho}{3c^2}} \right)^2. \quad (5.119)$$

---

<sup>17</sup>Egia esan, hipotesi honekin soinuaren abiadura (ikus [25] testuko 52. or.)  $\sqrt{dp/d\rho} = \infty$  da, erlatibilitatean onartezina dena. Hala ere, badirudi neutroi-izar baten lehen eredu hurbildu bat egiteko erabil daitekeela eta, edozein kasutan, azterketa hau argigarria izango da.

```
In[1]:= $Assumptions =
c > 0 && ρ > 0 && G > 0 && p0 > p > 0 && r > 0 && 1 - 8 π G ρ r^2 / (3 c^2) > 0;

In[2]:= FullSimplify[∫_p0^p 1 / ((ρ c^2 + p) (ρ c^2 + 3 p)) dp] == FullSimplify[
- 4 π G / (3 c^4) ∫_0^r r / (1 - 8 π G ρ r^2 / (3 c^2)) dr]

Solve[%, p] // FullSimplify
p = p /. %[[1]];
Solve[(p /. r → R) == 0, p0] // FullSimplify
p /. %[[1]] // FullSimplify

Out[2]= Log[(3 p + c^2 ρ) (p0 + c^2 ρ) / (p + c^2 ρ) (3 p0 + c^2 ρ)] / (2 c^2 ρ) == Log[1 - 8 G π r^2 ρ / (3 c^2)] / (4 c^2 ρ)

Out[3]= {p → {c ρ (-sqrt(3) c p0 - sqrt(3) c^3 ρ + 3 p0 sqrt(3 c^2 - 8 G π r^2 ρ) + c^2 ρ sqrt(3 c^2 - 8 G π r^2 ρ)) / (c ρ (3 sqrt(3) c - sqrt(3 c^2 - 8 G π r^2 ρ)) + p0 (3 sqrt(3) - 3 sqrt(3 - 8 G π r^2 ρ / c^2)))}

Out[5]= {p0 → {c^2 ρ (-sqrt(3) c + sqrt(3 c^2 - 8 G π R^2 ρ)) / (sqrt(3) c - 3 sqrt(3 c^2 - 8 G π R^2 ρ))}

Out[6]= c^2 ρ (-sqrt(3 c^2 - 8 G π r^2 ρ) + sqrt(3 c^2 - 8 G π R^2 ρ)) / (sqrt(3 c^2 - 8 G π r^2 ρ) - 3 sqrt(3 c^2 - 8 G π R^2 ρ))

Out[7]:= Clear[p];
p[r_] := %6 // Evaluate
A = K Exp[- ∫ (2 p'[r]) / (ρ c^2 + p[r]) dr] // ExpToTrig // FullSimplify

Out[9]= -1/4 K (-15 c^2 + 4 G π (r^2 + 9 R^2) ρ + 3 sqrt((3 c^2 - 8 G π r^2 ρ) (3 c^2 - 8 G π R^2 ρ)))
```

### 5.16 IRUDIA (5.118)–(5.119) emaitzak, *Mathematica*-ren bidez.

Orain, barne- eta kanpo-metriak berdinak direla  $r = R$  denean erabiltzen bada,

$$\rho = \frac{3M}{4\pi R^3}, \quad m(R) = M, \quad K = \frac{3}{4} \quad (5.120)$$

lortzen da (ikus 5.30 problema) eta, balio hauekin, honela geratzen da Schwarzschilden barne-metrika ( $r \leq R$ ):

$$ds^2 = -\frac{1}{4} \left( 3\sqrt{1 - \frac{r_s}{R}} - \sqrt{1 - \frac{r_s r^2}{R^3}} \right)^2 c^2 dt^2 + \frac{dr^2}{1 - \frac{r_s r^2}{R^3}} + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.121)$$

Hemen,  $r_S = 2GM/c^2$  definizioaren bitartez, agertzen den  $M$  masa —distantzia handira, eremua ahula denean, orbita newtondarren azterketan erabiltzen dena— (5.104) definizioak (eta ez (5.106) delakoak) emandakoa da:  $M = m(R)$ .

(5.118) presioaren maximoa  $p_0 = p(0)$  da (ikus 5.32 problema) eta infinitura jotzen du  $M/R \rightarrow 4c^2/9G$  limitean. Ondorioz,  $R$  erradio batean fluidoaren masak ondoko baldintza bete behar du:

$$M < \frac{4c^2}{9G} R. \quad (5.122)$$

Izan ere, emaitza bera frogatzen du **Buchdahlen teoremak**, fluido-esfera estatiko guztiekin (hau da, egoera-ekuazio guztiekin), *dentsitatea ez bada handitzen kanporantz* [56]. Emaitza honen arabera,  $r \leq R$  eremuan dagoen masa (5.122) emaitzaren limitea baino handiagoa bada, presio hidrostatikoa ez da nahikoa izango grabitazioari aurre egiteko eta, soluzio estatikoaren ordez, kolapsoa gertatuko da<sup>18</sup>. Efektu erlatibista da hau, 5.36 probleman ikusiko dugun bezala.

## 5.10 Reissner eta Nordströmen soluzioa (1916, 1918)

Objektu kargatu baten kanpoan, besterik ez badago ere, eremu elektromagnetikoa eta, hortaz, dagokion energia-momentuaren tentsorea ditugu:

$$T^{\mu\nu} = \frac{1}{4\pi} \left( F^{\mu\sigma} F_{\sigma}^{\nu} - \frac{1}{4} g^{\mu\nu} F_{\rho\sigma} F^{\rho\sigma} \right). \quad (5.123)$$

Beraz, eskualde horretan bete behar diren **Einstein eta Maxwellen ekuazioak**, hauexek dira:

$$F_{\mu\nu,\lambda} + F_{\nu\lambda,\mu} + F_{\lambda\mu,\nu} = 0, \quad (5.124)$$

$$F^{\mu\nu}_{;\nu} = 0, \quad (5.125)$$

$$R_{\mu\nu} = \kappa T_{\mu\nu}. \quad (5.126)$$

Karga eta korrontea nuluak direla aipaturiko eskualdean erabili dugu (5.125) ekuazioan eta eremu elektromagnetikoaren energia-momentuaren tentsorearen aztarna nulua dela (gogoratu 1.20 problema), eremu grabitatorioaren (4.24) ekuazioak (5.126) eran idazteko.

Kontsidera ditzagun ekuazio hauen soluzioak, gorputz kargatu batek sortzen duen kango-geometriaren kasuan, hiru hipotesi eginez: simetria esferikoa du, estatikoa eta asintotikoki laua da. Hipotesi hauen ondorioz, distantzia infinitura, Minkowskiren espazio-denboran, eremu elektrostatikoa coulombiarra berreskuratzen dela ere joko dugu. Egia esan, kargarik gabeko Birkhoffen teoreman ikusi genuen bezala, azken bi hipotesiak ondorio bezala lor daitezke lehenengoa eta Einstein eta Maxwellen ekuazioak erabiliz (ikus, adibidez, [14] liburuko 844. or.). Hemen, azterketa errazteko, hipotesi moduan onartuko ditugu.

Simetria esferikoaren eta estatikotasunaren hipotesiak, honela idazten dira koordenatu egoietan, (5.5) adierazpenetik  $t$  ezabatu eta  $c^2$  faktorea sartu ondoren, 3.37 problemaz baliatuz:

$$ds^2 = -A(r) c^2 dt^2 + B(r) dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2), \quad (5.127)$$

$$F_{\mu\nu} = E(r) \begin{pmatrix} 0 & -1 & 0 & 0 \\ 1 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 0 \\ 0 & 0 & 0 & 0 \end{pmatrix}. \quad (5.128)$$

<sup>18</sup>Fluido-ereduen goi-limite bat da hau: kolapsoa masa txikiagoekin has daiteke, benetako egoera-ekuazioaren arabera.

```
In[1]:= Needs["Ricci`Ricci`"]
SetMetric[-A[r] Dt[x0]^2 + B[r] Dt[r]^2 + r^2 (Dt[\theta]^2 + Sin[\theta]^2 Dt[\phi]^2), {x0, r, \theta, \phi}]
{x, g, \Gamma} = {Coordinate, InverseMetric, Christoffel};

In[4]:= F[1, 0] = - (F[0, 1] = -EE[r]);
F[\mu_, \nu_] := 0
eq1 = Table[\partial_{x[\lambda]} F[\mu, \nu] + \partial_{x[\nu]} F[\lambda, \mu] + \partial_{x[\mu]} F[\nu, \lambda] // FullSimplify,
{\mu, 0, 3}, {\nu, 0, 3}, {\lambda, 0, 3}] // Flatten // Union
eq2 = Table[\sum_{\nu=0}^3 \left( \sum_{\lambda=0}^3 g[\nu, \lambda] \left( \partial_{x[\lambda]} F[\mu, \nu] - \sum_{\rho=0}^3 (\Gamma[\rho, \mu, \lambda] F[\rho, \nu] + \Gamma[\rho, \nu, \lambda] F[\mu, \rho]) \right) \right) // FullSimplify, {\mu, 0, 3}]

Out[6]= {0}

Out[7]= \left\{ \frac{r B[r] E E[r] A'[r] + A[r] (r E E[r] B'[r] - 2 B[r] (2 E E[r] + r E E'[r])))}{2 r A[r] B[r]^2}, 0, 0, 0 \right\}

In[8]:= DSolve[%[[1]] == 0, EE[r], r]

Out[8]= \left\{ \left\{ E E[r] \rightarrow \frac{\sqrt{A[r]} \sqrt{B[r]} C[1]}{r^2} \right\} \right\}
```

### 5.17 IRUDIA Maxwellen ekuazioak *Mathematica*-ren bidez.

Maxwellen ekuazioak erraz ebatzen dira; (5.124) direlakoak identikoki betetzen dira eta (5.125)-tik hauxe dugu, 5.17 irudian frogatzen den bezala:

$$E = K \frac{\sqrt{AB}}{r^2}. \quad (5.129)$$

$K$  integracio konstantea kalkulatzeko lautasun asintotikoaren hipotesiaz baliatuko gara. Distantzia handira  $A \rightarrow 1$ ,  $B \rightarrow 1$  eta  $E \rightarrow K/r^2$  dugunez, eremu coulombiarra berreskuratzeko, infinituan geldi dagoen behatzailea neurtutako karga  $q$  bada,  $K = q$  aukeratu behar dugu:

$$E = \frac{q\sqrt{AB}}{r^2}. \quad (5.130)$$

Einsteinen (5.126) ekuazioetan azken emaitza ordezkatu ondoren,  $A''$  ezabatzen bada, gertzen diren baldintzen artean  $AB' + A'B = (AB)' = 0$  dago, 5.18 irudian ikusten den bezala. Ondorioz,  $AB$  konstantea da eta 1 distantzia infinitura. Ondorioz,  $r$  guztietan,

$$B = \frac{1}{A}. \quad (5.131)$$

Emaitza honekin, ekuazio guztiak betetzeko, hauxe aukeratu behar dugu (ikus 5.18 irudia):

$$A = 1 + \frac{\tilde{K}}{r} + \frac{Gq^2}{c^4 r^2}. \quad (5.132)$$

```
In[1]:= Needs["Ricci`Ricci`"]
SetMetric[-A[r] Dt[x0]^2 + B[r] Dt[r]^2 + r^2 (Dt[\theta]^2 + Sin[\theta]^2 Dt[\phi]^2), {x0, r, \theta, \phi}]
{x, g, \Gamma} = {Coordinate, InverseMetric, Christoffel};

In[4]:= F[0, 1] = -\left(F[1, 0] = \frac{q \sqrt{A[r] B[r]}}{r^2}\right);
F[\mu_, \nu_] := 0
T[\mu_, \nu_] := \frac{1}{4 \pi} \left(\sum_{\rho=0}^3 \sum_{\sigma=0}^3 g[\rho, \sigma] F[\mu, \rho] F[\nu, \sigma] - \frac{1}{4} MetricTensor[\mu, \nu] \sum_{\rho=0}^3 \sum_{\sigma=0}^3 \sum_{\lambda=0}^3 \sum_{\tau=0}^3 g[\rho, \sigma] g[\lambda, \tau] F[\rho, \lambda] F[\sigma, \tau]\right) // FullSimplify
ekk = Table[(Ricci[\mu, \nu] - \kappa T[\mu, \nu]) // FullSimplify == 0, {\mu, 0, 3}, {\nu, \mu, 3}] // Flatten //
Union;

In[8]:= Eliminate[ekk, A''[r]] // FullSimplify
Out[8]= q^2 \kappa + \frac{8 \pi r^2 (A[r] + r A'[r])}{A[r] B[r]} == 8 \pi r^2 \&& \frac{B[r] A'[r]}{A[r]} + B'[r] == 0 \&& r \neq 0 \&& A[r] \neq 0 \&& B[r] \neq 0

In[9]:= B[r_] := 1/A[r]
%% // FullSimplify

Out[10]= q^2 \kappa + 8 \pi r^2 (A[r] + r A'[r]) == 8 \pi r^2 \&& r \neq 0 \&& A[r] \neq 0

In[11]:= DSolve[q^2 \kappa + 8 \pi r^2 (A[r] + r A'[r]) == 8 \pi r^2, A[r], r]
Out[11]= \left\{\left\{A[r] \rightarrow \frac{r + \frac{q^2 \kappa}{8 \pi r}}{r} + \frac{C[1]}{r}\right\}\right\}

In[12]:= A[r_] := 1 - \frac{rs}{r} + \frac{G q^2}{c^4 r^2}
ekk /. \kappa \rightarrow \frac{8 \pi G}{c^4} // FullSimplify
Out[13]= {True, True, True, True}
```

### 5.18 IRUDIA Einsteinen ekuazioak *Mathematica*-ren bidez.

$\tilde{K}$  integracio konstantea aurkitzeko,  $q = 0$  limitean Schwarzschilden metrika berreskuratu behar dela erabil daiteke:  $-\tilde{K} = r_S = 8\pi G/c^2$ . Notazioa laburtzeko,

$$r_q^2 \equiv \frac{Gq^2}{c^4}, \quad (5.133)$$

$$\Delta \equiv 1 - \frac{r_S}{r} + \frac{r_q^2}{r^2} \quad (5.134)$$

definitzen baditugu, honela geratzen da Reissner eta Nordströmen soluzioa:

$$E = \frac{q}{r^2}, \quad (5.135)$$

$$ds^2 = -\Delta c^2 dt^2 + \Delta^{-1} dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.136)$$

### 5.10.1 Horizonteak

Reissner eta Nordströmen metrikaren funtsezko singularitate bakarra  $r = 0$  balioan gertatzen da (ikus 5.37 problema), baina (5.136) adierazpenak koordenatu-singularitate bat du  $\Delta = 0$  ekuazioaren soluzio *erreal* bakoitzeko:

$$r_{\pm} = \frac{r_s \pm \sqrt{r_s^2 - 4r_q^2}}{2}. \quad (5.137)$$

Hiru kasu ditugu, beraz.

$$r_s < 2r_q$$

$r_{\pm}$  irudikariak direnez, metrika erregularra da  $r > 0$  guztieta eta, Schwarzschilden metrikaren kasuan ez bezala,  $r = 0$  funtsezko singularitatea denbora motakoa da eta ez du erakartzen inguruko fotoi eta partikula guztiak (ikus geroago zer gertatzen den 5.19 iridian  $r_{\pm}$  errealkak direnean); baina, horizonterik ez dagoenez, **singularitate biluzia** da eta horrelakoekin kausaltasun arazoak sortzen direnez, Penroseren *zensura kosmikoaren hipotesiaren* arabera, ez dela soluzio fisikoa onartzen da gehienetan.

$$r_s > 2r_q$$

Azter dezagun, 5.6 atalean egin genuen bezala, ( $ds^2 = 0$  ekuazioan  $d\theta = d\varphi = 0$  egin ondoren) geodesiko nulu erradialak kasu honetan:

$$c \frac{dt}{dr} = \pm \Delta^{-1} = \pm \frac{r^2}{(r - r_+)(r - r_-)}. \quad (5.138)$$

Erraz integratzen da hau,  $K$  integrazio-konstantea erabiliz:

$$ct = \pm \left[ r + \frac{r_+^2}{r_+ - r_-} \ln \left| \frac{r}{r_+} - 1 \right| - \frac{r_-^2}{r_+ - r_-} \ln \left| \frac{r}{r_-} - 1 \right| \right] + K. \quad (5.139)$$

Barruranzko geodesiko erradial nuluak  $ct' = -r + K$  ekuaziokoak izateko,


$$ct' \equiv ct + \frac{r_+^2}{r_+ - r_-} \ln \left| \frac{r}{r_+} - 1 \right| - \frac{r_-^2}{r_+ - r_-} \ln \left| \frac{r}{r_-} - 1 \right| \quad (5.140)$$

definitzen badugu, honela geratzen zaigu (5.136) metrika Eddington eta Finkelsteinen koordenatuetan (ikus 5.40 problema):

$$ds^2 = -\Delta c^2 dt'^2 + 2(1 - \Delta)c dt' dr + (2 - \Delta)dr^2 + r^2(d\theta^2 + r^2 \sin^2 \theta d\varphi^2). \quad (5.141)$$

Argi-konoen egitura 5.19 irudikoa da.

- $r = r_+$  gainazala gertaera-horizontea da, ezin zeharka daiteke kanporantz.
- $r_- < r < r_+$  eskualdean dauden partikulek eta fotoiek  $r = r_-$  gainazala zeharkatzen dute.
- $r < r_-$  eskualdean dagoena ez doa nahitaez espazio motako  $r = 0$  singularitateraino.



**5.19 IRUDIA** Reissner eta Nordströmen metrika Eddington eta Finkelsteinen koordenatuetan,  $r_s > 2r_q$  kasuan,  $d\theta = d\varphi = 0$  plano batean.

$$r_s = 2r_q$$

Aurreko kasuaren limite bat da:  $r = r_+ = r_-$  gertaera-horizontean izan ezik,  $r$  koordenatua espazio motakoa da.

Soluzio honetaz gehiago ikasteko, ikus, adibidez, [4] liburuko 18. gaia edo [10] testuko 12. gaia.

## 5.11 Gehiago ikasteko

- Schwarzschilden metrikaren koordenatu-sistema erregularrak: [137].
- Schwarzschilden erradioaren barruko argi-konoak: [95].
- Ispilu grabitatorioa: [186].
- Zeruaren distortsioa: [151].
- Zenbakizko orbitak: [148]; [149]; [195].
- Orbiten azterketa kualitatiboa: [8], 9.3 eta 9.4 atalak.
- Merkurioren perihelioaren aurreratzea:
  - Ekarpen ez-erlatibistak: [1], 209. or.; [75]; [164]; [184].
  - Historia: [190].
  - Beste kalkulu batzuk: [8], 201. or.; [132].
  - PSR B1913+16 pulsarren periastroaren prezesioa: [200].
- Argiaren desbideratzea:

- Baloikidetasunaren printzipioa: [89].
- Bigarren ordenako kalkulua: [53].
- Giroskopioen presesioa: [10], 244. or.; [119].
- Erlatibilitatearen testak:
  - Zer frogatzen duten test klasikoek: [175].
  - Test klasikoak konstante kosmologikoarekin: [143].
  - Radar-oihartzunaren atzerapena: [4], 204. or.; [8], 212. or.; [10], 236. or.; [15], 157. or.; [25], 201. or.
  - Beste test batzuk: [8], 10. gaia.
  - Bigarren ordenako efektuak: [91].
  - Test kosmologikoak: [115].
  - Testen laburpena: [11], 7. gaia; [201].
- Marea-indarrak: [10], 264. or.
- Indar zentrifugo aldaratzaila: [31].
- Hutsaren beste soluzio zehatzak: [4], 19. gaia; [10], 13. gaia; [15], 207. or.
- Leiar grabitatorioak: [8], 11.1 atala; [15], 185. or.; [16], 10.7 eta 500. or.; [47]; [94].
  - Argiaren desbideratzea eta leiar grabitatorioak: [3], 8.6 atala; [79].
  - Kosmologia eta leiar grabitatorioak: [111].
- Kolapso grabitatorioa: [1], 14. gaia; [3], 5.8 atala; [8], 12. gaia; [10], 259. or.; [14], 32. gaia; [15], 12. eta 13. atalak; [16], 7.6 atala; [25], 297. or.
  - Lehen eredua: [158].
  - Adibide bat: [96].
  - Eedu analitikoak: [35].
  - Zulo beltza sortzearen ezegonkortasuna: [121].
- Zulo beltzak: [4], 16., 17., 18. eta 19. gaiak; [8], 13. gaia; [10], 277. or.; [14], 32. gaia.
  - Schwarzschilden zulo beltzean erortzen ari diren bi behatzailerentzako harremanak: [42].
  - Erortzen ari den objektua salbatzea: [106].
  - Hedapena eta suntsidura: [97].
  - Jaiotza eta heriotza: [98].
  - Zulo beltzak, energiaren iturriak?: [178].
  - Unibertso ikusgaia zulo beltz baten barrutik: [187].
  - Bi dimentsioko zulo beltz bat: [126].

- Zulo beltzak eta makina termikoak: [157].
- Hawking efektua: [8], 13.3 atala; [10], 274. or.; [60]; [125]; [138].
- Zulo beltzak eta informazioa: [140].
- Akrezio-diskoak: [8], 11.2 atala; [10], 240. or.
- Akrezioa izar birakari batean: [122].
- Har-zuloak eta Einstein eta Rosenen zubia: [4], 232. or.; [8], 148. or.; [10], 271. or.
  - Einstein eta Rosenen zubia: [69]; [83]; [162].
  - Kruskalen koordenatuetan: [127].
  - Kausalitatea: [93].
  - Eredu erraz bat: [128].
  - Izarren arteko bidaia: [145].
  - Denbora-makina: [146].
- Teknika globalak, diagrama konformeak<sup>19</sup> eta singularitate-teoremak: [3], H eranskina; [8], 137. eta 274. or.; [9] (aurreratua); [14], 34. gaia; [16], 8.4 atala.
- Zer ikusten den orbita zirkularretatik: [147].

---


<sup>19</sup>Gogoratu 76. orrialdeko oin-oharra.

## 5.12 Problemak

**5.1** Konsidera dezagun hiru dimentsioko espazio euklidearrean  $(\rho, \varphi, z)$  koordenatu zilindrikoeitan definitutako

$$z = a\rho, \quad (\rho > 0, 0 \leq \varphi < 2\pi)$$

konoa (ikus 5.20 irudia). Aurkitu gainazalean induzitutako metrika. Ohar zaitez,  $\rho$  konstanteko leku geometrikoak  $2\pi\rho$  luzerako zirkunferentziak badira ere, gainazalean neurtutako zirkunferentzia horien erradioa ez dela  $\rho$ .



5.20 IRUDIA 5.1 problemako konoa.

**5.2** Frogatu (5.4) emaitza eta aurkitu (5.3) eta (5.5) metriketan agertzen diren koefizienteen arteko erlazioak.

**5.3 Koordenatu isotropoak.** Egiaztatu honela idazten dela Schwarzschilden metrika koordenatu egokietan:

$$ds^2 = - \left( \frac{1 - r_s/4r}{1 + r_s/4r} \right)^2 c^2 dt^2 + \left( 1 + \frac{r_s}{4r} \right)^4 (dx^2 + dy^2 + dz^2), \quad \left( r \equiv \sqrt{x^2 + y^2 + z^2} \right).$$

Harmonikoak al dira koordenatu hauek? Non da singularra metrika hau? Zergatik?

**5.4** Konsidera dezagun hiru dimentsioko espazio euklidearrean definitutako  $x(\sigma)$  kurba.  $\sigma$  parametroarekiko deribatua puntu batez adieraziz, azter dezagun  $\dot{l} = x \times \dot{x}$  magnitudea, koordenatu polar esferikoetan. Frogatu  $\dot{l} = 0$  izateko baldintza beharrezkoak eta nahikoak direla (5.18) eta (5.19) ekuazioak. Ondorioztatu azken hauek betetzen direnean kurba laua dela eta jatorritik pasatzen den plano batean dagoela.

**5.5** Frogatu (5.31) emaitza.

**5.6** Fotoi bat orbita zirkular batean higitzen ari da Schwarzschilden geometrian. Kalkulatu zein den orbitaren periodoa infinituan geldi dagoen behatzailearentzat eta orbitako puntu batean geldi dagoen behatzailearen neurketen arabera.

**5.7\* Argiaren desbideratze newtondarra.** Eman dezagun fotoiak orbita newtondar hiperbolikoetan higitzen direla Eguzkiaren inguruan eta haien abiadura asintotikoa  $c$  dela. Frogatu kalkulu newtondar honetako argiaren desbideratzea<sup>20</sup> erlatititate orokorrean lortzen denaren erdia dela.

**5.8 Bineten formula.** Erabili energia mekanikoaren eta momentu angeluarraren kontserbazio-legeak, grabitazio newtondarrean, partikularen energia mekanikoa eta momentu angeluarra  $E$  eta  $L$  direnean, orbitaren ekuazioa honela idazteko:

$$u'^2 + u^2 = \frac{2GMm^2}{L^2} u + \frac{2mE}{L^2}, \quad \left( u \equiv \frac{1}{r}, u' \equiv \frac{du}{d\varphi} \right).$$

Ondorioztatu hemendik (5.50) formula.

**5.9** Frogatu denbora motako geodesiko batean, higidura erradialaren ekuazioa hauxe dela:

$$\frac{d^2r}{d\tau^2} = -\frac{c^2r_S}{2r^2} + \frac{h^2}{r^3} - \frac{3h^2r_S}{2r^4}.$$

Ondorioztatu (5.52) ekuazioa.

**5.10** Aztertu 5.9 problemako potentzial eraginkorra, 5.3 irudian egin genuen antzera.

*Iradokizuna:* Erabili dimentsio gabeko aldagaiaiak, hala nola  $\hat{r} \equiv r/r_S$ ,  $\hat{\tau} \equiv c\tau/r_S$  eta  $\hat{h} \equiv h/cr_S$ .

**5.11** Partikula bat  $r = r_0$  puntutik askatzen bada, zenbateko denbora propioa behar du  $r = r_S$  horizontera heltzeko? Eta  $r = 0$  puntura iristeko?

**5.12** Partikula bat askatzen da infinitutik eta  $t = \tau = 0$  unean  $r = r_0$  puntu batean dago. Kalkulatu zenbateko denbora propioa eta koordenatua behar dituen  $r = r_S$  eta  $r = 0$  distantzietara heltzeko.

**5.13** Egin berriro 5.6 problemako kalkulua, masadun partikula baten orbita zirkular egonkor laburrenaren kasuan. Zein da partikularen abiadura bigarren behatzairearen neurketen arabera?

**5.14** Espazio-ontzi bat geldi dago Schwarzschilden koordenatuetan. Kalkulatu (espazio-ontzia geldi dagoen sistema inertzial lokalean) horretarako motorrak igorritako gasek egin behar duten indarra. Konparatu emaitza kalkulu newtondarrekoarekin.

**5.15** Poloen gainetik pasatzen den  $R$  erradioiko orbita zirkular batean higitzen da satelite bat.

(a) Erabili geodesiko zirkularren ekuazioa, satelitearen  $u_I^\mu$  abiadura kalkulatzeko.

(b) Zein da ipar poloan geldi dagoen detektagailuaren  $u_D^\mu$  abiadura?

(c) Sateliteak  $\nu_I$  maiztasun propioko argia bidaltzen du detektagailura, norabide erradialean. Erabili argiaren  $x^\mu(\sigma)$  geodesikoaren ekuazioa,  $dx^\mu/d\sigma$  eta fotoaren  $p^\mu$  momentua aurkitzeko (integratio-konstante baten funtzoan).

(d) Erabili 1.6 problemako

$$\frac{\nu_I}{\nu_D} = \frac{p_\mu(x_I)u_I^\mu}{p_\mu(x_D)u_D^\mu}$$

<sup>20</sup>Newtonen berak aurresan zuen argia desbideratzen dela Eguzkiaren paretik pasatzean eta kalkulu newtondarren egileen artean hauexek daude, gutxienez: Henry Cavendish (1784an, baina argitaratu gabe), Johann Georg von Soldner (1801ean) (ikus [199]) eta Einstein (1911n, baliokidetasunaren printzipioaz baliatuz). Azkenean, 1915an egin zuen Einstein kalkulu zuzena.

emaitza (detektagailuan neurtutako maiztasuna da  $\nu_D$ ), hauxe dugula frogatzeko:

$$\frac{\nu_I}{\nu_D} = \sqrt{\frac{1 - r_S/R_\oplus}{1 - 3r_S/2R}} \approx 1 - \frac{r_S}{2R_\oplus} + \frac{3r_S}{4R} = 1 - \frac{GM_\oplus}{c^2 R_\oplus} + \frac{3GM_\oplus}{2c^2 R}.$$


(e) Erabili azken emaitza 2.21 problemakoa berreskuratzeko.

(f) Noiz «dabil arinago» sateliteko erlojua?

**5.16** Elektroi bat eta positroi bat geodesiko zirkular berean higitzen ari dira, kontrako noranzkoetan, Schwarzschilden metrikaren. Zein da elkarrekin topo egitean askatuko den energia, talka-puntuaren geldi dagoen behatzailearentzat?

**5.17** Frogatu Schwarzschilden metrikaren Kretschmannen eskalarra hauxe dela:

$$K \equiv R_{\mu\nu\rho\sigma} R^{\mu\nu\rho\sigma} = 12 \frac{r_S^2}{r^6}.$$



5.21 IRUDIA Flammen paraboloidea.

**5.18 Flammen paraboloidea.** Azter dezagun Schwarzschilden metrikaren  $t = t_0, \theta = \pi/2$  sekzioa. Frogatu hiru dimentsioko espazio euklidearrean murgildu daitekeela, koordenatu zilindrikoetan emandako  $z = f(\rho)$  ekuazio egokiak definitutako gainazal baten modura. Aurkitu  $f(\rho)$  eta egiaztatu 5.21 irudiko paraboloidea definitzen duela.

**5.19** Partikula puntual ez-erlatibista bat higitzen da 5.18 problemako gainazalaren gainean, Lurraren azaleko g eremu gravitatorio bertikalaren eraginpean. Marruskadura guztiak arbuiagarriak badira, teoria newtondarrauk aurresandako higidura planeten higiduren berdina izango da partikularena?

**5.20** Zein da argi-izpi erradialen abiadura, Schwarzschilden koordenatuetan? Zer gertatzen da emaitza horretan izpia horizontetik hurbil dagoenean?

**5.21** Nola mugitu behar da espazio-ontzi bat, Schwarzschilden zulo beltz batetik oso urrun da-goenean, bat-batean erregairik gabe geratzen bada zuloan ez erortzeko? Erregaiamaitu ondoren, zein da orbitaren periastroaren distantzia minimoa?

**5.22** Egiaztatu (5.90) adierazpena. Erregularra al da (5.89) transformazioa? Zergatik?

**5.23 Eddington eta Finkelsteinen koordenatu atzeratuak.** 5.6 ataleko Eddington eta Finkelsteinen koordenatuak **aurreratuak** direla esaten da. Argi dago haien definizioa eta (5.90) metrika ez direla denboraren inbertsoarekiko aldaezinak. Izan ere, *kanporanzko* geodesiko nulu erradialen unibertso-lerroak 1 maldako zuzenak izateko moduan ere aukera daiteke  $t''$  koordenatu berria: Eddington eta Finkelsteinen koordenatu **atzeratuak** lortzen dira horrela. Idatzi Schwarzschilden metrika koordenatu hauetan eta marraztu 5.12 irudiaren ordezkoa. Atera ondorioak azken horretatik eta azaldu bere esanahia.

**5.24** (5.93)–(5.94) ekuazioetako  $(t(u, v), r(u, v))$  transformazio zuzena forma (apur bat) esplizituanagoan idatz daiteke Lamberten  $W$  funtziaren bidez<sup>21</sup>; baina alderantzizko  $(u(t, r), v(t, r))$  transformazioa, oinarrizko funtzioez baliatuz idatz daiteke. Nola? Erabili azken transformazio hau (5.95) metrikaren adierazpena egiazatzeko.

**5.25** Egiaztatu Kruskal eta Szekeresen 5.14 diagraman,  $t$  konstanteko leku geometrikoak zentrotik pasatzen diren zuzenak direla eta zuzen hauen maldak beti daudela  $(-1, 1)$  tartean.

**5.26 Plancken unitateak.**  $G$ ,  $c$  eta  $\hbar$  konstante unibertsalak erabiliz, honela definitzen dira **Plancken luzera** eta **Plancken masa**:

$$l_P \equiv \left( \frac{\hbar G}{c^3} \right)^{1/2} \approx 1.62 \times 10^{-33} \text{ cm},$$

$$m_P \equiv \left( \frac{\hbar c}{G} \right)^{1/2} \approx 2.18 \times 10^{-5} \text{ g}.$$

Zeintzuk dira **Plancken denbora**, **Plancken energia**, eta **Plancken dentsitatea**? Partikula baten erradioa  $l_P$  bada eta masa  $m_P$ , zein da bere Schwarzschilden  $r_S$  erradioa? Iruzkina egin emaitzari, grabitazio kuantikoa oraindik ulertzten ez badugu ere, fenomeno baten Compton uhin-luzera eta energia  $l_P$  eta  $E_P$  balioen parekoak direnean, efektu kuantiko handiak espero ditzakegula kontuan hartuta.

**5.27** Suziri bat Schwarzschilden erradioaren barruan dago. Nahitaez  $r = 0$  singularitaterantz joango dela frogatzen du 5.12 eta 5.14 irudietako argi-konoen egiturak; baina pentsa genezake motorra era zuhurrean erabiliz lor daitekeela singularitateraino ez iristea denbora propio finituan. Frogatu hori ez dela egia,  $\Delta\tau < \pi GM/c^3$  denbora-tarte finitu batean heltzen baita singularitateaino.

**5.28 Schwarzschild eta de Sitterren metrika.** Aurkitu Schwarzschilden metrikaren ordezkoa konstante kosmologikoa kontuan hartzen denean. Zer gertatzen da eremu ahularen limitean?

**5.29** Egiaztatu (5.100) emaitzak.

**5.30** Egiaztatu (5.120) emaitzak.

**5.31** Koordenatu-singularitaterik al du Schwarzschilden kanpo- eta barne-soluzioek osatutako metrikak, koordenatu polarren arazoak ahaztuta?

---

<sup>21</sup> $r = r_S \left[ 1 + W \left( \frac{u^2 - v^2}{e} \right) \right]$  da. Ikus [71] artikuluan Lamberten  $W$  funtziaren definizioa eta propietateak.

**5.32** Egiaztatu (5.118) presioa txikituz doala  $r$  handitzean,  $\rho > 0$  bada. (Ikus, gainera [14] liburuko 612. or.)

**5.33** Frogatu ez dagoela  $p = w\rho c^2$  egoera-ekuazioko barne-soluzio esferiko estatikorik, ezin delako  $p(R) = 0$  denean Schwarzschilden kanpo-soluzioarekin elkartu.

**5.34** Kalkulatu fluido perfektu batez osaturiko izar esferiko estatiko baten lotura-energia osoa, mekanika newtondarrean eta erlatibitatean, dentsitatea konstantea denean.

**5.35** Egiaztatu grabitazio newtondarrean, Tolman, Oppenheimer eta Volkoffen ekuazioaren ordez, honako hau dugula oreka hidrostatikoaren baldintza:

$$p'(r) = -\frac{Gm(r)\rho(r)}{r^2}.$$

**5.36** Aurkitu nola aldatzen den presioa, mekanika newtondarrean, izar esferiko estatiko baten dentsitatea konstantea denean eta erkatu (5.118) emaitzarekin. Egiaztatu mekanika newtondarrean  $M$  masak ez duela (5.122) moduko goi-limiterik.

**5.37** Egiaztatu Schwarzschilden barne-soluzioaren sekzio espazialak, kurbadura konstantekoak direla. Gauza bera gertatzen al da kanpo-soluzioan? Areago, frogatu barne-soluzioaren sekzio espazialak hiru dimentsioko gainazal esferikoak direla eta kalkulatu erradioak.

**5.38** Osatu 5.21 irudia Schwarzschilden barne-soluzioa erabiliz.

**5.39** Frogatu Reissner eta Nordströmen metrikaren Kretschmannen eskalarra hauxe dela:

$$K \equiv R_{\mu\nu\rho\sigma}R^{\mu\nu\rho\sigma} = \frac{12r_S^2r^2 - 48rsr_q^2r + 56r_q^4}{r^8}.$$

**5.40** Egiaztatu (5.141) adierazpena.

**5.41 Kerren metrika (1963).** Biratzen ari den gorputz baten inguruko kanpo-geometria deskribatzeko,

$$\begin{aligned} ds^2 = & - \left( 1 - \frac{r_S r}{\rho^2} \right) c^2 dt^2 - 2a \frac{r_S r \sin^2 \theta}{\rho^2} c dt dr \\ & + \frac{\rho^2}{\Delta} dr^2 + \rho^2 d\theta^2 + \left( r^2 + a^2 + a^2 \frac{r_S r \sin^2 \theta}{\rho^2} \right) \sin^2 \theta d\varphi^2. \end{aligned}$$

metrika erabiltzen da, non masa-unitateko momentu angeluarra den  $a \equiv L/(Mc)$  eta

$$\Delta \equiv r^2 - r_S r + a^2, \quad \rho \equiv \sqrt{r^2 + a^2 \cos^2 \theta}.$$

Egiaztatu hutsaren Einsteinen ekuazioen soluzioa dela. (Ikus, adibidez, [4] liburuko 19. gaian, [10] testuko 13. gaian edo [192] artikuluan metrika interesgarri honen azterketa.)

## 6. GAIA

### Uhin grabitatorioak

Aurreko gaian Einsteinen ekuazioen soluzio zehatz batzuk aztertu ditugu eta beste asko ezagutzen dira [23], baina ez da beti erraza haien esanahi fisikoa asmatzea. Bestalde, Einsteinen ekuazioak oso ez-linealak direnez, gehienetan hurbilketak (analitikoak edo zenbakizkoak) erabili behar dira, problema fisikoak deskribatzeko. Erlatibilitate orokorraren hurbilketa lineala aztertuko dugu gai honetan. **Grabitazioaren teoria linealizatua** deitzen zaio askotan, berez teoria osotzat kontsidera baitezakegu:  $s = 2$  espina duten masa gabeko partikulen (grabitoien) eremuuen teoria klasikoa (erlatibilitate berezian). Gainera, hemen, erlatibilitate orokorretik hasita, hurbilketa bezala lortuko badugu ere, alderantzizko bidea ere egin daiteke: hasi erlatibilitate bereziaren Minkowskiren espazioan, aipatutako eremuuen teoria klasikotik eta hurrenez hurreneko prozedura baten bidez erlatibilitate orokorra eraiki daiteke<sup>1</sup>.

#### 6.1 Hurbilketa lineala

Eman dezagun aztertzen dugun espazio-denboraren eskualdean, metrika ondoko moduan idazteko koordenatu-sistema bat dagoela:

$$g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu} + h_{\mu\nu}, \quad |h_{\mu\nu}| \ll 1. \quad (6.1)$$

Jakina,  $h_{\mu\nu} = h_{\nu\mu}$  dugu. 2.7 ataleko limite newtondarrean eta 4.3.1 atalean eremu estatiko ahulak aztertzean,  $h_{\mu\nu}$ -ren denborarekiko deribatuak arbuiatu genituen. Gai honetan, uhin grabitatorioak aztertzeko, adibidez, ezin dugu hori egin, eremu grabitatorioa ahula bada ere; baina metrikaren deribatu guztiak ere txikiak direla onartuko dugu. Beraz,  $h_{\mu\nu}h_{\rho\sigma}$ ,  $h_{\mu\nu}h_{\rho\sigma,\lambda}$  eta antzeko gai guztiak arbuiatuak izango dira hurbilketa linealean.

Arrazoi beragatik, indizeak igotzeko eta jaisteko Minkowskiren  $\eta_{\mu\nu}$  metrika eta alderantzizko  $\eta^{\mu\nu}$  tentsorea<sup>2</sup> erabiliko ditugu hemendik aurrera. Horrela, adibidez, hauxe dugu:

$$h_\nu^\mu \equiv h^\mu_\nu = h_\nu^\mu = \eta^{\mu\rho}h_{\rho\nu}, \quad (6.2)$$

$$h^{\mu\nu} = \eta^{\nu\sigma}h_\sigma^\mu = \eta^{\mu\rho}\eta^{\nu\sigma}h_{\rho\sigma}. \quad (6.3)$$

<sup>1</sup>Ikus [10] testuko 473. or., [14] liburuko 436. or., [159] artikulua eta hiruretan aipatzen diren lanak.

<sup>2</sup>Gai honetan «tentsore» eta «bektore» izenekin, Poincaréen (6.4) transformazioekiko kobarianteak diren magnitudeak adierazten ditugu.

### 6.1.1 Koordenatu quasi-minkowskiarrak

(6.1) egitura ez da lortzen bakarrik goiko koordenatu-sisteman. Nolanahiko Lorentzen edo Poincaréren transformazio bat egiten badugu,

$$x^\rho = \Lambda_{\mu'}^\rho x^{\mu'} + b^\rho, \quad (\eta_{\rho\sigma} \Lambda_{\mu'}^\rho \Lambda_{\nu'}^\sigma = \eta_{\mu\nu}), \quad (6.4)$$

$$g_{\mu'\nu'} = \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} g_{\rho\sigma} = \Lambda_{\mu'}^\rho \Lambda_{\nu'}^\sigma (\eta_{\rho\sigma} + h_{\rho\sigma}) = \eta_{\mu\nu} + \Lambda_{\mu'}^\rho \Lambda_{\nu'}^\sigma h_{\rho\sigma} = \eta_{\mu\nu} + h_{\mu'\nu'} \quad (6.5)$$

lortzen da, (1.36) propietatearen ondorioz, eta Lorentzen transformazioekiko (baina ez koordenatuun aldaketa orokorreko) tentsorea da  $h_{\mu\nu}$ :

$$h_{\mu'\nu'} = \Lambda_{\mu'}^\rho \Lambda_{\nu'}^\sigma h_{\rho\sigma}. \quad (6.6)$$

Ikuspuntu honetatik, erlatibilitate berezian egindako eremu grabitatorioaren teoriako potentziala da  $h_{\mu\nu}$ , elektrodinamikako  $A_\mu$  potentzialaren antzera, baina bektore bat izan ezik (eta espina 1), 2 heineko tentsorea da (eta espina 2).

Goian (Poincaréren edo) Lorentzen transformazio *global* bat konsideratu dugu, baina transformazio infinitesimal *lokalak*, hau da, koordenatuen menpekoak, ere interesatzen zaizkigu:

$$x^{\mu'} = x^\mu + \xi^\mu(x), \quad (6.7)$$

non  $\xi^\mu(x)$  bektore-eremua txikia den (hau da, arbuiatu egingo ditugu  $\xi^\mu$ -ren karratuak eta gainerako berreturak, baita  $\xi^\mu h_{\rho\sigma}$  eta antzeko biderkadurak ere). Ikus dezagun nola transformatzen den  $h_{\mu\nu}$ , (= ikurra erabili arren, bakarrik gordetzen baditugu  $h_{\mu\nu}$  eta  $\xi_\mu$ -rekiko gai linealak):

$$\frac{\partial x^{\mu'}}{\partial x^\rho} = \delta_\rho^\mu + \xi_{,\rho}^\mu, \quad (6.8)$$

$$\frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} = \delta_\mu^\rho - \xi_{,\mu}^\rho, \quad (6.9)$$

$$\begin{aligned} g_{\mu'\nu'} &= \frac{\partial x^\rho}{\partial x^{\mu'}} \frac{\partial x^\sigma}{\partial x^{\nu'}} g_{\rho\sigma} = (\delta_\mu^\rho - \xi_{,\mu}^\rho) (\delta_\nu^\sigma - \xi_{,\nu}^\sigma) (\eta_{\rho\sigma} + h_{\rho\sigma}) \\ &= \eta_{\mu\nu} + h_{\mu\nu} - \xi_{\mu,\nu} - \xi_{\nu,\mu}. \end{aligned} \quad (6.10)$$

(Ikus 6.1 problema.) 1.16 problemako gauge transformazioen antzekoak dira hauek:

$$h_{\mu'\nu'} = h_{\mu\nu} - \xi_{\mu,\nu} - \xi_{\nu,\mu}. \quad (6.11)$$

### 6.1.2 Geometria linealizatua

Hurbilketa honetako tentsoreetan aztarna alderantzizkatzeko  $\bar{h}_{\mu\nu}$  eragilea honela definitzen da, 2 heineko tentsore kobariante simetriko guztieta rako:

$$\bar{h}_{\mu\nu} \equiv h_{\mu\nu} - \frac{1}{2} \eta_{\mu\nu} h, \quad h \equiv h_\mu^\mu = \eta^{\mu\nu} h_{\mu\nu}. \quad (6.12)$$

Hurrengo propietateak erraz frogatzen dira (ikus 6.2 problema):

$$\bar{h} = -h, \quad (6.13)$$

$$h_{\mu\nu} = \bar{h}_{\mu\nu} = \bar{h}_{\mu\nu} - \frac{1}{2}\eta_{\mu\nu}\bar{h}, \quad (6.14)$$

$$\Gamma_{\mu\nu}^{\lambda} = \frac{1}{2}\eta^{\lambda\rho}(h_{\rho\mu,\nu} + h_{\rho\nu,\mu} - h_{\mu\nu,\rho}) = \frac{1}{2}(h_{\mu,\nu}^{\lambda} + h_{\nu,\mu}^{\lambda} - h_{\mu\nu}^{\lambda}), \quad h_{\mu\nu}^{\lambda} \equiv \eta^{\lambda\rho}h_{\mu\nu,\rho}, \quad (6.15)$$

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = \frac{1}{2}(h_{\mu\sigma,\nu\rho} + h_{\nu\rho,\mu\sigma} - h_{\nu\sigma,\mu\rho} - h_{\mu\rho,\nu\sigma}), \quad (6.16)$$

$$R_{\mu\nu} = \frac{1}{2}(h_{\mu,\nu\rho}^{\rho} + h_{\nu,\mu\rho}^{\rho} - h_{\mu\nu,\rho}^{\rho} - h_{,\mu\nu}^{\rho}), \quad (6.17)$$

$$R = h^{\rho\sigma}_{,\rho\sigma} - h_{,\rho}^{\rho}, \quad (6.18)$$

$$\begin{aligned} G_{\mu\nu} &= \bar{R}_{\mu\nu} = \frac{1}{2}[h_{\mu\rho,\nu}^{\rho} + h_{\nu\rho,\mu}^{\rho} - h_{\mu\nu,\rho}^{\rho} - h_{,\mu\nu} - \eta_{\mu\nu}(h_{\rho\sigma}^{\rho\sigma} - h_{,\rho}^{\rho})] \\ &= \frac{1}{2}(\bar{h}_{\mu\rho,\nu}^{\rho} + \bar{h}_{\nu\rho,\mu}^{\rho} - \bar{h}_{\mu\nu,\rho}^{\rho} - \eta_{\mu\nu}\bar{h}_{\rho\sigma}^{\rho\sigma}). \end{aligned} \quad (6.19)$$

### 6.1.3 Eremu gravitatorioaren ekuazio linealizatuak

(6.19) emaitzaren ondorioz, honela idazten da Einsteinen ekuazioen hurbilketa lineala:

$$-\bar{h}_{\mu\nu,\rho}^{\rho} - \eta_{\mu\nu}\bar{h}_{\rho\sigma}^{\rho\sigma} + \bar{h}_{\mu\rho,\nu}^{\rho} + \bar{h}_{\nu\rho,\mu}^{\rho} = 2\kappa T_{\mu\nu}. \quad (6.20)$$

Ekuazio hauetako lehen gaian Minkowskiren metrikako d'Alemberten eragilea aplikatzen zaio  $\bar{h}_{\mu\nu}$  eremuari:

$$\square^2 \bar{h}_{\mu\nu} \equiv \bar{h}_{\mu\nu,\rho}^{\rho}. \quad (6.21)$$

Ohiko uhin-ekuazioaren antza du (6.20) delakoak, baina beste gai batzuk agertzen dira. Antzeko gauza bat aurkitu genuen 1.16 probleman, eta bide beretik simplifikatuko dugu (6.20) emaitza. Izan ere, (6.7) transformazio infinitesimal batean

$$\begin{aligned} \bar{h}_{\mu'\nu'} &= h_{\mu'\nu'} - \frac{1}{2}\eta_{\mu\nu}h_{\rho'}^{\rho'} \\ &= h_{\mu\nu} - \xi_{\mu,\nu} - \xi_{\nu,\mu} - \frac{1}{2}\eta_{\mu\nu}(h - 2\xi_{\rho}^{\rho}) \\ &= \bar{h}_{\mu\nu} - \xi_{\mu,\nu} - \xi_{\nu,\mu} + \eta_{\mu\nu}\xi_{\rho}^{\rho} \end{aligned} \quad (6.22)$$

dugunez, hauxe lortzen da:

$$\bar{h}_{\mu'\nu'}^{\nu'} = \bar{h}_{\mu\nu}^{\nu} - \xi_{\mu,\nu}^{\nu} = \bar{h}_{\mu\nu}^{\nu} - \square^2 \xi_{\mu}. \quad (6.23)$$

Hortaz,

$$\square^2 \xi_{\mu} = \bar{h}_{\mu\nu}^{\nu} \quad (6.24)$$

ekuazioen edozein soluzio aukeratzen bada, koordenatu berriean (eta primak kenduta) ondoko baldintzak betetzen dira:

$$\bar{h}_{\mu\nu}^{\nu} = 0. \quad (6.25)$$

**Lorenzen gaugea**<sup>3</sup> definitzen duten baldintza hauek, koordenatu berriak harmonikoak direla adierazten dute (gogoratu 4.3.3 atala eta ikusi 6.6 problema). Honela geratzen zaizkigu, beraz,

<sup>3</sup>Einstein, de Donder, Hilbert eta Fock izenekin ere ezagutzean da gauge hau.

eremu grabitatorioaren ekuazio linealizatuak, Lorenzen gaugean:

$$\square^2 \bar{h}_{\mu\nu} = -2\kappa T_{\mu\nu}, \quad (6.26)$$

$$\bar{h}_{\mu\nu}{}^{\nu} = 0, \quad (6.27)$$

$$g_{\mu\nu} = \eta_{\mu\nu} + \bar{h}_{\mu\nu} - \frac{1}{2}\eta_{\mu\nu}\bar{h}. \quad (6.28)$$

Jakina, gauge honek ez ditu guztiz zehazten koordenatuak,  $x^{\mu'} = x^\mu + \xi^\mu$  transformazioan (6.27) baldintza ez baita aldatzen,  $\square^2 \xi^\mu = 0$  uhin-ekuazioaren edozein soluzio erabiltzen bada. (Gogoratu antzeko gauza bat gertatzen dela potentzial elektromagnetikoarekin, 1.16 probleman ikusi genuen bezala.)

## 6.2 Uhin grabitatorio lauak

Hutsean,  $T^{\mu\nu} = 0$  denez, hurbilketa linealaren ekuazioak honako hauek ditugu Lorenzen gaugean:

$$\square^2 \bar{h}_{\mu\nu} = 0, \quad (6.29)$$

$$\bar{h}_{\mu\nu}{}^{\nu} = 0. \quad (6.30)$$

Elektromagnetismoan aurkitzen diren ekuazioen berdintsuak direnez (gogoratu 1.16 problema), zuzenean idazten dira uhin lauak<sup>4</sup> adierazten dituzten soluzioak:

$$\bar{h}_{\mu\nu} = A_{\mu\nu} e^{ik_\rho x^\rho}, \quad (6.31)$$

$$k_\rho k^\rho = 0, \quad (6.32)$$

$$A_{\mu\nu} k^\nu = 0, \quad (6.33)$$

non  $A_{\mu\nu} = A_{\nu\mu}$  anplitude-tentsore simetrikoa eta  $k^\mu = (|\mathbf{k}|, \mathbf{k})$  uhin-bektore nulua konstanteak diren. (Ikus 6.5 problema.) Uhin elektromagnetikoen antzera idazteko,  $\omega \equiv |\mathbf{k}|c$  maiztasuna eta  $t = x^0/c$  erabiltzen baditugu,  $\bar{h}_{\mu\nu} = A_{\mu\nu} e^{i(\mathbf{k}\cdot\mathbf{x}-\omega t)}$  dugu. Jakina, (6.31) adierazpenaren parte erreala hartu behar dugu uhin fisikoa lortzeko. Bestalde, uhin-ekuazioa lineala denez, uhin lauen gainezarmen finitura edo infinitua (Fourierren serie edo integral bat) izango dira beste soluzio guztiak.

Uhin grabitatorioek proba-partikuletan duten eragina aztertzeko, aukera dezagun  $x$  ardatz positiboa uhinaren hedapen-norabidean, (6.31)–(6.33) soluzioa honela idazteko:

$$k^\mu = (k, k, 0, 0), \quad (6.34)$$

$$\bar{h}_{\mu\nu} = A_{\mu\nu} e^{ik(x-ct)}, \quad (6.35)$$

$$0 = A_{00} + A_{0x} = A_{x0} + A_{xx} = A_{y0} + A_{yx} = A_{z0} + A_{zx}. \quad (6.36)$$

Kontsidera ditzagun bi proba-partikula hurbil eta lehenengo partikula geldi dagoeneko erreferentzia-sistema inertzial lokala. Bien arteko  $\zeta^i$  posizio erlatiboaren eboluzioa, aipatutako erreferentzia-sisteman, geodesikoen (3.83) desbideratzeak emandakoa izango da:

$$\frac{d^2 \zeta_i}{d\tau^2} = c^2 R_{i00j} \zeta^j. \quad (6.37)$$

<sup>4</sup>Uhin-ekuazio baten soluzioak izateak ez du bermatzen erradiazioa dela, energia ez badarama gure koordenatuen aukeraren ondorio hutsa izan baitaiteke: ikus 6.17 problema.

6.13 probleman frogatuko dugunez, behar ditugun kurbadura-tentsorearen osagaiaiak hauexek dira:

$$R_{i00x} = R_{x00i} = 0, \quad (6.38)$$


$$R_{y00y} = -R_{z00z} = -\frac{1}{4}k^2 (A_{yy} - A_{zz}) e^{ik(x-ct)}, \quad (6.39)$$

$$R_{y00z} = R_{z00y} = -\frac{1}{2}k^2 A_{yz} e^{ik(x-ct)}, \quad (6.40)$$

Ondorioz,

$$\frac{d^2 \zeta_x}{d\tau^2} = 0 \quad (6.41)$$

dugu sistema inertzial lokalean. Azelerazio erlatiboak bakarrik ditu  $\zeta_y$  eta  $\zeta_z$  zeharkako osagaiaiak, eta nahikoa da  $yz$  plano bakoitzean gertatzen dena aztertzea: **uhina zeharkakoa da** (uhin elektromagnetiko lauak bezala).



**6.1 IRUDIA** Uhin lauen bi polarizazioek proba-partikuletan duten eragina, erdiko partikula geldi dagoeneko sistema inertzial lokalean<sup>6</sup>.

(6.39)–(6.40) emaitzetan ikusten dugunez, bi askatasun-gradu independente, hau da, bi **polarizazio lineal**, ditugu, ondoko bi konbinazioetan kodifikatuak:

$$A_+ \equiv \frac{1}{2} (A_{yy} - A_{zz}), \quad A_x \equiv A_{yz}. \quad (6.42)$$

Hauexek dira polarizazio linealak,  $\omega \equiv kc$  jarri ondoren,  $\tau$ -rekiko deribatua adierazteko puntuera erabiltzen badugu:


$$(+) : \quad \frac{\ddot{\zeta}_y}{\zeta_y} = -\frac{\ddot{\zeta}_z}{\zeta_z} = -\frac{\omega^2}{2} A_+ e^{i(kx-\omega t)}, \quad A_x = 0, \quad (6.43)$$

$$(\times) : \quad \frac{\ddot{\zeta}_y}{\zeta_y} = \frac{\ddot{\zeta}_z}{\zeta_z} = -\frac{\omega^2}{2} A_x e^{i(kx-\omega t)}, \quad A_+ = 0. \quad (6.44)$$

Uhin grabitatorioak oso ahulak dira. Iturri astrofisiko arruntetik espero ditzakegun desbideratzeak  $\delta\zeta/\zeta \sim 10^{-21}$  dira eta, adibidez, detektagailu batean  $\zeta \sim 1$  km bada,  $\delta\zeta \sim 10^{-18}$  m-ko

<sup>6</sup>Ikus [http://www.einstein-online.info/spotlights/gw\\_waves](http://www.einstein-online.info/spotlights/gw_waves) orrialdeko simulazioak.

aldaketak, proba-partikulen atomoak baino  $10^8$  aldiz txikiagoak dira! Hasieratik erabili diren barretan ez da ezer detektatu eta gauza bera gertatu da, orain arte behintzat, gaur egungo interferometroetan, nahiz eta LIGO-ren<sup>7</sup> besoen luzera  $\sim 4$  km izan (eta luzera eraginkorra askoz handiagoa, argiak joan-etorri batzuk egiten baititu interferometroko barrunbetan). Arrazoi bera-gatik, etorkizuneko eLISA/NGO<sup>8</sup> interferometroen besoak (hau da, sateliteetako ispiluen arteko distantzia) miloi bat kilometro luze izango dira!



6.2 IRUDIA LIGO detektagailuen interferometroen eskema.

6.2 irudian erakusten da LIGO detektagailuetako Fabri-Pérot-Michelson interferometroen eskema. Penduluen modura esekitako bi ispiluen artean metatzten dira laser batetik datozen fotoiak eta bi besoetatik ateratzen diren izpien arteko interferentzia neurten da. Uhin grabitatorioen era-ginez, ispiluen arteko distantzia (oso-oso gutxi) aldatzean interferentzia-eredua mugitu egingo da (ikus, adibidez, [141] eta [174]).

### 6.3 Uhin grabitatorioen igorpenea

Orain arte bakarrik dugu uhin grabitatorioen existentziaren zeharkako egiaztapen esperimentala: 1974an aurkitutako PSR B1913+16 pulsarraren eboluzioan, energiaren galera bateragarrria da erlatibilitate orokorrak aurresandako uhin grabitatorioen bidezko energiarekin [74, 197, 183]: sistema bikoitzaren 7.75 h-ko periodoaren aldaketa  $76.0 \pm 0.3 \mu\text{s}$  da, urte batean, eta erlatibilitateak aurresandakoa  $75.8 \mu\text{s}$ . Russell Hulse eta Joseph Taylor astrofisikariek eskuratu zuten 1993ko Fisikako Nobel Saria, *for the discovery of a new type of pulsar; a discovery that has opened up new possibilities for the study of gravitation*. Izan ere, fenomeno astrofisikoak aztertzeko oso erabilgarria izango litzateke uhin grabitatorioen detekzioa, teleskopio optikoak, irratia-teleskopioak eta uhin elektromagnetikoak detektatzen dituzten bestelako tresnak erabiliz lortutako informazioa osatzeko.

Testu honen mailatik gora dago uhin grabitatorioak nola sortzen diren aztertzea<sup>9</sup>. Hemen bakarrik aipatuko dugu 1918an Einsteinek aurkitu zuen **kuadrupoloaren formula**<sup>10</sup>. Iturria V eremu bornatuan badago eta hor abiadurak ez badira erlatibistak, uhin grabitatorioen bidez denbora

<sup>7</sup>Laser Interferometer Gravitational-Wave Observatory: <http://www.ligo.caltech.edu/>.

<sup>8</sup> evolved Laser Interferometer Space Antenna/New Gravitational Wave Observatory:  
<http://elisa-ngo.org/>.

<sup>9</sup>Ikus, adibidez, [10], 18. gaia; [4], 290. or.; [14], 36. gaia; [25], 260. or.

<sup>10</sup>Ikus, adibidez, [12], 110. atala; [14], 36. gaia; [25], 267. or.; [194]; [166].

unitatean galduztako energia hauxe da:

$$-\dot{\mathcal{E}} = \frac{G}{45c^5} \left\langle \ddot{D}_{ij} \ddot{D}^{ij} \right\rangle, \quad (6.45)$$

non puntu erabili den denborarekiko deribatua adierazteko eta **kuadrupolo-momentua** honela definitzen den (masa-zentroaren sisteman):

$$D_{ij} = D^{ij} \equiv \int_V \rho (3x_i x_j - \delta_{ij} |\mathbf{x}|^2) dV. \quad (6.46)$$

Gainera, (6.45) formulan, batez besteko kalkulatu behar da fenomenoaren periodo karakteristiko batzuetan barrena.

### 6.3.1 Sistema bikoitzen eboluzioa

Eman dezagun lehen hurbilketan sistema bikoitz batean izarren orbitak zirkularrak direla,  $T = 2\pi/\omega$  periodokoak. Izarren arteko distantzia  $r$  bada, triedoaren orientazioa eta denboraren jatorria era egokian aukeratuz, honela idatz daiteke posizio erlatiboaren eboluzioa:

$$\mathbf{x} = r (\cos \omega t \mathbf{i} + \sin \omega t \mathbf{j}). \quad (6.47)$$

Izarren masak  $m_+$  eta  $m_-$  badira, hauexek dira masa-zentrotik neurtutako posizioak [214]:

$$\mathbf{x}_\pm = \pm \frac{m_\mp}{m_+ + m_-} \mathbf{x}. \quad (6.48)$$

Hemendik zuzenean kalkulatzen dira kuadrupoloaren osagaiak,

$$D_{ij} = \frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} (3x_i x_j - \delta_{ij} |\mathbf{x}|^2), \quad (6.49)$$

$$D_{xx} = \frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} r^2 (3 \cos^2 \omega t - 1), \quad (6.50)$$

$$D_{yy} = \frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} r^2 (3 \sin^2 \omega t - 1), \quad (6.51)$$

$$D_{zz} = -\frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} r^2, \quad (6.52)$$

$$D_{xy} = D_{yx} = 3 \frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} r^2 \sin \omega t \cos \omega t, \quad (6.53)$$

eta energiaren galera (ikus 6.20 problema):

$$-\dot{\mathcal{E}} = \frac{32G}{5c^5} \left( \frac{m_+ m_-}{m_+ + m_-} \right)^2 r^4 \omega^6. \quad (6.54)$$

Honen ondorioz, izarren arteko distantzia eta sistemaren periodoa txikituz doaz (ikus 6.21 problema):

$$\dot{r} = -\frac{64G^3 m_+ m_- (m_+ + m_-)}{5c^5 r^3}, \quad (6.55)$$

$$\dot{T} = -\frac{192G^{5/2} m_+ m_- (m_+ + m_-)^{1/2}}{5c^5 r^{5/2}}. \quad (6.56)$$

Efektu hauek oso txikiak dira (gogoratu goian PSR B1913+16 pulsarrari buruz esandakoa), baina handituz doaz  $r$  txikitzean, hau da, izarrak elkarren gainean erortzen direnean.

### 6.3.2 Iturri leherkorra

Masa handiak denbora-tarte laburretan birbanatzean (hala nola, supernobetan eta galaxien nukleo aktiboetan) ere sortuko dira uhin grabitatorioak.

Azken hauen energia balioztatzeko, eman dezagun fenomenoaren masa, diametro eta denbora karakteristikoak  $M$ ,  $R$  eta  $T$  direla. Orduan, kuadrupolo-momentua  $D \sim \eta MR^2$  izango da, masa-banaketaren geometriaren menpekoa den dimentsio gabeko  $\eta$  koefiziente egokiarekin<sup>11</sup>. Kuadrupoloaren deribatua  $\ddot{D} \sim \eta MR^2 T^{-3}$  izango da eta igorritako potentzia

$$-\dot{\mathcal{E}} \sim \frac{G\eta^2 M^2 R^4}{45c^5 T^6}. \quad (6.57)$$

Adibidez, supernoba baten kasuan  $M = 10M_\odot$ ,  $R = 10R_\odot$ ,  $T = 10^4$  s eta  $\eta = 0.1$  badira,  $-\dot{\mathcal{E}} \sim 5.66 \times 10^{28}$  erg/s dugu, Eguzkiak igortzen duen  $3.84 \times 10^{33}$  erg/s baino askoz txikiagoa da (eta iturria askoz urrunago dago). Ez da harritzeko uhin grabitatorioen detekzioa hain zaila izatea!

## 6.4 Gehiago ikasteko

- Uhin grabitatorioen hastapenak: [90].
- Uhin grabitatorioak teoria newtondarrean: [177].
- Uhinen energia: [14], 955. gaia; [25], 259. or.
- Uhinen iturriak: [4], 290. or.; [8], 23. gaia; [10], 18. gaia; [14], 36. gaia; [16], 9.6 atala; [25], 260. or.
- Kolapso grabitatorioak sortutako uhin grabitatorioak: [92] (aurreratua).
- Kuadrupoloaren formula: [8], 23.6 atala; [12], 104. atala; [14], 36. gaia; [16], 9.6.1 atala; [25], 267. or.; [166]; [194].
- Uhinen detekzioa: [4], 285. or.; [14], 37. gaia; [15], 170. or.; [25], 276. or.; [61].
  - Iturriak, detektagailuak eta gaurko egoera: [171].
  - Detektagailuen historia: [169].
  - Barra-detektagailuak: [36].
  - Laser-interferometroak: [32]; [141]; [161]; [174].
  - Eraikitzen ari den *Advanced LIGO* interferometroa: [108], [193].
  - Hirugarren belaunaldiko detektagailuak: [168].
  - PSR B1913+16 pulsarraren eboluzioa, erlatibilitate orokorra eta uhin grabitatorioak: [8], 23.7 atala; [16], 9.7 atala; [183]; [197] (aurreratua).
  - Uhin grabitatorioen astronomia eta astrofisika: [61]; [78].
- Fisika, astrofisika eta kosmologia uhin grabitatorioen bidez: [173] (aurreratua).

<sup>11</sup>Adibidez, masa-banaketa esferiko baten kasuan  $\eta = 0$  da eta ez da uhinik sortuko, 92. orrialdean ere ikusi genuen bezala.

## 6.5 Problemak

**6.1** Egiaztatu (6.9) transformazio-legea.

**6.2** Frogatu (6.13)–(6.19) propietateak.

**6.3** Nola transformatzen da  $\bar{h}_{\mu\nu}$  tentsorea (6.11) transformazio batean?

**6.4 TT gaugea**<sup>12</sup>. Froga ezazu beti aukera daitekeela Lorenzen gaugea, (6.31)–(6.33) uhina zeharkakoa eta aztarnarik gabekoa izateko moduan:

$$\bar{h}_{\mu 0} = 0, \quad \bar{h}_\rho^\rho = 0.$$

**6.5** Egiaztatu (6.31)–(6.33) adierazpenek emandako metrika, (6.29)–(6.30) ekuazioen soluzioa dela.

**6.6 Koordenatu harmonikoak eta Lorenzen gaugea.** Frogatu eremu grabitatorioaren teoria linealizatuan (4.30) eta (6.25) baldintzak baliokideak direla.

**6.7 Metrika quasi-newtondarra.** Grabitazio newtondarrean  $\rho(\mathbf{x})$  masa-banaketa estatiko bornatuak sortutako potentzial grabitatorioa ondoko problemaren soluzioa da:

$$\nabla^2 \Phi = 4\pi G \rho, \quad \Phi(\mathbf{x}) \xrightarrow[|\mathbf{x}| \rightarrow \infty]{} 0.$$

Kalkulatu masa-banaketa horri dagokion (6.26)–(6.28) ekuazio linealizatuen soluzioa.

**6.8** Zein da 6.7 problemako metrika masa-banaketa esferiko estatiko batetik kanpo?

**6.9** Azter dezagun honako metrika hau:

$$ds^2 = - \left( 1 - \frac{2GM}{c^2 r} \right) c^2 dt^2 + \left( 1 + \frac{2GM}{c^2 r} \right) dr^2 + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2).$$

Kalkulatu Ricciren tentsorea eta ondorioztatu hutsaren eremu grabitatorioaren ekuazioen soluzio *hurbildua* dela. (6.29)–(6.30) ekuazioen soluzioa al da? Zein da metrikaren esanahia?

**6.10** Egiaztatu 6.8 eta 6.9 problemetako metrika linealizatuak baliokideak direla. Aurkitu bien arteko gauge transformazioa eta azaldu zergatik haietako batek bakarrik betetzen dituen (6.29)–(6.30) ekuazioak.

**6.11 Marea-indarrak.** Kalkulatu marea-indarrak 6.9 problemako metrikan eta (masa esferiko estatiko baten kasuan) 3.21 problemako hurbilketa newtondarrean. Erkatu horrela lortutako emaitzak (5.84)–(5.85) adierazpenekoekin.

**6.12** Transformatu behar dira (6.38)–(6.40) osagaiak sistema inertzial lokalera, 5.5.3 atalean egin genuen bezala?

**6.13** Kalkulatu (6.35)–(6.36) metrikaren kurbadura-tentsorea.

<sup>12</sup>Hau da, *transverse traceless gauge* ingelessez.

**6.14 Uhin grabitatorio lau zehatza.** Azter dezagun  $(u, v) = (ct - x, ct + x)$  **argi-koordenatuatan** idatzitako **Rosenen metrika**:

$$ds^2 = -du\,dv + f^2(u)\,dy^2 + g^2(u)\,dz^2.$$

Frogatu hutsaren Einsteinen ekuazioak betetzen direla, edozein  $h(u)$  funtzioa aukeratu ondoren, ondoko baldintzak betetzen badira:

$$\frac{f''(u)}{f(u)} = -\frac{g''(u)}{g(u)} = h(u).$$

Egiaztatu uhin lau zehatza dela (**pp uhinen** kasu partikularra da).

Erabili  $(U, V, Y, Z) \equiv (u, v + y^2 ff' + z^2 gg', fy, gz)$  transformazioa, metrika **Brinkmann-en forman** jartzeko,  $h$ -ren funtzioan:

$$ds^2 = -dU\,dV + h(U)(Y^2 - Z^2)\,dU^2 + dY^2 + dZ^2.$$

**6.15** Egiaztatu **6.14** problemako uhin zehatza polarizatuta dagoela.

**6.16** Harmonikoak al dira **6.14** problemako  $(u, v, y, z)$  koordenatuak? Eta  $(U, V, Y, Z)$ ?

**6.17** Azter dezagun honako metrika hau:

$$ds^2 = -[1 - f(x - ct)]c^2\,dt^2 - 2f(x - ct)c\,dt\,dx + [1 + f(x - ct)]\,dx^2 + dy^2 + dz^2.$$

- (a) Hasteo eman dezagun  $|f(x - ct)| \ll 1$  dela. Egiaztatu (6.29)–(6.30) ekuazioen soluzioa dela, baina ez benetako uhin bat, kurbadura-tentsorea nulua baita. Aurkitu Minkowskiren ohiko adierazpena berreskuratzeko egin behar den aldagai-aldaleta infinitesimala.
- (b) Egiaztatu hutsaren Einsteinen ekuazioen soluzio zehatza (hau da,  $|f(x - ct)| \ll 1$  hipotesia egin gabe) dela; baina, berriro, kurbadura-tentsorea nulua. Zein da Minkowskiren ohiko adierazpena berreskuratzeko aldagai-aldaleta?
- (c) Frogatu  $f(x - ct) = Ae^{ik(x-ct)}$  bada eta  $|A| \ll 1$ , (6.34)–(6.36) egiturako soluzio bat berreskuratzen dela. Zer gertatzen da proba-partikulen hidutura-ekuazioetan?

**6.18** Egiaztatu ondoko metrika-perturbazioak hutsaren ekuazio linealizatuak betetzen dituela:

$$h_{\mu\nu} = \begin{pmatrix} -f(x - ct) & 0 & 0 & 0 \\ 0 & f(x - ct) & 0 & 0 \\ 0 & 0 & g(x - ct) & 0 \\ 0 & 0 & 0 & -g(x - ct) \end{pmatrix}, \quad (|f(x - ct)|, |g(x - ct)| \ll 1).$$

Nolako baldintza bete behar da benetako uhina izateko? Aurkitu  $f = 0$  egiten duen transformazio infinitesimal bat. Nola geratzen dira orduan metrikaren beste gaiak? Iruzkina egin emaitzari.

**6.19** Kontsidera dezagun  $h_{\mu\nu} = A_{\mu\nu}e^{ik_\rho x^\rho}$  egiturako uhin lau bat. Frogatu kurbadura-tentsorea hauxe dela:

$$R_{\mu\nu\rho\sigma} = -\frac{1}{2}(k_\nu k_\rho h_{\mu\sigma} + k_\mu k_\sigma h_{\nu\rho} - k_\mu k_\rho h_{\nu\sigma} - k_\nu k_\sigma h_{\mu\rho}).$$

Egiaztatu eremu grabitatorioaren ekuazio linealizatuek hauxe eskatzen dutela:

$$k^2 h_{\mu\nu} = k_\mu w_\nu + k_\nu w_\mu, \quad (w_\mu \equiv \bar{h}_{\mu\nu} k^\nu).$$

Frogatu

- $k_\rho k^\rho \neq 0$  denean,  $R_{\mu\nu\rho\sigma} = 0$  dela (zer esan nahi du honek?),
- $k_\rho k^\rho = 0$  denean, kurbadura-tentsorearen bektore propio nulua dela:  $R_{\mu\nu\rho\sigma} k^\sigma = 0$ .

**6.20** Egiaztatu (6.50)–(6.54) emaitzak.

**6.21** Egiaztatu (6.55)–(6.56) emaitzak.

*Iradokizuna:* Idatzi energia mekanikoa  $r$  distantziaren funtzioan eta erabili higidura erlatiboaren ekuazioa (edo Keplerren hirugarren legea) [214].



## **II. ZATIA**

### **Kosmologiarako sarrera**



Bigarren zatian kosmologia erlatibistaren hastapenak ikusiko ditugu. Datu astrofisikoetan oinarriturik, unibertsoaren eredu matematiko errazen familia bat eraikiko dugu eta, geroago, Einsteinen ekuazioak erabiliko ditugu haien eboluzioa aztertzeko, zenbait hipotesiz baliatuz. Amaitzeko, gaur egungo kosmologiaren aztergaietako batzuk aipatuko ditugu.

*It is also a good rule not to put overmuch confidence  
in the observational results that are put forward  
until they are confirmed by theory.  
Arthur Stanley Eddington*



## 7. GAIA

### FLRW metrika

Kosmologia erlatibista aztertzen hasiko gara gai honetan. Bestelako ereduak badaude ere, hemen ikusiko duguna errazena da eta, hala ere, unibertsoaren egitura eta eboluzioa, eskala handian, deskribatzeko egokiena, dauzkagun datu astrofisikoen arabera: **eredu kosmologiko estandarraren** metrika da.

#### 7.1 Printzipo kosmologikoa

Unibertsoan eskala askotako egiturak daude: izarrak, galaxiak, galaxia-taldeak eta abar. Beraz, oso ez-homogeneoa da: gauzak oso desberdinak dira izar baten azalean eta galaxien arteko espazioa hotsean. Hala ere, datu astronomikoen arabera, unibertso ikusgaia isotropoa da *eskala handian*: norabide guztietai ikusten da galaxien dentsitate berdintsua,  $10^8\text{--}10^9$  argi-urteko diametroko zeluletan dauden galaxia askoren batez bestekoa egiten denean<sup>1</sup>. Baino hobeto ikusten da isotropia hori unibertsoa betetzen duen erradiazio elektromagnetikoan.

##### 7.1.1 Mikrouhin-hondo kosmikoa

George Gamow, Ralph Alpher eta Robert Herman fisikariek aurresan zuten, 1948an, unibertsaren hasierako **Eztanda Handi** beroaren ondorioz, erradiazio elektromagnetiko termiko batez beteta egon behar zuela unibertso osoak (ikus 9.1 atala). Erradiazioa 1964an aurkitu zuten<sup>2</sup>, ezustean, Arno Penzias eta Robert Wilson irratiastronomoek eta 1978ko Nobel saria lortu zuten, *for their discovery of cosmic microwave background radiation*

Handik hona, COBE<sup>3</sup> eta WMAP<sup>4</sup> (eta, orain, ESA-ren Planck<sup>5</sup>) sateliteen bidez neurtu da doitasun handiz hondoko erradiazio hau.  $2.725 \pm 0.001$  K temperaturan dagoen gorputz beltzaren espektroa<sup>6</sup> du (maximoaren uhin-luzera 1.9 mm da). WMAP satelitearen bidez egindako anisotropien banaketa (gure galaxiaren ekarprena kenduta) ikusten da 7.1 irudian: koloreen bidez adierazitako temperaturen diferentziak  $\pm 200 \mu\text{K}$  tartean daude. Oso isotropoa da, beraz (eta

<sup>1</sup>Ikus, adibidez, [8] liburuko 17. gaia.


<sup>2</sup>Elkarrekin agertu ziren, 1965ean, Penzias eta Wilsonen artikulua eta R. H. Dicke, P. J. E. Peebles, P. G. Roll eta D. T. Wilkinson ikerlariena, detektatua aipatutako erradiazio-hondoa zela azaltzen zuena. Ikus, adibidez, [15] liburuko 294. or.

<sup>3</sup>Cosmic Background Explorer: <http://lambda.gsfc.nasa.gov/product/cobe/>.

<sup>4</sup>Wilkinson Microwave Anisotropy Probe: <http://lambda.gsfc.nasa.gov/product/map/current/>.

<sup>5</sup>[http://www.esa.int/esaSC/120398\\_index\\_0\\_m.html](http://www.esa.int/esaSC/120398_index_0_m.html).

<sup>6</sup>2006ko Nobel saria lortu zuten Matherrek eta Smootek *for their discovery of the blackbody form and anisotropy of the cosmic microwave background radiation*.



7.1 IRUDIA WMAP sateliteak egindako mikrouhin-hondo kosmikoaren mapa.

anisotropia txikiak beharrezkoak dira unibertsoko eskala handiko egiturak nola sortu ziren uler-tzeko).

Bestaldetik, Kopernikok Lurra eguzki-sistemako zentrotik atera zuen bezala, XX. mendean jakin genuen Eguzkia Esne Bideko  $\sim 10^{11}$  izarretako bat besterik ez dela eta gure galaxia unibertso ikusgaiko  $\sim 10^{11}$  galaxietako bat<sup>7</sup>. Ez dago inolako arrazoirik gure ikuspuntua pribilegiatua dela pentsatzeko; beraz, eskala handian, unibertsoa puntu guztien inguruau isotropoa da eta, ondorioz, homogeneoa ere izango da, halabeharrez<sup>8</sup>. Horixe dugu printzipio kosmologikoa, ebidentzia esperimental sendoa izan baino lehenago ere kosmologiaren abiapuntutzat erabili zena.

#### Printzipio kosmologikoa

*Une bakoitzean unibertoaren propietateak berdinak dira puntu eta norabide guztiak, irregulartasun lokalak ahaztuta.*

Ohar zaitez ez dugula eskatzen (garai batean egin zen bezala) gauzak ez aldatzeko denborarekin, badakigulako Hubblek aurkitutako unibertoaren hedapenaren ondorioz, galaxien arteko distanziak handituz (eta mikrouhin-hondo kosmikoaren tenperatura txikituz) doala<sup>9</sup>.

### 7.1.2 Weylen postulatua

Baina, printzipio kosmologikoan «une» bat aipatzen dugunean, zer esan nahi dugu? Badakigu erlatibilitatean aldibereketasuna erlatiboa dela. Erlatibilitate berezian behatzale inertzial bakoitzak definitzen du berak neurtutako  $t_0$  une bakoitzean aldiberekoak diren gertaerak: hiru dimensio-ko espazio motako  $t = t_0$  (hiper)planoan daudenak, hain zuzen. Plano horiek behatzalearen denbora motako uniberto-lerroarekiko ortogonalak dira (Minkowskiren metrikan). Erlatibilitate orokorrean planoaren ordez gainazal kurbatuak espero ditzakegu eta erlatibilitate berezia bakarrik beteko da lokalki.


Weylek 1923an egindako postulatuaren arabera, hipotesi hauek egingo ditugu:

- Espazio motako gainazaletan banatzen da espazio-denbora. Bakoitzak definitzen du  $t$  aldiune kosmiko bat. **Denbora kosmiko** hori neurtzeko unibertoaren beraren eboluzioa erabil daiteke: mikrouhin-hondo kosmikoaren tenperaturaz baliatuz, adibidez.

<sup>7</sup>Hubblek frogatu zuen, 1922–1923 urteetan, Esne Bidetik kanpo beste galaxia batzuk daudela.

<sup>8</sup>Ikus [136] artikuluan oinarrizko hipotesi hauen eztabaidea.

<sup>9</sup>Badirudi Lemaîtrek, lerrakuntza kosmologikoaren azalpen teorikoa aurkitzeaz gain, datu esperimentalak erabili zituela 1927an, bi urte beranduago Hubblek aurkeztuko zuen legea lehenago argitaratzeko [49, 51, 63, 155, 134, 179]. **Stigler-en eponimiaren legearen** adibide bat da hau: *No scientific discovery is named after its original discoverer*. Stiglerrek berak azaldu zuenez, lege honi ere aplikatzen zaio enuntziatua, Robert K. Merton-ek lehenago aurkeztu baitzuen.



## 7.2 IRUDIA Oinarrizko behatzaleak eta denbora kosmikoa.

- Badaude **oinarrizko behatzaleen** multzo (idealizatu) pribilegiatu bat. Behatzale hauen denbora motako unibertsso-lerroak geodesikoak dira eta ez dute elkar ebakitzetan (iraganeko edo etorkizuneko singularitateetan izan ezik): **kongruentzia** bat definitzen dute, fluido baten korronte-lerroen antzera. Gertaera bakoitzean, espazio motako plano ortogonal sin-krono *lokal* bat (7.2 irudiko  $L$  izenekoa, adibidez) definitzen dute eta zati horiek uztartuz osatzen dira  $t$  konstanteko gainazalak. Ondorioz,  $t$  da behatzale hauen denbora propioa.

Oinarrizko behatzale baten unibertsso-lerroa izendatzeko hiru koordenatu espazial erabiliko dira,  $x^i$ , eta,  $t$  balioarekin batera, gainazaletako gertaeren koordenatuak izango dira. Konstanteak dira  $x^i$  koordenatuak oinarrizko behatzale bakoitzaren unibertsso-lerroan barrena: **koordenatu kohigikorrak** direla esaten da. Galaxiak abiadura ez-erlatibistekin higitzen dira fluido kosmiko horren «partikulen» inguruan, alboko galaxien eraginaren ondorioz. (Edo, nahiago bada, galaxien higiduren batez bestekoa eginez definitzen da fluido kosmikoarena.) Oinarrizko behatzale hauen neurketen arabera, mikrouhin-hondo kosmikoa isotropoa da (doitasun handiz). (Doppler efektua dela eta, bestelako behatzaleek anisotropia bat neurtuko dute.)

Ikus dezagun nola idazten den metrika  $(t, x^i)$  koordenatuetan<sup>10</sup>.

- Gainazalekiko tangenteak diren bektore guztiak  $v^\mu = (0, v^i)$  egiturakoak dira eta behatzaleen abiadura  $u^\mu = (1, 0)$ ; hortaz, behatzaleen eta gainazalen arteko ortogonaltasun-bal-dintza

$$0 = g_{\mu\nu} u^\mu v^\nu = g_{0i} v^i \quad (7.1)$$

da eta  $g_{0i} = 0$  jarri behar dugu metrikan.

- Emaitzia hau eta oinarrizko behatzaleen denbora propioa  $t$  dela kontuan hartuta, unibertsso-lerroan  $dx^i = 0$  egitean  $-c^2 d\tau^2 = ds^2 = g_{00} dt^2$  dugu:  $g_{00} = -c^2$  aukeratu behar da.

Beraz, honela idazten da unibertssoaren metrika  $(t, x^i)$  koordenatu kohigikorretan:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + g_{ij} dx^i dx^j. \quad (7.2)$$

<sup>10</sup>Eta ez  $(ct, x^i)$ : beraz,  $x^0 = t$  da kosmologiari buruzko bigarren zati honetan.


Esan bezala, oinarrizko behatzileen  $x^\mu(\tau) = x^\mu(t)$  unibertso-lerroak geodesikoak dira:

$$\frac{d^2x^\mu}{d\tau^2} + \Gamma_{\rho\sigma}^\mu \frac{dx^\rho}{d\tau} \frac{dx^\sigma}{d\tau} = \frac{du^\mu}{dt} + \Gamma_{00}^\mu = \Gamma_{00}^\mu = \frac{1}{2}g^{\mu\nu}(2g_{\nu 0,0} - g_{00,\nu}) = 0. \quad (7.3)$$

## 7.2 FLRW metrika

Oraindik ez ditugu erabili homogeneotasunaren eta isotropiaren hipotesiak. Konsidera dezagun oinarrizko hiru behatzileren posizioek  $t$  une kosmologiko batean definitutako triangelua. Homogeneotasuna eta isotropia gordetzeko, beste une batean definitzen duten triangeluak aurrekoaren antzekoa izan behar du: bien arteko differentzia bakarra  $t$  denboraren menpeko eskala-faktore bat izan daiteke. Hau kontuan hartuta, gainazalen metrika  $g_{ij}(t, \mathbf{x}) = S^2(t)h_{ij}(\mathbf{x})$  moduan idatz daiteke. Isotropia eta homogeneotasuna kontuan hartzeko,  $t$  konstanteko gainazal bakoitza espazio euklidearra edo (hiru dimentsioko) gainazal esferiko bat dela onartuko dugu *oraingo*<sup>11</sup>; baina, kontuz, orain ez dago lau dimentsioko espazio euklidear batean murgilduta. Horrelako espazio bat, homogeneoa eta isotropoa da eta, beraz, ez du zentrorik, ohiko gainazal esferikoaren kasuan gertatzen den bezala (ahaztu barruko eta kanpoko espazioa: azalean ez dago puntu pribilegiaturik). Hipotesi hauekin, 3.29 problemako emaitzetan  $K = 1/a^2$  kurbadura erabiltzen bada, honela geratzen da unibertsoaren metrika:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + S^2(t) \left[ \frac{dr^2}{1 - Kr^2} + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2) \right]. \quad (7.4)$$



### 7.3 IRUDIA Geometria koordenatu kohigikorretan.

Egia esan, ez dugu eskatuko  $K > 0$  izateko, negatiboa eta zero denean ere isotropia baitugu, angeluekiko menpekotasunaren ondorioz. Beraz, defini ditzagun kurbaduraren zeinua,

$$k \equiv \begin{cases} 0, & K = 0 \text{ denean}; \\ K/|K|, & K \neq 0 \text{ denean}, \end{cases} \quad (7.5)$$

<sup>11</sup>Hipotesi hau hobeto funtsatzeko, ikus, adibidez, [4] testuko 317. or. eta [10] liburuko 350. or.

eskala-faktorea positiboa<sup>12</sup>,

$$a(t) \equiv \begin{cases} S(t), & K = 0 \text{ denean;} \\ S(t)/\sqrt{|K|}, & K \neq 0 \text{ denean,} \end{cases} \quad (7.6)$$

eta koordenatu erradial berri bat:

$$r' \equiv \begin{cases} r, & K = 0 \text{ denean;} \\ \sqrt{|K|} r, & K \neq 0 \text{ denean.} \end{cases} \quad (7.7)$$

Notazio honetan,  $r'$ -ren ordez berriro jartzen badugu  $r$ , hauxe dugu (7.4) metrika, **FLRW metrika**<sup>13</sup> deitzen dena:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + a^2(t) \left[ \frac{dr^2}{1 - kr^2} + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2) \right], \quad (k = 1, 0, -1). \quad (7.8)$$

Koordenatu hauek kohigikorrik direnez, hididura lokalak ahaztuta, galaxiak  $(r, \theta, \varphi)$  koordenatu konstanteetako unibertso-lerroetan barrena higitzen dira, haien arteko distantzia  $a(t)$ -ren arabera aldatuz doan heinean.

### 7.2.1 Kurbadura konstanteko sekzio espazialen geometria

Azter dezagun sekzio espazialen

$$d\sigma^2 \equiv ds^2|_{dt=0} = a^2(t) \left[ \frac{dr^2}{1 - kr^2} + r^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2) \right] \quad (7.9)$$

metrika,  $t$  balio konstante batean. 7.2 probleman (eta hurrengo ataletan) frogatuko dugun bezala,  $k/a^2$  kurbadura konstanteko espazioak dira.

#### Kurbadura espazial nulu

Kurbadura nulu denean ( $k = 0$ ), ohiko espazio euklidearra (homogeneoa eta isotropoa dena) dugu une kosmiko bakoitzean, zeren

$$x = a(t)r \sin \theta \cos \varphi, \quad y = a(t)r \sin \theta \sin \varphi, \quad z = a(t)r \cos \theta \quad (7.10)$$

aldagai-aldaleta eginez  $d\sigma^2 = dx^2 + dy^2 + dz^2$  berreskuratzen baita. Sekzio espazialak lauak izan arren, espazio-denbora bera kurbatua da, energia-momentuaren eta Einsteinen tentsoreak (eta ondorioz Riemannena) ez baitira nuluak (ikus 7.4 problema).

<sup>12</sup>R ere erabiltzen da askotan eskala-faktorea adierazteko.

<sup>13</sup>Historia luzea du (7.8) metrikak: astiro-astiro finkatu eta aztertu zen. Gutxienez, ondoko ikerlarien lanak aipatu behar dira: Friedmann (1922, 1931), Lemaître (1927, 1931), Robertson (1929, 1935, 1936), Eddington (1930) eta Walker (1926, 1944): ikus [107]. FRW izena ere erabiltzen da askotan.

### Kurbadura espazial positiboa

Kurbaduraren zeinua  $k = 1$  denean, metrika singularra da  $r \rightarrow 1$  limitean. Beraz,  $0 \leq r \leq 1$  tartean  $r = \sin \chi$  aldagai-aldaera egiten badugu,

$$d\sigma^2 = a^2 [\chi^2 + \sin^2 \chi (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2)], \quad (0 \leq \chi \leq \pi) \quad (7.11)$$

lortzen da eta

$$x = a \sin \chi \sin \theta \cos \varphi, \quad (7.12)$$

$$y = a \sin \chi \sin \theta \sin \varphi, \quad (7.13)$$

$$z = a \sin \chi \cos \theta, \quad (7.14)$$


$$w = a \cos \chi \quad (7.15)$$

transformazioaz baliatuz,

$$x^2 + y^2 + z^2 + w^2 = a^2, \quad (7.16)$$

$$d\sigma^2 = dx^2 + dy^2 + dz^2 + dw^2 \Big|_{x^2+y^2+z^2+w^2=a^2}. \quad (7.17)$$

Hortaz, lau dimentsioko espazio euklidear (abstraktu) bateko hiru dimentsioko gainazal esferiko baten moduan uler dezakegu sekzio espaziala (baina, gogoratu, hemen, 3.29 probleman ez bezala, bakarrik dugu lau dimentsioko espazio-denbora).



**7.4 IRUDIA** Sekzio espazial esferikoa, espazio euklidear bateko  $\theta = \pi/2$ ,  $z = 0$  hiperplanoan.

7.4 irudian marraztu da, espazio abstraktu horretako  $\theta = \pi/2$ ,  $z = 0$  hiperplanoan, sekzio espazialaren bi dimentsioko proiekzioa. Sekzioa  $0 \leq \chi \leq \pi$ ,  $0 \leq \theta \leq \pi$  eta  $0 \leq \varphi < 2\pi$  tartean definituta dagoenez<sup>14</sup>, (7.11) egituraren ondorioz, hiru dimentsioko gainazal esferikoaren volumena

$$V = \int_0^\pi \int_0^\pi \int_0^{2\pi} a^3 \sin^2 \chi d\chi d\theta d\varphi = 2\pi^2 a^3 \quad (7.18)$$

da (ikus 3.33 eta 7.6 problemak) eta, horrexegatik, batzuetan **unibertsoaren erradioa** esaten zaio  $a$  eskala-faktoreari. Volumen hau finitua denez, espazioa **itxia** (edo bornatua, edo trinkoa) dela

<sup>14</sup>Hemen Einsteinen ekuazio lokalek bermatzen ez duten hipotesi topologiko global bat egiten ari gara, isotropiaz baliatuz: gogoratu 3.9.1 atalean ikusitakoa.

esaten da. Azpimarra dezagun berriro, hiru dimentsioko gainazal esferiko hau espazio osoa dela (une kosmiko bakoitzean): ez dago besterik eta ez du ez mugarik ez zentrorik, ohiko gainazal esferikoekin gertatzen den bezala (azken hauek berez, eta ez espazio euklidearraren azpimultzotzat, konsideratzen direnean). Bestalde,  $\chi$  konstanteko «paraleloak» bi dimentsioko gainazal esferikoak dira ( $a \sin \chi$  erradiokoak eta  $4\pi a^2 \sin^2 \chi$  azalerakoak) eta han ohiko kolatitudea eta longitudea dira  $\theta$  eta  $\varphi$  angeluak.

### Kurbadura espazial negatiboa

Kurbaduraren zeinua  $k = -1$  denean,  $r = \sinh \chi$  aldagai-aldaketa egiten badugu,

$$d\sigma^2 = a^2 [\chi^2 + \sinh^2 \chi (\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2)] \quad (7.19)$$

lortzen da eta

$$x = a \sinh \chi \sin \theta \cos \varphi, \quad (7.20)$$

$$y = a \sinh \chi \sin \theta \sin \varphi, \quad (7.21)$$

$$z = a \sinh \chi \cos \theta, \quad (7.22)$$


$$w = a \cosh \chi \quad (7.23)$$

transformazioaz baliatuz,

$$w^2 - x^2 - y^2 - z^2 = a^2, \quad (7.24)$$

$$d\sigma^2 = -dw^2 + dx^2 + dy^2 + dz^2|_{w^2-x^2-y^2-z^2=a^2}. \quad (7.25)$$

Beraz, lau dimentsioko Minkowskiren espazio (abstraktu) bateko hiru dimentsioko gainazal hiperboliko baten moduan uler dezakegu sekzio espaziala, kasu honetan.



**7.5 IRUDIA** Sekzio espazial hiperbolikoa, Minkowskiren espazio bateko  $\theta = \pi/2$ ,  $z = 0$  hiperplanoan.

7.5 irudian marraztu da, espazio horretako  $\theta = \pi/2$ ,  $z = 0$  hiperplanoan, sekzio espazialaren bi dimentsioko proiekzioa. Sekzio hori  $0 \leq \chi < \infty$ ,  $0 \leq \theta \leq \pi$  eta  $0 \leq \varphi < 2\pi$  tarteenan definituta dago eta bere bolumena infinitua da: sekzio espaziala **irekia** da.  $\chi$  konstanteko bi dimentsioko gainazal esferikoak  $a \sinh \chi$  erradiokoak eta  $4\pi a^2 \sinh^2 \chi$  azalerakoak dira.

Azkena ataletako aldagai-aldaketak laburtuz, FLRW metrikaren ondoko adierazpena erabiliko dugu kalkulu batzuk laburtzeko,  $(t, \chi, \theta, \varphi)$  koordenatu kohigikorretan:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + a^2(t) [d\chi^2 + r^2(\chi) (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2)], \quad (7.26)$$

$$r(\chi) = \begin{cases} \sin \chi, & (0 \leq \chi \leq \pi), \quad k = 1 \text{ denean;} \\ \chi, & (0 \leq \chi < \infty), \quad k = 0 \text{ denean;} \\ \sinh \chi, & (0 \leq \chi < \infty), \quad k = -1 \text{ denean.} \end{cases} \quad (7.27)$$

### 7.3 Geodesikoak

Eman dezagun FLRW unibertsoko geodesiko bat  $P$  puntuik pasatzen dela. Homogeneotasuna kontuan hartuta, puntu horretan  $\chi = 0$  izateko moduan aukeratuko ditugu koordenatu kohigikorrik. Puntu bat erabiltzen bada  $\tau$  denbora propioarekiko edo  $\sigma$  parametro afinarekiko deribatua adierazteko, honela geratzen da 3.13 probleman frogatu genuen geodesikoen ekuazioa:

$$\dot{v}_\lambda = \frac{1}{2} g_{\mu\nu,\lambda} v^\mu v^\nu, \quad (v^\mu \equiv \dot{x}^\mu). \quad (7.28)$$

Isotropiaren ondorioz, (7.26) metrika  $\varphi$ -ren menpekoia ez denez, (7.28) ekuazioan  $\lambda = 3$  egiten bada,  $g_{\mu\nu,3} = \dot{v}_3 = 0$  dugu; beraz,  $v_3 = a^2 r^2(\chi) \sin^2 \theta v^3 = a^2 r^2(\chi) \sin^2 \theta \dot{\varphi}$  konstantea izango da eta, gainera, nulua, horrelakoa baita  $\chi = 0$  puntuari. Ondorioz,  $v^3 = \dot{\varphi} = 0$  da geodesikoetan barrena, aukeratu ditugun koordenatu kohigikorretan.

Era berean,  $\lambda = 2$  egiten bada (7.28) ekuazioan,  $\theta$ -ren menpekoia den koefiziente bakarra  $g_{33}$  denez,

$$\dot{v}_2 = \frac{1}{2} g_{33,2} v^3 v^3 = 0 \quad (7.29)$$

dugu eta  $v_2 = a^2 r^2(\chi) v^2 = a^2 r^2(\chi) \dot{\theta}$  konstantea izango da eta, nulua, horrelakoa baita  $\chi = 0$  puntuari. Geodesikoetan barrena  $v^2 = \dot{\theta} = 0$  da.

$\chi$  koordenatuaren kasuan,  $v^2 = v^3 = 0$  eta  $g_{11} = a^2(t)$  direnez,

$$\dot{v}_1 = \frac{1}{2} g_{11,1} v^1 v^1 = 0 \quad (7.30)$$

lortzen da:  $v_1 = a^2(t) v^1 = a^2(t) \dot{\chi}$  konstantea da.

Azkenengo ekuazioa lortzeko, erabil dezagun  $v_\mu v^\mu = -c^2 \dot{t}^2 + a^2 \dot{\chi}^2 = -\alpha c^2$  dugula, denbora (argi) motako geodesikoen kasuan  $\alpha = 1$  ( $\alpha = 0$ ) egiten bada. Ondorioz,  $\chi = 0$  aukeratzen bada geodesikoko puntu batean, hauexek dira geodesikoaren ekuazioak:

$$\dot{t}^2 = \alpha + \frac{a^2(t) \dot{\chi}^2}{c^2}, \quad \alpha = \begin{cases} 1, & \text{denbora motako geodesikoetan;} \\ 0, & \text{geodesiko nuluetan,} \end{cases} \quad (7.31)$$

$$a^2(t) \dot{\chi} = \text{konstantea,} \quad (7.32)$$

$$\theta = \text{konstantea,} \quad (7.33)$$

$$\varphi = \text{konstantea.} \quad (7.34)$$

## 7.4 Gorrianzko lerrakuntza kosmologikoa

Eman dezagun oinarrizko behatzaire batek igorritako argia detektatzen duela beste behatzaire kohigikor batek. Detektagailua  $\chi = 0$  puntuaren egoteko moduan aukeratzen badira koordenatuak, igorpena  $(t_I, \chi, \theta, \varphi)$  gertaera da eta detekzioa  $(t_D, 0, \theta, \varphi)$ . Gainera, (7.31) ekuazioaren ondorioz, detektagailura hurbiltzen ari den fotoiaren unibertso-lerroan  $c\dot{t} = -a(t)\dot{\chi}$  dugu. Hortaz,

$$\int_{t_I}^{t_D} \frac{c dt}{a(t)} = - \int_{\chi}^0 d\chi = \chi \quad (7.35)$$

eta, emaitza hau  $t$ -ren menpekoa ez denez, periodo bat pasatu denean,


$$\int_{t_I+T_I}^{t_D+T_D} \frac{c dt}{a(t)} = \chi = \int_{t_I}^{t_D} \frac{c dt}{a(t)} \quad \Rightarrow \quad \int_{t_D}^{t_D+T_D} \frac{c dt}{a(t)} = \int_{t_I}^{t_I+T_I} \frac{c dt}{a(t)}. \quad (7.36)$$

Argiaren periodo batean eskala-faktoreak duen aldaketa kosmologikoa guztiz arbuiagarria denez,

$$\frac{cT_D}{a(t_D)} = \frac{cT_I}{a(t_I)} \quad \Rightarrow \quad \frac{\nu_I}{\nu_D} = \frac{T_D}{T_I} = \frac{a(t_D)}{a(t_I)} \quad (7.37)$$

dugu. Ondorioz, unibertoaren hedapenak sortutako  $z$  lerrakuntza grabitatorioa ondoko adierazpenak emandakoa da:

$$1 + z \equiv \frac{\nu_I}{\nu_D} = \frac{a(t_D)}{a(t_I)}. \quad (7.38)$$



7.6 IRUDIA Uhin-luzera espazioarekin batera luzatzen da.

Oraingo aldiune kosmikoa (**oraingo aroa** dela esaten da askotan) 0 azpiindizeaz adierazten badugu eta  $t_0$  une honetan Lurrean detektatzen dugun fotoia galaxia batetik  $t$  aldiunean igori bazeen, honela geratzen da (7.38) emaitza:

$$1 + z = \frac{a_0}{a(t)}, \quad a_0 \equiv a(t_0). \quad (7.39)$$

Beraz, **Hubbleren parametroa**

$$H(t) \equiv \frac{\dot{a}(t)}{a(t)} \quad (7.40)$$

eran definitzen badugu,

$$\frac{dz}{dt} = \frac{d(1+z)}{dt} = -\frac{a_0 \dot{a}(t)}{a^2(t)} = -(1+z)H(t) \quad (7.41)$$

lortzen dugu. Orain, (7.39) ekuaziotik  $t(z)$  funtzioa askatzen badugu, *magnitude guztiak z-ren funtzioan idazteko —zuzenean neurten ez dugun denbora kosmikoaren ordez, teleskopioetan neurutako goriranzko lerrakuntza erabiltzeko—*, fotoaren hegaldi-denbora kosmikoa

$$t_0 - t = \int_t^{t_0} dt = \int_z^0 \frac{dt}{dz} dz = \int_0^z \frac{dz}{(1+z)H(z)} \quad (7.42)$$

da eta iturriaren (7.35) posizioa honako hau:

$$\chi = \int_t^{t_0} \frac{c dt}{a(t)} = \int_z^0 \frac{c}{a(z)} \frac{dt}{dz} dz = -c \int_z^0 \frac{1+z}{a_0} \frac{dz}{(1+z)H(z)} = \frac{c}{a_0} \int_0^z \frac{dz}{H(z)}. \quad (7.43)$$

#### 7.4.1 Distantzia propioa

Iturria galaxia bat bada, FLRW metrikan  $dt = d\theta = d\varphi = 0$  eginez, gaur  $d \equiv a_0 \chi$  distantzia propiora dagoela ikusten dugu. Era berean, galaxiaren abiadura propioa  $v_d \equiv \dot{a}_0 \chi$  eran definitzen badugu, hauxe geratzen zaigu:

$$v_d = H_0 d, \quad H_0 \equiv H(t_0) = \frac{\dot{a}_0}{a_0}, \quad a_0 \equiv a(t_0), \quad \dot{a}_0 \equiv \dot{a}(t_0). \quad (7.44)$$

Hemen erabili dugun distantzia propioak definizio zehatza du ikuspuntu matematikotik, baina, ageri denez, ez dago hori zuzenean neurterik (oinarrizko behatzaleek une kosmiko berean egin-dako neurketak batu beharko lirateke). Horren ordez, distantzia eta abiaduraren eragiketa-definizioak egin behar dira, praktikan erabili ahal den metodo bat edukitzeko.

Eman dezagun galaxia ez dagoela urrunegi, hau da,  $z \ll 1$  dela:

$$t_0 - t \approx \left. \frac{d(t_0 - t)}{dz} \right|_{z=0} z = \frac{z}{H_0}, \quad (7.45)$$

$$\chi \approx \left. \frac{d\chi}{dz} \right|_{z=0} z = \frac{cz}{a_0 H_0}. \quad (7.46)$$

Ohar zaitez adierazpen hurbildu hauen eskuineko gaietan bakarrik agertzen direla gaurko aroan Lurrean neurutako magnitudeak.

Abiaduraren definizio erabilgarria egiteko, goriranzko lerrakuntza *Doppler efektu erlatibistaren ikuspuntutik interpretatzen badugu*, 1.5 problemaren soluzioaz balia gaitezke, iturria ondo-ko abiaduraz urruntzen ari dela *esateko*<sup>15</sup>:

$$v = c\beta = c \frac{(1+z)^2 - 1}{(1+z)^2 + 1} \approx cz \approx a_0 H_0 \chi = v_d. \quad (7.47)$$

Beraz,  $z$ -ren lehen ordenaraino abiadura propioaren berdina da.

<sup>15</sup>Hurrengo atalaren ere interpretazio adierazgarri hori erabiltzen badugu ere, gogoratu lerrakuntzaren benetako interpretazioa ez dela Doppler efektua, espazio-denboraren hedapena baizik (ikus [48]).

### 7.4.2 Argitasun-distantzia


Geometria euklidearrean, iturri isotropo baten argitasuna (denbora-unitatean angelu solidoen unitatetik igorritako energia)  $L$  bada, iturritik  $d$  distantziara neurututako energiaren fluxua (denbora-unitatean zeharkako sekzio normalaren unitatera iristen den energia) hauxe da:

$$S = \frac{4\pi L}{4\pi d^2} \implies d^2 = \frac{L}{S}. \quad (7.48)$$

Honetan finkaturik, iturri isotropo baten argitasun-distantzia honela *definitzen* da:

$$d_L \equiv \left( \frac{L}{S} \right)^{1/2}. \quad (7.49)$$

$S$  fluxua zuzenean neurten da teleskopioetan, baina  $L$  argitasuna zenbatesteko, zeharkako metodoak erabiltzen dituzte astrofisikariek: **kandela estandarrak** behar dituzte. Hubblek zefeidak<sup>16</sup> erabili zituen, baina gaur egun Ia motako supernobak omen dira onenak (ikus, adibidez, [8] testuko 354. or. eta [15] liburuko 307. or.).



### 7.7 IRUDIA Argitasun-distantziaren definizioaren geometria.

FLRW geometrian,  $t$  une kosmikoan igorritako argia  $t_0$  unean iristean, uhin-frontearen azalera  $4\pi a_0^2 r^2(\chi)$  izango da. Gainera, fotoien energia  $h\nu_D = h\nu_1/(1+z)$  izango da eta  $\nu_1$  baino  $(1+z)$  aldiz txikiagoa den maiztasunarekin iristen dira, (7.37) emaitzaren ondorioz. Beraz, fluxua

$$S = \frac{4\pi L(t)/(1+z)^2}{4\pi a_0^2 r^2(\chi)} \quad (7.50)$$

da eta argitasun-distantzia hauxe:

$$d_L = a_0 r(\chi)(1+z). \quad (7.51)$$

### 7.4.3 Hubbleren legea

(7.46) emaitzaren ondorioz  $\chi = \mathcal{O}(z)$  dela eta  $r(\chi) = \chi + \mathcal{O}(\chi^3)$  erabiliz,  $d_L = d + \mathcal{O}(z^2)$  lortzen dugu. Hau eta (7.47) ordezkatzen badira (7.44) adierazpenean, honako hau dugu,  $z$ -ren lehen ordenaraino:

$$v \approx H_0 d_L. \quad (7.52)$$

<sup>16</sup>Henrietta Swan Leavittetek aurkitu zuen, 1908an, zefeiuden periodoen eta argitasunaren arteko erlazioa.

Horixe da 1929an Hubblek<sup>17</sup>, zenbait galaxiatako zefeiden argitasunak eta espektroak aztertuz, aurkitu zuena<sup>18</sup>: *galaxi hurbilak guregandik urrunten ari dira, distantziarekiko proportzionala den abiadurekin*. Printzipio kosmologikoaren arabera gure ikuspuntua pribilegiatua ez denez, galaxien arteko distantziak (higidura lokalak ahaztuta) handitzen ari direla eta, hortaz, unibertsoa hedatzen ari dela frogatu zen horrela. Ondorioz, abiadura erlatiboak (asko) aldatu ez badira iraganean, orain dela  $t \sim 1/H_0$  denbora-tarte finitu batean dentsitate handiko egoera batean zegoen unibertsoa:  $1/H_0 = a_0/\dot{a}_0$  magnitudea unibertsoaren adinaren *parekoa* da. Jakina, erlatibilitatean zehaztu behar da zen esan nahi duen «adin» hitzak, unibertsoaren kasuan hurrengo gaietan egingo dugun bezala.


Azpmarratu behar da «unibertsoa hedatzen ari dela» esatean, eskala handian galaxien arteko distantziak handitzu doazela adierazi nahi dugula. Galaxia bateko izarren (edo izar baten inguruko planeten) arteko distantzien eboluzioa, dagokien eskalan dagoen grabitazioak (geometriak) eragindakoa da. Gai honetan bakarrik aztertzen dugu grabitazioak *eskala handian* duen eragina.

#### 7.4.4 Diametro angeluarraren distantzia

Astronomoek erabiltzen duten distantziaren beste eragiketa-definizio bat da hau. Espazio euklidearrean, objektu baten diametroa  $D$  bada eta  $d$  distantzia handira dagoen puntu batetik neurtutako diametro angeluarra (hau da, objektuaren periferiako aurkako bi puntutatik datozen izpien arteko angelua)  $\alpha$  balio txiki bat, angelu lauen definizioaren arabera,  $\alpha = D/d$  dugu. Hemendik ideia hartuta, hauxe da diametro angeluarraren distantziaren *definizioa*:

$$d_A \equiv \frac{D}{\alpha}, \quad (7.53)$$

non  $\alpha$  angelua behatzaleak zuzenean neurtutako diametro angeluarra den eta  $D$  balioa diametro propioa, oinarrizko behatzaleek izpiak igorri ziren une kosmikoan neurtutakoa. Azken hau zenbatesteko, **erregela estandarrak** behar dira eta hauek hobetzeko aurrerapen handiak egin dira azken urteetan, mikrouhin-hondo kosmikoaren anisotropiez baliatuz.



7.8 IRUDIA Diametro angeluarraren distantziaren definizioaren geometria.

<sup>17</sup>Egia esan,  $cz = H_0 d_L$  eran idatz daiteke Hubblek aurkitutakoa: (7.47) emaitzako  $v \approx cz$  hurbilketa erabiliz berreskuratzen da askotan aipatzen den (7.52) adierazpen hurbildua [107]. Gogoratu, gainera, 146. orrialdeko 9. oin-oharra.

<sup>18</sup>Askotan bezala, aurkikuntza honetan nolabait parte hartu zuten beste izen batzuk aipatu beharko lirateke, hala nola, James Edward Keeler, Vesto Melvin Slipher, William Wallace Campbell eta Milton Humason.

Bi izpien iturriak  $\varphi$  angeluaren balio berean egoteko moduan aukeratzen badira koordenatu kohigikorrak, angelu hori ez da aldatuko geodesikoetan barrena eta hauen arteko angelua  $\alpha = \delta\theta$  izango da. Diametro propioa, (7.39) lerrakuntzaren ondorioz,

$$D = a(t)r(\chi)\delta\theta = a_0 \frac{a(t)}{a_0} r(\chi)\delta\theta = \frac{a_0 r(\chi)\delta\theta}{1+z} \quad (7.54)$$

denez, hauxe dugu diametro angeluarraren distantzia:

$$d_A = \frac{a_0 r(\chi)}{1+z}. \quad (7.55)$$

Ageri denez, hau ere erabil daiteke,  $d_L$ -ren ordez, Hubbleren legearen hurbilketan, baina  $z$  han-diagoekin distantziaren bi eragiketa-definizioak balio desberdinakoak izango dira eta parametro kosmologikoak zenbatesteko erabil daitezke.

## 7.5 Friedmannen ekuazioak

Orain arte ez dugu zehaztu zein den  $a(t)$  funtzioa, bakarrik aztertu dugu (7.8) metrikak deskribatutako geometria, Einsteinen ekuazioen ezkerreko gaia, alegia. Unibertsoaren eboluzioa aztertzeko, eskuineko gaia, kurbadura sortzen duen energia-momentuaren tentsorea, jarri behar dugu. Horretarako hipotesirik errazena egingo dugu, *unibertsoaren energiarene eta momentuaren dentsitateak eta fluxuak, eskala handian, fluido perfektu batenak direla*, hain zuzen. (Geroago ikusiko dugu hipotesi egokia dela, aztertu nahi ditugun kasuetan.) Fluido kosmikoaren energia-momentuaren tentsorea (3.43) izango da, beraz:

$$T^{\mu\nu} = \rho u^\mu u^\nu + p \left( g^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu \right). \quad (7.56)$$

Homogeneotasuna eta isotropia kontuan hartuta,  $\rho$  dentsitatea eta  $p$  presioa bakarrik dira  $t$  denbora kosmikoaren funtzioak:  $\rho(t)$  eta  $p(t)$ .

Energia-momentuaren tentsore hori eta (7.8) metrika ordezkatzenten badira Einsteinen ekuazioetan,

$$G_{\mu\nu} + \Lambda g_{\mu\nu} = \frac{8\pi G}{c^4} T_{\mu\nu}, \quad (7.57)$$

bete behar diren baldintzak, **Friedmann eta Lemaîtreren ekuazioak**<sup>19</sup>, lortzen dira, 7.9 irudian ikusten den bezala:

$$\ddot{a} = -\frac{4\pi G}{3} \left( \rho + \frac{3p}{c^2} \right) a + \frac{\Lambda}{3} c^2 a, \quad (7.58)$$

$$\dot{a}^2 = \frac{8\pi G}{3} \rho a^2 + \frac{\Lambda}{3} c^2 a^2 - kc^2. \quad (7.59)$$

Gainera, irudi berean frogatzen denez, (7.59) ekuazioaren deribatua kalkulatu ondoren,  $\ddot{a}$  ezabatzen bada (7.58) ordezkatzuz,

$$\dot{\rho} + 3 \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) \frac{\dot{a}}{a} = 0 \quad (7.60)$$

geratzen da. Hurrengo atalean ikusiko dugu nola aurkitu emaitza hau fluidoaren eboluziotik.

<sup>19</sup> $\Lambda = 0$  kasuan, **Friedmannen ekuazioak** deitzen dira.

```
In[1]:= Needs["Ricci`Ricci`"];
ds2 = -c^2 Dt[t]^2 + a[t]^2 \left( \frac{Dt[r]^2}{1 - kr^2} + r^2 (Dt[\theta]^2 + Sin[\theta]^2 Dt[\phi]^2) \right);
SetMetric[ds2, {t, r, \theta, \phi}, Simplify]
u[\mu_] := -c^2 If[\mu == 0, 1, 0]
g = MetricTensor;
T[\mu_, \nu_] := \rho u[\mu] u[\nu] + p \left( g[\mu, \nu] + \frac{1}{c^2} u[\mu] u[\nu] \right)
\kappa = \frac{8 \pi G}{c^4};
\$Assumptions = a[t] > 0 \&& 1 - kr^2 > 0 \&& c > 0 \&& G > 0;
Do[Print[{u, v, FullSimplify[Einstein[\mu, v] + \Lambda g[\mu, v]]}], {\mu, 0, 3}, {v, \mu, 3}]
{0, 0, (c^2 \Lambda + 8 G \pi \rho) a[t]^2 == 3 (c^2 k + a'[t]^2)}
{0, 1, True}
{0, 2, True}
{0, 3, True}
{1, 1, c^4 k + 8 G p \pi a[t]^2 + c^2 a'[t]^2 + 2 c^2 a[t] a''[t] == c^4 \Lambda a[t]^2}
{1, 2, True}
{1, 3, True}
{2, 2, r (c^4 k + (8 G p \pi - c^4 \Lambda) a[t]^2 + c^2 a'[t]^2 + 2 c^2 a[t] a''[t]) == 0}
{2, 3, True}
{3, 3, r Sin[\theta] (c^4 k + (8 G p \pi - c^4 \Lambda) a[t]^2 + c^2 a'[t]^2 + 2 c^2 a[t] a''[t]) == 0}

In[10]:= {ek1, ek2} = {(c^2 \Lambda + 8 G \pi \rho) a[t]^2 == 3 (c^2 k + a'[t]^2),
c^4 k + 8 G p \pi a[t]^2 + c^2 a'[t]^2 + 2 c^2 a[t] a''[t] == c^4 \Lambda a[t]^2,
a'[t]^2 /. Solve[ek1, a'[t]] // Expand // Union
a''[t] /. Solve[{ek1, ek2}, a''[t], a'[t]] // Expand // Union
Out[11]= {-c^2 k + \frac{1}{3} c^2 \Lambda a[t]^2 + \frac{8}{3} G \pi \rho a[t]^2}
Out[12]= \left\{ -\frac{4 G p \pi a[t]}{c^2} + \frac{1}{3} c^2 \Lambda a[t] - \frac{4}{3} G \pi \rho a[t] \right\}
In[13]:= ek3 = D[ek1 /. \rho \rightarrow \rho[t], t] /. {\rho[t] \rightarrow \rho, \rho'[t] \rightarrow \rho'} // FullSimplify
Out[13]= a[t] (4 G \pi a[t] \rho' + (c^2 \Lambda + 8 G \pi \rho) a'[t]) == 3 a'[t] a''[t]
In[14]:= Eliminate[{ek1, ek2, ek3}, a''[t]] // FullSimplify
Out[14]= (c^2 \Lambda + 8 G \pi \rho) a[t]^2 == 3 (c^2 k + a'[t]^2) \&& c^2 a[t] \rho' + 3 (p + c^2 \rho) a'[t] == 0
```

## 7.9 IRUDIA Friedmann eta Lemaîtreren ekuazioak, *Mathematica*-ren bidez.

### 7.5.1 Fluido kosmikoaren higidura-ekuazioak

4.5 atalean frogatu genuen bezala, Einsteinen ekuazioetik berreskuratzen dira fluidoaren  $T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$  higidura-ekuazioak eta hauek ondoko moduan idatzi genituen 3.32 probleman:

$$(\rho u^\mu)_{;\mu} + \frac{p}{c^2} u^\mu_{;\mu} = 0, \quad (7.61)$$

$$\left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^\mu_{;\nu} u^\nu + \left( g^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu \right) p_{;\nu} = 0. \quad (7.62)$$

Bigarren ekuazioaren bigarren gaian, koordenatu kohigikorretan  $u^\mu = (1, 0, 0, 0)$  eta  $p(t)$  direla erabiliz,

$$\left( g^{\mu\nu} + \frac{1}{c^2} u^\mu u^\nu \right) p_{;\nu} = \left( g^{00} + \frac{1}{c^2} \right) p_{;0} = 0 \quad (7.63)$$

lortzen da. Beraz, lehen gaia ere zero da,  $u^\mu_{;\nu} u^\nu = 0$ : hasieratik suposatu genuen bezala, fluido kosmikoaren higidura geodesikoa dela ikusten dugu berriro. (Mekanika newtondarrean ere fluido baten higidura askea, azeleraziorik gabekoa, da, homogeneotasunaren ondorioz,  $-\nabla p = 0$  indar-dentsitatea pairatzen duenean: gogoratu Eulerren (1.86) ekuazioa.)

Bestalde, (7.61) jarraitutasun-ekuazioa (7.60) emaitza da, zeren,  $u^\mu = (1, 0, 0, 0)$  eta  $\rho(t)$  erabiliz,

$$(\rho u^\mu)_{;\mu} + \frac{p}{c^2} u^\mu_{;\mu} = \rho_{,\mu} u^\mu + \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) u^\mu_{;\mu} = \dot{\rho} + \left( \rho + \frac{p}{c^2} \right) \Gamma_{0\mu}^\mu \quad (7.64)$$

baitugu eta, 7.15 probleman frogatuko dugun bezala,

$$\Gamma_{0\mu}^\mu = 3 \frac{\dot{a}}{a}. \quad (7.65)$$

(Ikus, gainera, 7.16 problema.)

### 7.5.2 Egoera-ekuazioa

Eredu fisikoa osatzeko,  $\rho$  dentsitatearen eta  $p$  presioaren arteko erlazioa ematen duen egoera-ekuazioa behar da. Kosmologian, askotan, erlazio lineal bat onartzen da, dimensio gabeko  $w$  parametro bat erabiliz<sup>20</sup>:

$$p = w \rho c^2. \quad (7.66)$$

Hipotesi hau saiatzen bada (7.60) jarraitutasun-ekuazioan, aldagaiak bananduz, hauxe lortzen da:

$$\rho \propto a^{-3(1+w)}. \quad (7.67)$$

Ondoko kasuak aztertzen dira hurrengo gaietan:

**Hautsa:** Elkarrekintzarik gabeko materiaren kasuan  $p = w = 0$  dugu eta  $\rho a^3$  konstantea da: (pausaguneko) energiaren dentsitatea bolumenaren alderantzizko proportzionala da.

**Erradiazioa:** 1.14 probleman ikusi genuen bezala, erradiazioaren (edo unibertso primitiboko materia ultraerlatibistaren) kasuan,  $w = 1/3$  eta  $\rho \propto a^{-4}$  dugu: energiaren dentsitatea arinago txikitzen da, fotoien uhin-luzerak goriranzko lerratzen baitira.

<sup>20</sup> Askotan egoera-ekuazioa  $p = (\gamma - 1)\rho c^2$  moduan idazten da,  $\gamma = 1 + w$  **indize barotropikoaren** funtzioan. Horrela (7.67) emaitza  $\rho \propto a^{-3\gamma}$  da.

**Hutsa:** Hutsean, konstante kosmologikoari dagokion (4.38) energia-momentuaren tentsorearen kasuan,  $w = -1$  da eta, 7.17 probleman eta 8.3.3 atalean ikusiko dugun bezala, unibertsioaren hedapena azeleratua da ( $a \propto e^{Ht}$  dugu  $k = 0$  denean). Izan ere, 7.18 probleman frogatuko dugu hedapena azeleratua dela  $w < -1/3$  denean.

Fluido kosmikoak elkarrekintzarik gabeko zenbait osagai (hala nola hautsa eta erradiazioa) baditu, bakoitzak bere aldetik beteko ditu dagokion  $T^{\mu\nu}_{;\nu} = 0$  kontserbazio-legea eta hortik lortzen den (7.67) eboluzio-ekuazioa: arinago motelduko dira  $w$  parametro handiagokoak.

## 7.6 Gehiago ikasteko

- Kosmologiaren historia: [14], 752. or.; [20], 1. gaia; [25], 14. gaia.
- Printzipio kosmologikoaren aldeko ebidentzia esperimentala: [8], 17. gaia.
- Mikrouhin-hondo kosmikoa: [15], 321. or.
- Homogeneoa al da unibertsoa?: [136].
- Olbersen paradoxa: [4], 308. or.; [15], 241. or.; [20], 9. or.; [198].
- Kurbadura konstanteko espazioak: 4.13 problema; [4], 317 or.; [10], 359 or.
- Adina eta distantziak kosmologian: [65].
- Distantzia angeluarra: [10], 373. or.; [13], 132. or.; [116].
- Gorrianzko lerrakuntza kosmologikoa:
  - Eta Doppler efektua: [48].
  - Jatorri zinematikoa: [57].
  - Unibertsoa, aro desberdinetan Lurretik ikusita: [130].
- Hubbleren legea eta lerrakuntzaren, abiaduraren eta distantziaren arteko erlazioak: [107].
- Unibertsaren hedapena eta eskala *txikiak*: [165].
- Kosmologia newtondarra: [4], 310. or.
  - Testu oso bat: [13].
  - Oinarrizko kosmologia newtondarra: [133].
  - Kosmologia eta mekanika newtondarra: [58].
  - Kosmologia newtondar zehatza: [188].
- Gödelen unibertsoa eta Machen printzipioa: [1], 13.4 atala; [101].

## 7.7 Problemak

**7.1 Robertson eta Walkerren metrika.** Frogatu ondoko eran ere idatz daitekeela (7.8) metrika:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + a^2(t) \frac{d\bar{r}^2 + \bar{r}^2 (d\theta^2 + \sin^2 \theta d\varphi^2)}{\left(1 + \frac{1}{4}k\bar{r}^2\right)^2}.$$

**7.2** Egiaztatu (7.9) metrika kurbadura konstantekoa dela (gogoratu 4.13 problema). Zein da  $K$  kurbadura?

**7.3** Kalkulatu FLRW metrikaren sekzio espazialen (hiru dimentsioko) kurbadura-eskalarra.

**7.4** Noiz da laua FLRW metrika? Zein da orduan koordenatu minkowskiarretarako transformazioa?

**7.5** Egiaztatu (7.11) adierazpena.

**7.6** Egiaztatu (7.18) emaitza.

**7.7** Egiaztatu (7.19) adierazpena.

**7.8 Goriranzko lerrakuntza kosmologikoa.** Lortu (7.38) emaitza, 1.6, 3.11 eta 5.15 problemetako metodoaz baliatuz.

**7.9** Oinarrizko behatzaile batek  $t_{\text{I}}$  une kosmikoan igortzen duen masadun partikula baten (3 dimentsioko) momentu linealaren modulua  $p_{\text{I}}$  da. Bigarren behatzaile kosmikoak  $p_{\text{D}}$  momentua neurtzen du  $t_{\text{D}}$  unean. Kalkulatu  $p_{\text{I}}/p_{\text{D}}$  eta konparatu emaitza hori fotoien kasuan gertatzen denarekin.

**7.10** Hedatu (7.45)–(7.52) kalkulua bigarren ordenaraino. Erabili

$$q(t) \equiv -\frac{a(t)\ddot{a}(t)}{\dot{a}^2(t)}$$

**dezelerazio-parametra** emaitza ondoko moduan idazteko:

$$t_0 - t = \frac{z}{H_0} - \left(1 + \frac{1}{2}q_0\right) \frac{z^2}{H_0} + \mathcal{O}(z^3).$$

**7.11** Egiaztatu ondoko emaitza:

$$H = H_0 + (1 + q_0) H_0 z + \mathcal{O}(z^2).$$

**7.12** Frogatu 7.4 ataleko iturriaren eta detektagailuaren arteko argitasun-distantzia hauxe dela:

$$d_{\text{L}} = (1 + z)d = \frac{cz}{H_0} + (1 - q_0) \frac{cz^2}{2H_0} + \mathcal{O}(z^3).$$

Zein da distantzia propioa?

**7.13** Egiaztatu 7.4 ataleko fotoaren hegaldi-denbora honela idatz daitekeela:

$$t_0 - t = \frac{d}{c} - \frac{H_0 d^2}{2c^2} + \mathcal{O}(d^3).$$

**7.14** Frogatu 7.4 ataleko gorriranzko lerrakuntza honako hau dela:

$$z = \frac{H_0 d}{c} + (1 + q_0) \frac{H_0^2 d^2}{2c^2} + \mathcal{O}(d^3).$$

**7.15** Egiaztatu FLRW metrikaren kasuan hauxe dugula,  $(t, r, \theta, \varphi)$  eta  $(t, \chi, \theta, \varphi)$  koordenatu-sistemetan:

$$\begin{aligned}\Gamma_{00}^\lambda &= 0, \\ \Gamma_{0j}^i &= \frac{\dot{a}}{a} \delta_j^i.\end{aligned}$$

Egiaztatu (7.65) emaitza eta aurkitu  $\Gamma_{ij}^0$  koefizienteen adierazpen laburtua.

**7.16** Ikus dezagun nola lor daitekeen (7.60) jarraitutasun-ekuazioa erlatibitate orokorra erabili gabe (hau da, kosmologia newtondarrean). Konsidera dezagun  $|\mathbf{x}| \leq a\chi_0$  esferan dagoen energia ez-grabitatorioaren  $\rho c^2$  dentsitate osoa. Unibertsoaren hedapena itzulgarria eta adiabatikoa dela onartuz, erabili termodinamikaren lehen legea (7.60) lortzeko.

**7.17 Hutsa.** Egiaztatu hutsean, baina konstante kosmologikoarekin,  $a \propto e^{Ht}$  dugula,  $k = 0$  denean. Frogatu gauza bera gertatzen dela  $k = \pm 1$  balioekin, unibertsoaren hasieran izan ezik.

**7.18** Frogatu hedapena azeleratua dela FLRW metrikan  $w < -1/3$  denean ( $\rho > 0$  eta  $\Lambda \geq 0$  guztiatarako).

**7.19** Oinarrizko behatzaleek neurututako galaxien abiadurak  $u^\mu \approx (1, u^i)$  moduan idatz daitezke,  $|u^i|$  txikiiek. Erabili hau geodesikoien ekuazioan, unibertsoa hedatzean galaxien zorizko abiadurak  $a^{-1}$  legearen arabera txikituz doazela frogatzeko.

## 8. GAIA

### Eredu kosmologikoak

Kosmologiaren historian agertu ziren eredu erraz batzuk aztertuko ditugu, hasteko. Horrela, ideia garrantzitsu batzuk ikusiko ditugu lan gutxirekin. Geroago (eta hurrengo gaian) gaur egun dauzkagun datuak erabiliko dira eredu errealistagoak lortzeko.

#### 8.1 Friedmannen ereduak

Galaxiak  $v \sim 300$  km/s abiadura txikiiekin<sup>1</sup> higitzen dira Weylen postulatuaren oinarritzko behatzaleen inguruan (ikus 7.19 problema). Gasen teoria zinetikoaren arabera,  $p = \frac{1}{3}\rho \langle v^2 \rangle$  izango da presioa eta, ondorioz,  $p/\rho c^2 \sim 10^{-6}$ . Hortaz,  $p = 0$  egoera-ekuazioa aukeratuko dugu (hau da,  $w = 0$  egingo dugu (7.66) ekuazioan), lehenengo ereduak egiteko. Aukera honekin, hautsaren energiaren dentsitatea

$$\rho = \rho_0 \left( \frac{a_0}{a} \right)^3 \quad (8.1)$$

dela lortzen da (7.60) edo (7.67) ekuazioetatik, berriro ere gaurko aroko balioak 0 azpiindizearen bidez adierazten badira:  $\rho_0 = \rho(t_0)$ , adibidez. Bestalde, honela idazten dira Friedmannen (7.58)–(7.59) ekuazioak, *atal honetako  $\Lambda = 0$  hipotesiarekin*:

$$\frac{\dot{a}^2 + kc^2}{a^2} = -2\frac{\ddot{a}}{a}, \quad (8.2)$$

$$\frac{\dot{a}^2 + kc^2}{a^2} = \frac{8\pi G\rho_0}{3} \left( \frac{a_0}{a} \right)^3. \quad (8.3)$$

Lehen ekuazioa bigarrenaren ondorioa da (ikus 8.1 problema).

7.10 problemako

$$q \equiv -\frac{a\ddot{a}}{\dot{a}^2} \quad (8.4)$$

**dezelerazio-parametroa,**

$$\rho_c \equiv \frac{3H^2}{8\pi G} \quad (8.5)$$

**dentsitate kritikoa** eta

$$\Omega \equiv \frac{\rho}{\rho_c} \quad (8.6)$$

---

<sup>1</sup>Gure galaxia 600 km/s inguruko abiaduraz higitzen da, Hydra-Centaurus supertalderantz, mikrouhin-hondo kosmikoaren erreferentzia-sisteman.

**dentsitate-parametroa** erabiliz, honela idazten dira (8.2)–(8.3) ekuazioak<sup>2</sup>:

$$\Omega = 2q = 1 + \frac{kc^2}{a^2 H^2} \geq 0. \quad (8.7)$$

### 8.1.1 Sekzio lauak: $k = 0$ , $\Omega = 1$ , $q = 1/2$

Kasurik errazena kurbadura espazialik gabeko  $k = 0$  balioari dagokiona da. 1932an proposatako **Einstein eta de Sitterren unibertso** honetan, hauxe dugu:

$$\frac{\dot{a}^2}{a^2} = \frac{8\pi G\rho_0}{3} \left(\frac{a_0}{a}\right)^3. \quad (8.8)$$

Eredu honetan

$$H \equiv \frac{\dot{a}}{a} = \left(\frac{8\pi G\rho}{3}\right)^{1/2} \quad (8.9)$$

izango da, edo, nahiago bada,

$$\rho = \rho_c. \quad (8.10)$$

Gaurko aroko Hubbleren parametroaren balioa

$$H_0 = 100 h \text{ km s}^{-1} \text{ Mpc}^{-1} \quad (8.11)$$

moduan idatzi ohi da,  $h$  parametroaren funtzioan. Ezagutzen ziren datu kontraesankorren arabera, urte luzeetan  $0.5 < h < 1$  tartean egon arren, gaur astrofisikariek  $h \approx 0.7$  dela onartzen dute [215], Hubble teleskopioaren eta WMAP satelitearen neurketei esker (ikus A.1 taula). Notazio honetan lortzen den gaurko aroko

$$\rho_{c0} \approx 2 \times 10^{-29} h^2 \text{ g cm}^{-3} (\approx 10^{-29} \text{ g cm}^{-3}) \quad (8.12)$$

balioa, unibertsoan *ikusten* dugun dentsitatea baino askoz handiagoa da [46]. Gainera, badirudi **materia barionikoa** (laborategietan aztertzen ditugun materia mota guztiak sartzen dira hor) bakarrik dela grabitazioa sortzen duen materiaren zati bat: bosten bat baino gutxiago. Baieztapen hori egiteko bi gauza erabiltzen dira: alde batetik, kosmologian eta astrofisikan (galaxietako izarren abiadura-banaketan, adibidez) lortutako datuak eta, bestetik, laborategian ongi (baina energia txikiengan) egiaztatu den fisikan oinarritutako nukleosintesiaren kalkuluak. Bestelako materiaren izaera ez da ezaguna gaur egun (partikulen teoria batzuetan agertu arren laborategian detektatu ez diren partikula batzuk eta objektu astronomiko bitxiak proposatu dira, besteak beste) eta, materia arruntarekin duen elkarrekintza elektromagnetikoa nulua edo arbuiagarria denez, ez da teleskopioetan ikusten: **materia iluna** deitzen zaio. (Ikus [46] artikulua.)

(8.8) ekuazioa


$$\frac{\dot{a}^2}{a^2} = H_0^2 \left(\frac{a_0}{a}\right)^3 \quad (8.13)$$

eran idatzi ondoren, zuzenean integratzen da, aldagaiak bananduz:

$$a = a_0 \left(\frac{3}{2} H_0 t\right)^{2/3}. \quad (8.14)$$

---

<sup>2</sup> $\Omega = 0$  kasu limitea 8.7 probleman aztertzen da.



**8.1 IRUDIA** Einstein eta de Sitterren unibertsoaren eboluzioa  $k = 0$  denean.

Hemen  $a(0) = 0$  izateko moduan aukeratu da integrazio-konstantea. Beraz, eredu erraztu honean, unibertsoaren adina Hubbleren  $H_0^{-1}$  denbora baino laburragoa da:

$$t_0 = \frac{2}{3} H_0^{-1}. \quad (8.15)$$

Balio honekin, honela ere idazten da (8.14) soluzioa:

$$a = a_0 \left( \frac{t}{t_0} \right)^{2/3}. \quad (8.16)$$

Bestalde, argitasun-distantzia (7.43) eta (7.51) adierazpenek emandakoa da:

$$d_L = a_0 \chi(1+z) = c(1+z) \int_0^z \frac{dz}{H(z)}. \quad (8.17)$$

Gainera, (8.13) emaitza

$$H(z) = H_0(1+z)^{3/2} \quad (8.18)$$

moduan idazten da, (7.39) erlazioaz baliatuz. Azken bi ekuazioak erabiliko ditugu 8.8 probleman hauxe frogatzeko:

$$d_L = \frac{2c}{H_0} \left( 1 + z - \sqrt{1+z} \right). \quad (8.19)$$

### 8.1.2 Sekzio itxiak: $k = 1$ , $\Omega > 1$ , $q > 1/2$

$k = 1$  denean, (8.3) ekuazioa hauxe da:

$$\frac{\dot{a}^2 + c^2}{a^2} = \frac{8\pi G \rho_0}{3} \left( \frac{a_0}{a} \right)^3. \quad (8.20)$$

(8.5), (8.6) eta (8.7) ekuazioak erabiltzen badira  $t = t_0$  unean, (8.20) ekuazio differentzialetik  $a_0$  eta  $\rho_0$  ezabatzeko,

$$\dot{a}^2 = c^2 \left( \frac{A}{a} - 1 \right) \quad (8.21)$$

geratzen zaigu, *gaurko aroko*  $H_0$  eta  $q_0$  (edo  $H_0$  eta  $\Omega_0 = 2q_0$ ) parametroen funtzioan, ondoko konstantearen bitartez:

$$A \equiv \frac{8\pi G \rho_0 a_0^3}{3c^2} = \frac{c\Omega_0}{H_0 (\Omega_0 - 1)^{3/2}}. \quad (8.22)$$

Aldagaiaik banantzean geratzen den


$$ct = \int \sqrt{\frac{a}{A-a}} da \quad (8.23)$$

integrala ebatzeko metodorik errazena bitarteko  $0 \leq \phi \leq 2\pi$  parametro batez baliatzen da:

$$a = A \sin^2 \frac{\phi}{2} = \frac{A}{2}(1 - \cos \phi), \quad (8.24)$$

$$ct = \int A \sin^2 \frac{\phi}{2} d\phi = \frac{A}{2}(\phi - \sin \phi). \quad (8.25)$$

(Berriro aukeratu dugu integrazio-konstantea  $a(0) = 0$  izateko moduan.)



## 8.2 IRUDIA Friedmannen unibertsoaren eboluzioa $k = 1$ denean.

$a(t)$  funtzioaren grafikoa zikloide bat denez, hasieran  $a$  handituz doa,  $(t, a) = (\pi A/2c, A)$  maximora heldu arte ( $\phi = \pi$  denean), eta gero txikituz doa  $(t, a) = (\pi A/c, 0)$  amaieraraino ( $\phi = 2\pi$  balioan), 8.2 irudian erakusten den bezala. Beraz, energiaren dentsitatea kritikoa baino handiagoa denez,

$$0 \leq t \leq t_{\max} \equiv \frac{\pi A}{c}, \quad (8.26)$$

bizitza finitura du unibertso honek, **Eztanda Handi** (*Big Bang*) batetik hasita, **Karraska Handi** (*Big Crunch*) batean amaitu arte.

### 8.1.3 Sekzio irekiak: $k = -1$ , $\Omega < 1$ , $0 \leq q < 1/2$

$k = -1$  denean, kalkulua oso antzekoa da (ikus 8.5 problema) eta nahikoa izango da hemen emaitzak biltzea,  $0 \leq u < \infty$  parametroaren funtzioan:

$$A \equiv \frac{c\Omega_0}{H_0 (1 - \Omega_0)^{3/2}}, \quad (8.27)$$


$$a = \frac{A}{2}(\cosh u - 1), \quad (8.28)$$

$$ct = \frac{A}{2}(\sinh u - u). \quad (8.29)$$

Eredu hauetan  $\dot{a}(t) > 0$  da  $t > 0$  une guzietan (ikus 8.6 problema) eta unibertsoa etengabe hedatzen da, 8.3 irudian erakusten den bezala.

8.3 irudian biltzen dira Friedmannen ereduaren eboluzio motak.

- Sekzio espaziala infinitua da eta hedatuz doa etengabe, dentsitatea kritikoa baino txikiagoa denean:  $\Omega_0 < 1$  (edo, baliokidea dena eredu hauetan,  $\Omega < 1$ ).



## 8.3 IRUDIA Friedmannen unibertsoen eboluzioa.

- Handiagoa bada,  $\Omega_0 > 1$ , espazioa finitura egiteko modukoa, hedapena amaitu egiten da uneren batean, uzkurtuz hasteko.
- Bien arteko mugan,  $\Omega_0 = 1$  denean, espazio infinitu espazialki laua etengabe hedatzen da.

## 8.2 Horizonteak

Azter dezagun oinarrizko behatzale batek printzipioz unibertsoari buruz lor dezakeen informazioa, Friedmannen ereduetan. Behatzalea,  $\chi = 0$  puntuaren egoteko moduan aukeratzen badira koordenatu kohigikorrik,  $t$  une kosmikoan detektatzen duen argia  $t_1$  unean sortu bazeen,

$$\chi = \int_{t_1}^t \frac{c du}{a(u)} \quad (8.30)$$

koordenatutik igorri zen, (7.35) emaitzaren ondorioz.

### 8.2.1 Partikula-horizontea

Azken adierazpenean unibertsoaren *jaiotzeari* dagokion  $t_1 \rightarrow 0$  limitea,


$$\chi_P \equiv \int_0^t \frac{c du}{a(u)}, \quad (8.31)$$

finitua (eta  $k = 1$  kasuan  $\pi$  baino txikiagoa) bada,  $\chi > \chi_P$  koordenatuetako gertaera guztiak behatzalearen iraganeko argi-konotik kanpo daude:  $t$  une kosmikora arte ez du  $d_P = a(t)\chi_P$  distantzia propiora dagoen horizontetik kanpoko berririk izan. Adibidez, 8.10 probleman frogatuko dugun bezala, Einstein eta de Sitterren unibertsoan (8.16) adierazpenetik hauxe dugu:

$$d_P = 3ct. \quad (8.32)$$

Distantzia propio hau  $ct$  baino handiagoa da, argia hurbiltzen zen bitartean unibertsoa (eta distantzia propioak) zabaltzen ari baitzen.

$t$  handitzean horizontearen erradioa handituz doa eta ikusten ez zena ager daiteke. Jakina, ez da bat-batean ikusiko gaurko argitasunarekin,  $a(0) = 0$  denez,  $z = \infty$  lerrakuntzarekin agertzen baita ( $t = 0$  unean existitzen bazen, behintzat; baina, egia esan, muga hurbilago bat jartzen du 9.1 atalean aipatuko dugun azken sakabanatzearen gainazalak). Erlatibilitate berezian, partikula-ren iraganeko argi-konoa da horrelako horizonte bat. Iraganari buruz orain jakin dezakegunari muga bat jartzen dio partikula-horizonteak eta etorkizunean jakin dezakegunari beste muga bat jar diezaiok gertaera-horizonte batek.



8.4 IRUDIA Partikula- eta gertaera-horizonteen eskemak.

### 8.2.2 Gertaera-horizontea

Partikula-horizontea handituz badoa ere, zerbait eredutan, behatzaileak ez ditu inoiz ikusiko gertaera batzuk, gertaera-horizonte kosmologiko bat badago. Egin dezagun (8.30) adierazpenean  $t \rightarrow t_{\max}$  limitea, non  $t_{\max} = \infty$  edo,  $k = 1$  denean, (8.26) ekuaziokoa den:

$$\chi_G \equiv \int_{t_I}^{t_{\max}} \frac{c du}{a(u)}. \quad (8.33)$$

Integral hau finitura bada (eta  $k = 1$  kasuan  $\pi$  baino txikiagoa), ( $t \geq t_I, \chi > \chi_G$ ) gertaeren etorkizuneko argi-konoetatik kanpo egongo da beti behatzailea eta ez du haien berririk inoiz jasoko.

Gogoratu Rindlerren metrikan eta Schwarzschilden soluzioan ere aurkitu genituela gertaera-horizonteak. Ikus adibide kosmologiko bat 8.20 probleman.

## 8.3 Lemaîtreren ereduak (1927–1931)


Friedmannen ereduetan lortzen den unibertsoaren adina laburregia da izarrena ulertzeko (ikus 8.3 eta 8.14 problemak). Gainera, eredu horiek guziak dezeleratuak dira (hau da,  $\ddot{a} < 0$  eta  $q > 0$ ), baina unibertsoaren hedapena azeleratua dela<sup>3</sup> iradokitzen dute 1998tik aurrera egindako Ia motako supernoben behaketek [114].

8.5 irudian erakusten dira Ia supernoba batzuen itxurazko  $m$  magnitudea eta  $z$  lerrakuntza dia-grama logaritmiko batean. Supernoba horien  $M$  magnitude intrintsekoa beti (ia) berdina denez, itxurazko magnitudea distantziaren logaritmoaren proportzionala da,  $m = M + 5 \log_{10}(d_L/10 \text{ pc})$  erlazioaren arabera. Lerro etenak banantzen ditu unibertso azeleratua eta dezeleratua. 7.12 problemaren emaitza erabil daiteke horrelako datuetatik azelerazioa (dezelerazio-parametroaren bidez) kalkulatzeko.

Azelerazio hori azaltzeko, zerbait **energia ilun** proposatu dira<sup>4</sup>, baina hemen kasu errazena aztertuko dugu bakarrik: aldarapena sortzen duena konstante kosmologikoa (hutsaren energiaren dentsitatea izan litekeena) delako hipotesia egingo dugu.

<sup>3</sup>2011ko Nobel saria lortu zuten Saul Perlmutter, Brian Schmidt eta Adam Riess fisikariek «for the discovery of the accelerating expansion of the universe through observations of distant supernovae».

<sup>4</sup>Adibidez, **kintaesentzia** izeneko eremu eskalar bat (edo azken honen baliokidea den  $p_Q = w\rho_Q c^2$  egoera-ekuazioko «fluido» bat) postulatzen da batzuetan: eredu hauetan  $\Lambda = 8\pi G\rho_Q/c^2$  ez da konstantea, denboraren menpekoa baizik.



### 8.5 IRUDIA Ia supernoben itxurazko magnitudeen eta lerrakuntzen arteko erlazioa.

$\Lambda \neq 0$  eginez lortzen diren Friedmannen ereduuen orokorpenak dira hemengoak. Oraindik betetzen da (8.1), presioa zero dela onartzen baitugu; baina (8.2)–(8.3) ekuazioen ordez, honela idazten dira orain (7.58)–(7.59):

$$\frac{\dot{a}^2 + kc^2}{a^2} = -2\frac{\ddot{a}}{a} + \Lambda c^2, \quad (8.34)$$

$$\frac{\dot{a}^2 + kc^2}{a^2} = \frac{8\pi G\rho_0}{3} \left(\frac{a_0}{a}\right)^3 + \frac{\Lambda}{3}c^2. \quad (8.35)$$

Hortaz, eboluzio-ekuazioa

$$H^2 = \frac{8\pi G\rho}{3} + \frac{\Lambda}{3}c^2 - \frac{kc^2}{a^2} \quad (8.36)$$

da eta (8.34) emaitza honen ondorioa da (ikus 8.1 problema).

(8.36) ekuazioan ikusten da  $k = 0, -1$  kasuetan  $\dot{a} \neq 0$  dela beti<sup>5</sup>: unibertsoa hasieran hedatuza badoa, etengabe hedatuko da.  $k = 1$  unibertso itxietan ordea, gerta daiteke uneren batean  $\dot{a} = 0$  izatea. Hori gertatzen bada, hedapena amaituko da orduan eta uzkurtuz hasiko da unibertsoa. Ikus dezagun, hasteko, bi portaera horien arteko muga.

#### 8.3.1 Einsteinen unibertso estatikoa (1917)

4.4 atalean esan bezala, unibertoaren eredu estatiko bat lortzeko sartu zuen Einsteinen konsstante kosmologikoa. Horretarako nahikoa da (8.34)–(8.35) ekuazioetan  $a = a_0$ ,  $\dot{a} = \ddot{a} = 0$  jartzea. Hauxe geratzen zaigu:

$$k = 1, \quad (8.37)$$

$$\Lambda = \Lambda_0 \equiv \frac{1}{a_0^2}, \quad (8.38)$$

$$\rho_0 = \frac{c^2}{4\pi G a_0^2} = \frac{\Lambda_0 c^2}{4\pi G}. \quad (8.39)$$

---

<sup>5</sup>Ohi bezala,  $\Lambda \geq 0$  dela onartzen dugu.

Beraz, sekzio espazialak finituak (baina mugarik gabekoak) dira.


Gaurko baloreen arabera  $\rho_0 \approx 2.4 \times 10^{-30} \text{ g/cm}^3$  (ikus A.3 taula) da eta eta (8.39)-tik lortzen den  $a_0 \approx 2.1 \times 10^{28} \text{ cm}$  eskala-faktorea nahikoa da sekzio espazialean unibertso ikusgai osoa sartzeko. Gainera, (8.38) emaitzatik geratzen zaigun  $\Lambda \approx 2.2 \times 10^{-57} \text{ cm}^{-2}$  konstante kosmologikoa muga esperimentalen barruan dago ( $|\Lambda| \lesssim 10^{-50} \text{ cm}^{-2}$ ). Baino, unibertoaren hedapenaren ebidentziaren kontra egoteaz gain, eredu honek badu beste akats bat, Eddingtonek 1930ean frogatu zuena: unibertso hau ezegonkorra da,  $\Lambda$  konstante kosmologikoaren balioa (edo hastapen-balintzenak) apur bat aldatzen bada,  $a(t)$  ia konstantea izan beharrean, infinitura edo zerora doa, hurrengo atalean eta 8.11 probleman ikusiko dugun bezala.

### 8.3.2 Azterketa kualitatiboa

Defini ditzagun  $x \equiv a/a_0$  eta  $E \equiv -kc^2/a_0^2$ , (8.35) eboluzio-ekuazioa ondoko eran idazteko:

$$\dot{x}^2 + V_e(x) = E, \quad V_e(x) \equiv -\frac{8\pi G\rho_0}{3} \frac{1}{x} - \frac{\Lambda c^2}{3} x^2. \quad (8.40)$$

Problema mekaniko baliokide bat dugu, beraz.



8.6 IRUDIA Lemaîtreren ereduen potentzial eraginkorra.

Erraz frogatzen da potentzial eraginkorra 8.6 irudikoa dela. Mutur bakarra, Einsteinen unibertso estatiko ezegonkorriari dagokion  $(x^*, V^*)$  maximoa da<sup>6</sup>:

$$x^* = \frac{a^*}{a_0} = \left( \frac{4\pi G\rho_0}{\Lambda c^2} \right)^{1/3}, \quad V^* \equiv V_e(x^*) = -\Lambda c^2 x^{*2}. \quad (8.41)$$

$V_e(x) \leq E$  denez,  $a = 0$  baliotik hasten diren eboluzioak bi motatakoak dira (eta Einsteinen unibertso estatiko ezegonkorra dago bien arteko mugan):

- $E < V^*$  bada, hau da,  $k = 1$  eta  $\Lambda < 1/a^{*2}$  direnean, hedapena amaitzen da  $V_e = E$  atzerapen-puntuaren eta gero unibertoa uzkurtuz doa, irudiko (1) soluzioan bezala.
- $E > V^*$  bada, hau da,  $k = 1$  eta  $\Lambda > 1/a^{*2}$  edo  $k = 0, -1$  direnean, etengabe hedatuko da unibertoa, irudiko (2) eboluzioaren antzera.

<sup>6</sup>Soluzio horretan eskala-faktorea konstantea denez,  $a = a^* = a_0$  eta  $x^* = 1$  dugu.

### 8.3.3 De Sitterren unibertsoa

Beste kasu partikular famatua (de Sitterek eta, dirudienez, Levi-Civitak 1917an aurkitu zutena<sup>7</sup>) lortzen da  $\rho = k = 0$  aukerekin, honela idazten baita (8.35):

$$\frac{\dot{a}^2}{a^2} = \frac{\Lambda c^2}{3}. \quad (8.42)$$

Eskuineko gaia konstantea denez, hauxe dugu:

$$\frac{\dot{a}}{a} = H = H_0 = \sqrt{\frac{\Lambda c^2}{3}}, \quad (8.43)$$

$$a = a_0 e^{H_0(t-t_0)}. \quad (8.44)$$

Etengabe hedatzen da unibertso hau, baina ez du  $a = 0$  hasiera singularrik. Bestalde, ez da benetako eredu kosmologiko bat, materiarik gabekoa baita; baina inflazioaren eredurik errazena egiteko erabiliko dugu 9.4 atalean eta hainbat ereduren portaera asintotikoaren hurbilketa da (ikus hurrengo atala).

### 8.3.4 Eddington eta Lemaîtreren ereduak (1927–1931)

Notazioa laburtzeko, honako dentsitate-parametro hauek erabiliko ditugu atal honetan:

$$\Omega_m \equiv \frac{\rho}{\rho_c} = \frac{8\pi G \rho}{3H^2}, \quad \rho_c = \frac{3H^2}{8\pi G}, \quad (8.45)$$

$$\Omega_\Lambda \equiv \frac{\rho_\Lambda}{\rho_c} = \frac{\Lambda c^2}{3H^2}, \quad \rho_\Lambda = \frac{\Lambda c^2}{8\pi G}, \quad (8.46)$$

$$\Omega_k \equiv -\frac{kc^2}{a^2 H^2}. \quad (8.47)$$

Notazio honetan, honela geratzen zaizkigu (8.34)–(8.35) ekuazioak:

$$\Omega_m + \Omega_\Lambda + \Omega_k = 1, \quad (8.48)$$

$$\ddot{a} = aH^2 \left( -\frac{1}{2}\Omega_m + \Omega_\Lambda \right). \quad (8.49)$$

Gaurko aroko  $\Omega_{m0} \equiv \Omega_m(t_0)$ ,  $\Omega_{\Lambda0} \equiv \Omega_\Lambda(t_0)$  eta  $\Omega_{k0} \equiv \Omega_k(t_0)$  parametroak erabiliz, hauxe dugu (ikus 8.12 problema):

$$\Omega_{m0} + \Omega_{\Lambda0} + \Omega_{k0} = 1, \quad (8.50)$$

$$\dot{a}^2 = H_0^2 \left( \Omega_{m0} \frac{a_0^3}{a} + \Omega_{\Lambda0} a^2 + \Omega_{k0} a_0^2 \right), \quad (8.51)$$

$$\ddot{a} = H_0^2 \left( -\Omega_{m0} \frac{a_0^3}{2a^2} + \Omega_{\Lambda0} a \right). \quad (8.52)$$

(Bigarren ekuazioaren deribatua da hirugarrena.)

<sup>7</sup>Bondi eta Golden **egoera egonkorren teorian** erabili zen geroago [55].

Ekuazio hauen soluzioa integral eliptikoen funtzioan idazten bada ere, nahikoa izango da azterketa kualitatiboa egitea, etengabe hedatzen diren unibertsoen kasuetan, hau da,  $k = 0, -1$  edo  $\Lambda > 1/a^{*2}$  dugunean. Izan ere, unibertsoaren eboluzioan hiru aro daudela ikusten da aurreko ekuazioetan.

1. Eztanda handitik hasita,  $a$  txikia den bitartean,  $\dot{a}^2 \sim \Omega_{m0} H_0^2 a_0^3/a$  denez, Einstein eta de Sitterren soluzioaren portaera dugu:

$$a \sim \left( \frac{3}{2} H_0 \sqrt{\Omega_{m0}} t \right)^{2/3}, \quad (a \text{ txikia denean}). \quad (8.53)$$



Gainera,  $-\ddot{a} \sim \Omega_{m0} H_0^2 a_0^3/2a^2$  dezelerazio positiboa txikituz doa, unibertsoa hedatu ahala. Beraz,  $\dot{a}$  txikituz doa eta,  $a$  handitzean, materiaren dentsitatea txikituz doan heinean, konstante kosmologikoari dagokionak konstante irauten du eta, beraz, gero eta eragin handiagoa du.

2. Dezelerazioa oso txikia denean,  $\dot{a}$  ia konstantea da eta,  $\ddot{a} = 0$  denean, eskala-faktoreak inflexio-puntu bat du 8.6 irudiko maximoaren gainetik pasatzean:

$$a^* = a_0 \left( \frac{\Omega_{m0}}{2\Omega_{\Lambda0}} \right)^{1/3}. \quad (8.54)$$

3. Hortik aurrera, unibertsoa azeleratuta dago (gaur neurtzen dugun bezala) eta,  $a$  handia denean,  $\dot{a}^2 \sim \Omega_{\Lambda0} H_0^2 a^2$  dugu eta, beraz, de Sitterren unibertsoaren portaera:

$$a \sim e^{H_0 \sqrt{\Omega_{\Lambda0}} t}, \quad (a \text{ handia denean}). \quad (8.55)$$



### 8.7 IRUDIA Eddington eta Lemaîtreren ereduaren eboluzio kualitatiboa.

8.7 irudian laburten dira eredu hauen eboluzio kualitatiboa.

- (A)  $k = 1 (\Lambda > a^{*2})$  kasua (ikus [10] liburuko 405. or.).
- (B) 8.15 probleman frogatuko dugunez,  $k = 0$  kasua (ikuspuntu kualitatibotik antzekoak dira  $k = -1$  ereduak).
- (C) 8.16 probleman aztertzen da.

(Ikus, gainera, 8.13 problema.) Gaurko datuen arabera (ikus A.3 taula), eskuineko irudiko zirkuluaren dago gure unibertsoa.

### 8.3.5 Unibertsoaren adina

Ohi bezala,  $a(0) = 0$  aukeratzen badugu, (7.42) emaitzak ematen digu unibertsoaren adina:

$$t_0 = \int_0^\infty \frac{dz}{(1+z)H(z)}. \quad (8.56)$$

Bestalde, (7.39) eta (8.51) adierazpenetik lortzen den

$$H^2 = H_0^2 [\Omega_{m0}(1+z)^3 + \Omega_{\Lambda0} + \Omega_{k0}(1+z)^2] \quad (8.57)$$

emaitza integralean ordezkatu ondoren,  $x = (1+z)^{-1}$  aldagai-aldeketa egiten bada, hauxe dugu:

$$t_0 = \frac{1}{H_0} \int_0^1 \frac{x \, dx}{\sqrt{\Omega_{m0}x + \Omega_{\Lambda0}x^4 + \Omega_{k0}x^2}}. \quad (8.58)$$

Sekzio espazial lauaren kasuan,  $k = \Omega_{k0} = 0$  dugunez, integrala erraz egiten da:

$$t_0 = \frac{2}{3H_0\sqrt{\Omega_{\Lambda0}}} \operatorname{arcsinh} \sqrt{\frac{\Omega_{\Lambda0}}{\Omega_{m0}}}. \quad (8.59)$$

(Ikus 8.14 problema.) Gaur egun onartzen diren balioak (ikus A.3 taula) erabiliz, lortzen den adina  $t_0 \approx 1/H_0 \approx 13.7 \times 10^9$  urte da. Horixe da batzuetan aipatzen den unibertsoaren «adina».

## 8.4 Gehiago ikasteko

- Kosmologia ia-ia erlatibilitate orokorrik gabe: [120].
- Konstante kosmologikoa: [59].
- Adina eta distantziak kosmologian: [65].
- Eddington eta Lemaîtreren ereduak azterketa kualitatibo orokorra: [10], 15. gaia; [181].
- Bolumenaren eta goriranzko lerrakuntzaren arteko erlazioa: [10], 413. or.
- Kurbadura espazialaren eboluzioa: [10], 417. or.
- Iturrien kopurua: [15], 266. or.
- Horizonte kosmologikoak: [76]; [84].
- Materia iluna:
  - Teoria: [13], 9. gaia; [15], 327. or.; [20], 101. or. eta 9. gaia; [46].
  - Ebidentzia: [80].
  - Orbitak materia ilunarekin: [44].
  - Materia iluna eta leiar grabitatorioak: [139].
  - Ordezko interpretazioa «Grabitazio Aldatuan»: [144]
- Ia motako supernoben eta azelerazio kosmikoa: [67].

- Ia motako supernoben behaketetatik ondorioztatua: [15], 307. or.
  - Ordezko interpretazio bat: [88].
- Unibertso azeleratua eta energia iluna: [46]; [50]; [114]; [131].
- Kintaesentzia: [20] 102. eta 202. or.
- Kosmologia dimentsio batean: [37].
- Erlatibilitate orokorraren egiaztapen kosmologikoak eta bestelako teoriak: [115].
- Unibertsoaren adina: [15], 315. or.
- Egoera (ia) egonkorren kosmologia: [1], 13.4 atala; [4], 345. or.; [15], 341. or.
- De Sitterren unibertsoa eta AdS metrika: [9], 5.2 atala; [16], 10.5 atala.
- Bikien paradoxa de Sitterren unibertsoan: [52].
- Galaxia batzuen abiadura  $c$  baino handiagoa? Horizonteak: [107]; [123]; [180]; [185].

## 8.5 Problemak

**8.1** Egiaztatu (8.2) ekuazioa (8.3) delakoaren ondorioa dela eta (8.34) emaitza (8.35) ekuazioa-rena. Zergatik da bakarra kasu horietan eboluzio-ekuazio independentea?

**8.2 Kosmologia newtondarra.** Konsidera dezagun hedatzen ari den gas ez-erlatibista, homogeneo eta isotropo bat (mugarik gabekoa, beraz). Partikula bakoitzaren etiketa konstantea,  $\chi$  bektore kohigikor bat izan daiteke, posizioa  $\mathbf{x} = a(t)\chi$  idazteko moduan. Erabili homogeneotasuna eta isotropia, partikula baten higidura-ekuazioa eta energia mekanikoaren kontserbazio-legea honela idazteko:

$$\ddot{a} = -\frac{4\pi G\rho}{3}a, \quad \dot{a}^2 = \frac{8\pi G\rho}{3}a^2 - kc^2.$$

Iruzkina egin emaitzari.

**8.3 Einstein eta de Sitterren unibertsoa.** Egiaztatu (8.14) emaitza eta balioztatu (8.15) adina. Zentzuzkoa al da,  $10^{10}$  urteko izarrak daudela kontuan hartuta? Kalkulatu  $q$  dezelerazioa eredu honetan. Noiz zen arinagoa hedapena?

**8.4** Kalkulatu Friedmannen unibertsoaren adina  $k = 1$  kasuan, gaurko aroko  $q_0$  eta  $H_0$  parame-troen funtzioan.

**8.5** Egiaztatu 8.1.3 ataleko emaitzak eta kalkulatu unibertso horren adina.

**8.6** Frogatu Friedmannen unibertso irekian  $\dot{a}(t) > 0$  dela  $t > 0$  une guztieta.

**8.7 Milneren eredua.** Egiaztatu Friedmannen unibertso irekian  $q_0 = 0$  denean, Minkowskiren espazio-denbora berreskuratzten dela.

*Iradokizuna:* Erabili  $(t, r) \rightarrow (T \equiv t\sqrt{1+r^2}, R \equiv ctr)$  aldagai-alda-keta (edo gogoratu 7.4 pro-blema).

**8.8 Mattig-en formula.** Egiaztatu (8.19) adierazpena eta aurkitu  $k = \pm 1$  balioei dagozkienak.  
*Iradokizuna:* Frogatu,  $k = 1$  kasuan, (7.51) adierazpenean  $r(\chi) = \sin(\phi_0 - \phi)$  dela eta antzeko formula bat dugula  $k = -1$  denean.

**8.9 Diametro angeluarra.** Kalkulatu nola aldatzen den  $z$  lerrakuntzarekin  $D$  diametro propioko objektu baten diametro angeluarra, Einstein eta de Sitterren unibertsoan. Frogatu distantzia bate-tik aurrera handituz doala diametro angeluarra, hasieran  $z$ -rekin (hau da, distantziarekin) txikituz badoa ere. Esan nahi du horrek distantzia horretatik aurrera objektuaren argitasuna handitzen dela teleskopioan? Zer gertatzen da  $k = \pm 1$  kasuetan?

**8.10 Partikula-horizontea.** Frogatu (8.32) adierazpena. Kalkula ditzakezu  $k = \pm 1$  zeinuei da-gozkien emaitzak?

**8.11 Einsteinen unibertso estatikoa.** Saiatu  $\Lambda = \Lambda_0 + \epsilon$  konstantea eta  $a(t) = a_0 + \epsilon b(t)$  egitu-rako soluzioa (8.34) ekuazioan, Einsteinen unibertso estatikoa ezegonkorra dela egiaztatzeko.

**8.12** Egiaztatu (8.48)–(8.52) emaitzak.

**8.13 Dezelerazio-parametroa.** Frogatu Lemaîtreren ereduetan honela idazten dela dezelerazio-parametroa:

$$q = \frac{1}{2}\Omega_m - \Omega_\Lambda.$$

**8.14** Egiaztatu (8.59) adina eta frogatu ondoko moduan ere idatz daitekeela:

$$t_0 = \frac{2}{3H_0\sqrt{\Omega_{\Lambda 0}}} \operatorname{arctanh} \sqrt{\Omega_{\Lambda 0}}.$$

Ondorioztatu  $\Lambda$ -ren funtzi gorakorra dela adina (eta, ondorioz, unibertsoaren adina izarrena baino handiagoa izateko eran aukera daitekeela konstante kosmologikoa).

**8.15** Frogatu Lemaîtreren ereduaren sekzio espaziala laua denean hauxe dela eskala-faktorearen eboluzioa:

$$a = a_0 \left( \frac{1 - \Omega_{\Lambda 0}}{\Omega_{\Lambda 0}} \right)^{1/3} \sinh^{2/3} \left( \frac{3}{2} \sqrt{\Omega_{\Lambda 0}} H_0 t \right).$$

Egiaztatu 8.3.4 ataleko azterketa kualitatiboan aurkitutakoa. Zer gertatzen da  $\Omega_{\Lambda 0} < 0$  bada?

**8.16** Zer da 8.7 irudiko (C) kurba?

**8.17** Frogatu, oro har, hauxe dugula:

$$\frac{\ddot{a}}{a} = \dot{H} + H^2.$$

Kontsidera dezagun berriro Lemaîtreren eredua, sekzio espaziala laua denean. Egiaztatu ondoko moduan idazten direla (8.34)–(8.35) ekuazioak:

$$\begin{aligned} 2\dot{H} + 3H^2 &= \Lambda c^2, \\ 3H^2 - 8\pi G\rho &= \Lambda c^2. \end{aligned}$$

Kalkulatu  $H(t)$  eta  $\rho(t)$ .

**8.18** Friedmannen unibertsitatean  $q_0 = 1$  da. Galaxia baten goriranzko lerrakuntza  $z = 1$  bada, zein zen unibertsoaren adina argia igorri zuenean?

**8.19\*** Gerta liteke argi-izpi bat, unibertsitatea inguratu ondoren, iturrira itzultzea, Friedmannen unibertsitatean?

**8.20 Gertaera-horizontea de Sitterren unibertsitatean.** Kalkulatu gertaera-horizontearen erradio propioa de Sitterren unibertsitatean.

**8.21 Argitasun-distantzia de Sitterren unibertsitatean.** Kalkulatu argitasun-distantzia de Sitterren unibertsitatean.

**8.22 Kurbadura de Sitterren unibertsitatean.** Egiaztatu de Sitterren unibertsitatea kurbadura konsantekoa dela (gogoratu 4.13 problema). Zein da  $K$  kurbadura?

**8.23** Eddington eta Lemaîtreren eredu batean hauxe da metrika:

$$ds^2 = -c^2 dt^2 + \alpha^2 t^{2\beta} (dx^2 + dy^2 + dz^2).$$

Kalkulatu  $\beta$  berretzaile konstantea,  $\Lambda$  konstante kosmologikoa eta  $\rho$  dentsitatea.

**8.24 Diagrama konformeak.** Egin dezagun Friedmannen ereduetan  $dt = a d\tau$  baldintzak definitutako  $t \rightarrow \tau$  aldagai-aldeketa. Marraztu diagrama konformeak  $k = 1$  kasuan. Egiaztatu  $k = 0$  denean lortutako metrika eta Minkowskirena konformeak direla eta, 3.38 problemako aldagai-aldeketa baliatuz, marraztu dagokion diagrama konformeak.


## 9. GAIA

### Unibertso primitiboa

Gaur egungo datuen arabera, aurreko gaian ikusi ditugun eredu kosmologikoek oso ondo deskribatzen dute unibertsoaren eboluzioa —parametroen balio egokiak erabiltzen badira (ikus A.3 taula)—, *hasierako uneetan izan ezik*. Gainera, arazo batzuk dituzte eredu horiek. Hemen aztertzen duguna gaurko kosmologiaren aztergaia da eta sakonki ulertzeko fisika nuklearra eta partikulena behar dira (**astropartikulak** izena erabiltzen da ikerkuntza honen zati bat deskribatzeko). Hemen ideia orokor batzuk aipatzera mugatuko gara eta buruan eduki behar da ideia batzuk (eta, batez ere, zenbaki batzuk) alda daitezkeela etorkizunean.

#### 9.1 Erradiazioa

Azter dezagun erradiazioaren (eskala handiko) dentsitatearen eboluzioa unibertsoa hedatzen den heinean. Dauzkagun datuen arabera, badirudi ekarpen nagusia mikrouhin-hondo kosmikoaren fotoiena dela. COBE eta WMAP sateliteen neurketen arabera,  $T_0 = 2.725 \pm 0.001$  K tenperaturan dagoen gorputz beltzaren espektroa du hondoko erradiazioak.



9.1 IRUDIA COBE sateliteak neurtutako mikrouhin-hondo kosmikoaren espektroa.

Plancken legearen arabera,  $[\nu, \nu + d\nu]$  tartean dauden fotoien energiaren dentsitatea

$$d\varepsilon = \frac{8\pi h}{c^3} \frac{\nu^3 d\nu}{\exp(h\nu/kT) - 1} \quad (9.1)$$

da eta maiztasun guztiako fotoien energiarene dentsitatea honako hau:

$$\varepsilon = \int_0^\infty d\nu = \alpha T^4, \quad \left( \alpha \equiv \frac{\pi^2 k^4}{15 \hbar^3 c^3} \right). \quad (9.2)$$

**1.14** probleman ikusi genuen bezala,  $w = 1/3$  balioari dagokion fluido baten moduan azter daiteke erradiazioa eta (7.67) emaitzaren arabera, honela aldatuko da energiarene dentsitatea eskala-faktorearekin (edo  $z$  lerrakuntzarekin), berriro ere gaur egungo  $t_0$  balioari dagozkion magnitudeak 0 azpiindizeaz idazten baditugu:


$$\varepsilon = \varepsilon_0 \frac{a_0^4}{a^4} = \varepsilon_0 (1+z)^4. \quad (9.3)$$

Emaitza hau eta (9.2) ekuazioa kontuan harturik, honela aldatzen da hondoko erradiazioaren tenperatura:

$$T = T_0 \frac{a_0}{a} = T_0 (1+z). \quad (9.4)$$

Beraz, unibertsoa hedatzen den heinean, erradiazioaren tenperatura txikituz doa eta, alderantzik, iraganerantz joatean,  $a$  txikitzean (eta  $z$  handitzean), tenperatura handituz doa: Eztanda Handi *berro* batetik dator unibertsoa.


Areago,  $a$  handitzean,  $T$  txikituz doa, baina era berean txikitzen da fotoien  $\nu$  maiztasuna (7.38) lerrakuntza grabitatorioaren ondorioz. Beraz, (9.1) banaketaren izendatzalea ez da aldatzen  $a$ -rekin,  $\nu/T$  zatiduraren menpeko hutsa baita. Zenbakitzalean agertzen den menpekotasuna  $\nu^3 d\nu \propto a^{-4}$  da, baina aldi berean elementuaren bolumenarena  $dV \propto a^3$  da eta fotoi bakoitzaren energia  $\propto a^{-1}$ : unibertsoa hedatzean txikituz doan tenperaturari dagokion gorputz beltzaren espektroa da erradiazioarena (ikus 9.3 problema). Nahikoa da, beraz, unibertso primitiboan erradiazioaren eta materiaren arteko elkarrekintza ugarien espektro termikoa sortu izatea, gaur egun neurtzen duguna ere termikoa izateko.



9.2 IRUDIA  $O$  behatzailearen azken sakabanatzearen gainazala.

Eskala-faktorea oso txikia (eta tenperatura oso handia) zenean, fotoiez gain, protoien eta elektroiien plasma batez beterik zegoen unibertsoa, hidrogeno atomoak ionizatzeko gai baitziren energia handiko fotoi ugariak. Fotoiek elektroi askeak jotzean, **Thomson sakabanatzea** izeneko prozesuan, termalizatu egin ziren. Unibertsoa hedatzean hoztu egin zen eta fotoien energia txikitu

eta azkenean ez ziren gai elektroiak atomoetatik ateratzeko. Horrela, gutxi gorabehera 50 000 urteko tarte batean protoiek (eta nukleosintesiak sortutako nukleo arinek) elektroiak harrapatu zituzten, **birkonbinatze** izeneko prozesuan, eta unibertsua garden bihurtu zen, fotoiek ez baitzuten elektroiak kitzikatzeko behar den energia minimoa. Materiaren eta fotoien arteko **banantze** prozesuaren ondoren oztoporik gabe higitzen diren fotoiak, hondoko erradiazioarenak dira (gogoratu 7.1.1 atalean esandakoa) eta  $T \sim 3000$  K zenean askatu ziren: unibertsaren adina 380 000 urte ingurukoa zen orduan eta eskala-faktorea gaur baino mila aldiz txikiagoa ( $z \sim 1100$ , ikus A.3 tau-la, [20] liburuko 5.5. atala eta [46] artikulua). Handik hona hondoko erradiazioa oztoporik gabe higitu denez, orain detektatzen duguna oso urrundik dator, gure galaxian zentratutako gainazal esferiko itzelezko handi batetik. **Azken sakabanatzearen gainazala** deitzen zaio gainazal horri (ikus 9.4 problema).



9.3 IRUDIA Azken sakabanatzea.

## 9.2 Erradiazioak eta materiak menderatutako aroak

Erradiazioaz gain, neutrinoak daude unibertoan. Egun badakigu masa (txikia) dutela, baina ez da erraz neurtzen haien dentsitatea, grabitazioaz gain bakarrik pairatzen dutelako elkarrekintza nuklear ahula. Gaurko datuak A.3 taulan bildu dira. Edozein kasutan, oraingo dentsitate erlatibista (fotoiena gehi neutrinoena:  $\Omega_r = \Omega_\gamma + \Omega_\nu = \varepsilon/\rho_c c^2$ ) materiarena baino askoz txikiagoa da eta horrelakoa izan da unibertoaren historiaren zati handienean, hau da, **materiak menderatutako aroan**: horrexegatik dira erabilgarriak aurreko gaiko ereduak, dentsitate erlatibista hori arbuatzen badute ere. Bestalde, 7.5.2 atalean ikusi genuen bezala, materia arruntaren dentsitatearen eboluzioa  $\Omega_m \sim a^{-3}$  da, baina erlatibistarena  $\Omega_r \sim a^{-4}$ . Ondorioz,

$$\frac{\Omega_r}{\Omega_m} = \frac{\Omega_{r0}}{\Omega_{m0}} \frac{a_0}{a} \approx 3 \times 10^{-4} \frac{a_0}{a} \quad (9.5)$$

dugu eta orain (eta ia-ia unibertoaren bizitza osoan) txikia bada ere,  $a$  eskala-faktorea behar bezain txikia zenean dentsitate erlatibista materiarena baino handiagoa zen: **erradiazioak menderatutako aroa** izan zen. Bi dentsitateak berdinak ziren ondokoa betetzen zenean:

$$a = a_{\text{ber}} \equiv \frac{\Omega_{r0}}{\Omega_{m0}} a_0 \approx 3 \times 10^{-4} a_0, \quad z = z_{\text{ber}} \approx 3300. \quad (9.6)$$

Ageri denez, aurreko ataleko banantza materiak menderatutako aroan gertatu zen, eskala-faktorea honako hau zenean:

$$a_{\text{ber}} = \alpha a_{\text{ban}}, \quad \alpha \equiv \frac{1 + z_{\text{ban}}}{1 + z_{\text{ber}}} \approx 0.3. \quad (9.7)$$

Ekarpen erlatibista kontuan hartuta,  $\Omega_m$ -ren ordez  $\Omega_m + \Omega_r$  jarri behar da (8.48)–(8.51) ekuazioetan:

$$\Omega_{r0} + \Omega_{m0} + \Omega_{\Lambda0} + \Omega_{k0} = 1, \quad (9.8)$$

$$\dot{a}^2 = H_0^2 \left( \Omega_{r0} \frac{a_0^4}{a^2} + \Omega_{m0} \frac{a_0^3}{a} + \Omega_{\Lambda0} a^2 + \Omega_{k0} a_0^2 \right). \quad (9.9)$$

Hemendik zuzenean lortzen da noiz gertatu ziren berdintasuna eta banantza:

$$t_{\text{ber}} = \int_0^{a_{\text{ber}}} \frac{da}{\dot{a}} \approx \frac{2(2 - \sqrt{2})}{3H_0\sqrt{\Omega_{m0}}} \left( \frac{a_{\text{ber}}}{a_0} \right)^{3/2} \approx 45\,000 \text{ urte}, \quad (9.10)$$

$$t_{\text{ban}} = \int_0^{a_{\text{ban}}} \frac{da}{\dot{a}} \approx \frac{2}{3H_0\sqrt{\Omega_{m0}}} \left( \frac{a_{\text{ban}}}{a_0} \right)^{3/2} \left[ 2\alpha^{3/2} + \sqrt{1 + \alpha}(1 - 2\alpha) \right] \approx 380\,000 \text{ urte}. \quad (9.11)$$


(Ikus 9.6 problema.)

## 9.3 Eztanda handi beroaren lehenengo teorien arazoak

Aurreko ataletan aztertutako eredu kosmologikoak, fisikaren beste atalekin batera, oso era-bilgarriak dira unibertoaren eboluzioa ulertzeko; baina arazo batzuk geratzen dira guztiz azaldu gabe. Atal honetan aipaturiko arazoetako batzuk aztertu ondoren, hurrengoan ikusiko dugu gaur egungo kosmologian proposatutako soluzioa: inflazioa.

### 9.3.1 Horizontearen arazoa

Eman dezagun zeruko kontrako norabideetan oso urrun (hau da, sakabanatzearen gainazaletik hurbil) dauden  $A$  eta  $B$  puntuetatik datorren hondoko mikrouhinien erradiazioa neurten dugula Lurrean (9.4 irudiko  $O$  puntuaren). Argia guregana heldu berri denez, ez du astirik izan  $A$ -tik  $B$ -ra joateko: ez da inolako elkarrekintzarik egon bi puntu horien inguruan dauden materiaren eta erradiazioaren artean, fotoiak sortu zirenean puntu bakoitza bestearren partikula-horizontetik kanpo baitzegoen. Baino neurtutako espektroa ez da bakarrik homogeneoa norabide horietako bakoitzaren inguruan: bietatik datozen mikrouhinena ere berdina da. Nola izan daiteke hori?



9.4 IRUDIA Horizontearen arazoaren eskema.

Hondoko erradiazioaren espektro termikoa, unibertsu primitiboan fotoien eta materiaren artean gertatu ziren elkarrekintza ugarien ondorioa da. Baino zergatik da tenperatura berekoa elkarrekintzarik gabeko eskualdeetan? Jakina, agian unibertsua hasieratik zen homogeneoa eta ez dago inolako problemarik; baina hobe litzateke homogeneotasuna sortzen duen prozesuren bat ezagutzea. Horrelakorik ezean, gradu batzuetako distantzia angeluarreko homogeneotasuna espero genuke soilik (ikus 9.7 problema).

### 9.3.2 Lautasunaren arazoa

Azter dezagun kurbaduraren eboluzioa, (8.48) ekuazioaren orokorpenaz baliatuz:

$$|\Omega - 1| = |\Omega_k| = \frac{|k|c^2}{\dot{a}^2}, \quad (9.12)$$

non  $\Omega \equiv \Omega_r + \Omega_m + \Omega_\Lambda$  erabili den. Hauxe dugu materiak eta erradiazioak menderatutako aroetan, 9.5 probleman frogatuko dugun bezala:

$$\text{Erradiazioa: } a \sim t^{1/2}, \quad \dot{a} \sim t^{-1/2}, \quad |\Omega - 1| \sim t, \quad (9.13)$$

$$\text{Materia: } a \sim t^{2/3}, \quad \dot{a} \sim t^{-1/3}, \quad |\Omega - 1| \sim t^{2/3}. \quad (9.14)$$

Egungo datuen arabera  $|\Omega - 1|$  (oso) txikia da, baina, edozein kasutan denboraren funtzio gorakorra denez, askoz ere txikiagoa izan behar zuen unibertsu primitiboan. Gerta liteke hasieratik  $|\Omega - 1| = k = 0$  (hau da, unibertsua espazialki laua) izatea; baina, berriro, nahiago genuke (naturalagoa izango bailitzateke) gaur egun neurten dugun kurbadura txikira heltzea, edozein baldintzetatik hasita ere, prozesu fisikoren baten bidez.

### 9.3.3 Monopoloaren arazoa

Arazo hau partikulen fisikako batasun handiaren teorietatik dator. Teoria horien arabera, unibertsoaren hasierako uneetan, energia handi hartan elkarrekintza elektroahula eta nuklear sendoa bat zirenean, monopolo magnetikoak (eta, agian, bestelako partikula bitxiak) erruz sortu behar izan ziren; baina oraindik ez da monopolorik detektatu. Areago, monopoloen masa oso handia dateke (protoiarena baino  $10^{16}$  aldiz handiagoa!) eta, ondorioz, dentsitate osoa kritikoa baino askoz handiagoa eta unibertsoa bizitza laburrekooa; baina azken hau ez da egia. Gaizki ote daude partikulen teoria horiek? Edo, zerbait falta zaigu eredu kosmologikoetan?

## 9.4 Inflazioa


Goian aipatutako arazoak azaltzeko, inflazioa proposatu zuen Alan Guthek 1981ean<sup>1</sup>. Ideia honen arabera, unibertsoaren lehenengo uneetan ( $10^{-34}$  s baino lehenago edo) unibertsoa oso arin hedatu zen. 160. orrialdean eta 7.18 probleman ikusi genuen bezala,  $\ddot{a} > 0$  azelerazioa lortzeko  $p < -\rho c^2/3$  baldintza bete behar da. Izan ere, inflazioaren eredurik errazena,  $p = -\rho c^2$  egoera-kuazioko konstante kosmologiko bat erabiltzen duena da. Erradiazioaren eta materiaren energiaren dentsitateak  $\varepsilon$  eta  $\rho c^2$  badira eta (7.59) ekuazioa

$$H^2 = \frac{8\pi G}{3} \left( \frac{\varepsilon}{c^2} + \rho \right) - \frac{kc^2}{a^2} + \frac{\Lambda}{3}c^2 \quad (9.15)$$

moduan idazten badugu, inflazioan  $a$  handitzean eskuinean agertzen diren lehenengo bi gaiak txikituz doaz, hirugarrenak konstante dirauen bitartean. Beraz, kontsidera dezagun

$$H^2 = \frac{\Lambda}{3}c^2 \quad (9.16)$$

eredu sinplifikatua,  $H = \sqrt{\Lambda c^2/3}$  konstanteari dagokiona. 8.3.3 atalean aztertu genuen de Sitterren unibertsoa da hau eta, frogatu genuenez, hedapena esponentziala:  $a \propto \dot{a} \propto e^{Ht}$ .



9.5 IRUDIA Inflazioaren eskema.

Hipotesi hauetan, gaur ikusten dugun guztia unibertso primitiboaren zati txiki batean zegoen eta oreka termikora heltzeko aukera izan zuen. Nahiago bada, inflazioaren ondorioz, gaur egun handiak diren distantziak egiteko aukera izan zuen argiak.

Arrazoi beragatik, arin hedatzen zen unibertsoaren gero eta zati txikiagoa zen unibertso ikusgaia eta bere kurbadura txikiagoa, arin hedatzen den gainazal esferiko baten tamaina konstanteko

<sup>1</sup>Andrei Dmitriyevich Linde, Andreas Albrecht eta Paul J. Steinhardt fisikariek egindako ekarpenak ahaztu gabe.

zati baten kurbadurarekin gertatzen den bezala. Izan ere,  $\ddot{a} > 0$  bada, (9.12) ekuazioko  $|\Omega - 1|$  magnitudea txikituz doa (oso arin, gainera, inflazioan). Adibidez, de Sitterren (9.16) unibertsoan  $|\Omega - 1| \propto e^{-2Ht}$  dugu. Izan ere,  $\Omega_0 = 1$  dela izan zen inflazioaren lehenengo aurresanetako bat eta oso bateragarria da gaurko neurketekin.

Era berean, hedapen azeleratuak monopoloen dentsitatea oso arin txikituko luke, tarte labur batean unibertsoaren bolumena modu esponentzialean handitzean.

Baina zero sortu zuen inflazioa? Zer da (9.16) ereduko  $\Lambda$  konstantea? Azpimarratu behar da  $\Lambda$  hau ez dela 8.3 ataleko balio txikia, baizik eta unibertso primitiboaren oso tarte labur batean indarrean egon zen prozesu baten ondorioa. Zoritzarrez, hau idazten denean, ez daukagu erantzun onarturik. Inflazioaren ideia orokorra kosmologo gehienek onartzen badute ere, hainbat teoria proposatu dira inflazioaren mekanismoa (eta nola hasi eta nola amaitu zen) azaltzeko. Gehienak partikulen fisikaren teorian oinarritzen dira nolabait eta askotan **inflatoi** izeneko eremu esklar batez (edo batzuez) baliatzen dira. Irakurle interesatuak [10] eta [20] testuetara jo dezake, adibidez.

## 9.5 Kosmologiaren eredu estandarra

Laburpen modura, bil ditzagun gaur egun kosmologoen artean<sup>2</sup> erabiltzen diren oinarrizko hipotesietako batzuk., baina gogoan eduki behar da guztien egiaztapen esperimentalak ez direla kalitate berekoak. (Ikus [215].)

- Unibertsoa homogeneoa eta isotropoa da eskala handian (printzipio kosmologikoa betetzen da eta FLRW metrika egokia da eskala handian).
- Unibertsoa hedatzen ari da (era azeleratuan, gainera) eta bere adina  $13.7 \times 10^9$  urte inguruoa da.
- Unibertsoa espazialki laua da edo, agian, oso kurbadura espazial txikikoa.
- Horretarako materia eta energia ilunak behar dira. (Horrexegatik, batzuetan,  $\Lambda$ CDM ereduaz<sup>3</sup> hitz egiten da.)
- Energia osoan, energia iluna  $\approx \% 73$  da, materia iluna  $\approx \% 22$  eta materia arrunta  $\approx \% 5$  (ikus A.3 taula).
- Ezegonkortasun gravitacionala nahikoa da unibertsoko eskala handiko egituren sortzea ulertzeko.

9.5 irudian laburtzen da eredu honetako unibertsoaren historia (zenbakiak hurbilduak dira).


## 9.6 Oraindik ez dakiguna

Gauza asko egiteke daude kosmologian (eta astrofisikan eta fisika teorikoaren arlo batzuetan) eta ikerlari asko ari dira horiek egiten saiatzen. Aipa ditzagun gai horietako batzuk.

<sup>2</sup>Bizi-bizirik dauden zientziaren arlo guztieta bezala, denak ez dato bat: ikus, adibidez, <http://www.cosmologystatement.org/>.

<sup>3</sup>*Lambda Cold Dark Matter*, hau da materia iluna ez dela erlatibista onartzen da.

<sup>4</sup>Inflazioari buruzko zenbakiak askotxo aldatzen dira teoria batetik bestera. Ikus, adibidez, [13] liburuko 86. or. eta [20] testuaren 5. gaia.



$0 < t \lesssim 10^{-44} \text{ s}$	Grabitate kuantikoa?
$t \lesssim 10^{-34}-10^{-27} \text{ s}$	Gutxienez $10^{27}$ aldiz handitu zen unibertsoa inflazioaren ondorioz.
$t \gtrsim 10^{-10} \text{ s}$	Azeleragailuetan egiaztatu den fisika.

### 9.6 IRUDIA Unibertsoaren historia<sup>4</sup>.

- Neutrinoen masaren ondorio kosmologikoak.
- Materia ilunaren izaera. Proposamenen artean hauexek aipa daitezke: unibertsoaren haineran sortutako zulo beltzak, MACHO objektuak<sup>5</sup>, kromodinamika kuantikoaren eta supersoken teorien axioiak eta WIMP partikulak<sup>6</sup>. Badaude, gainera, materia ilunik gabeko ordezko teoriak (ikus, adibidez, [144].)
- Zer den energia iluna. Konstantea al da  $\Lambda$ ? Kintaesentzia edo  $K$ -esentzia izan daitezke erantzuna?

<sup>5</sup>MAssive Compact Halo Object.

<sup>6</sup>Weakly Interacting Massive Particle. Teoria supersimetrikoetan agertzen dira, besteak beste.

- Inflazioaren mekanismoa eta egiaztapen esperimentalak.
- Nola sortu zen unibertsoa. Singularitate batetik hasi al zen, erlatibilitate orokor klasikoaren singularitate-teoremek aurresaten duten bezala? Zoritzarrez, ez daukagu grabitazioaren teoria kuantiko onarturik eta ez dakigu, gutxienez  $10^{-43}$  s baino lehenago erabili behar den grabitazio kuantikoak hasierako singularitatea saihesten duen. Batzuek proposatu dute beste unibertso batetik, tunel efektu kuantikoari esker, sortu zela gure unibertsoa. Beste batzuen ustez, espazio eta denborarik gabeko hutsetik fluktuazio kuantikoen ondorioz sortu zen (hau ez lihoake energiaren kontserbazio-printzipioaren kontra, unibertsoaren energia osoa, era egokian definitu behar den energia potentzial grabitatorio negatiboa kontuan har-tuta, nulua balitz, eredu batzuetan gertatzen den bezala).
- Badaude bestelako dimentsioak (edota beste unibertsoak), teoria batzuetan onartzen den moduan?

## 9.7 Gehiago ikasteko

- Hondoko mikrouhinen erradiazio kosmikoa: [20], 8. gaia; [25], 506. or.
- Behaketa-datuak: [10], 459. or.; [13], AT6; [15], 17. gaia.
- Bariogenesia eta nukleosintesia: [13], AT4; [15], 277. or.; [20], 139. or.; [25], 15. gaia; [46].
- Unibertsoaren historia termikoa: [20], 5. gaia; [25], 528. or.
- Banantze prozesua: [13], 78. or.; [15], 292. or.
- Egituren sortzea: [13], AT5; [20], 9. gaia; [25], 15. gaia; [46].
- Neutrinoen kosmologia: [13], AT3.
- Inflazioa: [10], 16. gaia; [20], 7. gaia eta 271. or.
  - Argiaren abiadura  $c$  da, ez al da?: [85].
  - Aldarapen grabitatorioa: [103].
  - Hutsaren polarizazioa: [167].
  - Adibide bat: [87].
- Unibertsoaren hedapenari buruzko teoriak: [54].
- Bestelako teoriak: [15], 18. gaia; [25], 459. or. eta 16. gaia.
  - Plano erlatibista infinitua: [118].
  - Espazioaren lautasuna inflaziorik gabe: [34].
- Singularitate-teoremak: [9] (aurreratua).
- Kosmologia eta leiar grabitatorioak: [111].

## 9.8 Problemak

**9.1** Kalkulatu mikrouhin-hondo kosmikoaren fotoien banaketaren maximoaren energia eta batez bestekoa.

**9.2** Erabili A.3 taula, fotoien eta materia arruntaren zenbaki-dentsitateen arteko erlazioa (hau da, volumen unitatean dauden fotoien eta barioen kopuruaren arteko erlazioa) kalkulatzeko. Zer gertatzen da energiaren dentsitateekin? Iruzkina egin emaitzari.

**9.3** Egiaztatu  $T$  tenperaturan erradiazioaren dentsitatea (9.1) baten iraganeko uneren batean, gaur honako hau dela:

$$d\varepsilon = \frac{8\pi h}{c^3} \frac{\nu^3 d\nu}{\exp(h\nu/kT_0) - 1},$$

non  $T$  eta  $T_0$  tenperaturen arteko erlazioa (9.4) den.

**9.4** Zenbatetsi azken sakabanatzearen gainazalaren erradioa.

**9.5** Egiaztatu  $k = \Lambda = 0$  egiten denean materiak menderatutako unibertsoan  $a \propto t^{2/3}$  dugula eta erradiazioak menderatutakoan  $a \propto t^{1/2}$ .

**9.6\*** Egiaztatu (9.10) eta (9.11) emaitzak.

**9.7\*\*** Konsideratu dentsitate kritikoko unibertso bat. Kalkulatu Eztanda Handitik banantzera argiak egin zuen distantzia maximoa. Zein da distantzia hori gaur egun, unibertsoaren hedapenak luzatu ondoren. Azken sakabanatzearen unean distantzia horretara dauden bi puntutatik datozen mikrouhinak Lurrean neurtzen badira, nolakoa da haien arteko distantzia angeluarra? Iruzkina egin emaitzari.

**9.8 Eremu eskalarra eta inflazioa.** Eman dezagun eredu batean fluido kosmologikoa 1.22 problemako eremu eskalarrari dagokiona dela.

(a) Egiaztatu honela idazten direla (7.59)–(7.60) eboluzio-ekuazioak,  $V' \equiv dV/d\phi$  eta  $\dot{\phi} \equiv \phi_{,0}$  notazioaz:

$$\begin{aligned} H^2 &= \frac{8\pi G}{3c^2} \left( \frac{1}{2}\dot{\phi}^2 + V \right), \\ \ddot{\phi} + 3H\dot{\phi} + V' &= 0. \end{aligned}$$

(b) Egiaztatu hedapena azeleratua dela  $\dot{\phi}^2 < V(\phi)$  denean.

(c) Frogatu  $\dot{\phi}^2 \ll V(\phi) \approx$  konstantea bada, hedapena esponentziala dela.

## **Eranskinak**



## A ERANSKINA

### Datu-taulak eta bestelako informazioa

Sarreran esan bezala, *cgs unitate-sistema erabiltzen da liburu honetan*. Hala ere, «km» era-biltzen dugu komeni denean eta, segundoa adierazteko, askotan ikusten den «sec» notazioaren ordez, «s» estandarra idazten dugu.

Konstantea [216]	Ikurra	Balioa	(unitateak)
Argiaren abiadura hutsean	$c$	29 979 245 800	$\text{cm s}^{-1}$
Newtonen grabitazio-konstantea <sup>1</sup>	$G$	$6.67 \times 10^{-8}$	$\text{cm}^3 \text{g}^{-1} \text{s}^{-2}$
Plancken konstante laburtua	$\hbar$	$1.054\,572 \times 10^{-27}$	$\text{g cm}^2 \text{s}^{-1}$
Oinarrizko karga	$e$	$4.803\,204 \times 10^{-10}$	$(\text{g cm}^3 \text{s}^{-2})^{1/2}$
Boltzmannen konstantea	$k$	$1.380\,650 \times 10^{-16}$	$\text{erg K}^{-1}$

A.1 TAULA Konstante fisikoak.

Izena	Balioa	Oharrak
Unitate astronomikoa	$1 \text{ ua} = 1.495\,978\,707 \times 10^{13} \text{ cm}$	AU ikurra erabiltzen da askotan
Argi-urtea	$1 \text{ ly} = 0.946\,053\,707 \times 10^{18} \text{ cm}$	$\approx 0.306\,6 \text{ pc}$
Parseca	$1 \text{ pc} = 3.085\,677\,580 \times 10^{18} \text{ cm}$	$\approx 3.262 \text{ ly}$

A.2 TAULA Astronomia-unitateak.

<sup>1</sup>Newtonen konstantea  $G_N$  ikurraz adierazten da zenbait testuingurutan.

Parametroa [215]	Ikurra	Balioa
Hubbleren parametroa	$H_0$ $h$	$100 h \text{ km s}^{-1} \text{ Mpc}^{-1}$ $h/9.777\ 752 \text{ Gyr}^{-1}$ 0.7
Dentsitate kritikoa $= 3H_0^2/8\pi G$	$\rho_{c0}$	$1.878 \times 10^{-29} h^2 \text{ g cm}^{-3}$
Erradiazioaren dentsitatea $= \rho_{\gamma 0}/\rho_{c0}$	$\Omega_{\gamma 0}$	$2.47 \times 10^{-5} h^{-2} \approx 4.8 \times 10^{-5}$
Materiaren dentsitatea $= \rho_{m0}/\rho_{c0}$	$\Omega_{m0}$	$0.133 h^{-2} \approx 0.27$
Barioien dentsitatea $= \rho_{b0}/\rho_{c0}$	$\Omega_{b0}$	$0.0225 h^{-2} \approx 0.045$
Materia ilunaren dentsitatea	$\Omega_{dm0}$	$0.112 h^{-2} \approx 0.22$
Energia ilunaren dentsitatea $= \rho_{\Lambda}/\rho_{c0}$	$\Omega_{\Lambda 0}$	0.73
Neutrinoen dentsitatea $= \rho_{\nu 0}/\rho_{c0}$	$\Omega_{\nu 0}$	$< 0.05$
Dentsitate osoa $= \Omega_{m0} + \dots + \Omega_{\Lambda 0}$	$\Omega_{\text{tot}}$	$1.002 \pm 0.011$

A.3 TAULA Parametro kosmologikoak.

## B ERANSKINA

### Problemen soluzioak

#### 1. GAIA

**1.1**  $x^{0'} = \gamma(x^0 - \boldsymbol{\beta} \cdot \mathbf{x}) + ct'_0, \quad \mathbf{x}' = \mathbf{x} + \left( \frac{\gamma - 1}{\beta^2} \boldsymbol{\beta} \cdot \mathbf{x} - \gamma x^0 \right) \boldsymbol{\beta} + \mathbf{x}'_0.$

**1.2**  $\left( \Lambda_{\nu}^{\mu'} \right) = \begin{pmatrix} \gamma & -\gamma\beta_x & -\gamma\beta_y & -\gamma\beta_z \\ -\gamma\beta_x & 1 + \alpha\beta_x^2 & \alpha\beta_x\beta_y & \alpha\beta_x\beta_z \\ -\gamma\beta_y & \alpha\beta_x\beta_y & 1 + \alpha\beta_y^2 & \alpha\beta_y\beta_z \\ -\gamma\beta_z & \alpha\beta_x\beta_z & \alpha\beta_y\beta_z & 1 + \alpha\beta_z^2 \end{pmatrix}, \quad \alpha \equiv \frac{\gamma - 1}{\beta^2}.$

**1.3** Nahi bezain txikia, baina positiboa.

**1.4**  $L = -mc^2\sqrt{1 - \frac{\mathbf{v}^2}{c^2}} = -mc^2 + \frac{1}{2}m\mathbf{v}^2 + \mathcal{O}\left(\frac{\mathbf{v}^4}{c^4}\right).$

**1.5**  $\beta = \frac{(1+z)^2 - 1}{(1+z)^2 + 1}.$

**1.8**  $\nu.$

**1.9**  $a^{\mu} = \left( \gamma^4 \frac{\mathbf{v} \cdot \mathbf{a}}{c}, \gamma^2 \mathbf{a} + \gamma^4 \frac{\mathbf{v} \cdot \mathbf{a}}{c^2} \mathbf{v} \right), \text{ non } \mathbf{a} \equiv \frac{d\mathbf{v}}{dt} = \frac{d^2\mathbf{x}}{dt^2} \text{ den.}$

**1.10** (d)  $m = m_0 \left( \frac{1 - v/c}{1 + v/c} \right)^{c/2u}.$

**1.11** 7.2'' mende batean.

**1.16** (c)  $\Phi(t, \mathbf{x}) \rightarrow \Phi(t, \mathbf{x}) - \frac{1}{c} \frac{\partial \Lambda}{\partial t}$  eta  $\mathbf{A}(t, \mathbf{x}) \rightarrow \mathbf{A}(t, \mathbf{x}) + \nabla \Lambda.$  (f) Ez,  $A_{\mu}$  eta  $A_{\mu} + \Lambda_{,\nu}$  baliokideak dira  $\square^2 \Lambda = 0$  bada.

$$\begin{aligned} \mathbf{1.18} \quad & {}^*F_{\mu\nu} = \begin{pmatrix} 0 & B_x & B_y & B_z \\ -B_x & 0 & E_z & -E_y \\ -B_y & -E_z & 0 & E_x \\ -B_z & E_y & -E_x & 0 \end{pmatrix}, \quad {}^*F^\mu{}_\nu = \begin{pmatrix} 0 & -B_x & -B_y & -B_z \\ -B_x & 0 & E_z & -E_y \\ -B_y & -E_z & 0 & E_x \\ -B_z & E_y & -E_x & 0 \end{pmatrix}, \\ & {}^*F^{\mu\nu} = \begin{pmatrix} 0 & -B_x & -B_y & -B_z \\ B_x & 0 & E_z & -E_y \\ B_y & -E_z & 0 & E_x \\ B_z & E_y & -E_x & 0 \end{pmatrix}. \end{aligned}$$

**1.19**  $F_{\mu\nu}F^{\mu\nu} = 2(\mathbf{B}^2 - \mathbf{E}^2)$  eta  ${}^*F_{\mu\nu}F^{\mu\nu} = 4\mathbf{E} \cdot \mathbf{B}$ . Biak dira zero uhin elektromagnetiko lauen kasuan.

**1.20**  $T^\mu{}_\mu = 0$ .

**1.21** (a) Behatzaile inertzial guztiak neurtutako energiaren dentsitatea ez dela negatiboa.

**1.22**  $V' \equiv dV/d\phi$  eta  $\dot{\phi} \equiv \phi_{,0}$  notazioaz,

$$\begin{aligned} -\square^2 \phi + V'(\phi) &= 0, & \rho c^2 &= \frac{1}{2}\dot{\phi}^2 + V, \\ -\square^2 \phi + \frac{m^2 c^2}{\hbar^2} \phi &= 0, & p &= \frac{1}{2}\dot{\phi}^2 - V. \end{aligned}$$

## 2. GAIA

**2.2**  $N_z = a_x r_1 m_{1i} \frac{m_{2g}/m_{2i} - m_{1g}/m_{1i}}{a_z/g - m_{2g}/m_{2i}}$ ,  $a_x \mathbf{i} + a_z \mathbf{k} \equiv R_\oplus \omega^2 \cos \lambda (\sin \lambda \mathbf{i} + \cos \lambda \mathbf{k})$ .

**2.4**  $\Delta t \approx 40$  eta  $50\,000$  urte.  $m \lesssim 4 \times 10^{-5} m(0)$ .

**2.6**  $\pm c \left( 1 + \frac{gx'}{c^2} \right)$ .

**2.7**  $x' = -g^2/c$  lerroan eta  $\tau \rightarrow \pm\infty$  limiteetan. Ikus B.1 irudia:  $x' = \frac{x}{\cosh g\tau/c} - \frac{c^2}{g}$ .

**2.8**  $\frac{dx}{dt} = \frac{gt}{\sqrt{(1 + \frac{gx'}{c^2})^2 + \frac{g^2 t^2}{c^2}}}, \quad \frac{dx'}{d\tau} = -\frac{gx}{c} \operatorname{sech} \frac{g\tau}{c} \tanh \frac{g\tau}{c}$ .


**2.9**  $\tau \approx t$ ,  $x \approx x(0) + \frac{1}{2}gt^2$ ,  $x' \approx x'(0) - \frac{1}{2}gt^2$ .

**2.10**  $\tau = \frac{c}{g} \operatorname{arcsinh} \left| \frac{c^4 - g^2 x^2}{2gc^2 x} \right|$ ,  $t = \left| \frac{c^4 - g^2 x^2}{2g^2 c x} \right|$ ,  $\nu' = \frac{gx}{c^2} \nu$ .

**2.12**  $r \equiv \sqrt{x^2 + y^2}$  erabiliz,

$$d\sigma^2 = \frac{(x \, dx + y \, dy)^2}{r^2} + a^2 \sin^2 \frac{r}{a} \frac{(x \, dy - y \, dx)^2}{r^4} = (dx^2 + dy^2) - \frac{(x \, dy - y \, dx)^2}{3a^2} + \dots$$

**2.15**  $\Gamma_{\varphi\varphi}^\theta = -\sin \theta \cos \theta$ ,  $\Gamma_{\theta\varphi}^\varphi = \Gamma_{\varphi\theta}^\varphi = \cot \theta$  eta beste guztiak nuluak. Geodesikoak zirkunferentzia maximoak dira.



B.1 IRUDIA 2.7 problemaren soluzioa.

**2.16** Koefiziente ez-nuluak honako hauek (eta simetrikoak) dira ( $x^0 = ct, r, \theta\varphi$ ) koordenatuetan:

$$\begin{aligned}\Gamma_{0r}^0 &= \frac{r_s}{2r^2\Delta}, & \left(\Delta \equiv 1 - \frac{r_s}{r}\right), \\ \Gamma_{00}^r &= \frac{r_s\Delta}{2r^2}, & \Gamma_{rr}^r = -\frac{r_s}{2r^2\Delta}, & \Gamma_{\theta\theta}^r = -r\Delta, & \Gamma_{\varphi\varphi}^r = -r\Delta \sin^2 \theta, \\ \Gamma_{r\theta}^\theta &= \frac{1}{r}, & \Gamma_{\varphi\varphi}^\theta = -\sin \theta \cos \theta, & \Gamma_{r\varphi}^\varphi = \frac{1}{r}, & \Gamma_{\theta\varphi}^\varphi = \cot \theta.\end{aligned}$$

**2.17** Atomo baten diametroa, gutxi gorabehera.

**2.19**  $x_0, y_0, z_0, \dot{x}_0, \dot{y}_0, \dot{z}_0$  konstanteekin:

$$\begin{aligned}x &= (x_0 + \dot{x}_0 t) \cos \omega t + (y_0 + \dot{y}_0 t) \sin \omega t, \\ y &= -(x_0 + \dot{x}_0 t) \sin \omega t + (y_0 + \dot{y}_0 t) \cos \omega t, \\ z &= z_0 + \dot{z}_0 t.\end{aligned}$$

$$\text{2.20 } ds^2 = - \left(1 - \frac{\omega^2 \rho^2}{c^2}\right) c^2 dt^2 + 2\omega \rho^2 dt d\varphi + d\rho^2 + \rho^2 d\varphi^2 + dz^2. \quad \varphi \rightarrow \varphi - \omega t.$$

**2.21** Egun batean, sateliteetako erlojuen aurrerapena  $-7 \mu s$  da (atzerapena, beraz) denboraren zabalkuntzaren ondorioz eta  $46 \mu s$  lerrakuntza grabitatorioaren ondorioz.

## 3. GAIA

**3.1**  $\delta_\mu^\mu = N$ .

**3.9**  $\sigma' = a\sigma + b$ , ( $a$  eta  $b$  konstanteak dira).

**3.10** Lehenengo emaitza ez da aldatzen eta bigarrena  $|\mathbf{p}| = -p_\mu u_B^\mu / c$  moduan geratzen da.

**3.11** Fotoaren momentua  $p^\mu$  bada,

$$\frac{\nu_I}{\nu_D} = \frac{p_\nu(x_I)u_I^\nu(x_I)}{p_\mu(x_D)u_D^\mu(x_D)} \stackrel{(I \text{ eta } D \text{ geldiak})}{=} \frac{p_0(x_I)}{p_0(x_D)} \sqrt{\frac{g_{00}(x_D)}{g_{00}(x_I)}} \stackrel{(g_{\mu\nu,0}=0)}{=} \sqrt{\frac{g_{00}(x_D)}{g_{00}(x_I)}}.$$

**3.12** Denbora motakoa bada,  $\sigma = a\tau + b$  ( $a$  eta  $b$  konstanteak dira). Espazio motakoa denean,  $\sigma = as + b$ ,  $s \equiv \int \sqrt{ds^2}$ .

**3.14** (c)  $\xi^\mu = (1, 0, 0, 0)$  eta  $(0, 0, 0, 1)$ .

(d)  $\xi^\mu = (1, 0, 0, 0), (0, 1, 0, 0), (0, 0, 1, 0), (0, 0, 0, 1)$ ,

$(0, y, -x, 0), (0, 0, -z, y), (0, z, 0, -x), (x, ct, 0, 0), (y, 0, ct, 0, 0), (z, 0, 0, ct)$ .

**3.15**  $R^\mu_{\nu\rho\sigma} = 0$ .

**3.18** ( $x^0 = ct, r, \theta, \varphi$ ) koordenatuetan,  $\Delta \equiv 1 - \frac{r_S}{r}$  definizioarekin,

$$\begin{aligned} R_{0r0r} &= -\frac{r_S}{r^3}, & R_{0\theta 0\theta} &= \frac{r_S \Delta}{2r}, & R_{0\varphi 0\varphi} &= \frac{r_S \Delta \sin^2 \theta}{2r}, \\ R_{r\theta r\theta} &= -\frac{r_S}{2r\Delta}, & R_{r\varphi r\varphi} &= -\frac{r_S \sin^2 \theta}{2r\Delta}, & R_{\theta\varphi\theta\varphi} &= rr_S \sin^2 \theta. \end{aligned}$$

**3.24** Lauak lehenengoa, bigarrena eta,  $f(x) = Ae^{Bx}$  denean, laugarrena.

**3.25** Bigarrena da laua eta transformazioa  $(ct, x) \rightarrow (ct - x, x)$ , adibidez.

**3.26**  $x = X + \frac{1}{2}at^2$ .

**3.27** Adibidez, honela idatzi behar dira:

$$\begin{aligned} T^{\mu\nu}_{;\nu} &= (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\nu u^\mu_{;\nu}, \\ T^{\mu\nu}_{;\nu} &= (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\sigma u^\mu_{;\sigma}, \\ (\rho u^\nu)_{;\nu} u^\mu + \rho u^\nu u^\mu_{;\nu} &= (\rho u^\lambda)_{;\lambda} u^\mu + \rho u^\rho u^\mu_{;\rho}, \\ R &\equiv R^{\mu\nu}_{\mu\nu}, \\ R^{\mu\nu}_{\mu\nu} &= R^{\rho\sigma}_{\rho\sigma}. \end{aligned}$$

**3.29** Bai.

**3.30**  $a \rightarrow \infty$  limitean berreskuratzen da espazio laua.

**3.31**  $R_{\mu\nu\rho\sigma} = 0$ .

**3.32** Oro har, ez; baina ikus 7.5.1 atala.

**3.34**  $S = 4\pi a^2$ ,  $V = 2\pi^2 a^3$ .

**3.35**  $\sqrt{\frac{Du_\mu}{d\tau} \frac{Du^\mu}{d\tau}} = -u \frac{\dot{m}}{m}$ .

